

zaharrak



Nafarroako
Parlamentuarentzako
txosten berezia

**Nafarroako zaharren
mendekotasunari aurre
agiteko laguntza**



Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa

Nafarroako Parlamentuarentzako
txosten berezia

NARARROAKO ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA



**Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra•Nafarroa**

Izenburua: Nafarroako hirugarren adinarendako arretari buruzko txosten berezia

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa

© 2005eko

Diseinua-maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Imprimatzailea: Line Grafic, S.A.

Lege-gordailua:

aurkibidea

1. SARRERA	13
2. PERTSONA ZAHARREI BURUZKO KONTZEPTUA ETA DEFINIZIOAREN ONDORIOAK	19
3. ZAHARREN MENDEKOTASUNA	29
4. GIZARTE BILAKAERA ETA MENDEKOTASUNA HIRUGARREN ADINEAN	29
5. ADINEKO PERTSONEI ARRETA NAFARROAN	51
5.1. Sarrera	51
5.2. Adineko pertsonak nafarroan. Azterketa demografikoa	52
5.2.1. Populazioa Nafarroan eta Espainian	52
5.2.1.1. Bizi-itxaropena	54
5.2.1.2. Populazioaren egitura orokorra	56
5.2.1.3. Populazioaren banaketa adin eta sexuaren arabera	58
5.2.2. Populazioaren zahartzea Nafarroan	60
5.2.2.1. Adinekoak sexu eta adinaren arabera	61
5.2.2.2. Zahartzea eta gainzahartzea	63
5.2.2.2.1. Zahartzea, Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera	64
5.2.2.2.2. Zahartzea, Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera	68
5.2.2.3. Adinekoen egoera zibila	70
5.2.2.4. Ikasketa-maila	74
5.2.2.5. Adinekoen bizikidetzak erak	81
5.2.3. Adineko pertsonen osasun egoera	84
5.2.3.1. Minusbalotasunak eta ezintasunak	86
5.2.4. Zahartzaroaren ezaugarriak aipagarrienak Nafarroan	93
5.3. Mendekotasun egoeran dauden adinekoendako arreta sistema	96
5.3.1. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua: udal-prestazioak eta diru-laguntzak	102
5.3.1.1. Onuradunak eta estaldura-mailak	103
5.3.1.2. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua: zuzeneko laguntza	106
5.3.1.2.1. Ordenantzen azterketa	108
5.3.1.3. Diru-laguntza	110
5.3.1.4. Kasuen adierazpena	114
5.3.2. Zahar-etxeak, Eguneko zentroak eta Eguneko egonaldiak	117
5.3.2.1. Zahar-etxeak	117
5.3.2.2. Eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak	124
5.3.2.3. Itxaron-zerrendak	127
5.3.2.3.1. Itxaron-zerrenda ezberdinen kudeaketa	129

5.3.2.4. Zahar-etxeetako egonaldien eta eguneko arretaren finantzaketa publikoa	135
5.3.2.4.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren hirugarren adinarendako zentro berekietako edo itunduetako erabiltzaileen diru-ekarpena	136
5.3.2.4.2. Administrazioaz besteko zahar-etxeetako erabiltzaileendako prestazio ekonomikoak	141
5.3.2.4.3. Bermeak eratzea	151
5.3.2.4.4. Defizit-laguntza	153
5.3.2.4.5. Zenbateko ezberdinak eta araudia	154
5.4. Funtzionamendua eta antolaketa	155
5.4.1. Kalitatezko gutxieneko betekizunak	157
5.4.1.1. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua	157
5.4.1.2. Zahar-etxeak	158
5.4.1.2.1. Eraikuntzako gutxieneko betekizunak	159
5.4.1.2.2. Langileak	162
5.4.1.2.3. Zahar-etxeen barne-funtzionamenduaren betekizunak	168
5.4.1.2.4. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Ikuskapen Zerbitzua	171
5.4.1.2.5. Kalitatearen kudeaketa	174
5.4.2. Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak	180
5.4.2.1. Zahar-etxeetako partaidetza sistema	180
5.4.2.1.1. Erabiltzaileei eta erabiltzaile/entitate harremanari buruzko bestelako arautzeak	190
5.4.3. Zahar-etxea instituzio oso gisa	193
5.5. Ikerketa-metodologia	196
5.6. Ondorioak	199
5.6.1. Gogoeta orokorrak	199
5.6.1.1. Kalitatea eta informazio falta	200
5.6.1.2. Adinekoendako hornikuntzen arteko desorekak	202
5.6.1.3. Zahar-etxeetako langileak	203
5.6.1.4. Partaidetza	204
5.6.1.5. Kalitatearen kultura sustatzea, hobekuntzako tresna gisa	204
5.6.1.6. Ikuskapen zerbitzua	204
5.6.2. Etorkizuneko joerak	205
5.6.2.1. Biztanleen etengabeko zahartzea	205
5.6.2.2. Mendekotasunaren babes sistema baten eratzea	206
5.6.2.3. Adineko berriak	207

Bibliografia	211
Eranskinak	
1. Eranskina. Erabilitako araudia	217
2. Eranskina. Alemaniako zahar etxeei buruzko legearen laburpena (Heimgesetz)	221
3. Eranskina. Nafarroako adinekoen ugarriak. TAULAK	233
Taulen arkibidea	259
6. IRABAZI ASMORIK GABEKO EGOITZAK NAFARROAN	273
7. ESPARRU PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA	285
8. NAFARROAKO ARARTEKOAK HARTUTAKO KEXARIK NABARMENEN LABURPENA	289
9. ZAHARREN BABESA ANTOLAMENDU JURIDIKOAN	325
10. ONDORIOAK	377
11. GOMENDIOAK	389
12. BIBLIOGRAFIA	397
13. ZAHARRAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN	401

1. sarrera

1. SARRERA

EFEKTU BEREZIAK

Lau urte eman ditugu ia hainbat zahar egoitzetako errealitatearen berri zuzenean izateko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, berriz, urtebete eman du ia ikerketan. Ondorioz, hutsala litzateke zaharren egoitzetako laguntza erdipurdikoa dela esatea, baita udal egoitzaren batean ehunka inurri bertako botika kutxaren inguruan igeri zebiltzala gogoraraztea ere; halaber, gogoan izan beharra dago zaharrentzako laguntza ez dela ematen zaharrak aireztatu gabeko eta sokaz lotutako atedun logeletan itxiz.

Aurreko hiru baieztapen horiek egia dira, baina askoz ere errealitate zabal eta konplexuagoari buruzko bat-bateko zertzeladak baino ez dira, krudelak iruditzen zaizkigun arren antzematen ditugunean. Egiakotasun hori XIX. mendeko Espainia zahar eta iluneko laguntzaren sinbologiatzat erabil liteke, baina XXI. mende zehaztugabe honetako laguntzaren sinbologiatzat erabili beharrean gaude, errealitateari buruzko zertzelada horiek Parlamentuarentzako Txosten Bereziaren benetako helburua bestera lezaketen arren.

Txosten Bereziak berak nabarmendu duenez, zaharrentzako laguntzaren egitura oso konplexua da Espainian eta, hortaz, baita Nafarroan ere. Batetik, oinarri duen historiaren aldetik da konplexua; hain da konplexua, laguntzarik eza bihurtzen da zenbait egoitzatan eta egoera kolektibotan, edo zenbait kolektibo espezifiko direla eta. Bestetik, oinarri duen, edo oinarri duela dioen, itxurapen juridikoaren aldetik da konplexua. Azkenik, errealitatearen aldetik da konplexua, egiaztatutako errealitate horretako elementuak sakon aldatu beharrean, beste iragazki bat ezartzen delako eskariaren, politikak erakunde ekonomikoen gainean duen kontrolaren eta ekimen pribatuaren arabera; hain zuzen ere, ekimen pribatuak erabakitzen du nola eta noiz hartu behar duen esku paisaia berri horretan.

Efektu berezi horiek garrantzi handia dute egiazko errealitate horren bilakaeran, eta oinarria esparru orokor berriaren arabera behar bezala egokitzea eragotziko dute seguru asko.

Administrazio publikoen ardura esparruaren inguruko ikuskera ere konplexua da. Mendekotasunaz ari garelarik, jakin badakit ahaztuta ere egon litezkeen banakako eta taldekako egoerak sartzen direla kontzeptu horren barruan, baita gizarte ekimenaren ikuspegitik parte hartze aktiboagoa dagoen beste egoera batzuk ere. Hala ere, mendekotasunaz ari garenean, zaharren irudia azalratzea ez da narrazioaren efektu berezia; aitzitik, beste pertsona eta zerbitzu batzuen mende dagoen herritar kopururik handiena da, dela fisikoki, dela psikikoki.

Hasierari lotuko natzaio, hau da, errealitateari buruzko hainbat zertzeladari garrantzia kendu diodan zatiari. Izan ere, honako hauen iritzia berretsi nahi dut, alegia, administrazio publiko guztiek betidanik sakratutzat izan dugun gizarte ongizatea saihestu dutela diotenena, zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza gure herriaren historia sozialeko ongintzaren mende utzi nahian; karitatea izan da ongintza horretako buru gogotsua. Zaharrak mendekotasun egoeran dauden herritar kopururik handiena izanik, nabarmen baino nabarmenagoa da baztertuta daudela, baita gaur egun ere, pentsioen inguruko alderdiei dagokienez izan ezik. Nahikoa da gaur egun ere zaharrentzako laguntza sarearen oinarria osatzen duten irabazi asmorik gabeko egoitzetara hurbiltzea, honako hauetaz ohartzeko, alegia, oraindik ere alferrikako kudeaketa eta erantzun gabeko beharrak izango ditugula urteetan, Foru Administrazioaren lehentasunak ez datozela bat Nafarroako geografiak eta biztanleriak behar duenarekin, eta zaharrei buruzko pantailarik handiena eraiki eta bertan beharrezko efektu berezi guztiak proiektatzeko asmo tinkoa dagoela, dekoratuak bere horretan jarraitzen duen artean.

Behin eta berriro errepikatuko dut antzematen dugun errealitatea konplexua dela. Hain zuzen ere, banakako zenbait egoeraren larritasunak eta taldekako hainbat egoeraren gainean esku hartu ez izanak ekarri zuten Txosten Berezia osatzeko erabakia ia duela lau urte, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ezin estimatuzko laguntzari esker amaitu duguna. Txostenaren eta gure irizpidea ondorioen eta gomendioen bitartez adieraztearen helburua presazkoa denari berehala heltzea da; beharrezkoa den plangintza egitea, ezinbestekoa delako; zaharren mendekotasunari aurre egiteko edozein ekimen koordinatu sustatzea, litekeena delako baliabideak nahikoak izatea baina

lehentasunak ezartzen dituen borondateak beste bide batetik jotzea; eta sistema osoa jartzea abian, gauzatu gabeko eta oker erantzundako eskubidea Foru Komunitateko administrazioen erantzukizuna den heinean. Azken batean, helburua da foru erakundeen eta administrazioen berezitasunaren aldera dugun harrotasunak ezer ez gordetzea isilpean eta argia izatea, eta edozein festak eta laudoriok eragindako poza traba ez izatea, baizik eta interes orokorraren ikuspegitik aurre egin eta gauzatutako erantzukizun konplexuaren amaiera zuzena.

María Jesús Aranda Lasheras
Nafarroako arartekoa

2. pertsona zaharrei buruzko kontzeptua eta definizioaren ondorioak

2. PERTSONA ZAHARREI BURUZKO KONTZEPTUA ETA DEFINIZIOAREN ONDORIOAK

Nazio Batuen Biltzarrak Zahartzarolari Aurre Egiteko Nazioarteko Plana onartu zuen 1982. urtean, eta oso garrantzitsua izan zen, bertako printzipioen deklarazioa eta izan zen urtea direla eta. Hala eta guztiz ere, ez zuen inongo eraginik izan, eta ez zuen ohartarazi zaharren mendekotasunaren inguruan iragartzen hasia zen errealitatearen gainean. Aitzitik, aseguruaren sektoreko Espainiako enpresen txostenek erakarri zuten arduradun politikoen eta soziologoaren arreta berehalako errealitate hartara, nahiz eta oso bestelako helburuak zituzten, hala nola, pentsioak mantentzea eta ordezko pentsio funtsak.

Zentroko gobernua on usteko politikak gauzatzen ari zen orduan –besteak beste, Adineko Pertsonentzako Eskolak eta, Gizarte Segurantzaren 1978ko erreforma abiapuntu hartuta, IMSERSO institutua–, baina Administrazioa deszentralizatu eta autonomia erkidegoen esku uzteak opakutasuna eta zailtasuna areagotu zuen, zaharren inguruko urteetako errealitateari buruzko datuen berri izateko. Artean, sigla nahaspila erabiltzen zen, une bakoitzeko interesekin bat, hala nola, hirugarren adina, adineko pertsonak, zaharrak eta agure-atsoak, baina ez zen lortzen izendapena biribiltzea; izan ere, zehatza izateaz gain biztanleriaren sektore horren profil soziologikoaren aldera, izendapenak bidezkoa ere izan behar zuen behar eta lehentasun sozialen aldera.

Gizarte Arazoetarako Ministerioa sortu zen 1988. urtean, eta 1988ko Gerontologia Plana osatzea izan zuen berehalako lehentasunetako bat, Nazio Batuen Erakundeak 1982. urtean Vienan deitutako Zahartzarolari buruzko I. Mundu Biltzarrean egindako planteamenduei lehenengo erantzun esanguratsuak ematearren.

Mugarri horren aurretik, "zaharren mundu zabalari" buruzko argibiderik handiena pentsio sistemarekin lotutako alderdien azterketa izan da orain arte, pentsio sistema oinarritzko laguntzaren euskarri nagusia den heinean. Sistemaren ahalmenaren eta aurreikuspenen aurrerapenak, ordea, ez dute ekarri zaharren bizitza osatzen duten faktoreak zehaztea eta haietan sakontzea, batez ere, beste pertsonen

eta hainbat komunitate zerbitzuren mendean daudenen bizitza osatzen dutenak.

“Begien bistakoa da elementu komunak daudela ‘zaharrek’ eratzen duten gizarte kolektiboan”, adierazi du Héctor Maravall hainbat legegintzalditan IMSERSOko zuzendari izandakoak (1), azterketa dokumentatu eta interesgarri baten bitartez. Halaber, honako hau baieztatu du: “Alde handiak ere badaude. Oinarrizko alderdi bereizleak dira emakume zaharren eta gizonezko zaharren egoeraren arteko aldea; pentsioa dutenen eta pentsiorik ez dutenen egoeraren arteko aldea; pentsioa izan ala ez izan, baliabide ekonomiko nahikoak dituztenen eta zailtasun ekonomiko larriak dituztenen egoeraren arteko aldea; bakarrik bizi direnen eta norbaitekin bizi direnen egoeraren arteko aldea, eta zaindu ahal eta nahi dituzten senitartekoak dituztenen eta halakorik ez dutenen egoeraren arteko aldea; landan bizi direnen eta hirian bizi direnen egoeraren arteko aldea; hezkuntza eta kultur maila handia edo ertaina dutenen eta hezkuntza eta kultur maila txikia edo ezdeusa dutenen egoeraren arteko aldea; osasun egoera onean daudenean eta osasun egoera txarrean daudenen egoeraren arteko aldea; nolabaiteko autonomia pertsonala dutenen eta mendekotasun egoeran daudenen egoeraren arteko aldea, eta mendekotasun txikiko, nahikoko eta erabateko egoeran daudenen egoeraren arteko aldea”.

¹ Maravall, Héctor. *El envejecimiento en España: Demandas sociales. Programas y servicios de atención. Las pensiones Los cuidados a las personas dependientes*, 2003

65 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

ESTATUKO BATEZ BESTEKOA	% 16,9
ANDALUZIA	% 14,2
ARAGOI	% 21,5
ASTURIAS	% 21,4
BALEARRAK	% 14,8
ERRIOXA	% 17,2
EUSKADI	% 19,5
EXTREMADURA	% 18,8
GALIZIA	% 20,0
GAZTELA ETA LEON	% 22,3
GAZTELA-MANTXA	% 19,6
KANARIAK	% 11,6
KANTABRIA	% 19,0
KATALUNIA	% 17,3
MADRIL	% 14,8
MURTZIA	% 14,5
NAFARROA	% 18,2
VALENTZIA	% 16,6

(Datuak 2000ko urtarrilaren 1eko udal
errolaren berrikuspenari dagozkio)

65 ETA 80 URTETIK GORAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

URTEA	BIZTANLERIA OSOA	> 65 URTE	> 65 URTE BIZTANLERIA	> 80 URTE	> 80 URTE BIZTANLERIA
1900	18.618.000	968.000	% 5,2	115.000	% 0,6
1930	23.678.000	1.441.000	% 6,1	177.000	% 0,8
1950	27.977.000	2.023.000	% 7,2	273.000	% 1,0
1960	30.529.000	2.505.000	% 8,2	369.000	% 1,2
1970	34.041.000	3.291.000	% 9,7	524.000	% 1,5
1981	37.683.000	4.237.000	% 11,2	725.000	% 1,9
1991	38.872.000	5.370.000	% 13,8	1.148.000	% 3,0
2001	40.847.000	6.964.000	% 17,0	1.584.000	% 3,9
2010	42.359.000	7.577.000	% 17,9	2.205.000	% 5,2
2020	43.378.000	8.622.000	% 19,9	2.471.000	% 5,7
2030	43.369.000	10.406.000	% 24,0	2.820.000	% 6,5
2040	42.744.000	12.443.000	% 29,1	3.389.000	% 7,9
2050	41.199.000	12.819.000	% 31,1	4.141.000	% 10,1

(Datuak EInren 2002ko estatistikak dira, eta behin-behinekoak dira. 2010eko datuak eta hurrengoak
proiekzioak dira)

GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEEN DIRU SARREREN ARTEKO EGOKITASUNA

DIRU SARRERAK	GIZONEZKOA	EMAKUMEA
< 397 € (66.055 pta)	Etxeen % 5,7	Etxeen % 43,8
398 – 793 € (131.944 pta)	Etxeen % 49,7	Etxeen % 39,9
794 – 1.190 € (197.999 pta)	Etxeen % 29,3	Etxeen % 9,1
1.191 – 1.587 € (264.054. pta)	Etxeen % 7,5	Etxeen % 4,2
1.588 – 2.380 € (395.998 pta)	Etxeen % 4,8	
> 2.380 € (395.998 pta)	Etxeen % 3,1	

ONDASUN JAKIN BATZUK EZ DITUZTEN PERTSONAK, EZINEZKOA ZAIELAKO

ONDASUNAK	ERRETIRATUAK	LANGILEAK	LANGABEAK	BIZTANLERIA
				OSOA
AUTOA	% 28,4	% 49,8	% 73,1	% 39,9
BIDEOA	% 28,0	% 41,5	% 65,6	% 37,4
MIKROUHINLABEA	% 29,0	% 32,4	% 51,9	% 34,1
ONTZIGARBIGAILUA	% 28,8	% 33,5	% 53,8	% 34,5
TELEFONOA	% 52,3	% 59,9	% 78,7	% 61,8
BIGARREN ETXEBIZITZA	% 59,8	% 75,0	% 86,5	% 72,6
ORDENAGAILUA	% 21,0	% 35,0	% 57,0	% 32,0

POBREZIAREN MUGAREN AZPITIK BIZI DIREN ZAHARRAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

AUTONOMIA ERKIDEGOA	ZAHARRAK	BIZTANLERIA OSOA
ANDALUZIA	% 31,2	% 21,7
ARAGOI	% 26,0	% 11,0
ASTURIAS	% 13,6	% 9,5
BALEARRAK	% 13,5	% 6,8
ERRIOXA	% 28,5	% 9,0
EUSKADI	% 2,1	% 2,9
EXTREMADURA	% 44,8	% 30,4
GALIZIA	% 24,8	% 17,4
GAZTELA ETA LEON	% 28,4	% 18,1
GAZTELA-MANTXA	% 30,7	% 20,0
KANARIAK	% 32,7	% 23,0
KANTABRIA	% 19,1	% 11,2
KATALUNIA	% 7,6	% 5,3
MADRIL	% 6,5	% 4,2
MURTZIA	% 30,7	% 21,4
NAFARROA	% 7,4	% 2,1
VALENTZIA	% 23,9	% 14,1

("Biztanleria osoa" autonomia erkidego horretan pobrezia mugaren azpitik bizi den biztanleria osoa da)

POBREZIAREN MUGAREN AZPITIKO ETXEETAKO ZAHARRAK

ADINA	POBREZIAREN MUGAREN AZPITIKO ETXEETAKO PERTSONAK
Adin guztiak	% 13,4
65 urtetik beherakoak	% 12,0
65 eta 69 urte artekoak	% 16,0
70 eta 74 urte artekoak	% 20,6
75 eta 79 urte artekoak	% 24,4
80 urtekoak eta zaharragoak	% 28,0

(Los datos proceden de la Encuesta de Presupuestos Familiares del año 1998)

ZAHARREN IRUDIA

	Nola uste duten ikusten dituztela	Nola ikusten duteneuren burua
Motel	% 46,0	% 20,0
Alai	% 32,2	% 54,6
Gaixo	% 46,5	% 28,6
Triste	% 42,0	% 23,8
Gogaikarri	% 45,5	% 13,0
Jakintsu	% 27,0	% 44,0

Zaharren definizio orok dakarren konplexutasun horren ondorioz, euren beharretarako bestelako laguntza ereduak ezarri behar dira seguru asko, alegia, heterogeneoagoak, zehatzagoak eta ez hain sinplistik, eta egoeren espezifikotasunaren arabera egokituagoak, ondo definitutako gizarte azpitalde handiak egonik egoera horietan.

"Gizarte ongizate" kontzeptu eta printzipio aski ezagunak alde batera utzita, hala Estatuko gobernuek, nola autonomia erkidegoetakoek gizarte eta osasun esparruan sartu izan dute historikoki zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza. Definizio modernoa da hori, baina hutsik egon da historikoki, eta hala jarraitzen du; bertan jo dute pixkana-pixkana hainbat ekimen pribatuk, karitateak eragindako beste zenbait ekimenek, errentagarritasun hobea eman duten instalazio erlijioso zaharrek, eta kargatu gabeko partikularren eta sozietateen emari handiek. Foru Komunitateko egoitzen sare nagusia "irabazi asmorik gabeko egoitzek" edo merkataritza arlokoak ez diren egoitzek

osaten dute eta, hari erreparatuz gero, administrazioen utzikeriak mendekotasun egoeran dauden zaharrentzako laguntza magma bihurtu duela ikusiko dugu. Beharrezkoa izan da etorkizunari buruzko lehenengo balioespenak egitea honako hau egiaztatzeko, alegia, zaharrek laguntza behar duen gehiengoa osatuko dutela, eta egungo sistema boluntarista eta, hein handi batean, pribatuak ez duela oinarri sendorik etorkizunerako, ezta mendekotasun egoeran dauden pertsonen beharrei gaur egun erantzuteko ere. Salbuespena ekimen pribatuak hutsune hori betetzea izan liteke, hau da, administrazioen (aurrekoen eta egungoen) ardura kostaprezioan ordezkatzeko. Etorkizuna argia da jadanik, eta hainbat sektore beste batzuen kexu izaten hasi izanak eremu horretan eta lan horretarako dauden baliabideen aldetik dagoen desberdintasuna salatzea du helburu.

Hainbat kexa eta galdera aurkeztu diote zaharrek Arartekoari, korporatiboki oro har kudeatzaile pribatuek eta indibidualek aurkezten dituzten moduaren aldean. Nolanahi ere, inoiz ere ez dute ekarri tokiko erakundeen eginkizuna berrikustea edo gaurkotzea, sarritan egoitza horien arduradunak diren heinean. Datu hori kontraesana da EBko hainbat estatuk eta lurraldek abian jarritako errealitatearen aldera; izan ere, udal administrazioek zaharren eta eman ditzaketan eta eman behar dituzten zerbitzuen inguruan duten eginkizun berria diseinatu da bertan interes handiz.

Maravallek² honako hau nabarmendu du: zaharren kolektiboaren aniztasuna ez ezik, "pertsona bakoitza bizi den lekua hartu behar da kontuan, gizarte programa publikoek estaldura maila ezberdina dutelako, eta ekimen pribatuak –irabazi asmokoa ala irabazi asmorik gabekoa izan– presentzia maila ezberdina duelako autonomia erkidego batetik bestera, baita udalerrri batetik bestera ere". "Pertsona hauentzako politiken" malgutasunik eza "baliabide eskasiaren edo araututako funtzionamenduaren halabeharrezko zurruntasunaren ondorioztat har daiteke" baina, hala ere, "gizarte politikak

² Txosten Bereziaren amaierako zerrenda bibliografikoko lan eta liburu gehienek norberak osatutako edo gai honen inguruko txosten ofizial arras osoetako hainbat estatistika erreferentzia dakarte.

desitxuratzen dituen faktorea bihurtzen da epe ertainean eta luzean, garestiagoa da, ez du laguntza egokia bermatzen eta, azken batean, politika horien hartzaileak kaltetzen ditu edo, behinik behin, ez die mesede egiten".

IMSERSOk 2000. urtetik osatu dituen txostenei eta autonomia erkidegoek hainbat gerontologia plan onartu izanaren ildoan egin dituztenei esker, zaharren aniztasunari buruzko informazio nahikoa dugu. Are garrantzitsuago, txosten horiei esker, informazio nahikoa dugu mendekotasun egoeran dauden zaharren beharrian mailari, zerbitzu eta laguntza horiek ematen dituztenei eta laguntzaileengan (hurbileneko senitartekoengan, oro har) ekonomia arloan eta lan eta osasun arloan izaten diren eraginei buruz.

Datu horietako batzuen berri emateak izan lezakeen garrantzia gorabehera, zaharren eta inguruko emakumeen egoeraren berri zehatzago izateko³, nahikoa dirudi Nafarroako Unibertsitate Publikoak Arartekoarentzat osatutako txostenaren egileek erabili zituzten datuei lotzea, ikuspegi orokor hori Nafarroako errealitatera mugatzen dutenak.

³ Maravall. *ibidem*

3. zaharren mendekotasuna

3. ZAHARREN MENDEKOTASUNA

Mendekotasunera hurbiltzeko, zaharren mendekotasuna zahartzaroarekin lotuta dagoela esan liteke oinarritzko printzipio gisa. Hala eta guztiz ere, mendekotasun egoeraren berezko ezaugarri ugari aldatu egin da denborak aurrera egin ahala. Pertsonen bizi itxaropenak gora egin izanak ez dakar mendekotasuna handitzea automatikoki. Aitzitik, adinekoak izan arren, gero eta pertsona gehiagok eusten diete euren autonomia mailari eta independente izateko erabakiari; zenbait muga dituzte, baina muga horiek konpondu egin litezke sarritan, norberaren inguruarekin bat datozen babes ekonomikoak existituko balira.

Aurrerapen fisiko eta psikiko horrek askoz urte gehiagoan bizitzea dakarkie arazo larririk (gaixotasun fisikorik edo buruko gaixotasunik) ez duten pertsoneri eta, hain zuzen ere, herritar horiek horregatik ari dira betetzen orain arte ukatu egiten zitzairen edo euren helburuekin zerikusirik ez zuen eremua gizartean. Ahalmen, jakintza eta autonomia handiagoko zaharren belaunaldi berriak ekarpen izugarria egin diezaioke gizarteari gaitasun horiek dituen artean.

Zaharrek egoitzetan sartzeari uko egitea zaharren beren ohiturak eta beharrak aldatu diren adierazgarri argia da; izan ere, bakardadezko gunetzat hartzen ziren zenbaitetan orain arte baina, ezbairik gabe, baita laguntza errazago emateko gunetzat ere, bere onera ekarritako gizarte ingurua berriro ere sortu arte. Nor bere kasa molda daitekeen artean, litekeena da laguntza behar izatea, baina norberaren etxean betiere, nor bere kabuz moldatzeko gaitasun hori babestearren mendekotasuna jazo aurretik.

Mendekotasunak izandako bizi kalitatearen haustura dakar, eta pertsonaren funtsezko alderdi fisikoetan du eragina, hala nola, etxeko lanetan eta norberaren higiean; hain zuzen ere, horiexek definitzen gaituzte pertsona independente gisa. Mendekotasuna fenomeno berria ez den arren, horrek ez du esan nahi gizarte garrantzi txikiagoa duenik zaharren testuinguruan; gainera, zahar horiek askoz ere ugariagoak eta adinekoagoak dira, eta mendekotasun handiagoko egoeran daude bizitzaren amaiera aldean, bizitza autonomoari eusteko gaitasuna galarazten duen hainbat gaixotasunek eta ezgaitasunek kronikoki irauten duelako.

Mendekotasuna azaleratzen den adina eta mendekotasunak eragiten dion pertsona kopuru handia direla-eta, arreta honako honetara bideratu da ezinbestean, alegia, mendekotasun larriko egoeran dauden pertsonen beharrei etorkizunean, baina baita gaur egun ere, erantzuteko modura; izan ere, aditu asko eta asko bat datoz mendekotasunari aurre egiteko laguntza Espainiako gizarte politikaren arazo nagusietako bat bihurtzen ari dela.

Aditu horien guztien ustez, ezinbestekoa da galdutako denbora berreskuratu eta Espainia Europako beste herrialde batzuen mailaren antzeko mailan jartzea; horretarako, sail espezifikoak bideratu beharko lirateke aurrekontuetan zerbitzu unibertsala izateko, eta hiru administrazioek hartu beharko lukete parte hura aplikatzen, estaldurari, kudeaketari eta finantzazioari dagokienez.

Era berean, mendekotasuna eta hari aurre egiteko laguntzaren inguruko proposamenak ezin dira aztertu errealitate paralelo bat aintzat hartu ezean: mendekotasunak mendekotasun egoeran dagoen pertsonarekin bizi diren pertsonak zuzenean parte har dezaten dakar, haiek nahi izan ala ez izan, eta alde biko harremana sortzen da laguntza behar duen pertsonaren eta laguntza ematen duen pertsonaren artean. Eztabaidaren funtsa ez da jadanik mendekotasun egoeran dagoen pertsonari laguntza eman behar dion pertsonak nola egingo dion aurre egoera berri horri; aitzitik, eztabaidaren funtsa da nor izan behar duen pertsona hori, eta familiako kide guztiek euren garapen pertsonalerako duten eskubideari kalterik egin ezean –orain arte, laguntza hori eman beharra familiarreko esparruari egokitzen zizaion ezinbestean–; alde horretatik, laguntza mota horretan jarraitu beharko balitz, erabaki horren garrantzia eta laguntza ematen duen pertsonaren beharrei erantzuteko modua ere aztertu behar dira. Bestetik, administrazioek eta, zehatz-mehatz, tokiko administrazioek duten eginkizuna hartu behar da kontuan, mendekotasunak eragiten dituen beharrei erantzuteko.

NORK ZAITZEN DITUEN MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ZAHARRAK

	65 eta 79 urte artekoak		80 urtekoak eta zaharragoak	
	Etxean	Etetik kanpo	Etxean	Etetik kanpo
GIZONEZKOAK				
Guztira	133.897	30.515	84.899	35.767
Ezkontideak	102.938		35.688	
Alabak	11.391	11.626	26.382	16.194
Semeak	5.799	1.279	5.302	1.423
Arrebak	4.832		1.533	
Anaiak	611			
Amak	322			
Aitak				
Beste senitarteko batek	6.058	6.094	11.415	5.962
Enpleguak	832	6.242	3.075	7.307
Lagunek eta bizilagunek		2.546		1.032
Apopiloak				
Gizarte zerbitzuek		2.728		3.850
EMAKUMEAK				
Guztira	217.112	157.190	215.107	135.842
Ezkontideak	90.853	14.961		
Alabak	68.250	60.233	109.609	48.099
Semeak	18.055	5.664	19.020	6.207
Ahizpak	12.094		7.411	
Anaiak	1.517		1.191	
Amak				
Aitak				
Beste senitarteko batek	22.144	29.035	50.834	25.908
Enpleguak	891	38.583	4.652	33.154
Lagunek eta bizilagunek		10.019		8.108
Apopiloak	455			
Gizarte zerbitzuek		13.656		14.367

Iturria: EINK, IMSERSOK eta ONCEk 1999. urtean ezgaitasunei buruz egindako inkesta.

FAMILIARTEKOEK MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ASTERO EMATEN DIETEN LAGUNTZAREN INTENTSITATEA

	65 eta 79 urte artekoak					80 urtekoak eta zaharragoak				
	< 7 ordu	7-14 ordu	15-30 ordu	31-40 ordu	> 40 ordu	< 7 ordu	7-14 ordu	15-30 ordu	31-40 ordu	> 40 ordu
Gizonezkoak										
Ezkontideak	12.399	15.814	14.105	9.019	50.565	2.946	4.085	4.324	4.163	19.959
Alabak	3.626	4.759	5.048	1.989	7.253	2.941	8.341	6.419	3.824	20.810
Semeak	1.221	2.560	1.302	224	1.302	540	1.230	1.838	1.387	1.424
Arrebak	355	443	841	74	3.119	106	0	338	91	998
Anaiak	168	153	81	0	75	0	0	0	0	0
Amak	0	235	0	86	0	0	0	0	0	0
Aitak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste senitarteko batek	2.520	3.255	1.724	758	3.896	1.804	2.554	3.432	2.691	6.787
Emakumeak										
Ezkontideak	11.867	16.064	17.697	6.670	37.913	1.945	1.609	2.296	1.132	7.979
Alabak	25.069	26.152	22.732	9.796	43.099	13.733	20.341	24.994	17.092	78.290
Semeak	5.306	6.628	4.048	1.875	5.392	4.663	3.318	3.645	2.999	10.358
Arrebak	2.018	1.117	2.339	581	6.041	633	651	624	703	4.799
Anaiak	317	0	372	188	639	0	329	161	0	701
Amak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Aitak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste senitarteko batek	15.021	9.795	7.688	3.899	13.788	8.567	10.878	11.662	9.422	34.038

FAMILIARTEKOEK MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI EMATEN DIETEN LAGUNTZAREN DENBORAZKO INTENTSITATEA

	65 eta 79 urte artekoak					80 urtekoak eta zaharraoak				
	< 1 urte	1-2 urte	2-4 urte	4-8 urte	8 urte edo +	< 1 urte	1-2 urte	2-4 urte	4-8 urte	8 urte edo +
Gizonezkoak										
Ezkontideak	7.432	9.344	15.248	22.385	47.628	1.697	6.100	6.699	5.503	15.479
Alabak	2.774	3.589	2.985	5.441	7.885	2.364	7.191	9.294	8.995	14.264
Semeak	697	1.010	1.176	2.488	1.562	590	612	2.584	1.406	1.532
Arrebak	0	677	965	651	2.539	301	257	144	92	739
Anaiak	0	0	81	77	320	0	0	0	0	0
Amak	0	0	0	0	322	0	0	0	0	0
Aitak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste senitarteko batek	2.152	982	2.442	1.800	4.537	1.004	2.133	3.621	4.501	5.792
Emakumeak										
Ezkontideak	3.933	8.420	15.525	20.631	41.735	847	1.543	1.929	5.844	4.796
Alabak	7.684	16.797	26.639	28.378	47.310	8.113	15.619	30.501	39.238	61.783
Semeak	1.671	2.520	4.388	5.633	9.208	2.556	3.187	6.444	6.092	6.876
Arrebak	278	1.071	1.110	2.627	7.009	753	1.247	678	2.149	2.584
Anaiak	0	0	91	896	531	127	159	0	689	215
Amak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Aitak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste senitarteko batek	5.157	7.651	10.063	10.063	17.260	4.737	10.389	15.781	18.711	24.630

Azkenik, honako taula hau nahikoa adierazgarria da zaharren mendekotasunari aurre egiteko familiartekoen laguntzak duen eraginaren berri izateko:

FAMILIARTEKO ZAINZAILEEK UTZI DITUZTEN JARDUERAK MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZA EMATEKO

	65 eta 79 urte artekoak zaintzeko				80 urtekoak eta zaharraoak zaintzeko			
	Soldatapeko lana / ikasketak	Etxeko lanak	Familia bizitza	Aisialdia eta gizarte harremanak	Soldatapeko lana / ikasketak	Etxeko lanak	Familia bizitza	eta gizarte harremanak
Gizonezkoak								
Ezkontideak	5.337	30.525	20.698	41.633	1.115	10.898	6.081	12.637
Alabak	2.412	3.007	3.006	5.693	5.787	8.414	9.259	16.940
Semeak	716	373	805	3.251	756	578	648	2.815
Arrebak	684	2.607	1.287	2.318	0	1.141	998	998
Anaiak	0	0	234	234	0	0	0	0
Amak	0	86	86	86	0	0	0	0
Aitak	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste senitarteko batek	897	3.127	2.386	3.172	824	4.849	4.794	7.162
Emakumeak								
Ezkontideak	1.638	4.698	9.527	29.582	121	690	1.210	7.677
Alabak	18.386	15.438	15.511	30.566	20.577	38.138	36.924	71.455
Semeak	2.216	249	1.732	8.467	3.369	1.165	1.598	8.065
Arrebak	828	1.781	2.559	4.151	240	1.760	2.267	2.689
Anaiak	0	137	390	646	0	159	398	399
Amak	0	0	0	0	0	0	0	0
Aitak	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste senitarteko batek	3.448	6.219	5.581	10.177	7.664	15.135	14.759	29.562

Aurrez aipatu ditugun arrazoiak direla-eta, "zaintzaile informalak krisialdian" izateak zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzaren alorreko protagonismoak eta ardura pribatuak eta publikoak berriro banatu beharra plantearazi du. Gainera, zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari dagokionez, ezinezkoa da neurriak hartu beharra gehiago atzeratzea administrazio eta politika esparruetan, krisialdi pertsonalaren, ekonomikoaren eta laguntzazkoaren larritasuna dela eta.

Iragarri dutenez, Mendekotasunen Sistema Nazionalak ideia garrantzitsuak emango ditu, galdutako hainbeste urtetako larritasunarekin bat. Seguru asko, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza izateko duten eskubidea babestu beharko da, baita erantzun egokiak eman ere.

Gaur egun, Nafarroako gizartea eta, oro har, Espainiako gizartea utzikeriaren ondorioak pairatzen ari dira; izan ere, gizarte zerbitzuen estaldura maila oso txikia da utzikeria horren ondorioz⁴. Zaharren mendekotasunari aurre egiteko zerbitzuen estalduraren adierazgarri, IMSERSOk 2002. urtean gaurkotutako azken azterketako datuak ditugu, baita autonomia erkidego bakoitzean ezgaitasunen bat duten 65 urtetik gorako pertsona kopuruari buruzko taula ere:

⁴ Rodríguez Cabrero, Gregorio, eta Monserrat Codorniu, Julia. "Modelos de atención sociosanitaria. Una aproximación a los costes de la dependencia". Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa. 2002

EZGAITASUNEN BAT DUTEN 65 URTETIK GORAKOAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

Andaluzia	% 39,4
Aragoi	% 26,8
Asturias	% 29,9
Balearrak	% 25,9
Errioxa	% 18,3
Euskadi	% 23,9
Extremadura	% 35,7
Galizia	% 32,4
Gaztela eta Leon	% 37,2
Gaztela-Mantxa	% 33,9
Kanariak	% 27,2
Kantabria	% 31,5
Katalunia	% 32,8
Madril	% 26,3
Murtzia	% 40,4
Nafarroa	% 28,7
Valentzia	% 30,0
ESTATUKO GUZTIZKOA	% 32,2

ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO ZERBITZUEN ESTALDURA

- 213.398 toki daude egoitzetan, hau da, 65 urtetik gorakoen % 3,18rentzako.
- 139.384 pertsonak erabiltzen dute etxeko laguntza, hau da, 65 urtetik gorakoen % 2,07k; nabarmendu beharra dago laguntza hau intentsitate txikikoa dela gehienbat.
- 75.978 pertsonak erabiltzen dute telelaguntza, hau da, 65 urtetik gorakoen % 0,94k.
- 8.843 pertsonak egiten dituzte eguneko egonaldiak, hau da, 65 urtetik gorakoen % 0,13k.
- Gainera, 1.385 toki daude aldi bateko egonaldietarako, eta 3.558 pertsonak erabiltzen dituzte bestelako ostatueto egonaldi zerbitzuak.

Hau da, 442.546 erabiltzaile daude orotara. Honako estaldura honi dagokio kopuru hori:

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen % 28,5i (estaldura osoaren % 40,4 erabateko mendekotasun larriko egoeran dauden pertsonen erabiltzen dute).
- Erabateko mendekotasun larriko egoeran dauden pertsona guztien % 90,7ri.

Hori guztia dela-eta, hirugarren adinaren beharrei erantzuteko eta euren mendekotasunari aurre egiteko laguntza mekanismo nahikoak sustatu behar dira berehala, "mendekotasuna medikalizatzea" –laguntza osasun esparruan eman nahia– osasun publikoarentzako finantza arazo larria bihurtzeko arriskua izan arren, kudeaketa defizit handiagoa duen zenbait autonomia erkidegotan batez ere.

4. gizarte bilakaera eta mendekotasuna hirugarren adinean

4. GIZARTE BILAKAERA ETA MENDEKOTASUNA HIRUGARREN ADINEAN

Europako Kontseiluak mendekotasuna terminoaren honako definizio hau proposatu zuen 1988. urtean: "Mendekotasun egoeran daude, ahalmen fisikorik, psikikorik edo intelektualik ez izatearekin edo hura galdu izanarekin lotutako arazoak direla-eta, laguntza handia behar duten pertsonak eguneroko bizitzako jarduerak egiteko". Hainbat gobernuak "beste pertsona baten laguntzat" interpretatu izan du "laguntza handi" hori⁵, mendekotasunari aurre egiteko politikak gauzatzean.

Aldi berean, mendekotasuna zaharrekin gehien lotzen den fenomeno da eta, hortaz, zaharren mendekotasuna da herritarren artean kopuru aldetik hedatuena dagoen mendekotasun forma, eta gizarte sektore bakarrari gehien eragiten diona.

Zahartzaroak mendekotasuna azaleratzea dakar. Beraz, eskumena duten gobernuen politikek ezinbestean batu behar dute mendekotasunaren eta zahartzaroaren arteko gero eta dualtasun handiagoa, politika ekonomikoak ezartzeko, eta baita gizarte politikak ezartzeko ere. Izan ere, zatika hartu izan dituzte kontuan sarritan, bata bestetik bereiz, nahiz eta oso harreman estua dagoen euren artean.

Ikerketa ugari aztertzen dute dagoeneko Espainiako zahar kopuruaren hazkundera, eta "botere grisa"⁶ terminoa ere sortu da. Hori guztia Espainiako biztanleriaren pixkanakako zahartzearen ondorio da; are gehiago, Espainiako biztanleria hasi da jadanik zahartzen, eta ez dugu aurrekaririk, ezta zahartze horrek beste garai batzuetan izandako mailak gainditzen dituenean izango dituen ezaugarrien berri ere. Biztanleriaren aldaketa horren kultur eta politika eragina alderdi positiboetatik eta, era berean, a priori iragartzen diren alderdi

⁵ Gil Calvo, Enrique. El "poder gris". Consecuencias culturales y política del envejecimiento de la población. Revista ICE. 2004ko maiatza-ekaina.

⁶ Gil Calvo, Enrique. *Ibidem*

negatiboetatik analizatzen da. Edonola ere, analisi horrek honako hau ohartarazten du amaieran, alegia, komenigarria dela –politikoki eta ekonomikoki– hirugarren adinaren giza kapital izugarriaz baliatzea, eta berebiziko garrantzia duen eskaera bati erantzutea; izan ere, zahartzaroan autonomia pertsonala izateko eskubidea aldarrikatzen dute, mendekotasun fisikoko egoeran daudenean ere aukeratzeko askatasuna.

Diotenez, egun jazotzen ari den zahartze demografikoa ez da noiznolakoa, ohiz kanpoko; aitzitik, prozesu kronikoa da, itzulezina, "inongo baby boom edo migrazio ezta berdinak ez duena seguru asko, orekatzeko gaitasuna izan arren". Hala eta guztiz ere, Espainiako etorkin berriei buruzko datuei erreparatuz gero, litekeena da pentsatzea biztanleriaren desoreka hori nolabait doituko dela, nahiz eta ez duen arinduko, "hilgarriak izan ezean, oro har sendaezinak" diren gaixotasun kroniko-endekepenezkoen zabalkundea. Zabalkunde hori norberaren berezko esparrua gainditzen hasia da, eta gizarte mailan analizatzeari ekin zaio.

Edozein ideologiatako gobernu orok adierazi du hirugarren adinaren ongizate orokorraren inguruko kezka, eta hainbat modutan gauzatu du kezka hori Espainiako trantsizio demokratikoa hasi zenetik, besteak beste, arau babesleen eta ekintza planen bidez. Hala ere, litekeena da beste motibazio batzuk izatea, hirugarren adina hein handi batean hartu izan baita kontuan azken urteotan ekonomiaren alorrean, baita Foru Komunitatean ere, nahiz eta aurrekontuetako ekarpen errealek bestelako errealitatea erakusten duten. Motibazio horiek bi abiapuntu dituzte funtsean: batetik, zaharrek osatzen duten biztanleria kopuru eta urte aldetik hazi izana; bestetik, beste lan belaunaldi bat sartu izana kategoria horretan, hain zuzen ere, erretiroa aurretiaz hartu duten pertsonak osatutakoa. Pertsona horietako gehien-gehienak aktiboak dira fisikoki eta psikikoki baina, tradizioz baztertutzat izan diren beste gutxiengo batzuek bezala, baliteke beste gizarte bazterketa mota bat pairatzea, hain zuzen ere, "zahartzaroaren estigma".

Gizarte fenomeno honen ondorio politikoak ere nabarmentzekoak dira. Ustez zaharrei dagozkien balioak ageri dira zahartutako gizartean⁷,

⁷ Gil Calvo, Enrique. 2003

hala nola, konformismoa, segidismoa, kontserbazio sena eta segurtasun irrika. Horiek guztiek "zahartzaroko mendekotasunaren kultura" deritzana osatzen dute; kultura horren baitan, gizartearen zati handi batek (bai esparru publikokoak, bai esparru pribatukoak) eskura dituen zerbitzuak eta baliabideak emango dizkio gero eta handiagoa den gehiengoari.

Zahartzaroaren aurkako fobia nabarmena dutenen ikuspegi katastrofista horrek zalantzan jartzen du Estatuak finantza ahalmenik duen mendekotasun egoeran dauden zaharren laguntza beharrei aurre egiteko; izan ere, biztanleria aldatu egiten ari da. Gainera, honako hau erantsi dute, alegia, emakumeak une honetan duen gizarte eta familia eginkizuna berehalako etorkizuneko rol sozialen banaketaren adierazgarri garbia dela.

Nolanahi ere, egungo bilakaera errealaaren ikuspegi ezkor hori gorabehera⁸, honako hau antzematen da, alegia, egungo belaunaldiak zahar belaunaldi berriek ordezkatu dituztela; egungo belaunaldiak errotuago daude gizarte profil eta jarrera horietan, baina zahar berri horiek, ostera, heziketa handiagoa izango dute, emankorrak izango dira eta gaitasuna izango dute artean. Dinamika eta gizarte gehiengo berri horrek gizartean duen garrantzia aldarrikatuko du, "zahartzaroaren kultur iraultzaren" baitan⁹, eta zaharrek ostrazismora eta hutsalkeriara kondenatuta egon behar dutelako egungo ustea amaiaziko du; izan ere, zaharrek adieraziko dute zahar izateaz harro daudela, euren aiurria aldarrikatuko dute, eta "botere grisaren bandera" jasoko dute.

Antzaenez, memento hori hurbil dago, eta 1959 –Egonkortze Plana– eta 1978 –Konstituzioa– bitartean jaiotakoak zahar bihurtzearekin lotuta dago soziologiaren ikuspegitik, hau da, "baby boom belaunaldikoak" zahar bihurtzearekin. Izan ere, bigarren hezkuntza orokortu da eta goi mailako irakaskuntza demokratizatu da belaunaldi horren bizitzan, baita sexuen arteko berdintasuna jazo ere hezkuntza mailetan.

⁸ Gil Calvo, Enrique. 2003

⁹ Gil Calvo, Enrique. 2003

Euren eskatzeko gaitasunak eta gaitasun hori nabarmentzeko trebakuntzak "gainbalio forma berri bat" ekarriko dute; hots, zaharrak oso berandu arte biziko dira, eta ondoko belaunaldien gaineratiko lanaren bitartez egin beharko zaio aurre horri. Hain argi ez bada ere, gaur egun ere aukera berdintasunean eragina duten ongizate estatuko oinarrizko kontzeptuak berrikustearen alde egiten da politikaren alorrean, hala nola, hezkuntza, irakaskuntza, heziketa, enplegua, etxebizitza eta (ber)gizarteratzea. Halaber, berdintasun politikaren baliabideak horien aurretik lehenesteaz hitz egiten da; berdintasun politika horrek gazteei, emakumezkoiei eta "diskriminatutako gutxiengoei (besteak beste, etorkinei eta ezgaituei)" egiten die mesede argi eta garbi.

Azterketa soziologikoei iragartzen dutenez, 80 urtetik gorako lau milioi pertsona izango dira Espainian 2050. urtean. Hortaz, garrantzizkoa da planteatzea nola erantzun gizarteko zati horren beharrei, iraunaldi luzeko mendekotasun egoeran dauden pertsonen proportziorik handiena izanik bizitzako aro horretan.

NORK LAGUNDUKO DU ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEN?

Aski ezaguna da emakumeak mendekotasun egoeran dauden senitartekoei laguntza emateko eginkizunetik askatzen ari direla lan merkatuan sartzearen ondorioz; izan ere, egiteko hori eurei baino ez zegokien ia orain artean. Halaber, emakumeek gero eta zaharragoak izanik dute lehenengo seme-alaba eta, hartara, familia unitateko kide kopurua behera egiten ari da. Hori guztia dela-eta, familiek zaharren laguntzan eta "arduran" zuten rol protagonista ere txikiagotzen ari da; aldi berean, gero eta zahar gutxiagok sartu nahi dute egoitzetan euren kabuz molda daitezkeen artean, aurrez aipatu dugunez.

Bestalde, Espainiako egungo laguntza sistemak osasun zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak konbinatzen ditu. Osasun zerbitzuak eskubide unibertsalen barruan daude, baina baliabiderik eza da nagusi gizarte zerbitzuetan. Hortaz, mendekotasun egoeran dauden eta baliabide gutxien dituzten pertsonak euren beharrak "medikalizatzen" ari dira ospitale sarearen bitartez, eta hark hartu behar du azkenean bere gain

mendekotasun egoeran dauden pertsoneri laguntzea. Egoera hori garestiagoa da gizarte eta osasun arloko egoitzen eta komunitate zerbitzuen bidezko laguntza baino eta, gainera, kontraesana dago beste hainbat egoeraren aldera¹⁰. Esate baterako, Nafarroako zahar etxeek bertako egoiliarren botika gastuei egin behar diete aurre eta, hortaz, baita egoiliarrek ere; egoiliarrak euren etxeetan biziko balira, ordea, ez litzateke halakorik gertatuko.

Zaharren mendekotasunari aurre egiten laguntzen duten pertsoneri buruzko analisiari berriro helduz, honako hau nabarmendu beharra dago: EInk 2001. urtean egin zuen Ezgaitasunei buruzko Inkestak Espainian 64 urtetik gorako bi milioi ezgaitu daudela adierazi zuen; beste azterketa batzuek, ordea, oso bestelako errealitatea erakutsi dute, mendekotasun egoeran dagoen pertsona kopurua lau edo bost aldiz handiagoa dela kalkulatu baitute¹¹. Alde horretatik, honako taula hauek laguntzako elementu nagusien inguruko ikuspegi garbia eskaintzen dute: euren profil sozio-ekonomikoa, laguntzen ematen duten denbora eta eginkizun hori lan autonomoarekin bateratzeko dituzten aukerak¹².

MENDEKOTASUN EGOERAN DAGOEN PERTSONAREN ETXEAN BIZI DEN ZAINZAILEAREN ARDURA ORDUAK

Asteroko ardura orduak	Mendekotasun egoeran dauden pertsonen adina					
	16 urte edo -	17-24 urte	25-54 urte	55-64 urte	65-74 urte	75 urte edo +
< 7	11,11	9,73	18,16	21,80	15,77	9,18
7-14	11,57	12,43	17,04	18,08	18,88	13,93
15-30	7,87	16,76	16,52	17,37	16,94	16,60
31-40	8,80	9,19	8,95	6,71	7,88	10,57
41-60	9,72	6,49	5,77	7,31	6,98	8,26
> 60	50,93	45,41	33,56	28,74	33,54	49,70
	100	100	100	100	100	100

Iturria: EIN (1999)

¹⁰ Adolfo Jiménez, 2002. Gizarte Segurantzarako Estatuko idazkari ohiak zioenez, ospitale sistemako laguntzaren kostua bost aldiz handiagoa da zentro geriatrikoetako laguntzaren kostua baino.

¹¹ Sundström, 1994

¹² Sarasa Urdiola, Sebastián. "Una propuesta de servicios comunitarios de atención a personas mayores". Fundación Alternativas. 2003

LAGUNDUTAKO PERTSONEN BANAKETAZAINZAILE NAGUSIAREN
ASTEROKO ARDURA ORDUEN ARABERA

Zaintzaile nagusia	< 7	7-14	15-30	31-40	41-60	> 60	Guztira
Etxeko inork	% 19,06	% 17,27	% 16,64	% 8,81	% 6,92	% 31,30	% 100
Etxean bizi ez den senitartekoak	% 27,06	% 23,05	% 20,53	% 9,25	% 5,51	% 14,62	% 100
Enplegatuak	% 39,82	% 19,82	% 18,00	% 10,18	% 6,91	% 5,27	% 100
Gizarte zerbitzuek	% 60,17	% 22,51	% 5,63	% 3,46	% 3,03	% 5,19	% 100
GKEek	% 45,71	% 11,43	% 14,29	% 5,71	% 8,57	% 14,29	% 100

Iturria EIN (1999)

LAGUNTZAILEAK EZGAITASUNAREN LARRITASUNAREN ARABERA

Ezgaitasunaren larritasuna	Etxeko inor	Enplegatuak	Administrazio	
			publikoak	GKEak
Nahikoa	% 68,17	% 26,99	% 9,88	% 1,40
Handia	% 68,91	% 29,49	% 14,44	% 2,69
Erabatekoa	% 79,95	% 26,83	% 17,35	% 6,11

Iturria EIN (1999)

EMAKUMEEN LAN EGOERA ADINAREN ARABERA, ETA MENDEKOTASUN
EGOERAN DAGOEN NORBAIT ZAINTZEN DUTEN

Lan egoera	Adina: 16-39 urte		Adina: 40-64 urte	
	Zaintzailea	Ez zaintzailea	Zaintzailea	Ez zaintzailea
Lanean	% 34,0	% 39,3	% 24,7	% 33,0
Langabezian	% 28,0	% 15,3	% 7,2	% 5,8
Lanerako ezinduta	% 0,0	% 0,4	% 0,9	% 1,1
Kontribuziozko baliaezintasunpentsioduna	% 0,1	% 0,1	% 2,2	% 1,9
Kontribuziozkoa ez den baliaezintasun pentsioduna	% 1,0	% 0,4	% 1,9	% 1,6
Erretiratuta	-	-	% 2,5	% 2,3
Ikasten	% 10,0	% 27,3	% 0,3	% 0,3
Etxeko lanetan	% 26,5	% 16,6	% 58,6	% 52,0

Iturria EIN (1999)

EUREN LANETAN KALTETUTAKO ZAINZAILEAK

	Danimarka	Espania	Austria	Alemania	Erresuma Batua
%	16,98	24,48	28,89	27,66	30,97

Iturria: Eurpar Batasuneko etxeei buruzko 1998ko panela

Eurpar Batasuneko estatu ugari mendekotasuna berrantolatzeko erabakiak hartzen ari dira gizarte politikaren arloan, batetik, mendekotasun egoeran daudenen osasun egoera onari eutsi eta ospitaleetan eta egoitzetan sar daitezen atzeratzeko eta, bestetik, pertsona horiek behar dituzten zerbitzuak sortzen eta kudeatzen laguntzeko tokiko gobernuei.

Zirriborro orokor hutsaren ikuspegitik ere, badirudi Espainiako errealitatea ildo horretan egiten ari dela aurrera. Izan ere, Mendekotasunari buruzko Liburu Zuria osatu zuen Gobernuak eta, hortaz, baita Mendekotasunaren inguruko Sistema Nazionala ere; jakina, zaharren mendekotasuna ere sartzen da bertan. Zerbitzu berriak sustatu eta tokiko gobernuek haiek gauzatzen parte hartzeko joerak ez dirudi inolako oihartzuna duenik Nafarroan, Txosten Bereziko beste atal batzuetan egiaztatu ahal izango denez. Udal zahar etxeetako egoerari lotu gatzaizkio bertan, baita honako hauetakoari ere, alegia, emari eta patronatu pribatuei esker, irabazi asmorik gabe jarduten diren eta Foru Komunitateko zaharren oinarritzko laguntza sarea osatzen duten egoitzetako egoerari. Gizarte Ongizateko Institutuaren lehentasunez ere luze jardun gara, egoitza publikoetan eta pribatuetan tokiak ituntzeari, itun sistemei eta sistemok kasu batean zein bestean dituzten kostuei dagokienez.

EBko estatuek eta lurralde autonomoek politika ezberdinak gauzatu dituzte zaharren mendekotasunari aurre egiteko. Batzuen lehentasuna mendekotasunean dauden pertsonen lagundu beharrak emakumeei lan egiteko eskaintzen dien aukera baliatzea eta zaharren eta euren senitartekoen ongizatea begiratzea izan da, zerbitzu horiek administrazio publikoak aurrekontuen bidez eman ditzan zuzenean antolatuz; beste batzuetan ere emakumea da elementu nagusia, baina Gizarte Segurantzak diru kopuru jakin bat –dela guztia, dela zati bat– ematen diolako zuzenean edo zeharka zaintzailea izateagatik, Sebastián Sarasa Urdiolak "Una propuesta de servicios comunitarios de atención a personas mayores"¹³ lanean adierazi duenez.

13 Fundación Alternativas. 2003

Nabarmena da Espainiako familiek askoz ere gehiago zaintzen dituztela mendekotasun egoeran dauden pertsonak beste gizarte batzuetakoek baino. Errealitate hori abiapuntu hartuta, egileak enplegua sustatzea lehentasuntzat izango duen mendekotasunari aurre egiteko politikaren alde egiten du. Hain zuzen ere, gizarte eta osasun arloko zerbitzu unibertsal eta publikoetan oinarritutako programaren alde egiten du mendekotasunari aurre egiteko; izan ere, "errenten transferentzia hutsa baino eragingarriagoa dela erakutsi du. Transferentzia hori Gizarte Segurantzari egindako ekarpenek finantzatutako aseguruaren bitartez edo Estatuko aurrekontu orokorren bidez gauzatzen da".

Estatuko Gobernuak iragarritako Mendekotasunaren inguruko Sistema Nazionalaren azken edukiaren eta zaharren mendekotasunari aurre egiteko aurreikusten duen moduaren berri jakiteke, Sarasa Urdiolaren gogoetak interesgarriak dira gobernu autonomoek eta tokiko gobernuak izan behar duten eginkizunari eta etxeko laguntza zerbitzuen inguruko ikuspegiari dagokienez batez ere; etxeko laguntza zerbitzu horiek hedatzen edo hedatzeko prestatzen ari dira Foru Komunitatean, eta Foru Administrazioak babes handia eman die.

"Zerbitzu hornikuntza honen kostu osoa bitara ordain liteke: batetik, aurrekontuen bidez ordain liteke eta, bestetik, erabiltzaileek ordain lezakete baterako ordainketa sistema baten bidez. Baterako ordainketak inola ere ez luke kopuru edo ehuneko berekoa izan behar erabiltzaile guztientzat; aitzitik, mailakatutako ekarpen gisa ezarri beharko litzateke norberaren errentaren arabera.

Beharrezko funtsak Espainiako Gobernuak eman beharko lituzke hein handi batean, nahiz eta autonomia erkidegoek eta tokiko gobernuak ere ordaintzeko eskatu beharko litzatekeen, pizgarri negatiboak ekidin eta zerbitzu eskaria alferrik haztea saihestearren. Kostua aukeratutako babesaren intentsitatearen arabera izango da, baina gogoan izan beharra dago zerbitzuak finantzatzen gastatutako euro batek balio garbi txikiagoa duela Estatuarentzat dirutan ordaindutako euro batek baino.

Tokiko gobernuak funtsezko eginkizuna izan beharko lukete zerbitzu hauek kudeatzen, hala zerbitzuen hornikuntza zuzena

handituz, nola egun dagoen eskaintza pribatua koordinatuz eta sustatuz.

Komunitate zerbitzuen sarea hiru administrazioek batera sustatu beharreko etxebizitza egokituen stock-ak eta egoitza txikiek osatu beharko lukete. Izan ere, etxeko laguntzak ez du zertan komenigarriena izan, ezta posible ere. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxebizitzek ez dituzte bizitza autonomia ahalbidetzen duten beharrezko baldintzak betetzen batzuetan eta, hortaz, ezinbestekoa izaten da tokiko gobernuek baliabideak izan ditzaten etxebizitza horiek egokitzeko eta, ezinezkoa balitz, ordezkoko etxebizitza erosoagoak eskaintzeko.

Mendekotasuna oso-oso larria bada, hautabiderik egokiena laguntza zentro batean sartzea da. Hala ere, egungo eskaintza oso eskasa eta, ordezkoko gizarte zerbitzuak izango balira, etxebizitza arrunt batean bizi litekeen jendea dagoen zentro ugari sartzeko da bertan. Datozen urteotan, beharrezkoa izango da egoitzak mendekotasun larriko egoeran dauden pertsonak laguntzeko eraldatu eta berriak eraikitzea.

Aldi berean, zaintzaile informalak laguntza sartu beharko litzateke komunitate zerbitzuen sarean. Mendekotasun luzeak zaintzaileen osasun egoeran eta bizi kalitatean izan ditzakeen ondorio larriak direla-eta, komenigarria da zaintzaileentzako babes zerbitzuak ezartzea, baita trebakuntza zerbitzuak ere, gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko aukerak handitzeko zaintza aldia amaitzean".

Beharrei buruzko lehen ondorio oinarrizkoen hurbilketa gisa¹⁴, honako hau baieztatu liteke, alegia, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza gehiegizko zama dela familientzat. Zenbat eta denbora luzeagoa eman mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen, orduan eta aukera handiagoak daude zaintzaileak zaindutako pertsona etxean hartu behar izateko; era berean, orduan eta aukera txikiagoak daude lanean izateko. Ondorioz, familiaren berehalako eta etorkizuneko diru sarrerak murriztu egiten dira, eta zaintzaileen osasunari kalte egiteko arriskua handitzen da. Biztanleria zahartzeak zama hori handituko du etorkizunean eta, ospitaleetako gastu handiagoa ekartzeaz gain, eragingarritasunak behera egingo du, zertan ospitalekoak izan behar ez duten "medikalizatutako" beharrei aurre egin beharko zaielako.

Bestalde, zama horren banaketa ez da bidezkoa ez klase sozialen artean, ez sexuen artean, aurreko taulek erakutsi dutenez. Emakumeak eta diru sarrera eta lan egiteko aukera gutxien duten familiak arduratzen dira batez ere laguntzaz; hortaz, berez pobre izateko eta osasun gabeziak izateko arrisku handian dauden gizarte taldeak bazterketa arrisku handiagoan daude.

Hori guztia dela-eta, logikoena lehentasunezko honako helburu hau ezartzea litzateke, hain zuzen ere, komunitate zerbitzuen estaldura zabaltzea, familien laguntza informala ordezkatzeko; hala ere, horrek ez du esan nahi familiek erantzukizun txikiagoa luketenik. Halaber, mendekotasunari aurre egiteko sistema ezarri beharko litzateke, gaur egun familiarteko laguntza sistemaren funtsean dauden klase eta sexu desberdintasunak zuzentzeko.

¹⁴ Sarasa Urdiola, Sebastián. *Ibidem*

5. adineko pertsoneri arreta Nafarroan

5.1. SARRERA

Txosten honek Nafarroako Arartekoaren eta NUParen Gizarte Laneko Sailaren arteko "Nafarroako Hirugarren Adinarendako Arretari buruzko txostenerako" ikerketa hitzarmenari (OTRI kodea: 2003 20 107) erantzuten dio.

Lehenengo atalean Nafarroako adinekoen egoera aurkeztuko dugu, laburbildurik. Bigarren atalean mendekotasun egoeran diren adinekoei zuzenduriko baliabideak aurkeztu eta, hala dagokionean, horien balorazioa egingen dugu. Hurrengo kapituluetan zerbitzuen funtzionamendua eta antolaketa sakonki aztertuko ditugu.

Ondoren, erabilitako metodologia laburki aipatu, eta, amaitzeko, gogoeta orokorrak eta etorkizuneko joeren lerro nagusiak azalduko ditugu ondorio gisa.

Lanaren zuzendaritza

Miguel Laparra Navarro jauna
Camino Oslé Guerendiain andrea

Landa-lana eta txostenaren egilea

Esther Ochoa andrea

Laguntzaileak

Ángel García jauna, eta Sagrario Anaut eta
Raquel González andreak

5.2. ADINEKO PERTSONAK NAFARROAN. AZTERKETA DEMOGRAFIKOA¹⁵

Espainiak munduko zahartze prozesurik bizkorrenetako bat pairatu du XX. mendeko azken hamarkadetan, eta zahartzen jarraituko du XXI. mendean ere, populazio-proiekzioen arabera.

Ondorio hauen arrazoiak ugalkortasun-tasa baxuen mantentzea eta Espainiako "baby boom" delako belaunaldien iristea (2025. urtean, gutxi gorabehera, 65 urte izanen dituztenak, hau da, 1960. urtetik 1975. urtera jaiotakoak) dira. Belaunaldi hauetan jaiotako pertsonen kopuru handiak populazio-proiekzioek 2040rako iragartzen den "adin-piramidearen alderanzketa" eragiten ahal du. Izan ere, gailurra zabaldu eta oina ertz bihurtzeraino estutuko baita. Zentzu batean, proiektzio hauek gizarte-alarmismoa eragiten ari dira eta, funtsik baduen arren, neurrigabea dirudi Espainian.

Gogoan izan beharko genuke, Eurpar Batasuneko beste herrialde batzuetan, jaiotzen hazkundera eta osteko ugalketaren beherakada ia hamarkada bat lehenago bizi izan zuten horietan, zahartzaroaren arazoa gure herrialdean baino lehenago gertatzen ari dela; horregatik, oso garrantzitsua da beharrezko jarduketak dagoeneko planteatzea prozesu horren ondoriorik kaltegarrienak arintzeko.

5.2.1. POPULAZIOA NAFARROAN ETA ESPAINIAN

Nafarroako populazioaren hazkunderaren erritmoa % 8koa izan da 1981etik 1991ra bitarte, eta % 9tik gorakoa 1991tik 2000ra bitarte. Azken urte honetan 543.757 biztanle zeuden guztira, eta, 2003an 578.210 ziren. Hau da, lau urtetan % 6tik gorako hazkundera gertatu da. Espainiako egoera bere lerro orokorren barne dago. 1981. urtetik 1991. urtera bitarte, % 3,2ko hazkundera eman zen, eta 1991tik 2000ra bitarte % 4,2koa. Azkenik, 2000tik 2003ra bitarte % 5,5eko hazkundera jazo zen.

¹⁵ Capitulo elaborado por: Sagrario Anaut y Ángel García

Populazioaren hazkundera bizkortzeko joera hau inmigrazio-fluxuekin batera etorri da. Etorkizuneko aurreikuspenen arabera, kopuruak gora egingen du, bereziki, kontuan hartzen badugu, 2002. urtean populazio hazkunderaren % 75 atzerritarren erroldatzeei zegokiola. Ondoko taulak Espainiako 2070. urtera bitarteko populazio-proiekzioa jasotzen du.

1. TAULA. ESPAINIAKO POPULAZIO-PROIEKZIOA (2002-2070) ETA BERE PORTZENTAJE-BANAKETA ADINAREN ARABERA

Urtea	Adinaren araberako ehunekoa				Guztira (%tan)
	Guztira	0-15 urte	16-64 urte	65 eta gehiago	
2002	41.663.700	15,59	67,50	16,91	100
2005	43.483.900	15,61	67,59	16,80	100
2010	45.686.400	15,96	66,68	17,36	100
2015	47.454.500	16,36	65,30	18,34	100
2020	48.928.600	15,95	64,58	19,47	100
2025	50.081.100	15,01	63,77	21,22	100
2030	51.963.500	14,06	62,50	23,44	100
2035	51.963.500	13,59	60,60	25,81	100
2040	52.659.900	13,69	58,10	28,21	100
2045	53.071.300	13,98	55,81	30,21	100
2050	53.147.400	14,13	55,03	30,85	100
2070	53.147.400	13,86	57,77	28,38	100

Iturria: EIN: 2001eko zentsutik abiatuta kalkulatutako populazio-proiekzioak

Horrez gain, adin-taldearen araberako banaketa jaso dugu. 2002tik 2015era bitarte, biztanleen gaztetzea antzematen da, 15 urtetik beherako populazioaren hazkunderaren eta 65 urtetik gorakoen hazkunderaren moteltzearen ondorioz. Data honetatik aitzina, XX. mendeko laurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran aurreikusitako joera dugu berriro: populazioaren zahartzea, biztanle helduen (15-64 urte) beherakada garrantzitsua eta populaziorik gazteenaren (0-14 urte) pixkanakako beherakada. Hau da, epe ertaineko aurreikuspenek populazioaren zahartzea azpimarratzen dute.

Dena dela, proiektzio hauei kontuz erreparatu behar zaie populazioaren dinamismo etengabea dela eta. Egiazki, joera orokorrak adierazten

dituzte gizarte- eta osasun-politikan jarduketak diseinatzeko, epe ertain eta luzean; baina, ez dituzte beti kontuan hartzen populazio-egituraren eragin-maila aldatzen ahal dituzten aldagaiak.


Mota honetako proiektzioen mugen adibide gisa, Nafarroara sei urte pasatxotan (1999tik 2004ra bitarte) etorritako 50.0000 etorkinei erreparatzea baino ez dugu. Honek populazioaren zahartze-tasa ia bi puntutan jaistearen eragin du; % 9an, gutxi gorabehera, termino erlatiboetan. Baloratu beharko da bestelako aldagaiak izan duten eragina populazioaren hazkundera eta egiturara. Ezin ditugu alde batera utzi, puntu honetan, bizi-itxaropenaren hazkundera bai jaiotzean bai 65 urte betetzean, ezta iragan demografikoa ere.

5.2.1.1. BIZI-ITXAROPENA

Munduko populazioaren bizi-itxaropenak gora egin du nabarmenki azken urteotan, eta konstante eta altu dirau herrialde garatuetan. Eurpar Batasuneko bizi-itxaropena 79 urtekoa zen jaiotzean emakumeendako eta 72 gizonendako, 1999an. Espainia nabarmentzen da testuinguru honetan. Gorakada honen ondorioz, Espainiako emakumeen bizi-itxaropena Europako altuena izan zen 1999an, 82,5 urterekin; eta, gizonena Europako laugarrena izan zen 75,3 urterekin (Eurostat, 2001).

EINk kalkulaturako aurreikuspenen arabera, populazioaren bizi-luzerak gora egiten jarraituko du, nahiz eta gizon-emakumeen arteko aldea txikitzen joan den pixkanaka, ondoko grafikoan adierazten den bezala.

1. GRAFIKOA: ESPAINIAKO POPULAZIOAREN BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN (2002-2030)



Iturria: 2001eko zentsutik abiatuta kalkulaturako populazio-proiekzioak

Nafarroak toki pribilegiatua du Espainian, hirurogeita hamargarren hamarkadatik aitzina gutxi gorabehera. Bizi-itxaropena jotzen badugu osasun egoeraren, gizarte, osasun, ekonomi eta kulturaren garapen-mailaren, eta populazioaren egituraren adierazletzat, ez dago zalantzarik ondoko taulan jasotako datuak adin handiagoetan heriotza-tasaren kontrol eraginkorraren eta nafarren bizi-kalitatea hobetzeko abian jarritako giza baliabideen eta baliabide tekniko eta ekonomikoen ahaleginaren emaitza izan direla. Ikuspegi honetatik, populazioaren egungo zahartzea lorpen sozio-ekonomiko eta zientifiko gisa ulertu beharra dago, eta ez Nafarroako testuinguru orokorrarekin loturarik ez duen oztopo gisa.

2. TAULA. BIZI-ITXAROPENA NAFARROAN, 1976-1998

	1976	1981	1986	1991	1996	1998
e⁰						
Guztira	73,4	75,5	76,8	78,1	79,2	80,1
Gizonak	70,2	71,9	73,5	74,8	75,6	76,6
Emakumeak	76,7	79,3	80,3	81,5	82,9	83,6
e⁶⁵						
Guztira	15,2	16,4	17,5	18,2	19,1	19,4
Gizonak	13,7	14,5	15,5	16,2	16,8	17
Emakumeak	16,6	18,2	19,2	20,2	21	21,5

Iturria: NEIk emandako datuak

Espainiako joera orokorraren antzekoa espero da, nahiz eta hazkunde apur bat motelagoarekin, 2000an egiaztatu zenez. Aurten, bizi-itxaropena jaiotzean berdintsu dirau emakumeen kasuan eta gora egin du gizonei dagokienez (76,8 urte).


Dena dela, aldagai honen banaketa geografikoa ez da homogenea. Batez bestekoaren (e0) azpitik daude Nafarroako ipar-mendebaldea, Tafalla eta Iruña. Gainetik daude Nafarroako ipar-ekialdea, Lizarra, Tuter eta Iruñerria. Gertakari hau bertako herrien zahartze-mailarekin bat dator. 65 urterekin aldaketa txiki batzuk antzematen dira bizi-itxaropenean. Hau da Tuteraren kasua, batez bestekoaren azpitik baitago (19,1 urte).

5.2.1.2. POPULAZIOAREN EGITURA OROKORRA

Populazioaren egungo egoera azaltzeko kontuan hartu beharreko beste aldagai bat adinaren eta sexuaren arabera bilakaera demografikoa da. Horretarako, oso interesgarriak dira populazio-piramideak. Izan ere, euren itxurak egungo egoeraz gain, epe ertain eta luzean izanen den bilakaeraz ere informatzen baitigute.

Komeni da hainbat daturi erreparatzea, hala nola, 65 urtetik gorako biztanleen joerari eta, honen barne, 75 urtetik gorakoei; izan ere, mendekotasunerako joerarik handiena baitute. 70-74 urtetik 75-79 urtera bitarte, adinekoen beherakadarik nabarmenena jasotzen da (-1,14%). 65etik 74 urtera bitarte, (1929tik 1938ra jaiotakoak) geldialdia nabari da, eta 1929a baino lehen jaiotakoaren artean beheranzko joera da nagusi. Giza galera hauek gizonen artean gertatzen dira gehiago.

2. GRAFIKOA. NAFARROAKO POPULAZIO-PIRAMIDEA (2003)



Iturria: NEIren datuetan oinarrituriko piramidea

1939tik 1943ra bitarte jaiotako en arteko (60-64 urte) sargunea Gerra Zibilean edo lehenengo gerraostean jaiotakoei dagokie. Belaunaldi hori jubilatzetik gertu dago edo jadanik aurre-jubilatua izan da zenbait sektore ekonomikotan. Inguruabar honek bide ematen dio, edo bide emanen dio oso epe laburrean, Nafarroako zahartze-indizearen geldialdiari, nahiz eta aurreikusitako gainzahartzeak orekatuko duen.

Populazioaren hazkundera 1944tik 1958ra bitarte (45-59 urte) bizkortu zen. Gertakari hau ikusteko aski da 1939tik 1943ra (60-64 urte) eta 1944tik 1948ra (55-59 urte) bitarte jaiotako en sargune indartsuari erreparatzea. Gizon eta emakumeen arteko aldea oso txikia da 1944az geroztik jaiotako en artean. Horretaz gainera, gehiengoa gizonezkoa da adin-talde guztietan, gizonezkoen gainheriotza kontuan hartuta ere, lana edo bizimodua dela eta.

"Baby boom" delakoa 1959az geroztik jaiotakoen artean hasi eta 1978. urtera bitarte luzatzen da (25-44 urte). 1959az geroztik ere migrazio-mugimendu handiak gertatu dira, bai barne-migrazioak bai Amerikara eta, batez ere, Europara zuzendurikoak. Edozelan ere, bai Nafarroan bai Espainia osoan hazkunde demografikoaren hasierarik biziena 1964tik 1978ra bitarteko hamabost urteetan izan zen (Nafarroan: 1964tik 1973ra, Espainian: 1964tik 1978ra). Prozesu honek populazioaren maskulinizaziorako joera areagotu eta zahartze-tasaren hazkunde indartsua eraginen du, 2025tik aitzina. Joera hedakorra 1979tik aurrera eten egin zen.

Azken batean, Nafarroako populazio-piramidearen egoera demografikoa erregresiboa da edo zahartze-prozesuan erabat murgilduta dago. Era berean, helduko den etorkizunean zahartzeak gizarte- eta osasun-politiken derrigorrezko erreferentea izaten jarraituko du.

Baliteke sexuaren arabera banatutako adineko populazioaren artean gertatzen ahal den aldaera esanguratsu bakarra izatea, orokortzeko joera baitu. Horregatik, logikoa da jubilatze edo lan-merkatutik irteteko adina malgutu, "bizitza luzeagoa osasun onarekin" (MOE) lortu, eta gizarte eta osasun prebentzioa eta jokaera sozial, ekonomiko, kultural, eta abar berriak sustatzeari buruz hitz egitea; hori guztia berez baliatzeko gaitasunaren galera atzeratzeari bideratuta.

5.2.1.3. POPULAZIOAREN BANAKETA ADIN ETA SEXUAREN ARABERA

Espainiako eta Nafarroako adin eta sexuaren araberako populazioaren banaketak 1975etik 2003ra bitarte aldaketarik gehien jasan duten bi populazio-taldeetara hurbiltzen gaitu (3. taula): 15 urtetik beherakoak, eta 65 urte eta gehiagokoak. Nafarroaren kasuan, lehenengoaren beherakada garrantzitsuak (% 26tik % 14ra ia) bigarrenaren antzeko gorakadarekin bat gertatu da (% 11tik % 18ra ia). Horregatik iraun du Foru Komunitateko mendekotasun indizeak¹⁶ antzeko mailatan hogeii urte pasatxo hauetan, Espainian gertatu den bezala.

¹⁶ Mendekotasun Indizea (MI) populazio ez aktiboaren (15 urtetik beherakoak eta 65etik gorakoak) eta aktiboaren (15etik 65 urtera bitartekoak) arteko erlazioa da.

Kontuan hartu behar dugu ere bai, 65 urtetik gorako hazkundera 1975tik 2003ra bitarte % 92,8koa izan zela, eta 15 urtetik beherako kopurua % 37an murriztu zela denbora-tarte berean. Joera hau moteldu dela dirudi, 2002ko eta 2003ko portzentajeei begira. EINEko azken txostenetako batek dioenez, adinaren arabera etorkinen populazio-egiturak biztanleen zahartze-fenomenoari eutsiko dio, baina ez du geldituko.

Honela, baieztatzen ahal dugu egungo Nafarroa definitzen duten ezaugarrietako bat adinekoen ehuneko hartzen joan den garrantzia izan dela populazio osoari dagokionez. Fenomenoa zahartze-prozesu demografiko gisa ezagutzen da, adinekoen hazkunde gisa ulertuta. Fenomeno hau jokabide demografiko aldaketa sakonen emaitza izan da; nabarmenenak heriotza-tasaren murriztea eta Trantsizio Demografikoa deritzonaren finkatzea izan dira, jaiotza-tasa murriztu eta bizi-itxaropenak adin guztietan gora egitea eragin dutenak bereziki.

3. TAULA. NAFARROAKO POPULAZIOAREN BILAKAERA LAU ADIN-TALDETAN BANATUTA (1975-2003)

Adin-tarteak (%tan)						
0-14	15- 44	45- 64	65 eta gehiago	Guztira (%tan)	Guztira	
1975eko ERROLDA	25,92	41,45	21,63	11,00	100	486.718
1981eko ZENTSUA	23,97	42,04	22,01	11,98	100	509.002
1986ko ERROLDA	20,85	43,96	21,88	13,31	100	515.900
1991ko ZENTSUA	17,35	45,25	22,04	15,36	100	519.277
1996ko ERROLDA	14,29	45,53	22,80	17,38	100	520.574
2001eko ZENTSUA	13,72	45,20	22,98	18,08	100	555.829
2002/ 01/01ean	13,41	45,69	22,87	18,03	100	569.628
2003/01/01ean	13,73	45,27	23,15	17,85	100	578.210

2003ko hazkundera 1975eko erroldari dagokionez

2003 - 1975 urtea	-46.779	60.004	28.582	49.685	91.492	91.492
2003 - 1975 urtea (%tan) %	-37,08	% 29,74	% 27,14	% 92,84	% 18,80	% 18,80

Iturria: Homogeneizatutako zentsuak (EIN) eta erroldak (NEI) eta elaborazio propioa

Nafarroako egoera Espainiakoarekin alderatuz gero (4. Taula), antzekotasun garrantzitsuak antzematen dira, hala nola, sexuaren araberako banaketa (% 50ean ia) edo bi kasuetan biztanleen % 50 ia 15etik 44ra bitarteko adin-tartean kokatzen direla.

4. TAULA. NAFARROAKO ETA ESPAINIAKO POPULAZIOAREN PORTZENTAJE-BANAKETA ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2003)

	NAFARROA			ESPAINIA		
	Sexua			Sexua		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	578.210	288.991	289.219	42.717.064	21.034.326	21.682.738
0-14 urte	13,73	7,08	6,65	14,15	7,27	6,88
15-44 urte	45,27	23,58	21,69	46,34	23,68	22,65
45-64 urte	23,15	11,70	11,45	22,48	11,10	11,38
65 eta gehiago	17,85	7,62	10,23	17,03	7,19	9,85
Guztira (%otan)	100,00	49,98	50,02	100,00	49,24	50,76

Iturria: Biztanleen errolda (2003ko urtarrilak 1) eta elaborazio propioa

Nabardurazko hainbat ezberdintasun aipatzen ahal ditugu. Populazioaren zahartzea handiagoa da Nafarroan, bai 65 urtetik gorako biztanle gehiago daudelako bai 45etik 64ra bitarteko populazio-taldea handiagoa delako. Ondorioz, Espainiako populazio-multzoaren gaztetzea, neurri batean, baieztatzen ahal dugu.

Sexuari dagokionez, azpimarratzekoa da Nafarroako gizonen nagusitasuna 64 urtera bitarte, eta emakumeen nagusitasuna adin horretatik gora. Espainian, emakumeen kopurua handiagoa da 45 urtetik gorako taldeetan. Guztira, sexuaren araberako ezberdintasuna oso txikia da Nafarroan (% 0,04); Espainian, aldiz, % 1,52koa da.

5.2.2. POPULAZIOAREN ZAHARTZEA NAFARROAN

Zahartze-prozesua, Espainian oro har, abiadura handikoa izan da azken hamarkadetan; izan ere, 1991ko % 14,5etik % 16,5era eta % 17,3ra pasa baita 1996an eta 1998an, hurrenez hurren. Nafarroako

hazkundearen abiadura antzekoa izan da eta zahartze-maila handiagoarekin gainera. Hona bilakaera zenbakitan: % 11, 1975ean; % 15,46, 1991n; % 17,3, 1996an; eta, % 17,95, 1998an.

2000. urtean 40.499.791 biztanle zeuden Espainian. Horietatik % 17 ia, hau da, 6.700.000 biztanletik gora, 65 urte edo gehiagoko pertsonak ziren. 130.000 pertsonak baino gehiagok, gutxi gorabehera, gainditu dute kopuru hori urtero. 2003an, 7.276.620 biztanletara iritsi ziren, nahiz eta populazio osoaren % 17 izaten ziharduten. Nafarroan 2000. urtean, 543.757 biztanle zeuden eta adinekoen kopurua % 18koa zen. 2003an zeuden 578.210 biztanleen artetik % 17,85 ziren adinekoak. Hau da, zahartzearen hazkundean atzerakada txiki bat gertatu da. Gutxi gorabehera hori zen Nafarroarako eginiko aurreikuspena;

izan ere, 65 urteak gainditu dituzte Gerra Zibilean edo gerraostean jaiotakoek, eta, etorkinak etengabe sartu dira urte horietan zehar.

5.2.2.1. ADINEKOAK SEXU ETA ADINAREN ARABERA

65 urtetik gorako populazioa ez denez homoginoa, interesgarria da adin eta sexuaren arabera bereizketa abiapuntutzat hartzea. Adin-taldee dagokienez, ondoko taulan ikusten ahal dugu adin-talderik ugariena 65-69 urte bitartekoa dela eta, hortik aitzina, adinekoen kopuruak behera egiten duela nabarmenki. Bi inflexio nabarmen daude: 70etik 74ra bitarteko adin-taldetik 75etik 79ra bitarteko adin-taldera (4.286 pertsona desagertzen dira), eta azken adin-talde horretatik 80tik 84ra bitarteko adin-taldera (6.631 pertsona desagertzen dira). Adin-talde hauetan hasten dira, kasuaren arabera, ahultasunaren areagotzea, berez baliatzeko gaitasun-mailaren aldaketak eta mendekotasuna.

Adina eta sexua batera hartuz gero, jokabidean ezberdintasunak nabari dira. Emakumeei dagokienez, 70etik 74ra bitarteko adin-taldea da ugariena (% 23,9); gizonen kasuan, aldiz, 65etik 69ra bitartekoa da ugariena (% 29,5). Nahiz eta adinak gora egin ahala populazioak behera egiten duen, emakumerik gutxieneko adin-taldeak 75etik 79ra eta 80tik 84ra bitartekoak dira (3.012 emakume gutxiago). Gizonezkoen kasuan, joera ez da hain bortitza, 2.000 gizon gutxiago daude, batez beste, adin-taldeko.

5. TAULA. NAFARROAKO 65 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2003)

	NAFARROA			ESPAINIA		
	Sexua			Sexua		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	
65-69 urte	26.953	13.006	13.947	26,12	29,53	23,58
70-74 urte	26.269	12.087	14.182	25,45	27,44	23,97
75-79 urte	21.983	9.418	12.565	21,30	21,38	21,24
80-84 urte	15.352	5.799	9.553	14,88	13,17	16,15
85 eta gehiago	12.643	3.734	8.909	12,25	8,48	15,06
Guztira	103.200	44.044	59.156	100,00	100,00	100,00

Iturria: Biztanleen errolda (2003ko urtarrilak 1) eta elaborazio propioa

Adineko biztanleen bereizgarria emakumeen nagusitasuna da, euren bizi-itxaropen handiagorekin bat datorrena. 2003an, adineko populazioaren % 57,32 emakumeak ziren: % 51, 65etik 69ra bitarteko adin-taldekoak, eta, % 70,5, 85 eta hortik gorako adin-taldekoak. Zahartzaroaren feminizazio hau argiago geratzen da emakumeen tasatik abiatuta.

6. TAULA. NAFARROAKO EMAKUMEEN TASA ADIN-TALDEEN ARABERA (1998-2003)

Adina	Emakumeen tasa	
	1998	2003
65-69	109,5	107,2
70-74	119,7	117,3
75-79	140,9	133,4
80-84	179,5	164,7
85 y más	221,8	238,6
Guztira	135,6	134,3

Iturria: NEIak emaniko datuetan (1998) eta 2003ko erroldan oinarrituriko taula.

Aurreko taulako emakumeen tasaren arabera, "adinak gora egin ahala, emakume-kopuruak ere gora egiten du", eta, areagotu egiten da 85 urte eta gehiagoko adin-tartean. Dena dela, 1991tik 1998ra bitarte egiaztatutako joera antzematen da. Horren arabera, emakumeen tasak behera egiten du adin-talde guztietan. 1991n, adineko pertsonen emakumeen tasa 136koa zen; 1998an, 135,6koa; eta, 2003an 134,3koa. Datu hauek egiaztatzen dute gizonen gero eta arrakasta handiagoz gainditzen dituztela 65 urteak eta euren erikortasuna/hilkortasuna murriztu egin dela azken bizitza-urteetan. Hurbiltze-prozesu hau etorkizunean mantenduko dela dirudi.

5.2.2.2. ZAHARTZEA ETA GAINZAHARTZEA

Azken urteotan "zahartzaroaren zahartzea" edo gainzahartzea izena eman zaion fenomeno sortu da. Fenomeno hau 75 edo 80 urtetik gorakoan etengabeko hazkundera oinarritzen da. Muga ezartzeko adostasun batera iritsi ez den arren, aukerarik hedatuenetako bat da adinekoak (65-74 urte) eta agureak (75 urte eta gehiago) ezberdintzen dituen, adin-irizpideari jarraiki.

Espanian oro har, 75 urtetik gorakoak % 6,4 ziren 1996an, eta % 7,2ra igo ziren 2000. urtean. Nafarroan, populazio-egitura zaharkituagoa dela eta, % 7,4tik % 8,3ra igo zen 75etik gorako kopurua aipatu urteetan, eta % 8,64ra 2003an. Joerak adierazten dutenez, populazio-segmentu honek gora egiten jarraituko du. Hau gertaera gogoangarria izanen litzateke bilakaera demografikoan, Nafarroan bereziki; izan ere, XXI. mendeko lehen bosturtekoaren bukaeran 75 urtetik gorako ehunekoak 65etik 74ra bitartekoena (% 10,1, 2003an) gainditu ahalko baitu.

Baina, aztertu beharko dira ere bai, ahultasun handiko eta, gaur egun arte, ahultasun eta mendekotasun mailarik handieneko populazioaren ehuneko handi horrek izaten ahal dituen ondorio guztiak.

Laburbilduz, Nafarroako populazioa zahartze-prozesua jasaten ari da adin-piramidearen gailurretik zein oinetik, bizi-itxaropenaren hazkunderaren eta ugalkortasun-tasaren beherakadaren ondorioz.

Lehen prozesu horretan oinarrituta planifikatu beharko ditugu adinekoendako beharrezko baliabide eta zerbitzuak, agureen etengabeko hazkunderari erantzun ahal izateko.

Bigarren prozesuak epe ertainean (bi hamarkadaren ondotik) baizik ez du eraginik izanen sistema, bereziki pentsio sistema, finantzatzeko gaitasunaren gainean. Horretarako aurreikuspen-neurriak hartu beharko ditugu.

5.2.2.2.1. ZAHARTZEA, GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA

65 urte eta gehiagoko pertsonen ehunekoa, ikusi dugunez, Nafarroan aldatu egin da azken urteotan. 1998an, % 17,95koa zen; 2001ean, % 18,08koa; eta, 2003an % 17,84koa. Ezberdintasun hauek hautemangarriak dira halaber, barrutika aztertuz gero.

Ondoko taulak zahartze-tasak jasotzen ditu Gizarte Zerbitzuen barrutiak kontuan hartuta. Egoera orokorra ez da aldatu 1998tik 2001era bitarte. Balorerik altuenak Nafarroako ipar-ekialdeko, Lizarrako eta Tafallako barrutiei dagozkie; Iruñerriko eta Iruñeko barrutiak, aldiz, batez bestekoaren azpitik mantendu dira.

7. TAULA. NAFARROAKO POPULAZIOAREN ZAHARTZE-TASA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA (1998 ETA 2001)

Gizarte Zerbitzuen barrutiak	1998	2001
Ipar-mendebaldea	19,12	19,78
Ipar-ekialdea	25,32	25,94
Lizarra	22,91	22,99
Iruñerria	9,31	10,07
Tafalla	22,14	22,08
Erribera-Tutera	20,08	19,95
Iruña	17,61	17,79
Guztira (% tan)	17,95	18,08

Iturria: NEIak 1998rako emaniko datuak eta 2001eko biztanleen zentsua.

Tutera eta Tafallako barrutietan beherakada txikiak jasotzen dira (% 0,1 inguru); gainerako barrutietan, aldiz, goranzko pixkanakako joera mantentzen da, egoera egonkorraz hitz egitera eramaten gaituena (% 1az azpitik). Inmigrazioak ez du eragin handirik izan beraz, populazioaren zahartze-prozesuan.

Horren guztiaren arabera, zahartze-prozesuaren abiadura moteltzen jarraituko da, bereziki, maila altuagoko barrutietan, eta ez da hain nabarmena izanen maila baxuagokoetan (hala nola, Iruñerrian).

Zahartze-tasak barruti eta sexuaren araberako populazioaren banaketarekin (8. taula) alderatuz gero, baieztatzen ahal dugu ez dela despokatze eta zahartzearen arteko korrelaziorik ematen, Nafarroako ipar-ekialdean izan ezik. Era berean, antzematen da populaziorik gehien biltzen den lekuetan (Iruña, Iruñerria eta Tutera, hurrenez hurren), zahartze-tasak baxuagoak izan ohi direla, batez bestekoaren azpitik maiz.

8. TAULA. NAFARROAKO 65 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

Gizarte Zerbitzuko barrutiak	Guztira 65 urte <	Sexua		Guztira (% tan)	Sexua		65 urte < Populazio osoa kontuan hartuta ¹
		Gizonak	Emakumeak		Gizonak	Emakumeak	
Ipar-mendebaldea	10.084	4.591	5.493	10,03	4,57	5,47	9,17
Ipar-ekialdea	5.206	2.394	2.812	5,18	2,38	2,8	3,61
Lizarra	15.454	6.802	8.652	15,38	6,77	8,61	12,1
Iruñerria	10.689	4.684	6.005	10,63	4,66	5,97	19,09
Tafalla	9.517	4.104	5.413	9,47	4,08	5,39	7,75
Erribera-Tutera	16.827	7.242	9.585	16,74	7,21	9,54	15,18
Iruña	32.731	13.117	19.614	32,57	13,05	19,51	33,1
Guztira	100.508	42.934	57.574	100	42,72	57,28	100

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

(1) 2001eko populazio osoa 555.829 biztanlekoa zen.

Gizarte Zerbitzuen barrutien araberako adineko biztanleen banaketak erakusten digunez, 3tik bat Iruñean dago. Beste hainbat banatzen dira Erribera eta Lizarraren artean. % 10arekin bakoitza aurkitzen ditugu ipar-mendebaldeko, Iruñerriko eta Tafallako barrutiak. Ipar-ekialdeko barrutian % 5 baizik ez daude.

Maila orokorrean gertatzen den bezala, barruti guztietan emakumezkoak dira nagusi (% 57), eta Iruñean aurkitzen ditugu gehienak (% 19,5). Tuteran eta Lizarrako barrutietan ere emakume zahar gehiago daude. Iparraldeko bi barrutietan, emakumeen proportzioa batez bestekoaren azpitik dago % 54ean.

Barruti bakoitzeko adinekoen adin eta sexuaren araberako banaketak populazioaren gainzahartzea eta agureen feminizazioa erakusten digu (9. taula). Era berean, 65etik 74ra bitarteko adinekoen nagusitasuna baieztatzen da (% 53,12), eta, baita populazioaren etengabeko galera ere, adinak aurrera egin ahala (% 11,6 85 urtetik gorakoak dira).

Baina, azpimarratu behar da batez bestekoa gainditzen dutela, 65etik 74ra bitarteko adin taldeari dagokionez, Iruñerriko, iparmendebaldeko eta Iruñeko barrutiak; eta 75etik 84ra bitarteko taldeari dagokionez, ipar-ekialdeko, Erriberako, Lizarrako eta Tafallako barrutiak. 85 urtetik gorakoen adin-taldeari dagokionez, ipar-ekialdeko eta Tafallako barrutiak nabarmentzen dira. Esparru orokor honen barruan, sexu eta adinaren araberako bereizketa egiten ahal dugu.

9. TAULA. ADINEKOEN PORTZENTAJE-BANAKETA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI, ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2001)66

Adin-tarteak (% tan)				
Guztira	65-74	75-84	85, edo gehiago	Guztira
Ipar-mendebaldea	54,60	34,39	11,01	100
Ipar-ekialdea	47,88	39,27	12,85	100
Lizarra	51,14	36,93	11,93	100
Iruñerria	57,38	31,73	10,89	100
Tafalla	51,61	36,33	12,05	100
Erribera	51,89	37,34	10,77	100
Iruña	54,12	33,97	11,91	100
Guztira	53,12	35,30	11,59	100

GIZONAK				
Ipar-mendebaldea	60,77	31,91	7,32	100
Ipar-ekialdea	52,09	38,35	9,57	100
Lizarra	56,40	35,68	7,92	100
Iruñerria	63,60	29,16	7,24	100
Tafalla	56,14	34,94	8,92	100
Erribera	55,82	36,36	7,82	100
Iruña	60,21	31,48	8,31	100
Gizonak guztira	58,45	33,47	8,07	100

EMAKUMEAK				
Ipar-mendebaldea	49,45	36,46	14,09	100
Ipar-ekialdea	44,31	40,04	15,65	100
Lizarra	47,00	37,91	15,08	100
Iruñerria	52,52	33,74	13,74	100
Tafalla	48,18	37,39	14,43	100
Erribera	48,91	38,08	13,01	100
Iruña	50,05	35,64	14,32	100
Emakumeak guztira	49,15	36,65	14,21	100

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

65etik 74ra bitarteko adin-taldean, batez bestekoa gaintitzen duten hiru barrutiak, nahiz eta garrantzi-ordena ezberdinean, hala nola, batez

bestekoaren oso azpitik daudenak (ipar-ekialdea) irudikatzen dira. Adinekoen taldea da ugariena, baina emakumeak ez dira erdira ere iristen eta gizonak erdia aise gainditzen dute (% 58,45).

Antzekoa gertatzen da 75etik 84 urtera bitarteko taldean. Kasu honetan, esanguratsua da adinekoen herena, bai emakumeei (% 36,65) bai gizonezkoiei (% 33,47) dagokienez, talde honen barruan dagoela.

Hirugarren adin-taldean sexuaren arabera ezberdintasun nabariak daude. Gizonen ehunetik handienak Nafarroako ipar-ekialdean, Tafallan eta Iruñean aurkitzen ditugu. Emakumeen ehunetik handienak Nafarroako ipar-mendebaldean eta Lizarran jasotzen dira, eta Iruñerriak eta Nafarroako ipar-mendebaldeak ez dute batez bestekoa gainditzen (% 14,2).

Hau guztia esanda, baieztatzen ahal dugu gainzahartzea emakumeen artean nagusi dela (emakumeen % 50,86 75 urtetik gora dituzte) eta, barrutien arabera, Nafarroako ipar-mendebaldean eta Lizarran jasotzen direla balorerik altuenak.

5.2.2.2.2. ZAHARTZEA, GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA¹⁷

Oinarrizko unitateen arabera analisiak ikusitako hainbat auzi argitzea, hala nola, zehaztapen-mailan behera egitea ahalbidetuko digu.

Unitateen arabera adinekoen banaketa 10. taulan jasotzen da. Bertan, kopuru absolutuetan adinekoen gehien dituzten hamar unitateak eta adinekoen gutxien dituzten beste hamarrak bereizten dira. Udalerririk handienak barne hartzen dituzten unitateetan, hala nola, Iruñean, Tuteran, Lizarran edo Tafallan, eta hirigune handietatik gertuko beste hainbatetan, hala nola, Cascanten, Valtierran edo San Adrianen, Nafarroako adinekoen % 60 bizi dira. Bere aldetik, adinekoen gutxien biltzen dituzten unitateek % 6a bainik ez dute osatzen.

¹⁷ Oinarrizko 42 unitateak begiesten dira, Aranguren, Egues eta Iruña barne.

10. TAULA. ADINEKORIK GEHIENEO ETA GUTXIENEO GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEAK (2001)68

	65 urte edo gehiagoko		65 urte edo gehiagoko		
	pertsonek gehieneko unitateak		pertsonek gutxieneko unitateak		
	Guztira 64 urte <	Biztanleak guztira		Guztira 64 urte <	Biztanleak guztira
Iruña	32.731	183.964	Egues	229	3.413
Tutera	4.931	29.918	Aranguren	284	4.050
Valtierra	2.898	11.878	Izaba	491	1.628
Buñuel	2.728	13.550	Zaraitzu	587	2.048
Lizarra	2.652	14.547	Orkoien	652	4.249
Azkoien	2.574	12.759	Leitza	701	4.216
San Adrián	2.559	13.112	Zizur	709	13.108
Zangoza	2.524	10.077	Agoitz	763	3.205
Tafalla	2.416	11.998	Ultzama	764	3.342
Cascante	2.381	10.562	Auritz	841	3.112

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Oinarrizko 20 unitateetan emakumeak gizonak baino gehiago dira. Adineko emakumerik gehien Barañain, Iruña, Tutera eta Lizarrako oinarrizko unitateetan aurkitzen ditugu (% 60). Beste muturrean Izaba eta Leitza, % 49arekin, eta Auritz, Irurtzun eta Egues ditugu, % 48arekin.

Ondoko taulan zahartze-tasarik altueneko oinarrizko unitateak jasotzen dira. Ikusten ahal dugunez, populazio oso zaharkituetan ez da ohikoa adinekoen kopuru handiagoak egotea. Los Arcos-ko oinarrizko unitatea Nafarroako zahartze-tasarik altuena du zalantzarik gabe; izan ere, bertako biztanleen herena 65 urtetik gorakoa baita.

Gertutik jarraitzen zatzaizkio Allo, Antzin, Ameskoa eta Zaraitzu. Hamar unitaterik zaharkituenetan hirutik bat edo lautik bat (Zarrakastelu, Erriberri, Zangoza, e.a.) adinekoa da.

Gazteagotutako populazioa dute Zizur (% 5,4), Egues, Aranguren, Barañain eta Berriozarrek, guztiak Iruñerriako oinarrizko unitateak eta

"lohiriak". Ezaugarri berberak dituzte gainerako unitateek, Tuterak izan ezik. Tuterako unitatean, gainera, gauza paradoxiko bat gertatzen da, adinekorik gehien bizi diren bigarren unitatea (4.931) eta zahartze-tasarik baxuenetakoa duena (% 16,48) baita.

11. TAULA. ZAHARTZE-TASAK GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

	Zahartze-tasarik altuenak		Zahartze-tasarik baxuenak		
	Guztira 64 urte<	Zahartze- tasa	Guztira 64 urte<	Zahartze- tasa	
Los Arcos	1.022	36,40	Zizur	709	5,41
Izaba	491	30,16	Egues	229	6,71
Allo	1.638	29,38	Aranguren	284	7,01
Antzin-Ameskoa	1.318	29,22	Barañain	1.524	7,25
Zaraitzu	587	28,66	Berriozar	1.414	8,18
Auritz	841	27,02	Atarrabia	1.219	11,08
Mendabia	1.780	26,90	Burlata	2.306	13,44
Zangoza	2.524	25,05	Noain	1.379	14,55
Erriberri	1.944	24,93	Orkoien	652	15,34
Zarrakaztelu	1.283	24,81	Tutera	4.931	16,48

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Amaitzeko aipatuko dugu, hainbat oinarrizko unitateetan, hala nola, Agoitzen, Cintruénigon, Zangozan edo Zaraitzun, bertako adinekoen % 50ek 75 urtetik gora dituztela. Burlata, Orkoien, Ultzama edo Eguesko unitateetan ez dira % 45era iristen. Hau da, unitatearen arabeko populazioaren gainzahartzearen banaketa zahartzearen banaketaren antzekoa da.

5.2.2.3. ADINEKOEN EGOERA ZIBILA

Familia-egituran eta, ondorioz, zenbait familiek beren kideei ematen dieten laguntza informalaren baliabideetan, izaten ahal diren aldaketak antzemateko, kontuan hartu behar dugu adinekoen egoera zibila.

12. taulak egoera zibil eta sexuaren araberako adinekoen ehunekoak eta kopuru absolutuak biltzen ditu. Ezkondutakoak dira nagusi. Egoera honetan daudenen kopuruak gora egiten jarraitu du 1991tik aitzina (% 53,6); 2001ean % 57,8 ziren. Hamarkada horretan bertan, goranzko joera aurkezten dute halaber, banandutakoak (% 0,3tik % 0,56ra) eta dibortziatuek (% 0,1etik % 0,2ra). Beste alde batetik, adineko alargunen kopurua iraunkor mantendu da (% 29 inguru), eta emakume ezkongabeen kopuruak behera egin du (% 16tik 1996an, % 12,6ra 2001ean).

12. TAULA. ADINEKOEN EGOERA ZIBILA NAFARROAN (2001)

	Gizonak Emakumeak		Guztira	Gizonak Emakumeak (% tan) (% tan)		Guztira (% tan)
Ezkongabeak	5.534	6.575	12.109	5,79	6,87	12,66
Ezkondutakoak	30.820	24.474	55.294	32,22	25,59	57,81
Alargunak	4.742	22.758	27.500	4,96	23,79	28,75
Banandutakoak	245	295	540	0,26	0,31	0,56
Dibortziatuak	97	108	205	0,10	0,11	0,21
Guztira	41.438	54.210	95.648	43,32	56,68	100,00

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Lerro orokor hauek zehaztu egiten dira sexu-aldaerari esker. 65 urte edo gehiagoko gizonazkorik gehienak ezkondu daude, 41.438tik % 75 hain zuzen ere, eta ezkondutako gizon-emakume guztien erdia baino gehiago izatera iritsi dira. Emakumeen kasuan, adineko 54.210 emakumeen % 45 baizik ez dago ezkondu.

Gainerako egoera zibiletan, aldiz, emakumeak dira nagusi. Aipagarriena adineko emakume alargunen kopuru handia da, euren bizitza-luzeraren ondorioz, bereziki. Adineko 27.500 alargunetatik % 83 emakumeak dira, 1996tik aitzinako kopuru bera.

Gizarte Zerbitzuen barrutiak kontuan hartuta, ezberdintasun konparatiboak antzematen dira. Egoerarik deigarriena ezkongabeena

da. Nafarroako ipar-ekialdeko adinekoen % 21,37 ezkongabeak dira; Erriberan, aldiz, % 8,06 baino ez (13. taula). Ipar-ekialdean, beraz, barruti guztien artetik ezkonduetakoen, alargunen, banandutakoena eta dibortziatuen ehunekorik baxuenak ditugu, eta Erriberan daude ezkonduetako adinekorik gehien. Iruña, ordea, alargun gehieneko barrutia da eta, Iruñerrian banandutakoena eta dibortziatuen ehunekorik altuenak daude.

13. TAULA. NAFARROAKO ADINEKOEN PORTZENTAJE-BANAKETA EGOERA ZIBIL ETA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA (2001)

Guztira	Ezkongabeak	Ezkonduetakoa	Alargunak	Banandutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Ipar-mendebaldea	19,03	52,23	28,28	0,32	0,13	100,00
Ipar-ekialdea	21,37	52,19	26,01	0,30	0,12	100,00
Lizarra	13,44	58,10	27,86	0,44	0,16	100,00
Iruñerria	12,15	57,95	28,72	0,90	0,29	100,00
Tafalla	10,71	59,69	29,09	0,43	0,07	100,00
Erribera	8,06	62,15	29,05	0,47	0,26	100,00
Iruña	12,02	57,47	29,52	0,72	0,28	100,00
Guztira	12,66	57,81	28,75	0,56	0,21	100,00

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Ezberdintasun aipagarriak ezartzen ahal dira sexu eta barrutiaren arabera (2. eranskina: 102. taula). Nafarroako ipar-mendebaldean ezkonduetako adineko emakumezkoen gehien daude, baina baita adineko emakumezko alargunak gehien ere (adineko emakumezkoen % 44,4 alargunak dira eta % 41,2 ezkonduetako daude). Nafarroako ipar-ekialdean adineko gizon-emakume ezkongaberik gehien daude (gizonezkoen % 26,15 eta emakumezkoen % 17,24). Gizon ezkongaberik gutxien Iruñean daude (% 8,54%) eta Erriberan emakumezkoen gutxien (% 7,46).

65 urtetik gorakoena egoera zibila ulertzeko arrazoi historikoak hartu behar dira kontuan, hala nola, ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko maskulinizazioa jabetza-erregimen zehatz baten nagusiaren ondorioz,

Gerra Zibilaren ondorioak, migrazio-fluxuen eredia edo hirigunerik garrantzitsuenen feminizazioa. Ez ditugu ahaztu behar hedatutako familia-praktikak, emakumezko alargunei, bereziki, euren seme-alabekin hirigune handitan bizitzea edo ezkongabeei euren anaia-arrebekin bizitzea eragin dietenak.

Honek azaltzen du egoera zibilaren banaketa ezberdina, Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera. 14. taulan jasotzen dira ezkontutakoehunekorik handienak eta txikiak, unitateen arabera.

14. TAULA. EZKONDUTAKO 65 URTE EDO GEHIAGOKO ADINEKOEN EHUNEKORIK HANDIENAK ETA TXIKIENAK GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

Ezkontutakoehunekorik handienak			Ezkontutakoehunekorik txikiak		
	%	Guztira		%	Guztira
Ezkontutakoak		64 urte<	(% tan)		64 urte<
Buñuel	63,68	2.671	Ultzama	41,57	676
Corella	62,77	2.052	Auritz	43,37	837
Egues	62,73	220	Elizondo	44,86	1.625
Tutera	62,57	4.569	Zaraitzu	46,17	587
Burlata	62,40	2.061	Doneztebe	46,95	933
Azkoien	62,20	2.442	Antzin-Ameskoa	48,79	1.318
Cascante	62,17	2.255	Irurtzun	49,01	1.214
Etxarri Aranatz	61,56	1.246	Izaba	49,69	491
Mendabia	61,44	1.748	Orkoien	50,15	652
San Adrián	60,99	2.489	Agoitx	51,37	730

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Buñuelgo oinarrizko unitatean daude ezkontutako adinekorik gehien, bertako 2.671 adinekoen % 64 ezkontuta daude. Kontrako muturrean Ultzamako Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitatea dugu, % 42 baino ez baitaude ezkontuta. Nabariak dira, kasu honetan, mendialdearen eta erriberaren arteko ezberdintasunak.

Gizonezko ezkongabe gehiago daude emakumezko baino. Ondoko taulan gizonezkoen ehunekoak jasotzen dira. Deigarria da gizonezko

ezkongaberik gehieneko hamar unitateak ezkonduko gizonekorik gutxieneko unitateekin bat egitea. Ez da gauza bera gertatzen ezkongabe-tasarik baxuenekin, ordea. Ikusten ahal dugunez, gero eta udalerrri handiagoa, orduan eta gizonetzko ezkongabe gutxiago.

15. TAULA. 65 URTE EDO GEHIAGOKO GIZON EZKONGABEEN EHUNEKORIK HANDIENAK ETA TXIKIENAK GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

	Gizon ezkongabeen ehunekorik handienak		Gizon ezkongabeen ehunekorik txikiak		
	Ezkongabea (% tan)	Gizonak 64 urte<	Ezkongabeak (% tan)	Gizonak 64 urte<	
Ultzama	42,27	343	Tutera	5,93	1.922
Auritz	35,80	405	Barañain	7,28	604
Irurtzun	34,95	598	San Adrián	7,66	1.058
Zaraitzu	33,70	270	Corella	7,67	886
Izaba	30,99	242	Iruña	8,64	12.564
Doneztebe	29,02	441	Burlata	8,67	946
Elizondo	27,78	720	Azkoien	8,70	1.058
Antzin-Ameskoa	26,59	598	Cascante	9,27	1.003
Orkoien	25,00	304	Lizarra	9,46	1.015
Agoitz	24,93	337	Tafalla	10,10	941

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Gorago adierazi bezala, alargun gehienak emakumeak dira. Ondoko taularekin egiaztatzen ahal dugu emakume alargunik gehienak Iruñerriko eta Nafarroako ipar-mendebaldeko oinarrizko unitateetan, hala nola, Cintruenigon daudela. Nafarroako hainbat unitateetan aurkitzen ditugu ehunekorik txikiak. Hauek Izaban eta gertutik jarraitzen dion Eguesen jasotzen dira, eta ez dira % 34ra iristen.

16. TAULA. 65 URTE EDO GEHIAGOKO EMAKUME ALARGUNEN EHUNEKORIK HANDIENAK ETA TXIKIENAK GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

Emakume alargunen ehunekorik handienak			Emakume alargunen ehunekorik txikiak		
	Alargunak (% tan)	Emakumeak 64 urte<		Alargunak (% tan)	Emakumeak 64 urte<
Elizondo	50,17	905	Izaba	33,33	249
Aranguren	48,34	151	Egues	33,64	110
Doneztebe	46,95	492	Villatuerta	34,58	590
Atarrabia	46,93	652	Los Arcos	36,45	557
Leitza	46,37	358	Etxarri Aranatz	37,60	649
Zizur	45,10	357	Buñuel	38,65	1.449
Orkoién	44,83	348	Mendabia	38,67	949
Cintruénigo	44,54	916	Zangoza	38,92	1.277
Ultzama	44,44	333	Noain	38,92	722
Berriozar	44,26	775	Viana	39,19	467

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

5.2.2.4. IKASKETA-MAILA

Azken bi hamarkadetan Nafarroan, Espainia osoan bezala, alfabetatu gabeen, ikasketarik gabekoen edo lehen-mailako ikasketak dituztenen kopuruak behera egin du. Batxilergoa edo antzeko ikasketak eta goi-mailako ikasketak dituztenen kopuruak, aldiz, gora egin du. Horrela, adinekoen artetik gazteenak ikasketa-maila ezberdinekin iristen dira "adinekoen artetik nagusienak" izatera. Hortaz, behar, diru-sarrerara, erosteko gaitasun, ondasun- eta zerbitzu-eskaera, eta abar ezberdinak dituzte maiz. Ondoko taulan Nafarroako 2001eko ikasketa-maila adierazten da.

17. TAULA. NAFARROAKO ADINEKOEN IKASKETA-MAILAREN PORTZENTAJE-BANAKETA (2001)

	Lehen-mailakoak edo gutxiago	Graduatua, Batxilergoa edo baliokidea	Unibertsitate ikasketak	Guztira
Ipar-mendebaldea	74,65	23,71	1,64	100,00
Ipar-ekialdea	59,78	38,01	2,21	100,00
Lizarra	76,02	21,67	2,32	100,00
Iruñerria	65,69	31,06	3,24	100,00
Tafalla	75,76	22,22	2,02	100,00
Erribera	77,68	20,50	1,82	100,00
Iruña	60,28	31,17	8,56	100,00
Guztira	69,08	26,66	4,26	100,00

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

"Ikasketarik gabe edo lehen-mailako ikasketa" mailan kokatzen dira 65 urtetik gorako gehienak (% 67). Garrantzitsua da halaber, "Oinarrizko Batxilergoa/LHI, erdi-mailako LH, Ofizialtza Industrialak" egin zutenen taldea, % 23 baitira. Gainerako mailak % 3k baino gutxiagok osatzen dituzte. Datu hauen arabera, adineko pertsonak erdi-mailako eta erdi-behe-mailako heziketan kokatzen dira, baina, 1996tik aitzina, atalaren hasieran adierazitako norabiderantz jotzen duten aldaketa esanguratsu batzuk geratu dira. 1996an, "ikasketarik gabe edo lehen-mailako ikasketa" maila % 83k osatzen zuten, "Oinarrizko Batxilergoa/LHI" maila % 8k, eta "Unibertsitate-lizentziaduna" eta "ez daki irakurtzen edo idazten" mailak % 1,6k bakoitzak.

Sexuari erreparatzen badiogu, gizonezkoen hezkuntza-maila emakumezkoenaren gainetik dago. Ezberdintasunik handienak muturreko mailetan antzeman ditzakegu (14. taula). Adineko 1.959 alfabetatu gabeetatik % 70 emakumeak dira. "Unibertsitate (4 ikasturte edo gehiago)" eta "Doktoretza/gardatuondoko" kategorietan % 77 eta % 83,8, hurrenez hurren, gizonezkoak dira. Datu hauek bi arrazoi dituzte funtsean:

- Alfabetatu gabeen, edota ikasketarik gabe edo lehen-mailako ikasketak eta Oinarrizko Batxilergoa/LHI dutenen artetik gehienak emakumeak dira, adineko pertsona-taldeen feminizazioaren ondorioz.

- Emakumeak nagusi dira ere bai, hiru urteko unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, zenbait lanbideren feminizazioa dela eta (erizaintza, gizarte-lana/gizarte-laguntzailea eta maisutza).

18. TAULA. 64 URTEK GORAKOEN IKASKETA-MAILA SEXUAREN ARABERA, PORTZENTAJE BERTIKALEAN

	65 urte edo gehiago			65 urte edo gehiago (% tan)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ez daki irakurtzen edo idazten	585	1.374	1.959	1,41	2,53	2,05
Ikasketarik gabe edo lehen-mailako ikasketak	26.716	37.401	64.117	64,47	68,99	67,03
Oinarrizko Batxilergoa/ LHI, erdi-mailako LH, Ofizialtza Industriala	9.905	12.385	22.290	23,90	22,85	23,30
LHII, goi-mailako LH, Maisutza industriala	463	223	686	1,12	0,41	0,72
Goi-mailako Batxilergoa, BBB, Batxilergoa, LOGSE, UBI, Unibertsitate aurrekoa	1.354	1.170	2.524	3,27	2,16	2,64
Unibertsitatea (3 ikasturte) Unibertsitatea	955	1.248	2.203	2,30	2,30	2,30
(4 ikasturte edo gehiago) Doktoretza edo	1.211	361	1.572	2,92	0,67	1,64
graduatuondokoa	249	48	297	0,60	0,09	0,31
Guztira	41.438	54.210	95.648	100,00	100,00	100,00

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Gizarte Zerbitzuen barrutietara hurbiltzeak hainbat ñabardura interesgarri ematen dizkigu, gehien edo gutxien eskatzen diren baliabide eta zerbitzuak ezartzeari begira (19. taula). Nafarroako ipar-ekialdean lehen-mailako edo hortik beherako ikasketak dituzten gizon-emakumeen kopururik txikienak, eta batxilergo, graduatu edo baliokideak dituztenen kopururik handienak daude.

Tuterako barrutian lehen-mailako edo hortik beherako ikasketak dituzten gizon-emakumeen kopururik handienak, eta batxilergo, graduatu edo baliokideak dituztenen kopururik txikienak daude. Iruñean, logikoa denez, unibertsitate-ikasketak dituztenen kopururik handienak daude, nahiz eta gainerako ikasketa-mailetan erdiko posizioetan egon.

19. TAULA. NAFARROAKO ADINEKO PERTSONEN IKASKETA-MAILAREN PORTZENTAJE-BANAKETA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

	Lehen-mailakoak edo gutxiago	Graduatu, Batxilergoa edo baliokidea	Unibertsitate-ikasketak	Guztira
GUZTIRA				
Ipar-mendebaldea	74,65	23,71	1,64	100,00
Ipar-ekialdea	59,78	38,01	2,21	100,00
Lizarra	76,02	21,67	2,32	100,00
Iruñerria	65,69	31,06	3,24	100,00
Tafalla	75,76	22,22	2,02	100,00
Erribera	77,68	20,50	1,82	100,00
Iruña	60,28	31,17	8,56	100,00
Guztira	69,08	26,66	4,26	100,00
GIZONAK				
Ipar-mendebaldea	73,17	24,73	2,11	100,00
Ipar-ekialdea	57,84	39,22	2,94	100,00
Lizarra	73,67	23,22	3,11	100,00
Iruñerria	61,94	33,60	4,46	100,00
Tafalla	74,14	23,32	2,54	100,00
Erribera	75,63	21,85	2,52	100,00
Iruña	54,14	33,39	12,47	100,00
Gizonak, guztira	65,88	28,29	5,83	100,00
EMAKUMEAK				
Ipar-mendebaldea	75,94	22,82	1,23	100,00
Ipar-ekialdea	61,47	36,96	1,57	100,00
Lizarra	77,89	20,43	1,69	100,00
Iruñerria	68,81	28,96	2,24	100,00
Tafalla	76,99	21,38	1,63	100,00
Erribera	79,27	19,46	1,28	100,00
Iruña	64,45	29,66	5,90	100,00
Emakumeak, guztira	71,53	25,42	3,06	100,00

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera ikasketa-mailaren analisiari dagokionez, ondoko tauletan unibertsitate-mailako ikasketen eta lehen-mailako edo maila gutxiagoko ikasketen kategoriak jasotzen dira.

Unibertsitate-ikasketa gehieneko adinekoak dituzten oinarrizko unitateak (% 8) Egues, Iruña eta Zizur dira. Oro har, jasotzen diren hamar unitateak Nafarroako hirigune handiei eta haien unitateei edo Iruñetik gertuen daudenei dagozkie. Etxarri Aranatz, Cascante eta Valtierran ez dira % 1era iristen. Aipatu hamar unitateetan atentzioa deitzen dute Lodosa eta Orkoiengo unitateek, lehen-mailako edo maila gutxiagoko ikasketak dituzten gizonezkoen ehunekoak (% 2,59) emakumezkoena baino askoz handiagoa baita (% 0,38) eta, bigarren kategorian ezberdintasun handirik ez dagoen arren, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeen ehunekoak (% 1,15) gizonezkoena baino handiagoa da (% 0,9).

20. TAULA. ADINEKO PERTSONEK AMAITUTAKO UNIBERTSITATE- IKASKETEN EHUNEKOA SEXU ETA GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	Unibertsitarioak
				guztira (64 urte<)
Ehunekorik handienak				
Egues	13,64	7,27	10,45	23
Iruña	12,47	5,90	8,56	2.657
Zizur	11,45	5,88	8,41	55
Aranguren	9,02	4,64	6,69	19
Barañain	8,28	4,69	6,22	88
Lizarra	5,52	2,92	4,00	98
Gares	4,41	2,66	3,46	48
Tutera	4,16	2,08	2,95	135
Auritz	3,21	2,08	2,63	22
Elizondo	3,47	1,77	2,52	41
Ehunekorik txikienak				
Etxarri Aranatz	1,34	0,15	0,72	9
Cascante	1,30	0,64	0,93	21
Valtierra	1,45	0,64	0,99	28
Orkoiengo	0,99	1,15	1,07	7
Altsasu	1,35	0,95	1,12	19
Buñuel	1,39	1,04	1,20	32
Lodosa	2,59	0,38	1,32	12
Azkoien	1,70	1,08	1,35	33
Lesaka	1,61	1,24	1,41	21
Berriozar	1,75	1,16	1,43	20

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Oinarrizko unitateen artean ikasketa mailarik baxuenetan ere ezberdintasunak antzematen dira (17. taula). Ikasketa-maila baxuko adinekoen ehunekorik handienak dituzten oinarrizko unitateak Los Arcos, Azkoien eta Cascante (% 88tik gora) dira. Doneztebe eta Elizondo kenduta, gainerako unitateak Erribera eta erdialdeko Nafarroaren artean banatzen dira.

Ehunekorik handienak Agoitz (% 40), Izaba (% 44) eta Zaraitzuko (% 46,5) unitateetan aurkitzen ditugu. Ikasketa-mailarik baxuenetan emakumeak nagusi diren arren, Vianan, Leitza eta Auritzen kontrakoa gertatzen da.

21. TAULA. IKASKETA-MAILA BAXUKO ADINEKOEN EHUNEKOA SEXU ETA GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	Ikasketak guztira (64 urte<)
Ehunekorik handienak				
Los Arcos	88,35	90,66	89,62	907
Azkoien	87,15	89,38	88,41	2.159
Cascante	86,94	88,50	87,80	1.980
Artaxoa	85,10	87,74	86,55	1.075
Villatuerta	84,99	87,12	86,11	967
San Adrián	82,99	88,33	86,06	2.142
Buñuel	83,55	86,06	84,91	2.268
Doneztebe	82,99	84,35	83,71	781
Elizondo	80,69	82,87	81,91	1.331
Cintruénigo	81,02	82,42	81,81	1.327
Ehunekorik txikienak				
Agoitz	37,69	42,75	40,41	295
Izaba	43,39	44,98	44,20	217
Zaraitzu	42,96	49,53	46,51	273
Viana	48,06	47,97	48,01	422
Leitza	54,23	51,96	53,07	372
Barañain	52,65	63,95	59,12	836
Auritz	61,73	57,87	59,74	500
Tafalla	56,85	62,09	59,86	1.321
Iruña	54,14	64,45	60,28	18.718
Zizur	57,91	64,15	61,31	401

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzien zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

5.2.2.5. ADINEKOEN BIZIKIDETZA ERAK

Adin bakoitza garai eta toki zehatzean garatzen da. Zahartzaroa ez da salbuespena. Bere eszenatoki sozial eta espazialak adinekoen ezaugarri, behar eta gabeziak hobe ezagutzeko baliagarriak izanen zaizkigu. Eszenatoki sozialek, zehazki, gizartearen, zahartzaroaren, eta adinekoen osasun egoeraren eta bizi-kalitatearen arteko harremanetara hurbiltzen gaituzte. Askotarikoak dira (familia, bikotea, lagunak, bizilagunak, e.a.), eta euren artean harreman sistematiko ezberdinak ezartzen dira.

Eszenatoki sozial hauek guztiek adierazten dute zahartzaroa nola bizitzen ari diren, behin euren mundu soziala berregin eta gero, lan-jarduera arautua alde batera utzi eta ahultasun eta mendekotasun egoerara iritsi arte. Hau guztia kontuan hartzen badugu, adinekoen gizarte-arriskuko faktoreak zehaztu eta antzeman ahalko ditugu: bakardadea eta gizarte-isolamendua, mentalki eta fisikoki duten osasun egoera mugatzen duten faktoreak.

Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkestaren (2001) arabera, Nafarroako adinekoen % 80 beste pertsonaren batekin bizi dira (22. taula). Hauetatik gehienak bikotearekin (% 38,4) edo bikote eta seme-alabekin (% 14,6) bizi dira. Ohikoa da halaber, etxebizitza batean bakarrik bizitzea (% 21,4) edo "bestelako etxe-motetan" bizitzea (% 15). Dena dela, taulan ikusiko dugunez, hau ez da Nafarroan gertatzen; izan ere, etxebizitzaren % 50ean ia, bikote eta seme-alabak bizi baitira.

22. TAULA. NAFARROAKO ADINEKOAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN TIPOLOGIA ETA BATEZ BESTEKO TAMAINAREN ZENBATESPENA ETA KOPURU OSOA (2001)¹⁸

	Etxebizitzen proportzioa (64 urte<)	Tamainaren batez bestekoa (64<)	Etxebizitzen proportzioa Nafarroan
Bakarrik bizi diren pertsonak	21,4	1,0	9,2
Seme-alabarik gabeko bikotea	38,4	2,0	17,5
Bikotea, seme-alabekin	14,6	3,5	49,1
Guraso bakarra	6,0	2,4	5,4
Bikotea, seme-alaba eta bestelako senideekin	1,1	4,2	1,5
Bikotea, seme-alaba eta aita edo ama	2,2	4,9	3,8
Bestelako etxe-motak	15,1	3,2	10,6
Pertsona bakarrik, beste batekin	1,4	2,5	2,9
Guztira	100,0	2,3	100,0

Iturria: Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkesta (2001) eta elaborazio propioa.

2001eko biztanleen zentsuan jasotako datuen arabera, adinekoek osatutako etxebizitzak bereizten ahal dira, sexua kontuan hartuta. Pertsona bat bakarrik bizi den kasuetan gertatzen da hau. Adinekoak bakarrik bizi diren 16.386 etxebizitzetatik (Nafarroako etxebizitzen % 8,7), 12.197 emakumeei dagozkie (% 6,46) eta 4.189 gizonei (% 2,22). Hau da, bakarrik bizi diren adinekoen % 74 emakumeak dira eta % 26 gizonak.

2001ean adinekoen % 12,75 bakarrik bizi ziren emakumeak ziren, eta % 4,4 bakarrik bizi ziren gizonak. Hortaz, adinekoen % 17,15 bakarrik bizi dira Nafarroan. Kopuru hau Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkestan (2001) zenbatetsitakoarekin bat etorri ez arren, 1991tik

¹⁸ Adinekoen etxebizitzaren tipologia eta batez besteko tamaina kalkulatzeko, Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkestan (2001) parte hartutako 64 urtetik gorakoen emaitzak kontuan hartu ditugu. Beraz, 2.477 inkesten kopuru osotik 521 baino ez ditugu aintzat hartu.

aitzina, gero eta handiagoa da bakarrik bizi diren adinekoen eta etxebizitzaren kopurua (% 12,3 1991n, % 15 1996an eta % 17,15 2001ean).

Ondoko taulan 65 urtetik gorako pertsona bakarreko etxebizitzaren banaketa ikusten ahal dugu, Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera. Emaitzak zahartze-tasarekin eta eremu bakoitzaren feminizazioarekin bat datoz.

23. TAULA. ADINEKO PERTSONA BAKARREKO ETXEBIZITZEN EHUNEKOA NAFARROAKO GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERAKO ETXEBIZITZA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA (2001)

	Gizon bakarra (65 urte<)	Emakume bakarra (65 urte<)
Ipar-mendebaldea	3,05	5,38
Ipar-ekialdea	4,04	6,84
Lizarra	3,34	8,08
Iruñerria	1,20	2,66
Tafalla	2,98	8,22
Erribera	2,43	7,81
Iruña	1,67	7,11
Guztira	2,22	6,46

Iturria: 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsua (EIN) eta elaborazio propioa.

Sexuaren arabera, eta aipatu etxebizitza-mota honen feminizazioa alde batera utzita, Iruñerrian eta Iruñean gizonezkoen ehunekorik baxuenak, eta Nafarroako ipar-ekialdean eta Lizarran altuenak jasotzen dira.

Emakume bakarreko etxebizitza gehien Tafallan eta Lizarran daude bereziki, eta Iruñerrian eta Nafarroako ipar-mendebaldean aurkitzen ditugu baxuenak. Banaketa hau arrazoi historiko eta sozio-ekonomikoei zor zaie.

5.2.3. ADINEKO PERTSONEN OSASUN EGOERA

Osasuna da bizi-kalitatea definitzen duten ezaugarri nagusietako bat edozein adinetan. Hortaz, ez dago zalantzarik osasunak gero eta garrantzi handiagoa duela adinak gora egin ahala. Izan ere, osasuna zahartze-prozesuan aldatu egiten baita, mendekotasuna eta arretarako beharra eragin, eta jarduketa, garapen, eta parte-hartze sozial eta kulturalerako aukerak mugatzeraino.

Nafarroako Osasun inkestak (2001) Nafarroako biztanleek euren osasunari buruz emandako baloraziora hurbiltzeko aukera ematen digu. Nafarren % 74k osasun ona eta % 6k osasun txarra dutela uste dute. Adin eta sexuaren arabera ezberdintasun esanguratsuak antzematen dira hemen. Horrela, Nafarroako 14tik 64 urtera bitarteko biztanleen % 79k baieztatzen dute osasun ona dutela, eta 65 urte edo gehiago dituztenen artean kopuru hori % 55,5eraino murrizten da.

24. TAULA. NAFARROAKO POPULAZIOAREN OSASUN EGOERAREN PERTZEPZIOA SEXU ETA ADINAREN ARABERA (2001)

	Ona	Hala-moduzkoa	Txarra	Guztira
Guztira				
15-64	78,75	16,52	4,73	100
65 +	55,52	33,47	11,00	100
Guztira	73,94	20,03	6,03	100
Gizonak				
15-64	79,97	15,70	4,33	100
65 +	59,23	28,51	12,26	100
Guztira	76,27	17,99	5,74	100
Emakumeak				
15-64	77,48	17,37	5,16	100
65 +	52,79	37,13	10,08	100
Guztira	71,69	22,00	6,31	100

Iturria: Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkesta (2001) eta elaborazio propioa.

Osasun ona eta txarra dutela dioten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino zertxobait handiagoa da. Dena dela, hala-moduzko osasuna dutela dioten emakumeen ehunekoa gizonekoena baino handiagoa da. Beraz, emakumeen euren osasuna pertzibitzeko era ez da gizonezkoena bezain muturrekoa.

Norberaren osasun egoeraren pertzepzioa populazioaren jokabide indibidualean eta sozialean eragiten duten faktoreek, osasunean eragina duten "aurretiko faktoreek" eta gizarte- eta osasun-zerbitzuez egiten den erabilerak baldintzatzen dute. Hortaz, hainbat aldagairen araberakoa da, hala nola, bizi-kalitateari eragiten dioten eguneroko bizitzaren garapenaren arazoek araberakoa. LGGMaren Espainiako Adineko Pertsonak (2001) argitalpenean adierazten denez, "egunero adinekoen mesedetan bizitzeak esan nahi du, lehenik eta behin, autonomia pertsonal, familiar eta sozialaz ohartzea, adinak gora egin ahala gero eta orokorragoa den zahartze biologikoaren aurrean", eta ahultasunerako edo/eta minusbalotasunerako joera duena.

Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkestak (2001) bizi-kalitateari eta osasunari loturiko arazoetara hurbiltzen gaitu. Ondoko taulan adierazten denez, gehienek mugitzeko, zainketa pertsonalerako eta eguneroko bizitzan jarduteko arazorik ez dutela baieztatzen dute. Nabarmenagoak dira mina/ondoeza eta depresioa edo antsietatea.

25. TAULA. NAFARROAN BIZI-KALITATE/OSASUN ERLAZIOAN DAUDEN ARAZO NAGUSIAK ADIN-TALDEEN ARABERA (2001)

	15-64	65 urte edo gehiago	Guztira
Mugikortasuna	4,51	28,9	9,6
Zainketa pertsonala	0,96	9,1	2,6
Eguneroko jarduerak	3,29	16,1	6,0
Mina edo ondoeza	14,60	38,6	19,6
Depresioa edo antsietatea	10,67	17,9	12,2

Iturria: Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkesta (2001) eta elaborazio propioa.

Ehunekoak aldatzen dira adin-taldearen arabera. Alderik handiena mugikortasunean eta eguneroko jardueretan antzematen da. Kontuan hartu beharra dago eguneroko jardueretan gizarte-esleipen zehatza izan duten etxeko lanak barne hartzen direla, besteak beste; hortaz, egiteko ezintasunak dituzten lanez zein sekula egin ez dituztenez ari gara.

Azkenik, azpimarratu behar dugu adinekoek pairatzen dituzten arazo nagusiak mina/ondoeza (% 38,6), mugikortasuna (% 28,9) eta depresioa/antsietatea (% 17,9) direla. Zenbait gaixotasun-prozesuren kronikotasunak, hala nola, sistema osteoartikularrari edo zirkulazio zein nerbio sistemari loturikoak, aipatu arazoaren inguruko pertzepzio ezberdinen gaineko eragina dute.

5.2.3.1. MINUSBALIOTASUNAK ETA EZINTASUNAK

1999ko Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoeraren gaineko inkestaren (EIN, 2000) arabera, urte horretan Nafarroan ezintasunen bat zuten 26.124 adineko pertsona zeuden (adinekoen % 29). Ezintasun-tasa milako 287,75ekoa zen. Kopuru horrek Nafarroa Errioxaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Madrilen, Kanarien, Balearren eta Aragoiren aurretik kokatzen du; baina, Espainiako batez bestekoaren azpitik dago: 322,11, 65 urtetik gorako mila biztanleko.

Espainiako urritasunik arruntenak handienetik txikienera sailkatzen dira, bakoitzaren garrantziaren arabera: osteoartikularrak, ikusmen edo entzumenarekin loturikoak, bestelakoak (urritasun anitzak nabarmentzen dira), buruarekin, organo eta erraiekin nahiz nerbio sistemarekin loturikoak. Ezintasunak dituzten % 58 emakumeak dira; 6tik 44 urtera bitarte, aldiz, gizonak dira nagusi. Ezintasunak dituztenen 45 urtetik gorako emakumeen kopuruak % 60an gaintitzen du gizonezkoena. Dena dela, ezintasunik gehien 65etik 84 urtera bitarte izaten dira nagusi bi sexuongan. Aipatutako inkestaren arabera, ezintasunen % 68 hainbat gaixotasunen ondorio dira, bereziki, "gaixotasun arruntenak".

Nafarroan, % 64 emakumeak dira eta % 36 gizonak. Emakumeen ehunekoak % 70era iristen da 10.000 biztanletik gorako udalerrietan. Gehiengoak, aldiz, 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi da.

26. TAULA. NAFARROAN EZINTASUNEN BAT DUTEN 65 URTE EDO GEHIAGOKO PERTSONAK SEXU ETA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA (1999)

	Kopurua			Ehunekoa		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
10.000 biztanle edo gutxiago	6.624	10.475	17.099	25,36	40,10	65,45
10.001- 50.000 biztanle	796	1.859	2.655	3,05	7,12	10,16
50.001- 500.000 biztanle	1.866	4.504	6.371	7,14	17,24	24,39
Guztira	9.287	16.838	26.124	35,55	64,45	100,00

Iturria: 1999eko Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoeraren gaineko inkesta (EIN, 2000) eta elaborazio propioa.

Honi buruzko beste informazio-iturri bat NGOik emaniko datuak dira. 2001ean minusbaliotasunen bat zuten 65 urtetik gorako 10.376 pertsona zeuden¹⁹. Hortaz, 65 urtetik gorako minusbaliatu gehienak 65 urte bete baino lehen ziren minusbaliatuak jadanik.

Gogoan izan behar dugu ezintasuneko balorazio mediko eta asistentziala duten minusbaliotasunez ari garela, eta kanpo geratzen dira euren ezintasun- edo minusbaliotasun-maila ezartzeko baloraziorik egin ez zaien urritasunak edo ezintasunak, ikusmen edo entzumen mugatua, arazo psikikoak, eta abar dituztenak. Hortaz, 65 urtetik gorako minusbaliatu gehienak 65 urte bete baino lehen ziren minusbaliatuak jadanik.

Tipologiarik arruntenak minusbaliotasun osteoartikularra, neuromuskularra eta gaixotasun kronikoa dira. Minusbaliotasun hauek bizi-kalitatearen esparru guztietan dituzte ondorioak, bereziki, lehen aipatutako mugikortasunean eta mina/ondoezan. Mugikortasunari dagokionez alde txikia dago gizonen eta emakumeen artean.

19. NGOik eta NEIk emaniko datuen arabera minusbaliotasun-tasa 108,87koa da 65 urtetik gorako mila biztanleko. Espero zen bezala, ezintasun-tasaren azpitik dago.

Mina/ondoezaren kasuan, ordea, alde handiagoa dago. Nolabaiteko korrelazioa dago adin, sexu eta minusbaliotasun motaren artean.

Minusbaliotasunak dituzten 65etik 74 urtera bitartekoen % 60 gizonak dira, eta 75 urtetik gorakoek kasuan, % 37,05eraino murrizten da ehunekoak. Bilakaera hau berresten dute bizi-itxaropenean eta patologiarik arruntenetan dauden sexuaren arabera ezberdintasunek, zenbaitetan esanguratsuak direnak. Era berean, minusbaliotasunaren tipologiak zenbait datu garrantzitsu gaineratzen ditu; honakoak adibidez: 65etik 74 urtera bitarteko minusbaliatuen % 12,17k mugikortasuna ikaragarri mugatzen duten ikusmenarekin edo entzumenarekin loturiko minusbaliotasunak dituzte; 75 urtetik gorakoek kasuan, % 13,8 dira minusbaliotasun horietakoren bat dutenak. Minusbaliotasun osteoartikularrak eta neuromuskularrak prozesu mingarriekin eta ondoeza kronikoarekin lotzen dira. 65etik 74 urtera bitarteko minusbaliatuen % 36,3k eta % 11,4k pairatzen dituzte, hurrenez hurren, eta 75 urtetik gorakoek % 31,9k eta % 15,25ek.

27. taulan minusbaliotasunei buruzko datuak eta minusbaliotasun-tasak jasotzen dira, Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera. Iruñeko barrutian daude Nafarroako adineko minusbaliatu gehienak eta minusbaliotasun-tasarik handiena du bi biztanle-taldeetan. Nafarroako ipar-ekialdeko eta Lizarrako barrutiko kopuru eta tasen gorakadak adin-taldeen arabera, Nafarroako bizi-itxaropenik altuenekin bat egiten dute 65 urtekoetan; ipar-mendebaldeko barrutian, aldiz, atzerakada antzematen da. Minusbaliotasun-tasei begira, Erriberako, Iruñerriko eta Iruñeko barrutietan jasotzen dira mailarik handienak.

Maila hauen arrazoiak biztanleen eta osasun- eta laguntza-baliabideen pilaketa, bertako biztanleen horiei buruzko informazio handiagoa, hala nola, sexuaren arabera biztanleen banaketa izaten ahal dira. Hau da, 75 urtetik gorako populazio-hazkundera bat dator adin guztietako emakumeen nagusitasunarekin, eta ipar-mendebaldeko eta Iruñerriko barrutien atzerakadak bat egiten du gizonezko gehiago bizi diren populazio osoekin.

**27. TAULA. NAFARROAKO 65 URTETIK GORAKO ADINEKOEN
EZINTASUN-TASAREN PORTZENTAJE-BANAKETA
ETA MINUSBALIOTASUN-TASA (2001)²⁰**

BARRUTIAK	65etik 74 urtera bitarte		75 urte=<	
	65etik 74 urtera bitarteko ezinduak (% tan)	Ezintasun-tasa	75etik gorako ezinduak (% tan)	Ezintasun-tasa
Ipar-mendebaldea	4,93	48,33	3,49	36,98
Ipar-ekialdea	2,32	46,99	3,02	58,18
Lizarra	10,41	71,02	12,11	84,26
Iruñerria	6,51	73,57	7,55	84,31
Tafalla	13,61	87,01	15,63	105,12
Erribera	13,67	147,58	10,78	139,81
Iruña	48,55	161,82	47,42	162,92

Iturria: Elaborazio propioa, NGOik emaniko datuetan oinarrituta.

Adierazitakoarekin bat, egokia dirudi bi zehaztasun ematea hurrengo urteei begira. Lehenik, aurreko ataletan adierazitako testuinguru demografikoan 65etik 74 urtera bitartekoen geldialdia eta "oso nagusiak" taldeen goranzko pixkanakako joeraren mantentzea antzematen da. Zahartzeak biztanle-egituran (bizi-itxaropenaren gorakada) eta osasun/gaixotasun prozesuetan (hilkortasuna eta erikortasuna) dituen ondorioak konplexuak eta, zenbaitetan, anbiguoak dira.

Horrela, hilkortasuna erikortasuna baino gehiago murrizteak ezintasunen hazkundera eragiten du. Hortaz, medikuntza- eta gizarte-

²⁰ Bi adin-taldeen ezintasun/minusbaliotasunen ehunekoak, barruti bakoitzeko adin-talde horien populazio osoarekiko, 1998ko populazioan oinarrituta kalkulatu dira, datuetatik hurbilen zegoena delako. Horrek portzentajeren bat bat ez etortzea eragin dezake, baina garrantzi gutxikoak dira.

Ezintasun-tasa ezarritako adin-taldeko eta barrutiko ezinduen, eta adin-talde eta barruti horren populazio osoaren arteko harremanaren emaitza da (bider mila).

aurrerapenek kontuan izan beharko dute hilkortasuna eta erikortasuna batera kontrolatzearen garrantzia. Horrek minusbaliatu eta ezinduen kopurua eta, bereziki, minusbaliotasun-maila murriztea eraginen du. Nafarroako gaur egungo egoera Espainiako batez bestekoaren barne dago.

28. taulan ikusten denez, adina bera arrisku-faktore bat da minusbaliotasunerako zein ezintasun-mailarako. 65etik 74 urtera bitarteko minusbaliatuen ezintasun-maila nagusia % 33tik % 45era bitartekoa da; 75 urtetik gorakoena mailarik handiena da, hau da, ahultasuna eta mendekotasuna dira emakumeak nagusi diren minusbaliatu talde honen ezaugarriak²¹.

28. TAULA. NAFARROAKO 65 URTETIK GORAKOEN MINUSBALIOTASUNEN EZINTASUN-MAILAREN PORTZENTAJE-BANAKETA (2001)

Ezintasun-maila	65-74 urte	75 urte=<
% 33-45	36,97	17,34
% 46-65	35,9	23,8
% 66-75	15,65	23,92
% 76-	11,47	34,92

Iturria: Elaborazio propioa, NGOIk emaniko datuetan oinarrituta.

Etorkizunari begira, 1999ko Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoeraren gaineko inkestak (EIN, 2000) datu pozgarria ematen du 65 urtetik beherako ezinduei buruz; izan ere, Nafarroako ezintasun-tasa oso baxua baita (35,06 milako) Espainiako batez bestekoarekin alderatuz gero (45,94 milako). Bakarrik Errioxa dago Nafarroaren azpitik: 26,53 milako. Horrek departamentuen arteko prebentzio-politikak bultzatu

²¹ Nafarroako 75 urtetik gorako ezintasun/minusbaliotasun motak honela banatzen dira: osteoartikularra (1.513); gaixotasun kronikoa (1.135); neuromuskularra (723); adimen-arazoak (611); ikusmen-urritasunak (461); entzumen-urritasunak (193); adierazpen-urritasunak (53); adimen-atzerapenak (49); bestelakoak (1) (NGOIk emaniko datuak, 2001).

beharko lituzke, lan-arriskuen prebentzioaren, haurdunaldietan minusbaliotasun eta ezintasunen prebentzio eta antzematearen, osasunerako heziketaren, eskola-adinean hasierako urritasunen antzemate goiztiarraren, eta abarren alde lan egitera zuzendurikoak.

Bigarrenik, arreta jarri beharko diogu minusbaliotasun-tasaren bilakaerari, egungo 45etik 50 urtera bitarteko eta, epe laburrera, 75 urtetik gora izanen dituzten biztanleen kasuen prebentzioan lan egin ahal izateko. Minusbaliotasunen bat duten biztanleen proiektioak egiteko, 30 urtetik gorako adimen-atzerapena dutenen kopurua har dezakegu oinarritzat.

NGOik emaniko azken datuen arabera, Nafarroan 1.760 atzeratu daude, honako adin-taldetan banatuta: 30etik 44 urtera birtarte, 895; 45etik 64 urtera bitarte, 686; 65etik 74 urtea bitarte, 130; 75 urtetik gora, 49. Minusbaliatu hauen beheranzko joerak, batez ere 65 urtetik gorakoengan, honako arau tradizionala egiaztatzen du: pertsona hauek gainerako biztanleek baino aukera gutxiago zituzten adin heldura eta zahartzarora iristeko. Ikerketa berri batzuek egiaztatu dute²², beren bizi-itxaropena nabarmen hazi dela azken hamarkadetan, nahiz eta batez bestekoaren azpitik kokatzen duten patologia izan. Hortaz, aurreikusteko modukoa da 65 urtetik gorako atzeratuen kopuruak gora egitea hurrengo urteetan.

Atal luze honekin amaitzeko, jarraian bi taula sartu ditugu. Horietan laguntza behar duten pertsonak eta nork laguntzen dituen, hala nola, zainketa fisikoak behar dituzten pertsonak jasotzen dira.

²² Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, Nafarroako Gobernua (1999). Adimen-atzerapena duten pertsonen zahartzete-prosezua: euren etorkizuneko premiak. Iruña.

**29. TAULA. EZINTASUNEN BAT IZAN ETA LAGUNTZA
PERTSONALAJASOTZEN DUTEN ADINEKOAK, ZAINZAILA
NAGUSIAK EZINDUAREKIKO DUEN HARREMANAREN ARABERA
(1999)**

	Kopurua			Ehunekoak		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Bikotea	3.167	1.054	4.222	19,02	6,33	25,36
Alaba	1.619	4.434	6.053	9,72	26,63	36,35
Semea	243	566	810	1,46	3,40	4,86
Arreba	106	787	893	0,64	4,73	5,36
Anaia	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Ama	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Aita	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Beste senideren bat	189	1.633	1.822	1,14	9,81	10,94
Enplegatua, laguna edo bizilaguna	511	803	1.315	3,07	4,82	7,90
Gizarte Zerbitzuak	138	712	850	0,83	4,28	5,10
Bestelako harremanak	0	89	89	0,00	0,53	0,53
Ez dago jasota	485	112	597	2,91	0,67	3,59
Guztira	6.460	10.191	16.651	38,80	61,20	100

Iturria: 1999eko Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoeraren gaineko inkesta (EIN, 2000) eta elaborazio propioa.

1999eko Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoeraren gaineko inkestaren (EIN, 2000) arabera, Nafarroako ezinduen % 63,74k laguntza pertsonala jasotzen dute (29. taula). 16.651 adineko hauek alabak (% 36,3) edo bikoteak (% 25,3) zaintzen ditu nagusiki. Gizarte Zerbitzuek % 5,1, eta enplegatu, lagun edo bizilagunek % 7,9 zaintzen dituzte. Gainerako zaintzaile nagusien artean (semea, arreba, bestelako senidea eta ez dago jasota) geratzen den % 25,4a banatzen da. Adinekoak gehien zaintzen dituztenak familia eta, honen barne, alaba eta bikotea dira.

30. taula zainketa fisikoak behar dituzten adineko pertsonak jasotzen dira. Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkestaren (2001) arabera, 10.467 adinekok behar dituzte mota honetako zainketak; gehienak

(8.615) bakarrik bizi dira, eta gainerakoak (1.852) adineko bi pertsonen osatutako etxebizitzetan bizi dira. % 37 Iruñeko barrutiari dagozkie eta % 60 inguru emakumeak dira.

30. TAULA. NAFARROAN ZAINKETA FISIKOAK BEHAR DITUZTEN ADINEKOAK ETA ETXEBIZITZAK GUZTIRA (2001)

Zainketa fisikoak	Etxebizitza-kopurua. Motak:	Etxebizitzak	behar dituztenak
Ez dago zainketa fisikorik behar duen 65 urtetik gorakorik		154.042	0
Zainketa fisikoak behar dituen 65 urtetik gorako pertsona bat		8.615	8.615
Zainketa fisikoak behar dituzten 65 urtetik gorako bi pertsona		926	1.852
Guztira		163.583	10.467

Iturria: Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkesta (2001) eta elaborazio propioa.

5.2.4. Zahartzaroaren ezaugarriak aipagarrienak Nafarroan

Aurreko orrialdeetan Nafarroako adineko biztanleak ezagutzeko aldaera demografikorik interesgarrienak zerrendatu ditugu. Zaharkitutako gizartea dugula eta adineko gehienak emakumeak direla egiaztatu dugu. Ondoren, irismen ertain eta luzeko gizarte-politikak diseinatzeko analisiaren emaitzarik esanguratsu eta interesgarrietako batzuk biltzen ditugu.

1. Nafarroako populazioaren hazkunde-erritmoa, 1981etik 90. hamarkadaren erdialdera bitarte, etengabea baina motela izan zen, honakoaren ondorioz: bizi-itxaropenaren gorakada, bai jaiotzean bai 65 urterekin; hazkunde begetatiboaren mantentzea, handia izan ez arren, etengabea izan zen 1990etik 1999ra bitarte. 90. hamarkadaren amieratik hazkunde-erritmoa nabarmenki biziagotu da.
2. Hazkunde honekin bat, adinekoen ehunekoa garrantzi handi samarra hartuz joan da. Honela, Nafarroa zahartze demografikoaren prozesuaren barne dago.
3. Zahartze-prozesua bizia izan da azken hamarkadetan, 1991ko % 15,46tik 1998ko % 17,95era igo baita Nafarroan. Baina, azken data

horretatik 2003ra bitarte % 18 inguruan egonkortu da. Gerra Zibilean eta lehenengo gerraostean jaiotakoek 65 urte betetzeak, hala nola, inmigrazioaren ondoriozko nolabaiteko gaztetzak azaltzen dute egoera hau.

4. Epe ertaineko aurreikuspenek azpimarratzen dute zahartzearen pixkanakako bizkortzea egonen dela 2009tik aitzina, 1944an edo "bigarren gerraosteko belaunaldia" delakoan jaiotakoek 65 urte betetzen dituztenean. Une horretatik aitzina, bai zahartzeak bai gainzahartzeak goranzko joera nabarmena erakutsiko dute, gero eta ugariagoak izanen diren belaunaldien etengabeko gehitzearekin. 2024tik aurrera "baby boom" delakoa eta etorkinen lehen taldeak iristea aurreikusten da.

Aurreikuspen guztietan bezala, kontua izan behar da ondorio hauekin.

5. Zahartzearen dinamikan kontuan hartu beharreko fenomeno berri bat "zahartzaroaren zahartzea" edo gainzahartzea da. Nafarroan, bere egitura zaharkitua dela eta, biztanleen % 8,3k 75 edo 80 urtetik gora zituzten 2000. urtean, eta aurreikusten da 65etik 74 urtera bitarteko biztanleen kopurura iristea edo gainditzea hurrengo urteetan.
6. Zahartze-tasa ezberdina da Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera. Iruñerriak populazio-egitura gazteagoa dauka, zahartze-tasa % 10,07koa zen 2001ean; ipar-ekialdeko barrutian, aldiz, % 25,94koa zen tasa hori urte berean. Lizarrako eta Tafallako barrutiek % 22,99ko eta % 22,08ko zahartze-tasak dituzte, hurrenez hurren. Ezberdintasunak daude halaber, Gizarte Zerbitzuen oinarritzko unitateei begira.
7. Zerbitzu-eskaerari dagokionez, garrantzi handiagoa du, ordea, adineko pertsonen banaketa geografikoak. 3 adinekotik bat Iruñean bizi da, % 17 Erriberan, eta ipar-mendebaldeko, Iruñerriko eta Tafallako oinarritzko unitateetan % 10 bizi dira bakoitzean.
8. Adineko populazioari datxekion ezaugarri bat emakumeen nagusitasuna da. Eta nagusitasun hori handituz doa adinak gora egin ahala. Dena dela, azken hamarkadako emakume-tasaren

bilakaeraren arabera, adinekoen feminizazio-prozesuak behera egingen du.

9. Komunitate Autonomoen araberako bizi-itxaropenari dagokionez, Nafarroak leku "pribilegiatua" du. Hortaz, bertako biztanleen zahartzea Nafarroako testuinguru orokorrari lotutako lorpen sozioekonomiko eta zientifiko gisa ulertu beharra dago.
10. Adinekoen egoera zibilik arruntena ezkonduetakoek osatzen dute (gizonezkoen % 75 eta emakumeen % 45); gero, alargunak (% 83 emakumeak dira) eta, azkenik, ezkongabeak ditugu. Banandutako eta dibortziatuak kopuruak txikiak dira oraingoz. Banaketa honek zuzeneko eragina du familia batek bere senideren bati eskaintzen ahal dion laguntza informalearen baliabideengan.
11. Adineko pertsonen hezkuntza-maila, azken urteotan hobekuntza egon den arren, baxua edo erdi-behe mailakoa da. "Ikasketarik gabe edo lehen-mailako ikasketak" kategorian kokatzen dira adinekoen % 67. Ondotik, "Oinarrizko Batxilergoa/LHI, erdi-mailako LH, Ofizialtza" kategorია dugu, % 23arekin. Adinekoen % 2 bakarrik dira alfabetatu gabeak eta % 4k baino ez dituzte unibertsitate-ikasketak. Nabarmenak dira sexu, eta Gizarte Zerbitzuen barruti eta oinarrizko unitateen araberako ezberdintasunak.
12. Nafarroako bizikidetzaren erarik arruntenak "Seme-alabarik gabeko bikoteak" (% 38) eta "Bakarrik bizi diren pertsonak" (% 21) dira.
13. Adinekoen % 55,5ek baieztatzen dute osasun ona dutela. Nafarroako Bizi Baldintzen gaineko Inkestaren (2001) arabera, adinekoen osasun-arazorik arruntenak "mina edo ondoeza" eta "mugikortasunarekin" lotutakoak dira.

1999ko Ezintasun, Urritasunak eta Osasun Egoeraren gaineko inkestaren (EIN, 2000) arabera, Nafarroan ezintasunen bat zuten 26.124 adineko, hau da, ia adinekoen % 29, zeuden urte horretan. Horietatik 10,376 NGOIen izena emanik daude minusbaliotasunak dituzten pertsona gisa. Txosten hau biztanle hauei eta euren arretari zuzendutako zerbitzuei buruzkoa da.

5.3. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN ADINEKOENDAKO ARRETA SISTEMA

Nafarroan hirugarren adinekoendako hainbat zentro eta zerbitzu banatzen dira Gizarte Zerbitzuen sei barrutietan. Lehenengoen artean, etxebizitza eta elkarteak, eta zahar-etxeak dira nagusi. Jarraian, NGOIko Hirugarren Adinaren Atalak eskaintzen dituen zentro- eta zerbitzu-motak zerrendatuko ditugu, dagokion araudiaren arabera definizioekin bat:

Diru-laguntzak, etxez etxeko laguntzarako: "Xedea onuradunei bide ematea da beren etxeetan bizi ahal izateko, bereziki, zahar-etxeetara ez eramatearren". Laguntza hauen xedea da onuradunei etxean berean ematea banakako zerbitzuak (1040/2004 Ebazpenaren 1. artikulua).

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ): "Zerbitzu honen xedea da adinekoei edo/eta euren familiei etxean berean ematea banakako laguntza, ohiko jarduerak egin ezin dituztenean, edo senideren bati eragiten dion gatazka psikofamiliarren bat azaltzen denean" (209/1991 FD, II. eranskina, 5.1.). Etxez etxeko laguntza zerbitzuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen berariazko programetako bat dira eta lehentasuna dute, araudiaren arabera (11/1987 FD, 3 a eta 4. artikulua).

Eguneko Zentro Psikogeriatrikoa: "Eguneko zentro bat, ahalmen psikikoetan galera duten eta defizit funtzionalak dituzten adineko pertsonen errehabilitazioa eta zainketa eskaintzen diena, ahal den bitartean gizarte eta famili ingurunetik atera beharrik izan ez dezaten" (633/2003 FD, definizioa).

Zentro gerontologikoetako eguneko egonaldietarako zerbitzua: "Zentro gerontologiko batek ematen dituen zerbitzuetako bat da, nagusiki funtzio hau bete behar duena: adineko pertsonen babes ematea, zaintzea, oinarrizko eginbeharretan laguntzea, eta haien higie eta janari kontuez arduratzea". Zerbitzu honen helburua da "laguntza eta babes sozio-sanitarioa eskaintzea endekapen handia duten pertsonen, behin betiko ospitaleratzearen alternatiba gisa" (75/2003 FA, definizioa eta helburuak).

Berez baliatzen direnendako zahar-etxeak: "Era honetako zentroetan berez baliatzen diren adineko pertsoneri etengabeko arreta eta denetariko laguntza eskaintzen zaie, ostatu eta mantenua, errehabilitazio txikia, lan terapia, eta kultur eta olgeta izaerako beste hainbat zerbitzuren bidez" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 6).

Laguntza behar dutenendako zahar-etxeak: "Era honetako zentroetan, eguneroko bizitzan hirugarren pertsona baten laguntza behar duten adinekoei etengabeko arreta eta denetariko laguntza eskaintzen zaie, ostatu eta mantenua, arreta mediko-geriatrikoa, errehabilitazioa, lan terapia eta kultur eta olgeta izaerako beste hainbat zerbitzuren bidez" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 7).

Zahar-etxe mistoa: laguntza behar dutenendako zahar-etxeen baldintzak berberak ditu, baina berez baliatzen diren zein hirugarren pertsona baten laguntza behar duten adinekoei zuzentzen zaie (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 8).

Zahar-etxe psikogeriatrikoa: "Zentro hauetan endekapen psikiko handia duten adineko pertsoneri denetariko laguntza eskaintzen zaie" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 9).

Babespeko apartamentuak: "Etxebizitza hauek hirugarren adinekoei egokitutako ezaugarri arkitektonikoak dituzte, beren kabuz bizi daitezkeen pertsonen ostatu-arazoak konpontzeko asmoz. Komuneko zerbitzuak izaten ahal dituzte" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 4).

Talde-etxebizitzak: "etxebizitza arautuetako eraikinetan kokatutako etxebizitza txikiak dira, eta berez baliatu eta eguneroko etxeko lanetan parte hartzen duten hirugarren adinekoei zuzentzen zaizkie" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 5).

Jantokiak: "Jantokiek eskaintzen duten zerbitzua hirugarren adineko pertsoneri janaria ematea da" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 3).

Erretiratuen elkarte eta etxeak: "Eguneko zentroak, hirugarren adineko pertsonen topagunetzat erabiltzen direnak, komunikatzeko, elkartzeko, eta integrazio soziokultural eta jostatzeko eta

biltzeko jarduerak garatzeko beharrezko bitartekoak dituztenak" (209/1991 FD, II. Eranskina, 2. 2).

Gizarte-etxea: "oro har etxe batez osatzen den topagunea, adineko pertsonen, eta gazte eta gainerako taldeen arteko gizarte-harremanak mantendu, sustatu eta garatzera zuzentzen dena, belaunaldien arteko jardueren eta hirugarren adinekoen kultur, aisi eta olgetarako baliabide eta ekipamenduen komuneko erabileraren bidez" (317/ 1997 FA, 1. artikulua)

Etxez etxeko laguntzarako dirua Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatzen du. Diru-laguntza hauen onuradun izanen dira 65 urtetik goitiko pertsonak eta % 33tik goitiko ezgaitasuna dutenak. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko 43 Unitateetan, Iruña barne, kokatzen dira, eta udalerriek beraiek kudeatzen dituzte. Zerbitzua adinekoei zein etxean egunero laguntza behar duten pertsonari ematen zaie. Adineko pertsonak dira zerbitzu eta diru-laguntzarik gehien hartzen dituztenak, nahiz eta beste talde batzuei ere zuzendu. 3.1 atalean zerbitzu eta diru-laguntza hauei lotutako estatistika-datuak aztertuko ditugu.

Nafarroan hirugarren adinari zuzendutako 270 zentro daude guztira (31. taula). Iruña, Tuter eta Lizarra dira zentro eta zerbitzurik gehien eskaintzen dituzten Gizarte Zerbitzuen barrutiak. Barruti hauetan daude erretiratuen etxe eta elkarte, gizarte-etxe eta Eguneko Zentro Psikogeriatrikorik gehien. Nafarroan 73 Zahar-etxe daude, 72 Nafarroako Foru Komunitatean eta bat, itundua, Errioxan.

31. TAULA. NAFARROAKO HIRUGARREN ADINARI ZUZENDUTAKO ZENTRO ETA ZERBITZUAK (2003) GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIAK

	I Ipar-men debaldea	II Ipar- ekialdea	III Lizarra	IV Tafalla	V Tutera	VI Iruñe- rria	Beste batzuk	Guz- tira
Zahar-etxeak	7	6	13	14	13	15	1	69
Zentro Psikogeriatrikoak	1					2		3
Agure erlijiosoen zahar-etxeak						1		1
Zahar-etxeak guztira	8	6	13	14	13	18	1	73
Eguneko Zentro Psikogeriatrikoak (NGOI)	1		1		1	8		11
Eguneko Zentro Psikogeriatrikoa (Ikuskapena)	1		2		6	8		17
Eguneko egonaldiak (NGOI)	0	1	2	4	3	3		13
Eguneko egonaldiak(Ikuskapena)	0			1	1	3		5
Gizarte-etxeak	1	1	10	3	6	7		28
Erretiratuen etxe eta elkarteak	14	8	28	17	23	34		124
Apartamentuak (NGOI)	1		1		2	7		11
Apartamentuak (Ikuskapena)	1		1			7		9
Talde-etxebizitza (NGOI)	1					2		3
Talde-etxebizitza (Ikuskapena)	1		1			2		4
Jantokia	0					1		1
Zentro eta zerbitzuak guztira	26	16	57	39	50	81	1	270

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eman eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Gizarte Zerbitzuen Gidaliburuan bildutako datuetan oinarritua (2004ko martxoa).

Eguneko Zentro Psikogeriatriko eta Eguneko egonaldietarako zentroi buruzko datu ezberdinak daude, informazio-iturriaren arabera²³.

Egoera hau, Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapeneko Zuzendaritzaren arabera, arrazoi iragankorrei zor zaie. Ematen duen argudioa da zentro Gerontologikoetako eguneko egonaldiak arautzen dituen Legea 2003ko irailekoa dela eta, une hauetan, Nafarroako Gobernu zentroak aitortzeko prozesuan dagoela. Horregatik, Eguneko egonaldietarako hainbat zentro beharrezko baimenik gabe ari dira lanean eta, ondorioz, ez daude Ikuskapen Atalaren kontrolpean. Ikusten dugunez, informazio-arazo garrantzitsuak antzematen dira, ondorioak izaten ahal dituztenak laguntzaren kalitatearen bermean.

Jarraian, landutako datuetan aurkitutako ezberdintasunak aurkezten ditugu (32. taula):

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aitortutako Eguneko zentroak halokakotzat aitortzen ditu ere Ikuskapen Atalak. Dena dela, Ikuskapen Atalean bada zentro bat Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan halakotzat jasota ez dagoena.

32. TAULA. EMANIKO DATUETAN AURKITUTAKO EZBERDINTASUNAK

	Eguneko egon- Eguneko zentroak	dietarako zentroak
Ikuskapenak eta NGOik aitortutakoak	11	1
Ikuskapenak bakarrik aitortutakoak	1	4
NGOik bakarrik aitortutakoak		12
Ikuskapenak Eguneko zentrotzat eta NGOIn Eguneko egonaldietarako zentrotzat aitortutakoak	5	5
NGOIn Eguneko egonaldietarako zentrotzat aitortutakoak.		
Ikuskapenean ez daude jasoak ez batera ez bestera		5
NGOik aitortutakoak guztira	11	13
Ikuskapenak aitortutakoak guztira	17	5

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eman eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Gizarte Zerbitzuen Gidaliburuan bildutako datuetan oinarritua.

- Ezberdintasunik handiena Eguneke egonaldietarako zentroetan aurkitzen dugu. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak halako 13 zentro eta Ikuskapen Atalak 4 aitortzen ditu, baina, bakar batean datoz bat.
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aitortutako 12 zentro ez ditu halakotzat aitortzen Ikuskapen Atalak.
- Ikuskapen Atalean Eguneke egonaldietarako zentrotzat jasotzen diren 3 zentro ez daude hala jasota Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan.
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Eguneke egonaldietarako zentrotzat aitortzen dituen 5 zentro Eguneke zentro dira Ikuskapen Atalaren arabera.
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Eguneke egonaldietarako zentrotzat aitortzen dituen 6 zentro ez daude Ikuskapen Atalean jasoak ez batera ez bestera.

Nafarroako indarreko araudiaren arabera, bi zentro mota hauek helburu ezberdinak dituzte. Eguneke zentroen xedea pertsonen errehabilitazioa da, eta bakarrik laguntza behar duten pertsoneri zuzentzen zaizkie. Eguneke egonaldiek, aldiz, zaharrei babesa ematea, zaintzea, oinarritzko eginbeharretan laguntzea, eta haien higiene eta janari kontuez arduratzea dute helburu.

Apartamentu eta talde-etxebizitzetan ere ezberdintasunak antzematen dira informazio-iturriaren arabera. Zerbitzu hauek hiri-eremuetan daude batik bat. Gauza bera gertatzen da dagoen jantoki bakarrarekin (Iruñean).

Txosten honen mamia Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko, hala nola, Eguneke zein Eguneke egonaldietarako zentroen zerbitzu eta diru-laguntzetan oinarritzen da. Garrantzitsuenak baitira, gure ustez, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen mantentze eta errehabilitaziorako denetarikoa laguntza eskaintzen dutelako. Alde batera utzi gabe, ordea, horietako batzuek beren kabuz balia daitezkeen pertsoneri ere laguntza eskaintzen dietela.

5.3.1. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA: UDAL-PRESTAZIOAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Sarreran aipatu dugunez, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak bi prestazio eskaintzen ditu: zuzeneko laguntza, udalerrietatik burutzen dena, eta prestazio ekonomikoa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatzen duena. Jarraian, zerbitzu honen alderdi garrantzitsu batzuk aipatuko ditugu, Nafarroan etxez etxeko laguntzari buruzko araudian jasotzen direnak:

- Hirugarren adinaren atalaren jarduketak sustatu behar dira "adinekoek behar dituzten diru eta zerbitzuak eskura izan ditzaten, euren ingurunean zaintzeko". Jarduketa horietako bat da "etxez etxeko laguntza zerbitzua sustatzea, baliabideei buruzko informazio eta beharrei erantzuteko udal zedula gisa" (Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 FL, 3, b, 3 artikulua).
- Udalen eginkizun eta kudeaketan lehenetasuna du "hirugarren adinarendako arretak, etxez etxeko laguntzaren, erretiratuen etxe eta elkarten, eta zahar-etxeen bidez" (GZFL, 6. artikulua)
- Minusbaliotasunen alorrean lehenetasuna dute "etxez etxeko arretak eta laguntza ekonomikoak" (GZFL, 3, c, 5 artikulua).

Araudiak zera dio diru-laguntzaren inguruan:

- Gizarte zerbitzuen arloko banakako eta familiendako prestazio eta laguntza da. "Salbuespen gisa, etxez etxeko laguntzak ematen ahalko zaizkie onuradunei nori bere etxean ematen zaizkien banakako zerbitzuak lortzeko edo bertan eguneroko bizitzan aurrera egiteko ezinbesteko ondasun batzuk erosteko" (168/1990 FD, 8. artikulua).
- 2004. urtean arautu zen lehenengoz bere helburu eta xedea: onuradunei bide ematea beren etxeetan bizi ahal izateko, eta, horren bidez, onuradunei etxean berean banakako zerbitzuak eman ahal izatea (1040/2004 Ebazpena).

Ikusten ahal dugunez, alde batetik, Nafarroako Gobernuak betebehartzat jotzen du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua bultzatzea; beste alde batetik, lehentasunezko zerbitzua da araudiaren arabera.

5.3.1.1. ONURADUNAK ETA ESTALDURA-MAILAK

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua noraino iristen den kalkulatzeko, Nafarroan arreta jaso zuten 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoan oinarritu gara. Bakarrik arreta jaso zuten etxebizitzetara buruzko datuak lortu ahal izan genituenez, 1997an arreta jaso zuten etxebizitzetara eta pertsonen arteko erlaziotik abiatuta ginen. Etxez etxeko laguntza programa 65 urtetik gorako % 5,07k jaso zuten.

33. TAULA. URTEKO KASU-KOPURUA (2003)

	65 urtetik	Zuzeneko arreta		Estaldura (% tan, Nafarroan)	
	gorakoak	(udalak)	Diru-laguntza	Guztira	2001ean)
Etxebizitzak		2.990	1.694	4.684	
Pertsonak	100.508			5.092,73*	5,07

Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan (2003ko Memoria) eta Etxebizitzetara eta biztanleen l. zentsuan, 2001 (EIN), oinarrituta.

* 1997an arreta jaso zuten etxebizitzetara eta pertsonen arteko erlazioan oinarritutako zenbatespena (M. Aguilar, 2001).

Zuzeneko arreta erabiltzaileen 2/3ek jasotzen dute ia (% 63,83). Dena dela, kontuan hartu behar dugu diru-laguntzaren bidez ematen den arreta baino ordu gutxiago direla: egunero gehienez ere bi orduko arreta behar duten prestonei ematen zaie; diru-laguntza, aldiz, egunero bi ordu eta erditik bost ordura bitarte behar direnean ematen da.

Nafarroan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren estaldura zahar-etxeen antzekoa da; hau hirugarren adinekoren % 5,11 ingurukoa da. 34. taulan ikusiko dugunez, jasotako herrialde gehienetan Etxez Etxeko

Laguntzaren estaldurak zahar-etxeena gainditzen du (Erresuma Batuan, Espainian eta Portugalen izan ezik). Nafarroan Espainian baino estaldura handiagoa eskaintzen dute bi zerbitzuek.

34. TAULA. ADINEKOENDAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK EUROPAN (90. HAMARKADAREN BUKAERAN) ETA NAFARROAN (2003. URTEAN)

Estalduraren ehunekoak			
	Etxez etxeko laguntza	Zahar-etxeak	Etxez Etxeko Laguntzaren eta Zahar-etxeen arteko erlazioa
Danimarka	21,7	9,0	2,4
Suedia	17,9	9,1	2,0
Holanda	9,5	8,0	1,2
Frantzia	7,0	5,0	1,4
Alemania	6,5	5,0	1,3
Erresuma Batua	5,0	7,0	0,7
Italia	5,4	2,2	2,5
Espainia	2,0	3,0	0,7
Portugal	1,0	2,0	0,5
Nafarroa	5,07	5,11	1,0

Iturria: Elaborazio propioa T. Rostgaard-en (2002) S Sarasa-n (2005) eta NGOIn oinarrituta.

Hala ere, Etxez Etxeko Laguntza handitu beharko litzateke Europako beste herrialdeetako indizeetara hurbiltzeko. Horretarako bi arrazoi garrantzitsu eta ezagunak dira, alde batetik, adineko pertsonak duten nahia beren etxeetan ahalik eta gehien bizitzeko, eta, beste alde batetik, Administrazio Publikoarendako garestiagoa dela Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak eskaintzea zahar-etxeak eraiki eta mantentzea baino (S. Sarasa, 2003). Eurpar Batasunaren jarduketa prebentiboen interesa Danimarkan burututako ikerketa pilotu batek bermatzen du; bertan egiaztatzen baita mediku edo erizainen etxez etxeko bisiten funtzio prebentiboa: adineko pertsonak hiru hilabeteen behin bisitatzek % 25ean murrizten ditu ospitaleratzeak, eta murrizten ditu bidenabar heriotza-tasa eta zahar-etxeetan sartzek (Hendriksen, 1984).

Ez ditugu beharrezko datuak lortu Administrazio Publikoari zahar-etxeetako eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko ordubeteko arreta zenbat kostatzen zaion jakiteko. Dena dela, hurbilpen bat egiten ahal dugu erabiltzaile bakoitzeko kostua kalkulatu. 35. taulan ikusiko dugunez, zahar-etxeen kostuak 10 bider gainditzen du etxez etxeko laguntzarena.

35. TAULA. GASTU PUBLIKOA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAN ETA ZAHAR-ETXEETAN (2003).

		Betetako	Kostua/	
		Lekuak	lekuak	erabiltzailea
Zahar-etxe publikoen kostuak	7.040.691,1	311	226	
Itunen kostuak	13.900.782,2		1.043	
Diru-laguntzak administrazioaz				
besteko zentroetan egoteagatik	3.170.034,33		552	
Guztira*	24.111.507,7		1.821	13.240,80
EELZren diru-laguntzak	6.396.618,57			
EELZren zuzeneko arreta	37.154,64			
Guztira	6.433.773,21		5.092,73	1.263,32
Guztira	30.545.280,9		6.913,73	4.418,06

Iturria: Elaborazio propioa, NGOIren datuetan oinarrituta.

*Kanpo geratzen dira defizita justifikatuta dagoen kasuetarako diru-laguntzak (aurre-rantzean defizit-laguntzak) edo bestelako entitateei emaniko diru-laguntzak.

Araudiak lehentasuna eman arren, ez dira lortu Europako beste herrialde batzuek jarraitutako joerari erantzuten dioten indizeak: pertsonak euren etxeetan, euren ohiko ingurunean mantentzea, eta zahar-etxeak uztea arreta intentsiboa behar duten pertsonendako. Nahiz eta zahar-etxeetara euren borondatez joan nahi duten pertsonen erantzun behar zaien, araudian jasotako erantzuna ere kontuan hartu, eta, etxez etxeko laguntza hala eskatzen duten kasu guztietara hedatu beharko litzateke.

5.3.1.2. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA: ZUZENeko LAGUNTZA

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko modalitate hau Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen menpe dago. Izaera espezifiko programa bat denez, ez da derrigorrezkoa hura ezarri eta eskaintzea (11/1987 FD, 2.3. art.). Dena dela, gaur egun Nafarroako Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitate guztietan burutzen da. Laguntza hau oinarrizko gizarte zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak (familia-langileek) edo udalen bitartez kontratatutako gizarte enpresek edo entitateek ematen dute. Zerbitzu hau emanen da erabiltzaileek gehienez ere bi orduko laguntza behar badute egunero (1040/2004 Ebazpena, 4. artikulua, 2. atala).

2003. urtean Nafarroako 2.990 etxebizitzek jaso zuten laguntza modalitate honetan. Nafarroako etxebizitzetan 10,74 orduko laguntza ematen da hilero batez beste, hau da, 2,5 ordu astero.

Orduen kostua oso bestelakoa da Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitatearen arabera. Nafarroako batez bestekoa 24,97 euro orduko izan arren, batez bestekoak ezberdinak dira gizarte zerbitzuen barrutien arabera. Iruñeko batez bestekoa orduko 32 eurokoa da; Nafarroako ipar-mendebaldean, aldiz, 17,69 euro ordukoa da. Gizarte Zerbitzuen barruti berberaren barne ezberdintasunak daude halaber, Tafallako unitatean 9,51 euroko aldea antzeman daiteke, eta Iruñekoan 18,56 eurokoa. Horrela, esaterako, Iruñeko barrutiaren barne, Orkoienen ordu batek 16,57 euro eta Iruña hirian 35,13 euro balio du.

Era berean, alde handia dago Nafarroako Gobernuak, udalerriek eta erabiltzaileek eurek beren gain hartutako kostuetan. Erabiltzaileek beren gain hartzen duten batez bestekoa % 0,64koa da Iruñean eta % 12,44koa Nafarroako ipar-ekialdean (36. taula). Alde handia dago halaber, Gizarte Zerbitzuen barrutien barne: Tuterako barrutian, % 4,37ko aldea dago eta Nafarroako ipar-ekialdekoan % 13,30koa. Tuteran % 10,88an eta % 15,25ean kokatzen dira balorerik txikienak eta handienak, eta Nafarroako ipar-ekialdean % 5,71n eta % 19,01ean kokatzen dira. Dena dela, bi barrutien batez bestekoaren arteko aldea oso txikia da, % 12 ingurukoa.

**36. TAULA. EELZ-REN (ZUZENKO ARRETA) KOSTUA ORDUKO
ETA HIRU FINANTZAKETA-ITURRIEN ARTEKO BANAKETA (% TAN)
2003**

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak	Kostua hilero					
	Orduak Etxebizitzak	etxebi- zitzako	% ak orduko	% ak NGOI	% ak Udalerrria	Erabil- tzaileak
Ipar-mendebaldea	237	12,97	17,69	54,01	39,15	6,82
Ipar-ekialdea	153	13,35	20,33	57,14	30,42	12,44
Lizarra	370	9,38	19,18	59,85	31,81	8,34
Tafalla	232	12,31	17,56	46,56	42,87	10,57
Tutera	528	9,63	19,11	53,71	34,15	12,13
Iruña eta Iruñerria	1.470	10,66	31,97	29,65	69,72	0,64
Guztira	2.990	10,74	24,97	39,46	56,17	4,37

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarrituta

**37. TAULA. EELZ-REN (ZUZENKO ARRETA) KOSTUA ORDUKO
ETA HIRU FINANTZAKETA-ITURRIEN ARTEKO BANAKETA 2003**

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak	Etxebi- zitzak	Orduak Hilero etxebizitzako	Kostua orduko	Prezioa orduko (NGOI)	Prezioa orduko (Udalerrria)	Prezioa orduko (erabil- tzailea*)
1 Ipar-mendebaldea	237	12,97	17,69	9,56	6,93	1,21
2 Ipar-ekialdea	153	13,35	20,33	11,62	6,18	2,53
3 Lizarra	370	9,38	19,18	11,48	6,10	1,60
4 Tafalla	232	12,31	17,56	8,18	7,53	1,86
5 Tutera	528	9,63	19,11	10,27	6,53	2,32
6 Iruña eta Iruñerria	1.470	10,66	31,97	9,48	22,29	0,20
Guztira	2.990	10,74	24,97	9,85	14,03	1,09

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarrituta.

*Erabiltzaileek beren gain hartutako orduko kostua, erabiltzaileek eurek dagokien oinarritzko unitatean emaniko kantitateen batez bestekoa da.

Erabiltzaileek beren gain hartutako ehuneko ezberdintasuna bat dator ordaindu behar dituzten prezioen ezberdintasunarekin, zerbitzuaren kostu/orduarekin inolako loturarik ez duten arren. Erabiltzailearendako preziorik baxuena Iruña eta Iruñerriko barrutian aurkitzen dugu. Dena dela, barruti honetan Nafarroa osoko orduko preziorik altuena ordaintzen da (37. taula).

Egoera honen arrazoia udalerriek baremoak ezartzeko duten askatasunari zor zaio, Nafarroako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duten Udal Ordenantza ezberdinetan ikusten ahal dugunez. Honek erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioetan zuzenean eragiten du. Hurrengo atalean lau Udal Ordenantza aztertuko ditugu.

Deigarria da, Nafarroako Gobernuak zerbitzu hauen zati handi bat finantzatzen duen arren (kostu osoaren % 39,46), inolako betekizun minimorik ez ezartzea erabiltzaileek beren gain hartutako kostuak arautzeko. Honen adibide bat izanen litzateke, Nafarroako erabiltzaile guztiendako zerbitzuak prezio bera, edo gehieneko prezioa, izatea. Honen bidez lortuko litzateke Nafarroako biztanle guztiek zerbitzu hau aukera berdinetan edo oso antzekoetan erabiltzea, bizi diren udalerrria alde batera utzita.

5.3.1.2.1. ORDENANTZEN AZTERKETA

Jarraian, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lau ordenantza aztertuko ditugu, erabiltzaileek ordaintzen dituzten ehuneko ezberdinen arabera hautatu ditugunak. Nafarroan dagoen aldea % 0tik % 20ra bitartekoa denez, erabiltzaileek ehuneko horien barneko kopuruak ordaindu behar dituzten oinarrizko lau unitate oinarrizko aukeratu ditugu, 5 puntuko tarteen arabera.

38. TAULA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAK, ERABILTZAILEEN ORDUKO KOSTU ETA PREZIOEN ARABERA AUKERATUTAKOAK (2003)

		Kostua orduko *	Kostua erabiltzaileko (% tan)	Prezioa orduko erabiltzaileko *
Agoitz	II. barrutia	29,63	19,01	5,63
Los Arcos	III. barrutia	21,73	7,42	1,61
Tafalla	IV. barrutia	21,12	13,17	2,78
Orkoien	VI. barrutia	16,57	0	0,00

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarrituta.

* Kostua orduko eta prezioa orduko erabiltzaileko kopuruak ez datoz bat Udal Ordenantzetan ezarritako prezio eta baremoekin. Kostua orduko kalkulatzeko, urteko kostu osoa zati urteko ordu-kopuru osoa egin dugu. Prezioa orduko erabiltzaileko kalkulatzeko, erabiltzaileek beren gain hartutako kostu osoaren ehunekoetan oinarritu gara.

Ikusten ahal dugunez, prezioen ezberdintasuna garrantzitsua da, orduko 0 eurotik 5,63 euro bitartera. Azken prezio honek disuasio-ondorioak izaten ahal ditu, hiritarren babesgabezia eraginez.

Jarraian, zehatzago aztertuko ditugu aipatutako herrietako Udal Ordenantzak.

39. TAULA. ERABILTZAILEAK HILEKO 20 ORDUKO ARRETARENGATIK ORDAINDU BEHARREKOA (-TAN)

	Kotizazio gabeko pentsioa	Gizarte Segurantzaren erdi-mailako pensioa	Gizarte Segurantzaren gehieneko pensioa
	276 € 0,65 (LGS)	651 € 1,45 (LGS)	2.086 € 4,5 (LGS)
Agoitz	3,49	76,43	250,2
Los Arcos	4,83	56,36	144,2
Tafalla	8,1	63,7	73,4
Orkoien	0	0	0Iturria:

Elaborazio propioa Udal Ordenantzetan jasotako araudian, hala nola, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko teknikariek emandako informazioan oinarrituta.

Taulan ikusten dugunez, erabiltzaileek hilero ordaindu beharreko kopuruak altuak dira: gero eta erabiltzaileen diru-sarreraren maila handiagoa, orduan eta herri ezberdinen arteko diru-ekarpenen arteko ezberdintasun handiagoa. Talde ezberdinen arteko diru-sarreraren araberako aldea hileko 8,10 eurotik, kotizazio gabeko pentsioa duten erabiltzaileen kasuan, 250,20 eurora bitartekoa da, Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioa jasotzen duten erabiltzaileen kasuan.

Orkoiengo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua doakoa da. Dena dela, Udal Ordenantzan zerbitzu hau jasotzeko tasak ezartzen dira. Tasok, alde batetik, familia-unitatearen urteko diru-sarreraren eta, beste alde batetik, eskainitako arreta-orduak neurtzen dituen baremo baten araberakoak dira. Baina, tasa hauek ez dira aplikatzen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko teknikarien esanetan. Bakarrik zerbitzua jasotzeko disuasio-elementutzat erabiltzen dira. Horrela, honako egoeraren aurrean gaude: alde batetik, ez zaie laguntzarik ematen ezarritako baremoa gainditzen duten diru-sarrerak dituzten pertsoneri; beste alde batetik, laguntza ematen zaien pertsoneri dohainik ematen zaie. Hala ere, hau ez da erabiltzailearen eskubidetzat aitortzen, ez baitator araudiarekin bat.

5.3.1.3. DIRU-LAGUNTZA

Zerbitzu hau Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatzen du zuzenean. 65 urtetik goitiko pertsoneri eta 100eko 33tik goitiko ezgaitasuna dutenei zuzentzen zaie (martxoaren 17ko 1040/2004 Ebazpena, 2. artikulua). Laguntza jaso ahal izateko betebeharrak hauek bete behar dira:

- Onuradunak Nafarroako udalerrri batean bizitzea
- Eguneroko zereginetarako laguntza behar izatea, gutxienez ere bi ordu eta erdi egunero (eta gehienez ere bost ordu, araudian jaso ez arren).
- Behar adina diru ez edukitzea, arau hauetan ezartzen diren baldintza eta baremoen arabera. 42., 43. eta 44. taulak (1040/2004 Ebazpena, 3. artikulua).

Eskabideak baloratuko dira interesatuen menpekotasunaren, bizikidetzaren gorabeheren eta bizikideen egoera ekonomikoaren arabera. Balorazioan honako irizpideak hartuko dira kontuan (1040/2004 Ebazpena, 8. artikulua):

- Osasun etxeak luzaturiko txostenak (medikuntzako, erizaintzako eta eginkizunak baloratzeko eskala).
- Gizarte txostena, etxe berean bizi diren pertsonak adierazten dituenak; adinak; lan ordutegiak; familiarako zamak; eta bestelako gorabehera nabarmenak.
- Etxe berean bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak.
- Kapital higigarria eta higiezina.
- Ohiko bizilekuaren errenta kontuan hartuko da, onuradunaren edo haren ezkontidearen izenean egonez gero, 200 euro hilean egin arte, hots, 2.400 euro urtean, baldin eta laguntzaren onuraduna beste etxebizitza baten jabea ez bada.

Laguntzen zenbatekoa honen arabera zehaztuko da (1040/2004 Ebazpena, 9. artikulua):

- Zerbitzuaren kostuen arabera.
- Kasu bakoitzean baloraturiko eguneroko laguntza orduen kopuruaren arabera.
- Bertan bizi diren pertsonen diru-sarreraren arabera, ahaidetasun mota kontuan hartu gabe.

Diru-sarrerek ezarritako baremoak gainditzen badituzte (40. taula), bizikidetzako unitatearen urteroko diru-sarrera guztien eta haietan ezarritako oinarrizko diru-sarreraren arteko aldea neurtuko da (ohiko bizilekuaren errenta kenduta). Alde horri dagokion zenbatekoa 12 hilabeterekin zatituko da. Horrelaxe aterako da interesatuek zerbitzuaren kostutik hilero pagatu beharko dutena. Gainerako kostua,

zerbitzuaren kostua egin arte (41. taula), Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak pagatuko du hilero.

40. TAULA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZARAKO DIRUA JASOTZEKO DIRU-SARREREN BAREMOA

Kide-kopurua	Urteroko	
	oinarrizko diru-sarrerak	Zenbateko aplikagarria
1	5.764,64	Kostu osoa
2	8.646,96	Kostu osoa
3	11.529,28	Kostu osoa
4	14.411,6	Kostu osoa
5	17.293,92	Kostu osoa

I
turria: 1040/2004 ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxez etxe laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen (1. Eranskina).

Arauek ez du zehazten zein adierazletan oinarritzen diren urteroko oinarrizko diru-sarrera hauek; horretaz gainera, gutxieneko diru-sarrerak honako baloreen azpitik geratzen dira:

- Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (1.100 euro inguru), hau da, urteko 6.871,2 euroren, azpitik.
- Efektu Anizkuntako Errentaren Adierazle Publikoaren (EAEAP), hau da, urteko 6.447 euroren, azpitik (ordainsariak barne).

Honen arabera, bizikidetzaren nukleoa kide bakar batek osatzen duenean, erabiltzaileak bakarrik urteroko diru-sarrerak 5.764,64 euroren azpitik badaude jaso ahalko du laguntza osoa, behar duen ordu-kopurua kontuan hartu gabe. Urteroko diru-sarrerak zenbateko hori gaindituz

24 Por ejemplo la pensión media de la Seguridad Social.

gero (24), erabiltzaileek dirua ordaindu beharko dute euren etxeetan arreta jaso ahal izateko.

Beste alde batetik, zehazten denez, bizikidetzako unitatearen diru-sarrerak ere baloratuko dira, mendekotasun egoeran daudenean gain. Ahaide bizikideak dira zainketaz arduratzen direnak maiz. Bizikideen diru-sarrerak eskatzailearen pentsioa gaindituz gero, honakoa jazoko da:

- Mendekotasun egoera dagoen pertsona kaltetuta geratuko da;
- Familia zaintzaileei zigorra ezarriko zaie: mendekotasuna bere gain hartu eta, bizilekua konpartitzen dutenez, prestazio mugatuak jasoko dituzte, horiek lortzen badituzte.

41. TAULA. ETXEZ ETXeko LAGUNTZA-ORDUEN KOSTUA DIRU-LAGUNTZAKO (2003)

Orduak eguneko	Orduak hilabeteko	Kostua hilero	
		2004. urtean	Kostua orduko
1	25	127,35	5,09
1,5	38	188,04	4,95
2	50	240,14	4,80
2,5	63	293,41	4,66
3	75	338,38	4,51
3,5	88	384,22	4,37
4	100	422,07	4,22
4,5	112	553,95	4,95
5	125	587,12	4,70

Iturria: 1040/2004 ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxez etxeko laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen (2. Eranskina) eta elaborazio propioa.

Ez dute laguntzarik jasoko honako egoeretan daudenek:

- Aldi baterako ezgaitasuna.
- Interesatuak normaltasunez ikastetxe, lantoki edo zahar-etxeetara joaten direnean.

- Nafarroan urtean 3 hilabete baino gutxiago ematen dituztenean (1040/2004 Ebazpena, 3. artikulua).

65 urteko edo hortik goitiko pertsoneri ez zaie laguntzarik emanen, haien kapital higigarriko ondasunek edo errentek ezarritako zenbatekoak baino gehiago balio badute. (42. taula).

42. TAULA. DIRU-LAGUNTZEN BAZTERTZEAK KAPITAL HIGIGARRIKO ERRENTENGATIK

Kide-kopurua	Kapitala / ondasunak	Korrituak
1	30.050,61	1.202,02
2	48.080,97	1.927,24
3	60.101,21	2.404,05

Iturria: 1040/2004 ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxez etxeko laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen.

5.3.1.4. KASUEN ADIERAZPENA

Ikusiko dugunez, erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharrekoa diru-sarreraren arabera da:

- Gizarte Segurantzaren erdi-mailako pentsioa dutenek, hileko errentaren % 40 ordaindu beharko dute.
- Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioak dituztenek, kostu osoa ordaindu beharko dute. Honela, jasotako laguntza-orduen arabera, kopuru ezberdinak ordaindu beharko dira, gehienez ere (5 ordu) hileko errentaren % 28,14.

43. TAULA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO ONURADUNAREN EKARPENA (2003).

	Kotizazio qabeko pentsioa	Gizarte Segurantzaren erdi-mailako pentsioa	Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioa
Erabiltzailearen diru-sarrerak	276 €	651 €	2.086 €
Erabiltzailearen ekarpena	0	261,93 €	Kostuaren % 100 hilero*
Ordaindutakoa hilero (% tan)	0	% 40,26	2,5 ordu/ % 14,06
(EELZra zuzendutako errenta % tan)	0		3,5 ordu/ % 18,41 5 ordu/ % 28,14

Iturria: 1040/2004 ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxez etxeke laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen (1. eta 2. Eranskinak) eta elaborazio propioa.

* Urteroko pentsioaren eta oinarrizko pentsioaren arteko aldea. 200 euroko beharpena, alokairuaren truke. Eraitza hamabi hilabeterekin zatitu da.

44. TAULA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN ONURADUNAK JASOTZEN DUEN ZENBATEKOA HILERO (2003).

Orduak egunero	Kostua hilero	EELZren onuradunak jasotzen duen zenbatekoa hilero
2,5 ordu	293,41	Kostu osoa 31,48 Ez du laguntzarik jasotzen
3,5 ordu	384,22	Kostu osoa 122,29 Ez du laguntzarik jasotzen
5 ordu	587,12	Kostu osoa 325,19 Ez du laguntzarik jasotzen

Iturria: 1040/2004 ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxez etxeke laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen (1. eta 2. Eranskinak) eta elaborazio propioa.

Eginiko kalkuletatik eta kide bakar batek osatutako bizikidetza nukleotik abiatuta, urtero 8.537,44 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonen ez zaie diru-laguntzarik emanen 2 orduko arretarako. 5 orduko arreta behar izanez gero, ezin izanen dituzte gainditu honako diru-sarrerak: 13.010,08 euro urtero/ 929,29 euro hilero (45. taula).

45. TAULA. GEHIENeko DIRU-SARRERAK ETXEZ ETXEKO LAGUNTZARAKO DIRUA JASO AHAL IZATEKO

	Erabiltzailearen ekarpena	Urteroko gehieneko diru-sarrerak	Hileroko diru-sarrerak
2 ordu	214,40	8.537,44	609,82
2,5 ordu	293,41	9.485,56	677,54
3 ordu	338,38	10.025,2	716,09
3,5 ordu	384,22	10.575,28	755,38
4 ordu	422,07	11.029,48	787,82
4,5 ordu	553,95	12.612,04	900,86
5 ordu	587,12	13.010,08	929,29

Iturria: 1040/2004 ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxez etxeko laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen (1. eta 2. Eranskinak) eta elaborazio propioa.

Ondorio gisa, mendekotasunerako laguntza jasotzeak eragiten duen zama ekonomikoa azpimarratzen duten bi alderdi aipatuko ditugu berriro. Lehenik, ikusten ahal dugu mendekotasun fisiko edo/eta psikoa izan eta eguneroko jardunetako hirugarrengoen laguntza behar duten pertsonen diru-laguntza osoa bakarrik emanen zaiela, baldin eta euren diru-sarrerak LGSren azpitikoak badira (1.100 euro inguru).

Bigarrenik, diru-laguntza kalkulatzeko erabilitako baremoetan bizilekuan bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak kontuan hartzen dira, alde batera utzita berez baliatzen ahal diren edo laguntza behar duten. Horrela, ahaide batek izaten ahal duen mendekotasuna familiak hari laguntzeko duen gaitasun ekonomikoaren azpitik kokatzen da. Hortaz, diru-laguntza publikoak jasotzeko, garrantzitsuagoa izaten ahal da familiaren gaitasun ekonomikoa norbanakoaren mendekotasun-maila baino.

5.3.2. ZAHAR-ETXEAK, EGUNEKO ZENTROAK ETA EGUNEKO EGONALDIAK

5.3.2.1. ZAHAR-ETXEAK

2003. urtean, Nafarroan 5.129 leku zeuden zahar-etxeetan, Gizarte Zerbitzuen barruti guztien artean, Errioxako 31 leku itunduak barne.

46. TAULA. NAFARROAKO ZAHAR-ETXEEN ESTALDURA-MAILA (2003)

Barrutia	Zahar-etxeen kopurua	Lekuak guztira	65 urtetik gorako adinekoak	Estaladura-tasa (% tan)
I Ipar-mendebaldea	8	458	10.084	4,54
II Ipar-ekialdea	6	293	5.206	5,63
III Lizarra	13	826	15.454	5,34
IV Tafalla	14	637	9.517	6,69
V Tuteria	13	786	16.827	4,69
VI Iruña eta Iruñerria	17	2.098	43.420	4,83
Errioxa	1	31		
GUZTIRA	72	5.129	100.508²⁵	5,11

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan eta Etxebizitzen eta biztanleen zentsuan, 2001 (EIN), oinarrituta.

Tafallan dago estaladura-mailarik handiena, eta ondotik Nafarroako ipar-ekialdea eta Lizarra kokatzen dira. Estaladura-mailarik baxuenak Tuteran eta Nafarroako ipar-mendebaldean aurkitzen ditugu.

Nafarroako zahar-etxeetako lekuen % 52,10 berez balia daitezkeen pertsonendako dira (47. taula). Deigarria da Nafarroako Gizarte Zerbitzuen barruti guztietan, Iruñekoan izan ezik, leku gehiago daudela berez balia daitezkeen pertsonendako laguntza behar dutenendako

25. 2003ko urtarrilaren 1eko Biztanleen erroldaren datuen arabera, hirugarren adineko 103.200 pertsona bizi ziren Nafarroan. Dena dela, datuok ez ditugu Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera berezita.

baino (47. taula). Europako iparraldeko herrialdeek, hala nola, Alemaniak, Danimarkak edo Norvegiak, oso bestelako egoera bizi dute. Herrialde hauek zahar-etxeak laguntza behar duten pertsonendako zentrotzat ulertzen dituzte bereziki, eta, berez baliatzeko gaitasun handiagoa duten pertsonen etxez etxeko laguntza, babespeko apartamentuak eta talde-etxebizitzak eskaintzen dizkiete horren ordez. Baina, laguntza behar dutenendako estaldura-tasak (% 22,93) hein handian gainditzen du estaldura osoa (% 5,11).

47. TAULA. NAFARROAKO ZAHAR-ETXEETAKO LEKU-MOTAK (2003)

Kapazitatea Barrutia	Zahar-etxeen kopurua	Laguntza behar				Laguntza behar
		Berez	Laguntza	dutenendako	85 urtetik	dutenendako
		balilatzten direnak	behar dutenak	lekuen ehunekoak	gorako pertsanak	estaldura- tasa (%otan)*
I Ipar-mendebaldea	8	245	213	46,51	1110	19,19
II Ipar-ekialdea	6	179	114	38,91	669	17,04
III Lizarra	13	425	401	48,55	1844	21,75
IV Tafalla	14	397	240	37,68	1147	20,92
V Tuteria	13	404	382	48,6	1813	21,07
VI Iruña eta Iruñerria	17	809	1.289	61,44	5063	25,46
Errioxa	1		31	100		
GUZTIRA	72	2.459	2.670	52,06	11646	22,93

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan eta Etxebizitzan eta biztanleen zentsuan, 2001 (EIN), oinarrituta.

*Gainzahartze-indizean (85 urtetik gorako pertsonak) oinarritua.

Danimarkan, esaterako, 1988an zahar-etxe berriak eraikitzea debekatu zuten, 1987/7/1ean indarra hartu zuen Adinekoendako eta ezinduendako etxebizitzari buruzko Legearen bidez. Horien ordez, talde hauei egokitutako etxebizitzak eraikitzeko politikari ekin zioten, adinekoak euren gizarte-ingurunean mantentzeko eta bizitza

independentea lortzeko asmoz. Egoiliarren kopurua % 20ean murriztea lortu zuten: 1986an, 65 urtetik gorako 43.435 egoiliar zeuden; 1993an, aldiz, 34.642 egoiliar baino ez ziren. Honekin bat, etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen zuten pertsonen kopuruak gora egin zuen % 22an ia: 1985ean, 124.504 ziren, eta, 1993an, 152.410 (Edvartsen, T., 1997).

Nafarroako zahar-etxeak lau talde handitan sailkatzen ahal ditugu, euren titulartasunaren eta jasotzen duten finantzaketa-motaren arabera.

Titulartasuna kontuan hartuta, Nafarroako zahar-etxeak honela sailkatzen ahal ditugu:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarenak.
- Udalenak.
- Irabazi asmoa duten zahar-etxe pribatuak.
- Irabazi asmorik gabeko zahar-etxe pribatuak.

48. TAULA. NAFARROAKO LEKUEN TITULARTASUN-MOTA (2003)

Gizarte Zerbitzuen Barrutiak	Ngoi	Udalenak	Irabaz asmoko prib.	Irabazi asmorik gabeko prib.	Guztira
I Ipar-ekialdea	0	96	19	343	458
II Ipar-mendebaldea	0	152	58	83	293
III Lizarra	110	84	317	315	826
IV Tafalla	0	129	0	508	637
V Tuteria	0	257	70	459	786
VI Iruña eta Iruñerria	200	150	915	833	2.098
NAFARROATIK KANPOKOAK	0	31	0	0	31
Guztira	310	899	1379	2541	5129
Titulartasuna (% tan)	6,04	17,53	26,89	49,54	100,00

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan oinarrituta

48. taulan ikusten dugunez, Nafarroan Irabazi asmorik gabeko zahar-etxe pribatuak dira nagusi, leku guztien ia erdia baitira (% 49,54). Ondotik Irabazi asmokoak eta udalenak ditugu. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zahar-etxeetan dago leku-kopururik gutxien.

Zahar-etxeetako lekuen finantzaketari dagokionez, honako zahar-etxeak bereizten ahal dira finantzaketa-ereduaren arabera:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zahar-etxeetako leku publikoak.
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zahar-etxeetako leku itunduak.
- Administrazioaz besteko zentroetako lekuak. Erabiltzaileek diru-laguntza jasotzen dute horietan egoteagatik.
- Finantzaketa libreko lekuak. Erabiltzaileek beren gain hartzen dute kostu osoa.

Gizarte Zerbitzuen barruti guztietako zahar-etxeetako lekurik gehienak, % 65,28 ia (49. taula), kudeaketa librekoak dira. Hauetariko gehienak Iruñean kokatzen dira (% 44,06). Oso gutxi dira leku itunduak (% 18,27) eta administrazioaz besteko zentroetan egoteagatik diru-laguntza ematen dutenak (% 10,41).

49. TAULA. NAFARROAKO LEKUEN KUDEAKETA-MOTA (2003)

Gizarte Zerbitzuen Barrutia	NGOI	Itunduak	Laguntzak	Libreak	Libreak (% tan)	Guztira
I Ipar-ekialdea	0	100	60	298	8,90	458
II Ipar-mendebaldea	0	17	45	231	6,90	293
III Lizarra	110	226	88	402	12,01	826
IV Tafalla	0	89	113	435	12,99	637
V Tuteria	0	129	150	507	15,14	786
VI Iruña eta Iruñerria	200	345	78	1.475	44,06	2.098
NAFARROATIK KANPOKOAK	0	31	0	0	0,00	31
Guztira	310	937	534	3348	100,00	5129
% tan	6,04	18,27	10,41	65,28	65,28	100

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan oinarrituta

Nafarroako zahar-etxeen lekuen herenak baizik ez dute jasotzen, zenbateko ezberdinetan, Nafarroako Gobernuaren nolabaiteko finantzaketarik²⁶. Hau Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak aldarrikatutako berdintasun eta unibertsaltasun printzipioaren kontra doa "zerbitzuak eta jarduketak hiritar guztiei zuzenduko zaizkie inolako bazterterik gabe" (Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 FL, 2. artikulua, e atala):

- Zahar-etxeetako lekuen % 65,28k ez dute inolako finantzaketa publikorik jasotzen. Kostua egoiliarrek berak bere gain hartzen du, bere mendekotasun-maila kontuan hartu gabe. Irabazi asmorik gabeko zenbait entitatek ere zenbatekoaren zati bat ordaintzen dute.
- Gobernuaren nolabaiteko finantzaketa jasotzen ari diren erabiltzaileek ordaindutako zenbatekoa ezberdina da lekuaren finantzaketa-motaren arabera: publikoa edo itundua den (berez baliatzen direnendako baremo berberak) edo administrazioaz besteko zentroetan egoteagatik jasotako diru-laguntza den (4.3.3 atala).

Finantzaketa-mota zein titulartasuna aztertuz gero, atentzioa ematen dute ondoko datuek (50. taula):

50. TAULA. NAFARROAKO LEKUEN TITULARTASUNA ETA FINANTZAKETA (2003)

Finantzaketa (% Tan)	Titulartasuna				
	Ngoi	Udalenak	Irabaz asmoko prib.	Irabazi asmorik gabeko Prib.	Kudeaketa (% Tan)
Itunak	11,5	62,9	25,6	100	
Laguntzak	26,03	3,93	70,04	100	
Libreak	18,5	23,9	57,6	100	
Titulartasuna (% tan)	6,05	17,53	26,89	49,54	100,00Iturria:

Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan oinarrituta.

²⁶ Ez daude ehuneko honen barne defizit-laguntzen bidezko finantzaketa publikoa jasotzen duten Nafarroako zahar-etxeak. Horiek 3.3.4.4 atalean aipatuko ditugu.

Itunei dagokienez, azpimarratu behar da Irabazi asmoko lekuak Nafarroako leku guztien % 26,89, baina leku itunduen % 62,9 direla. Kontraste honek adierazten digu Irabazi asmoko entitateak izan direla itun-politiketarik etekinik gehien atera dutenak.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak leku itunduko zenbateko handiagoa ematen die Irabazi asmoko entitateei, Irabazi asmorik gabekoei baino. 51. taulan ikusten ahal dugunez, Irabazi asmoko entitateei (Nafarroan nagusi direnak) emaniko zenbatekoen batez bestekoa leku itunduko, Irabazi asmorik gabekoei emaniko zenbatekoa gainditzen du 263,24 eurotan eta udalen titulartasuna dutenei (eskasena) emanikoa 290,45 eurotan. Honekin bat aipatu behar da ez direla itunen zenbatekoak zehazteko oinarritzat erabil daitezkeen irizpide objektiboak ezartzen, zerbitzuaren kalitateari dagokionez (esaterako: langile-ratioa, gaikuntza, eskainitako zerbitzuak, materialen eta azpi-egituren ekipamendua, e.a.). Irabazi asmoko entitate izate hutsak bermatzen du zenbateko handiagoa jasotzea, baldin eta itun edo kontzertu ekonomikoa ematen bazaio.

51. TAULA. NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUAK ORDAINDUTAKO ZENBATEKOAK LEKU ITUNDUKO (2003)

	Udalenak		Irabazi asmorik gabekoak		Irabazi asmokoak	
	Zahar-etxeak	Lekuak	Zahar-etxeak	Lekuak	Zahar-etxeak	Lekuak
I Ipar-mendebaldea	1	35	1	65		
II Ipar-ekialdea					1	17
III Lizarra					2	226
IV Tafalla	1	19	1	70		
V Tuteria	1	54	1	75		
VI Iruña					5	345
Nafarroatik kanpokoak					1	31
	3	108	3	210	9	619
Leku itunduko ordaindutako batez bestekoa	1256,13		1.283,34		1.546,58	

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuetan oinarrituta.

Leku itunduen ehunekorik txikiena udalen titulartasuna dutenek osatzen dute kopuru osoaren % 11,5arekin (51. taula). Zentro itunduak aukeratzeko lehentasuna da "entitate edo erakunde publikoetako zentro edo zerbitzuak izatea" (20/1985 FL, 2. art., a atala). Deigarria da, indarreko araudiaren arabera lehentasuna izanik, Toki Administrazioei dagozkien zentroak leku itundurik gutxien dituztenak izatea, eta ehuneko hau leku-mota hauen kopuru osoaren ehunekoaren azpitik egotea (% 17,53). Are gehiago, kontuan hartzen badugu udalen titulartasuneko lekuak Irabazi asmokoak baino sakabanatuago daudela (itunduak Iruñean eta Lizarran, nagusiki). Ez dugu ahaztu behar "Udal eta Mankomunitateen bidezko deszentralizazioa" Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legearen printzipio nagusietako bat dela, horren bidez "erabiltzaileen hurbiltze eta parte-hartzea lortzeko asmoz".

- Administrazioaz besteko zentroetarako egonaldietarako laguntzak 50. taulan adierazi bezala banatzen dira. Laguntza jasotzen duten pertsona gehienak Irabazi asmorik gabeko zahar-etxeetan bizi dira (% 70,04). Hauen ondotik, udaletako zahar-etxeetako lekuak ditugu, laguntzen % 26,03a osatzen dutenak. Ehunekorik txikiena osatzen dutenak, laguntzak jasotzen dituzten % 3,93, Irabazi asmoko zahar-etxeetan bizi dira. Pentsatzen ahal dugu, hau Irabazi asmorik gabeko eta udaletako entitateek jasotzen duten finantzaketa publiko eskasari zor zaiola. Dena dela, ez dugu ahaztu behar laguntzak ez direla entitateendako baizik eta erabiltzaileendako. Zahar-etxe hauetan gaitasun ekonomiko nahikoko erabiltzaileak egonen balira, diru publiko hau ez zen horretara zuzenduko. Laguntzak ez bezala, itunak entitate titularrarekin ezartzen dira noizean behin, horrela zahar-etxeak bermaturik ditu epe horretarako diru-sarrerak. Diru-laguntzak egoiliarrei eta itunak entitateei egiten diete mesederik gehien.

Diru-laguntzen kasuan bezala, Irabazi asmorik gabeko zahar-etxeetan daude leku librerik gehien (kopuru osoaren % 57,6). Ondotik, Irabazi asmoko eta udaletako zahar-etxeak ditugu, hauetan lekuen % 23,9 eta % 18,5 daude, hurrenez hurren (50. taula). Finantzaketa-eredu honek Irabazi asmoko ekimen pribatuari eta, ondorioz, zahar-etxeetako jabeei mesede egiten die; gainera, ez da zuzeneko loturarik ezta objektiborik ere egiaztatu emandako zerbitzuaren kalitate-mailarekiko.

5.3.2.2. EGUNEKO ZENTROAK ETA EGUNEKO EGONALDIK

Lehenago aipatu dugunez, eguneko zentro eta egonaldiak buruzko datuak ezberdinak dira informazio-iturriaren arabera. Eguneko zentroetako zein Eguneko egonaldietarako lekuak zehatzago aztertzeko, atal honetan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarrituko gara. Izan ere, alde batetik, dauden leku-motei buruzko informazio gehiago ematen baitigute eta, beste alde batetik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek 2004ko martxoan emaniko datuak baitira.

Nafarroan 278 leku daude Eguneko zentroetan, zahar-etxeetan baino askoz ere gutxiago. Eguneko zentroetako leku guztiak laguntza behar duten pertsonendako dira. 52. taulan ikusten ahal dugunez, Eguneko zentroetako lekuak Iruñean daude bereziki, kopuru osoaren % 75,54 daude bertan. Mota honetako lekuak Nafarroako ipar-mendebaldean, Lizarran eta Tuteran ere daude. Nafarroako ipar-ekialdeko eta Tafallako Gizarte Zerbitzuen barrutiek ez dute mota honetako lekurik eskaintzen. Honek atentzioa ematen du, bereziki kontuan hartzen badugu 1997-2000 Nafarroako Plan Gerontologikoaren jarduketa-neurrietako bat Eguneko zentro bat ezartzea dela Atal sozio-sanitario bakoitzeko. Hauek paratzeko lehentasunezko tokiak Tafalla eta Zangoza dira (Nafarroako ipar-ekialdeko barrutian kokatutakoak) besteak beste.

52. TAULA. NAFARROAKO EGUNEKO ZENTROEN LEKU-KOPURUA (2003)

Barrutia	Laguntza behar dutenak	Eguneko zentroak	Leku-kopurua/	(% tan)
I Ipar-mendebaldea	1	25	8,99	
II Ipar-ekialdea			0,00	
III Lizarra	1	25	8,99	
IV Tafalla			0,00	
V Tuteran	1	18	6,47	
VI Iruña eta Iruñerria	8	210	75,54	
GUZTIRA	11	278	100,00	

Iturria: Elaborazio propioa, NGOik emaniko datuetan oinarritua.

Eguneko egonaldiei dagokienez, Eguneko zentroak baino sakabanatuago daude, eta gehienak, % 35,25, Tafallako Gizarte Zerbitzuen barrutian daude.

Deigarria da Nafarroako ipar-mendebaldean ez dela zerbitzu hau eskaintzen.

53. TAULA. NAFARROAKO EGUNEKO EGONALDIETARAKO LEKUEN KOPURUA (2003)

	Eguneko egonaldiak	Berez baliatzen direnak	Laguntza behar dutenak	Guztira	%
I Ipar-mendebaldea		0	0	0	0,00
II Ipar-ekialdea	1	12		12	8,63
III Lizarra	2		19	19	13,67
IV Tafalla	4	4	45	49	35,25
V Tuteria	3	6	25	31	22,30
VI Iruña eta Iruñerria	3	0	28	28	20,14
GUZTIRA		22	117	139	100,00

Iturria: Elaborazio propioa, NGOIk emaniko datuetan oinarritua.

Araudiaren arabera, Eguneko egonaldia "endekapen handia duten pertsonen" eskaintzen zaie (75/2003 FA, Helburuak). Dena dela, berez baliatzen diren zein laguntza behar duten pertsonendako lekuak daude; azkeneko hauek kopuru osoaren % 84,17 dira. Oro har, Eguneko egonaldietarako eta Eguneko zentroen artean, 22 leku baizik ez daude (% 5,28) berez baliatzen diren pertsonendako.

Nafarroako zahar-etxeetako Eguneko zentro/ Eguneko egonaldietarako lekurik gehienak, leku guztien % 74,37, finantzaketa librekoak dira. Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuak lekuen % 25,63 baino ez ditu finantzatzen, bai leku berekiak bai beste entitateekin itundutakoak edo administrazioaz besteko zentroetan egoteagatik egoiliarrei emaniko laguntzen bidezkoak direlako.

54. TAULA. EGUNEKO ZENTROETAKO ETA EGUNEKO EGONALDIETARAKO LEKUEN FINANTZAKETA-MOTA (2003)

Gizarte Zerbitzuko Barrutiak		Ngoi	Itunduak	Laguntzak	Libreak	Guztira
I	Ipar-ekialdea	0	0	11	14	25
II	Ipar-mendebaldea	0	0	2	10	12
III	Lizarra	0	0	8	36	44
IV	Tafalla	0	0	0	49	49
V	Tutera	0	15	4	35	54
VI	Iruña eta Iruñerria	15	56	1	181	253
Guztira		15	71	26	325	437
% tan		3,43	16,25	5,95	74,37	100,00

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Datu hauek eta Nafarroako zahar-etxeetako lekuen banaketa eta finantzaketa alderatuz gero, honakoa ikusten ahal dugu:

- Zahar-etxeetako leku-kopurua, Eguneko zentroetako eta Eguneko egonaldietarako leku-kopurua baino hamabi bider handiagoa da (5.129 eta 437, hurrenez hurren).
- Eguneko zentroetako eta Eguneko egonaldietarako leku libre gehiago daude zahar-etxeetan baino (% 74,37 eta % 65,28, hurrenez hurren).
- Berez baliatzen direnendako zahar-etxeetako lekuen ehunekoa Eguneko zentroetako eta Eguneko egonaldietarako lekuen ehunekoa baino dezente handiagoa da (% 47,94 eta % 5,28, hurrenez hurren).
- Araudian ez dira jasotzen Eguneko egonaldiak eta Eguneko zentroak berez baliatzen direnendako zerbitzutzat, nahiz eta tarteko zerbitzutzat definitu, eta beren kabuz baliatzen diren baina 24 orduko arreta behar ez duten pertsonendako egokiak izaten ahal diren, zahar-etxe batean ez sartzearen.

Horrela, interpretatzen ahal dugu ez dela tarteko baliabide hauen abian jartzea bultzatu eta, horren orde, erabiltzaile eta administrazioarendako aukerarik garestiena aukeratu dela: zahar-etxeak.

5.3.2.3. ITXARON-ZERRENDAK

Atal honetan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan zentralizatutako itxaron-zerrendak aztertuko ditugu; hauek Nafarroako Gobernuaren zentro berekietan edo itunduetan sartzeko zerrendak dira. Nafarroako Gobernuaz besteko zentroetan sartzeko itxaron-zerrendak zentro horietan bertan kudeatzen dituzte, kontuan hartu gabe erabiltzaileek diru-laguntza jasoko duten edo ez.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan 487 pertsona zeuden 2004ko martxoan jasotako itxaron-zerrendan (55. taula): % 11,29 Eguneko zentro edo Eguneko egonaldietarako, eta % 62,01 zahar-etxeetan sartzeko. Itxaron-zerrendetan dauden gehienek laguntza behar dutenendako zahar-etxeetako lekua nahi dute (% 36,14).

55. TAULA. ZENTRO EZBERDINETAKO ITXARON-ZERRENDAK 2004KO MARTXOAN

Leku-mota	Kopurua	% tan
Eguneko zentroak/Eguneko egonaldiak	55	11,29
Laguntza behar dutenendako eguneko zentroak	3	0,62
Eguneko zentro psikogeriatrakoak	39	8,01
Eguneko egonaldiak	13	2,67
Zahar-etxeak/ Psikogeriatrakoak	302	62,01
Berez baliatzen direnendako zahar-etxeak	80	16,43
Laguntza behar dutenendako zahar-etxeak	176	36,14
Psikogeriatrakoak	31	6,37
Berez baliatzen direnendako leku familiarrak	9	1,85
Laguntza behar dutenendako leku familiarrak	6	1,23
Sailkatutako datuak guztira	357	100
Bestelakoak	130	26,69
Adimen-gaixotasunak	1	0,21
Sailkatu gabeak	129	26,49
Guztira	487	99,79

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Datuok esanguratsuak dira Nafarroan dauden zahar-etxeetako lekuen kopuruarekin alderatzen baditugu. Berez baliatzen direnendako eta laguntza behar dutenendako leku-kopurua antzekoa izan arren, laguntza behar dutenendako lekuaren zain daudenen kopurua 2,20 bider handiagoa da.

56. TAULA. ZAHAR-ETXEETAKO LEKUEN ETA ITXARON-ZERRENDAN DAUDEN PERTSONEN KOPURUA (2004KO MARTXOA)

	Berez baliatzen		Laguntza behar	
	direnak	% tan	dutenak	% tan
Zahar-etxeetako lekuak	2.459	47,94	2.670	52,06
Zahar-etxeetako lekuen itxaron-zerrenda	80	31,25	176	68,75

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Taulan ikusten ahal dugunez, Nafarroako zahar-etxeetako lekuen kopurua ez dator bat dagoen eskaerarekin. Nafarroako Administrazio Publikoaren leku berekiak eta itunduak zenbatuz gero, gehienak laguntza behar dutenendako lekuak direla ikusiko dugu.

57. TAULA. NAFARROAKO GOBERNUAREN LEKU BEREKI ETA ITUNDUEN TIPOLOGIA (2003 – 2004)

	Berez baliatzen	Laguntza
	direnak	behar dutenak
Berekiak	183	92
Itunduak	15	922
Guztira	198	1014
Guztira (% tan)	16,34	83,66

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Dena dela, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatutako zahar-etxe publikoetako batean, bakarrik berez baliatzen diren pertsonak sartzen ahal dira, eta betiere Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak berak ezarritako baldintza ekonomikoak betetzen badituzte. Zentro honek laguntza behar dutenendako lekuak ere baditu, baina, bakarrik behin zahar-etxean egonda, mendekotasun egoerara pasa direnendako. 58. taulan ikusten ahal dugu Administrazio Publikoaren leku berekien % 66,55 berez baliatzen direnendako lekuak direla, eta bakarrik % 33,45 daudela laguntza behar duten pertsonendako.

58. TAULA. NAFARROAKO GOBERNUAREN ZAHAR-ETXEETAKO LEKU-MOTAK (2004KO IRAILA)

	Berez baliatzen		Laguntza		Guztira
	direnak	% tan	behar dutenak	% tan	
Santo Domingo	82	74,55	28	25,45	110
El Vergel	101	61,21	64	38,79	165
Guztira	183	66,55	92	33,45	275

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak (2004) eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiko Ikuskapen Atalak (2002) emaniko datuetan oinarritua.

Araudiak jasotzen du Nafarroako Gobernuak adineko ezgaituendako beharrezko laguntza behar dutenendako zahar-etxeetako lekuak sustatu beharko dituela besteak beste (Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 FL). Dena dela, 56. taulan ikusi dugunez, zahar-etxeetan sartu nahi duten itxaron-zerrendetako % 68,75ek laguntza behar dutenendako lekuak nahi dituzte. Hortaz, ez dirudi nahikoak izan direnik azken urteotan eskaerari erantzuteko lekuak sortzeko ahaleginak.

5.3.2.3.1. ITXARON-ZERRENDA EZBERDINEN KUDEAKETA

Nafarroan hiru modu daude zahar-etxeetako lekuetan sartzeko. Lehenengoa lekuaren finantzaketaren arabera da. Administrazio Publikoaren leku berekiak edo itunduak badira, Nafarroako Gizarte

Ongizatearen Institutua izanen da horretaz arduratuko dena. Administrazioaz besteko lekuak badira, zentroari berari egokituko zaio horren ardura. Hirugarren modua behin zahar-etxe batean sartu eta gero, lekuz aldatzeko– berez baliatzen direnendako lekutik laguntza behar dutenendakora edo alderantziz– eskatzean datza.

Administrazio Publikoaren leku berekiak edo itunduak

Leku hauek eskuratzeko eskabidea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta Osasun Etxetan egin daiteke, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatuko du. Leku hauek eskuratzeko baremo ezberdinak daude. Baremoak, alde batetik, lekuaren egokitasuna aztertzeko eta, beste alde batetik, sartzeko lehentasuna ezartzeko erabiltzen dira. Hauek dira baremoak:

- Osasun baremoa: eskatzaileari berez baliatzen direnendako edo laguntza behar dutenendako lekua dagokion zehazteko. Osasun baremo hau hirutan banatzen da:
 1. Txosten medikoa: erabiltzailearen gaixotasunak, intereseko aurrekariak eta elikadura erregimena jaso behar ditu.
 2. Delta Testa: mendekotasun fisikoa eta psikikoa neurtzeko erabiltzen da.
 3. Miniazterketa kognitiboa (MEC): dementziak dituzten erabiltzaileen endekapen kognitiboaren maila neurtzeko erabiltzen da. Orientazioa, arreta, kontzentrazioa eta kalkulua, oroimena, eta lengoaia eta joskera neurtzen ditu.

Nafarroako araudiaren arabera, Delta Testa da mendekotasun-maila neurtzeko metodo ofizial bakarra (126/1998 FD). Araudiaren arabera Test hau aplikatuko da "Pertsona batek berez baliatzen dela edo laguntza behar duela dioen kreditazio ofiziala behar badu" (126/1998 FD, 4. art.).

Praktikan, ordea, txosten medikoa eta miniazterketa kognitiboa modu osagarrian erabiltzen dira, eskatzailea berez baliatzen den edo laguntza behar duen zehatzeko. Eskatzailea berez baliatzen dela erabakitzen bada, eramanen zaion zentroko langile-taldeak beste balorazio bat eginen du²⁷. Azken buruan, zentro hauetako langileak dira lekua egokia den edo ez erabakiko dutenak²⁸.

Nafarroako araudiaren arabera, Delta Testa metodo ofizial bakarra izateaz gain, ez da barne-funtzionamenduko protokolorik Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren baitan eta, hortaz, balorazioa burutuko duen teknikariak jardun eta erabakitzeko erabateko askatasuna du. Mendekotasuna neurtzeko sistema bateratuago baten beharra dago, erabiltzaileei berme gehiago eta sistemari koherentzia handiagoa emateko.

- Baremo sozial eta ekonomikoa: Zentro Gerontologikoetan Nafarroako Gobernuaren leku berekiak edo itunduak lortzeko lehentasuna ezartzeko. Horretarako, Nafarroako araudian bi baremo jasotzen dira (459/2003 Ebazpena):

1. Ezinduak Zentro Gerontologikoetan sartzeko baremo soziala.
2. Pertsona autonomoak Zentro Gerontologikoetan sartzeko baremo soziala.

Bi baremoetan egoera sozio-familiar, ekonomikoa eta bizilekukoa, eta adina neurtuko dira.

Hona baremoak aplikatzeko prozedura Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren arabera:

- Lehenik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura iristen diren eskabideak baloratzen dira, osasunaren ikuspegitik.

²⁷ Kasu honetan El Vergel edo Santo Domingora, Nafarroako Gobernuaren berez baliatzen direnendako zahar-etxeak baitira.

²⁸ Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek emaniko informazioa.

- Gero, balorazio ekonomikoa egiten da. Honen bidez lortzen den informazioa gizarte-balorazioaren ataletako batean jasotzen da.
- Azkenik, gizarte-balorazioa egiten da.

Erabilitako baremoek eta, bereziki, hauen ondorioek, itxaron-zerrenden kudeaketa ez dela berez baliatzen diren pertsonen lehentasuna ematera zuzentzen adierazten digute, baremo ekonomikoa baita leku bat lortzeko erabakigarria. Mendekotasunaren balorazioa erabiltzaile bakoitzari dagokion lekua erabakitzeko baizik ez da erabiltzen, lehentasunik bermatu gabe. Datu hauek erakusten digute baliabideen erabilerarako egungo antolaketak ez duela bermatzen premia handiena dutenek lehentasuna izanen dutenik, premia mendekotasun fisiko zein psikiko gisa ulertuta.

Administrazioaz besteko lekuak

Administrazioaz besteko zentroetan sartzeko, zentro horretan bertan aurkeztuko da eskabidea, bertan burutzen baita itxaron-zerrenden kudeaketa. Erabiltzaileek ez badute baliabide ekonomiko nahikorik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari eskatuko zaio administrazioaz besteko zentroetarako egonaldietarako diru-laguntza. Laguntza hauetarako ez dago itxaron-zerrendarik. Ez dira ez osasun baremoa ezta gizarte-baremoa ere erabiltzen, berez baliatzeko duen gaitasunaren arabera betekizun ekonomiko batzuk baizik (17/2000 FL, 10. artikulua).

Birkalifikazioak

Birkalifikazioa leku-mota batetik beste batera, hau da, berez baliatzen direnendako lekutik laguntza behar dutenendako lekura edo alderantziz, aldatzean oinarritzen da. Honako kasuetan gertatzen ahal da:

- Berez baliatzen direnendako lekutik laguntza behar dutenendako lekura edo alderantziz, Administrazio Publikoaren zahar-etxe berekietan edo itunduetan, edo administrazioaz besteko zentroetarako egonaldietarako.

- Kudeaketa libreko bi lekuren artean (berez baliatzen direnendakotik laguntza behar dutenendakora).
- Bi lekuren artean (berez baliatzen direnendakotik laguntza behar dutenendakora), kudeaketa libreko lekutik diru-laguntza duen administrazioaz besteko zentroetarako egonaldietarako lekura, leku berekira edo itundura aldatzeko.

Birkalifikazioak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egiten ditu, baldin eta kreditazio ofiziala behar bada, hau da, adierazitako lehen bi kasutan. Bigarren kasuan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institututik eginen litzateke erabiltzaileek edo euren ahaideek eskatuta. Horretarako, aurreko atalean azaldutako osasun-baremoa erabiliko da, baina kasu honetan aipaturiko hiru elementuei Barthel testa gaineratzen zaie. Azken honek erabiltzailearen egoera funtzionalaren balorazioa ematen digu.

Hirugarren kasua ez da birkalifikazio gisa lantzen Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institututik; eskabide berriekin bezala jokutzen da.

2003. urtean Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak 85 birkalifikazio egin zituen. Gehienak (60. taula) diru-laguntza duten administrazioaz besteko zentroetarako egonaldietarako egin ziren. Kontuan hartzen badugu Nafarroan diru-laguntza duten lekuak kopuru osoaren % 10 baino ez direla, deigarria da birkalifikazio guztien % 57,65 izatea. Honen arrazoa izan daiteke errazagoa dela Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren leku bereki edo itunduetara aldatzea. Hau da, leku bereki edo itunduak mugatuak dira eta itxaron-zerrendak dituzte; diru-laguntzak, aldiz, ez dira mugatuak eta ez dute itxaron-zerrendarik. Amaitzeko, aipatuko dugu leku libreen birkalifikazioa ez dela derrigorrezkoa, baizik eta egoiliarrek edo senideek hala eskatuta egiten dela. Aldaketa hau lortzea, jakina, ez da hain erraza, nahiz eta birkalifikazio guztien % 21,18 izan.

59. TAULA. FINANTZAKETA-MOTAREN ARABERAKO LEKUEN KOPURUA ETA BIRKALIFIKAZIOAK (2003).

	Lekuak guztira (% tan)	Birkalifikazioak (% tan)
NGOI	6,04	4,71
Ituna	18,27	16,47
Diru-laguntza	10,41	57,65
Librea	65,28	21,18

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Birkalifikazio guztien % 61,18an (60. taula) laguntza moderatua behar duten lekuetara egin da aldaketa. Ez dakiguna da pertsona hauek euren lekuak birkalifikatu baino lehen zuten mendekotasun-maila²⁹. Dena dela, eta adinekoen endekapena adinak gora egin ahala handiagoa denez, susmatzen ahal dugu birkalifikazio gehienek mendekotasun-maila handiagoa dakartela. Honek erabiltzailearendako ondorio ekonomikoak ekarri, eta lekuaren tarifa eta, zenbaitetan, jasotako diru-laguntzarena ere handitu egiten dira.

60. TAULA. 2003. URTEAN EGINIKO BIRKALIFIKAZIOAK

	Berez baljatzzen direnak	Laquntza moderatua behar dutenak (% tan)	Laquntza handia behar dutenak (% tan)	Laquntza behar dutenak guztira (% tan)	Guztira (% tan)					
NGOI	1	1,18	1	1,18	2	2,35	3	3,53	4	4,71
Ituna		0,00	6	7,06	8	9,41	14	16,47	14	16,47
Diru-laguntza	2	2,35	30	35,29	17	20,00	47	55,29	49	57,65
Librea	1	1,18	15	17,65	2	2,35	17	20,00	18	21,18
	4	4,71	52	61,18	29	34,12	81	95,29	85	100,00

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

29. No se ha facilitado esta información por parte del Instituto Navarro de Bienestar Social.

Nafarroako zahar-etxeetako egonaldia Administrazio Publikotik, zehazki, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institututik, finantzatzen dute erabiltzaileek eurek eta, zenbaitetan, Irabazi asmorik gabeko erakundeen diruaren bidez. Atal honetan finantzaketa publikoan eta erabiltzaileen ekarpenean sakonduko dugu.

Hiru finantzaketa-era daude:

1. Foru administrazioaren leku berekiak eta itunduak. Zentro eta leku hauetako erabiltzaileek egin beharreko ekarpena lekuaren benetako prezioa baino gutxiago izanen da (0 atala).
2. Foru administrazioaz besteko lekuak. Zentro hauetako erabiltzaileek Foru administrazioaren diru-laguntzak jasotzen ahal dituzte, zentro horietarako egonaldiak partzialki ordaintzeko.
3. Foru administrazioaren defizit-laguntza, udal edo Irabazi asmorik gabeko zahar-etxeei zuzendurikoa.

Hona Nafarroako finantzaketa-era hauei buruzko araudia:

- Erabakia, 1997ko ekainaren 18koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak hartua. Erabaki honek onartzen ditu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zuzenean edo zeharka kudeatutako zerbitzuak emateagatik aplikatuko diren tarifak eta haiek aplikatzeko arauak. 2. artikulua adineko pertsonendako arreta zerbitzuak, bai berez baliatzen direnendako zein laguntza behar dutenendako lekuak, begiesten ditu. 17/2000 Foru Legeak Erabakia indargabetu du, nahiz eta zenbait artikuluk oraindik ere indarra duten.
- 17/2000 FL, abenduaren 29koa, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena. Begiesten dira:

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeetako nahiz administrazio horrekin itundutako zahar-etxeetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa.
- Aipatu administrazioak erabiltzaileei administrazioaz besteko zahar-etxe bateko egonaldiak ordaindu ahal izan ditzaten emaniko prestazio ekonomikoak.
- 34/2003 FL, abenduaren 30ekoa, 2004ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak 17/2000 Foru Legeak ezarritako gehieneko prezioak gaurkotzen ditu.
- Erabakia, 2001eko irailaren 6koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak hartua, erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuak emateko tarifak eta horiek aplikatzeko arauak aldatzen dituena. Erabaki honek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak 1997ko ekainaren 18an hartutako Erabakiaren 2., 4., 5. eta 12. artikulua aldatzen ditu.

5.3.2.4.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRO BEREKIETAKO EDO ITUNDUETAKO ERABILTZAILIEN DIRU-EKARPENA

Atal honetan zahar-etxeetako lekuen finantzaketa honi buruzko arautzeak, hala nola, erabiltzaileek ordaindu beharrekoa ezartzeko Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak erabilitako baremoak azalduko ditugu.

Komenigarria litzateke tarifen esanahi eta arautzetik abiatzea, baremoak ezartzeko erreferentzia baitira. Tarifatzat jotzen dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeetako nahiz administrazio horrekin itundutako zahar-etxeetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa (2001eko irailaren 6ko Erabakiaren 4. artikulua). Diru-kopuru horiek ez dira inola ere zerbitzuek erakunde autonomo

horri eragiten dioten kostu errealararen adinakoak. 2001eko irailaren 6ko Erabakian 2001erako balio duten tarifak ezartzen dira bereziki, eta 4. artikulua xedatzen du ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran eguneratuko direla, aurreko urtean Nafarroako Foru komunitateko KPlan izandako igoerari jarraikiz.

Tarifak prezio publikoak dira, eta halakotzat hartuko dira Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Zuzenbide publikoko diru-sarreratzat ezarritakoak (17/2000 FL, 3. artikulua).

Hona 2004ko ekitaldirako tarifa eguneratuak:

- Berez baliatzen diren pertsonendako zahar-etxea: 543,69 euro hilero.
- Laguntza behar duten pertsonendako zahar-etxea: 1.106,29 euro hilero.
- Berez baliatzen direnendako eguneko arreta: 258,09 euro hilero.
- Laguntza behar dutenendako eguneko arreta: 368,75 euro hilero.
- Egoiliarrek ez direnen janaria: 3,53 euro zerbitzuko.
- Ikuztegiko laguntza: 3,53 euro zerbitzuko.
- Bainu geriatrikoa: 3,53 euro zerbitzuko.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxe berekietako nahiz itunduetako erabiltzaileek hilero ordaindu beharrekoa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ezarritako tarifaren adinako da printzipioz. Baina, erabiltzaile guztiek tarifa osoa ordaintzeko gaitasun ekonomikorik ez dutenez, norberaren araberako prezioak daude. Norberak ordaindu beharrekoa erabakitzeke, kontuan hartuko dira, errenta, kapital higigarria eta higiezina eta familia-

unitatea osatzen duen pertsona-kopurua³⁰. Honek erakusten digu desjabetzapen tasak aplikatzen direla: errentaren diru-sarrerak nahikoak ez badira, lekuaren tarifa norberaren ondarearekin ordainduko da. Araudiaren arabera, erabiltzaileek euren ondasunak galdu beharko dituzte zenbait kasutan³¹.

61. TAULA. TERMINOEN DEFINIZIOA ARAUDIAN

2. artikulua. Ordaintzeko betebeharra duten pertsonen ahalmen ekonomikoa ezartzea.

Foru lege honetan, hurrengoan arabera kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea, familia-unitatea osatzen duten pertsona kopurua.

Errentatzat hartuko dira familia-unitateak hurrengoak direla-eta dituen diru-sarrera guztiak:

- Laneko etekinak; hor sartuko dira, baita ere, pentsioak eta gizarte-aurreikuspeneko prestazioak, edozein dela ere haien araubidea
- Kapital higigarri eta higiezinaren etekinak
- Enpresa edo lanbide bateko etekinak

Ondareztat hurrengo hau hartuko da: erabiltzailearen kapital higigarri eta higiezin guztia, prestazioa jasotzen hasi aurreko bost urtetatik aurrera baloratuta, gezurrezko pobretze oro alde batera utzita. Horren balioa neurtzeko, Ondarearen gaineko Zergarako ezarritako arauak erabiliko dira.

Kapital higigarritzat hauek hartuko dira: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio eta pentsio funtsak, balore higigarriak, bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, artelanak, antzinako gauzak, bitxiak eta bestelako gauza baliodunak.

Kapital higiezinatzat, aldiz, hurrengoak hartuko dira: landa-lurreko ondasunak eta hiri-lurreko ondasunak.

Familia-unitatetzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga erregulatzan duten arauetan zehaztutakoa.

Iturria: 17/2000 FL, abenduaren 29koa, 2. artikulua.

30 40. taula termino hauek definitzen dituen 17/2000 Foru Legearen 2. artikulua laburpena da.

31 Salbuetsi eginen da lanbide arteko gutxieneko soldataren halako hamabi egiten duen zenbatekoa (ikus 5.3.2.4.3. atala).

Ordaindu beharrekoak ez du inolaz ere erabiltzailearen errentaren % 100 eginen (17/2000 FL, 7. art.). Erabiltzaileek tarifa osoa ordaintzeko behar adina diru ez dutela frogatzen badute, hileko per capita errentaren % 90 ordainduko dute. Dena dela, baremo honen aplikazioaz gain, erabiltzailearen esku gelditzen den diru-kopurua ez da araudian ezarritakoa baino txikiagoa izanen³². Hona 2004ko ekitaldirako erabiltzaileen esku geratzen den gutxieneko diru-kopurua urtean:

- Laguntza behar duten pertsonendako: 893,70 euro urtero.
- Baliatzen diren pertsonendako: 1.327,00 euro urtero.
- Ezkontidea etxean bizi baldin bada, 1.475,18 euro kenduko zaizkio urtero.

Kopuru hauek ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran eguneratuko dira, aurreko urtean Nafarroako Foru komunitateko KPlan izandako igoerari jarraikiz (2001eko irailaren 6ko Erabakiak aldatutako 1997ko ekainaren 18ko Erabakiaren 4. art.).

Ikusten ahal dugunez, laguntza behar duten pertsonen esku geratzen den kopurua berez baliatzen diren pertsonen esku geratzen dena baino handiagoa da. Erabiltzaileei eginiko elkarrizketetan egiaztatu ahal izan genuen mendekotasun egoeran diren egoiliar batzuk ez zirela kanpo-bisitetara ateratzen, horretarako nork lagundu ez zutelako. Zerbitzu hau zahar-etxeek oro har ematen ez dutenez, irtenbideetako bat egoiliarrak berak hirugarren pertsona bat kontratatzea litzateke. Baina, hileroko 74,48 euro izanda, ezinezkoa da ia lan hau egiten duenik aurkitzea.

Hau egiaztaturik, ez dirudi bat etortzen direnik adineko egoiliarrek euren esku dituzten baliabide ekonomikoak eta euren mendekotasun egoeraren araberrako beharrak.

³² 2001eko irailaren 6ko Erabakiaren bidez aldatutako 1997ko ekainaren 18ko Erabakiaren 5.1.1. art.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek emaniko informazioaren arabera, egoiliarren esku geratzen den gutxieneko diru-kopurua bakarrik aplikatuko da, euren hileko per capita errentaren % 10 kopuru hori baino txikiagoa bada. Jarraian Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek jarraituriko prozedura jasotzen duen taula dugu.

62. TAULA. GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUAK JARRAITUTAKO PROZEDURA ERABILTZAILIEN ESKU GERATZEN DEN GUTXIENEO DIRU-KOPURUA EDO/ETA EUREN PER CAPITA ERRENTAREN % 90 APLIKATZEKO

Hileko per capita errentaren % 10 hileroko euren esku geratzen den kopurua baino txikiagoa denean:

- Urteko per capita errentari egoiliarren esku urtean geratzen den diru-kopurua kenduko zaio. Emaidza zati hamabi hilabete egin, eta bakoitzak hilean ordaindu beharrekoa jakinen dugu.

Hileko per capita errentaren % 10 hileroko euren esku geratzen den kopurua baino handiagoa denean:

- Urteko per capita errentari % 10 aplikatuko zaio; zenbateko hau egoiliarren esku urtean geratzen den gutxieneko diru-kopurua baino handiagoa bada, erabiltzaileak bere hileko per capita errentaren % 90 ordainduko du.

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Erabiltzaileen hileroko diru-ekarpenak ez badu prezio guztia estaltzen, zorra eginen dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin; zorraren zenbatekoa, hain zuzen ere, honakoa izanen da:

- erabiltzaileak ordaindutakoa eta
- Institutuak zahar-etxe berekietarako edo itunduetarako ezarritako prezioa (17/2000 FL, 8. art.).

Tarifa ordaindu beharko dute, bai eta, behar izanez gero, eginiko zorra ordaindu ere, administrazioaren zahar-etxeak nahiz zahar-etxe itunduak erabiltzen dituzten pertsonak. Epaileek pertsona baten ezintasuna deklaratu gero, legezko ordezkariak eginen du ordainketa edo itzulketa, eta, horretarako, pertsona horren ondarea erabiliko du (17/2000 Foru Legearen 12. art.).

5.3.2.4.2. ADMINISTRAZIOAZ BESTEKO ZAHAR-ETXEETAKO ERABILTZAILEENDAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK

"Prestazio ekonomikoak dira administrazioaz besteko zahar-etxeetako erabiltzaileei etxe horietan jasotako zerbitzuak ordaintzeko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak emaniko zenbatekoak" (17/2000 FL, 9. art.). Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokio erabiltzaile bakoitzari egin beharreko prestazioaren zenbatekoa zehaztea.

Prestazioaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da erabiltzaileak benetan ordaindutakoaren eta lekuaren prezioaren arteko aldea (17/2000 Foru Legearen 10. artikularen 2. atala).

Jasotzen dituen zerbitzuen truke erabiltzaileak ordain ditzakeenak kalkulatzeko, hurrengoak erabiliko dira: errenta, kapital higigarria eta higiezina -baldin eta urtean etekinak sortzen badituzte- eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua (17/2000 Foru Legearen 10. artikularen 3. atala). Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek emaniko informazioaren arabera, zahar-etxe bereki edo itunduen erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharrekoa kalkulatzeko baremo berbera aplikatzen da, per capita errentaren % 90 eta erabiltzaileen esku geratzen den diru-kopurua barne (63. taula). Baremo honen aplikazioa ez dago jasota diru-laguntza hauek arautzen dituen 17/2000 Foru Legean, ezta zahar-etxeen finantzaketa publikoari buruz aztertu dugun araudian ere. Honek esan nahi du Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko baremoak aplikatzen ari direla diru-laguntzak emateko, hauek arautzen dituen inolako araudirik ez existitu arren.

- Lekuaren prezioa kontuan hartuko da 17/2000 Foru Legean ezarritako gehieneko prezioak baino txikiagoa bada. Handiagoa bada jarraian zehaztutako gehieneko prezioak ezarriko dira.

Informazio hau Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek emanikoa da. 17/2000 Foru Legearen 10. artikulua bakarrik ezartzen du ezberdintasuna erabiltzaileak benetan ordaindutakoaren eta Legeak ezarritako gehieneko prezioaren artean egiten dela. Prestazio ekonomikoa ezin da izan araudian zehaztutako eta jarraian adierazitako diru-laguntzak baino handiagoa.

Gehieneko prezioak

Gehieneko prezioak 17/2000 Foru Legearen 4. artikulua arautzen ditu. Zentro bereki edo itunduetako hileroko gehieneko prezioak dira. Prezio hauek bi alderdi desberdin arautzeko erabiltzen dira:

- Alde batetik Administrazio Publikoak bere zahar-etxeetarako eta zahar-etxe itunduetarako ezartzen ahal dituen gehieneko prezioak.
- Beste alde batetik, administrazioaz besteko zentroetako egoiliarrei dagozkien Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko.

Hona 17/2000 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritako prezioak:

- Berez baliatzen den batendako lekua: lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 1,5.
- Laguntza behar duen batendako lekua: lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 2,5.
- Eguneko zentroa: lanbide arteko gutxieneko hileko soldata.

Aipatu beharra dago Lanbide arteko Gutxieneko Soldatak ez duela inolako loturarik lekuen benetako kostuarekin eta, hortaz, ez dago argi gehieneko prezioak ezartzeko irizpiderik hoberena denik. Ez dugu ahaztu behar prezio hauek eragina dutela Nafarroako Gobernuak administrazioaz besteko zentroetako erabiltzaileei ematen dien prestazio ekonomikoan.

Gehieneko prezioak urtero zehazten dira Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean (17/2000 Foru Legearen bigarren Azken Xedapenean). 34/2003 Foru Legeak gehieneko prezioak gaurkotu eta gehieneko zenbateko hauek finkatzen ditu hileko:

- Berez baliatzen den batendako lekua: 719,30 euro.
- Laguntza behar duen batendako lekua: 1.307,82 euro.
- Eguneko zentroa: 719,30 euro.

63. TAULA. 2004. URTERAKO EZARRITAKO GEHIENeko PREZIOAK

	2004ko aurrekontuei				
	LGS	Zenbatekoa	buruzko Legea	Aldea (% tan)	
Baliatzen direnak	1,5	690,75	719,3	-28,55	4,13
Lagun. behar dut.	2,5	1.151,25	1.307,82	-156,57	13,60
Eguneko zentroak	1	460,5	719,3	-258,8	56,20

Lanbide arteko Gutxieneako Soldata 460,50 eurokoa zen hilero, 2004/01/01etik 2004/06/31ra

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

63. taulan ikusten dugunez, gaurkotze hau ez dator bat 17/2000 Foru Legean ezarritakoarekin, honako arrazoiengatik:

- Ez dira Lanbide arteko Gutxieneako Soldataren multiploak.
- Berez baliatzen direnendako lekuetarako eta Eguneko zentroetarako gehieneko prezioa bera da, 17/2000 Foru Legean ezberdina izan arren.
- Indarreko gehieneko prezioak 17/2000 Foru Legean ezarritakoak baino handiagoak dira.

Gehieneko diru-laguntzak

17/2000 Foru Legearen 10. artikuluan ezartzen da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokiola administrazioaz besteko zentroetako erabiltzaile bakoitzari egin beharreko prestazioaren zenbatekoa zehaztea. Diru-laguntzek ezin izanen dituzte honako zenbatekoak gainditu:

- Laguntza behar dutenendako lekuetarako: lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 1,6.
- Berez baliatzen direnendako lekuetarako: lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 0,7.

Diru-laguntza hauek arautzen dituen 17/2000 Foru Legean, ez dago inolako artikulurik edo atalik gehieneko diru-laguntzak urtero gaurkotu behar direla zehazten duenik. Dena dela, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariei eginiko elkarrizketei eta eurek emaniko materialei esker, honako informazioa lortu dugu 2004ko ekitaldirako ezarritako gehieneko diru-laguntzei buruz:

- Berez baliatzen direnendako lekuetarako: 322,35 euro hileroko.
- Laguntza behar dutenendako lekuetarako: 726,00 euro hileroko.
- Eguneko zentroetarako: 463,83 euro hileroko.

2004. urterako zehaztutako zenbateko hauek ez datoz bat 17/ 2000 Foru Legeak LGSrako ezarritako multiploekin (64. taula).

64. TAULA. 2004. URTERAKO EZARRITAKO GEHIENAKO DIRU-LAGUNTZAK

	LGS	Zenbatekoa	2004rako proposamena	Diferentzia	
Berez baliatzen direnendako lekuak	0,7	322,35	322,35	0	1,47
Laguntza behar dutenendakoak	1,6	736,8	726	10,8	0,00
Eguneko zentroetako lekuak			451,2		

Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 460,50 eurokoa zen hileroko, 2004/01/01etik 2004/06/31ra

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua

Gehieneko prezioen eta gehieneko diru-laguntzen arteko erlazioa: diru-laguntzak kalkulatzeko, kontuan hartzen da erabiltzaileak ordaindutakoaren eta gehieneko prezioaren arteko aldea, hau lekuaren prezioa baino txikiagoa bada. Ezinen dute inolaz ere gainditu gehieneko diru-laguntzetarako ezarritako zenbatekoa. Honi dagozkion zenbatekoak gehituz gero, honako kopuruak lortuko ditugu:

65. TAULA. GEHIENeko PREZIOEN ETA GEHIENeko DIRU-LAGUNTZEN ARTEKO ALDEA BEREZ BALIATZEN DIRENENDAKO ETA LAGUNTZA BEHAR DUTENENDAKO LEKUETARAKO

	Berez baliatzen direnendako lekuak	Laguntza behar dutenendako lekuak
Gehieneko prezioa	LGSren halako 1,5	LGSren halako 2,5
Gehieneko diru-laguntza	LGSren halako 0,7	LGSren halako 1, 6
Diferentzia	LGSren halako 0,8	LGSren halako 0,9

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua

Laguntza behar dutenendako lekuen diferentzia berez baliatzen direnendakoena baino handiagoa da. Dena dela, diferentzia proportzionala da, Laguntza behar dutenendako lekuen tarifak handiagoak baitira.

Itzultzeko beharra

17/2000 Foru Legeak badu alderdi berri bat: itzultzeko beharra. Prestazioa jasotzen duten pertsonen hurrengo zenbatekoa itzuli beharko diote, Lege honetan ezarritako moduan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari:

- erabiltzaileak ordaindutakoaren eta
- zahar-etxe berekietarako nahiz itunduetarako ezarritako prezioaren arteko aldea (11. art.).

Prestazioaren gainerako zenbatekoa, beraz, ez da itzuli beharko. Honek kontraesan nabarmenak sortzen ahal ditu diru-laguntzaren itzulketari

dagokionez. Zahar-etxeak finkatutako prezioa Nafarroako Gobernuaren leku berekien zein itundutakoaren prezioa baino txikiagoa denean, erabiltzaileek jasotakoa baino zenbateko handiagoa itzuli beharko dute:

- Erabiltzaileek ordaindutakoaren eta lekuaren prezioaren arteko aldea jasoko dute, gehieneko prezioez azpitik baitago. Hau da aplikatuko den baremoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren informazioari jarraiki.
- Erabiltzaileek ordaindutakoaren eta zentro berekietarako nahiz itunduetarako ezarritako prezioaren arteko aldea itzuliko dute (kasu honetan, lekuaren prezioa baino handiagoa).
- 17/2000 Legearen arabera, erabiltzaileak ordaindutakoaren eta Foru Legeak ezarritako gehieneko prezioaren arteko aldea jasoko dute (ikus 91. orrialdea). Baremo hauek aplikatzen badira, ez da jasotakoa baino zenbateko handiagorik itzuliko (ikus 66. taula).

66. TAULA. ZENBATEKOEN APLIKAZIOA: LEKUAREN PREZIOA NGOI-REN LEKUENA BAINO TXIKIAGOA DENEAN 66. TAULA. ZENBATEKOEN APLIKAZIOA: LEKUAREN PREZIOA NGOI-REN LEKUENA BAINO TXIKIAGOA DENEAN

	NGOren informazioaren araberako baremoak	17/ 2000 Legearen araberako baremoak
Prezioa/ berekiak	1.106,29	
Gehieneko prezioa	1.307,82	
Prezioa/ laguntza behar dutenendako lekua (adibidez)	Ekarpena	
dute:	Jasoko dute:	Jasoko dute:
Erabiltzailearen diru-ekarpena (adibidez)	600 euro hilero	Gehieneko prezioa
Jasotako laguntza	400 euro hilero	Ekarpena
Itzuli beharrekoa	506,29	1.000 euro hilero
	Ordaindutakoa Itzuliko dute:	Ordaindutakoa Itzuliko
	Zentro berekien prezioa Ordaindutakoa	Zentro berekien prezioa Ordaindutakoa
	400 euro hilero	707,82
	506,29	506,29

Iturria: Elaborazio propioa, 17/ 2000 Foru Legean ezarritako baremoetan (gaurkotu-ak) eta NGOIk emaniko informazioan oinarritua.

Prestazioa jasotzen duten pertsonak prestazio ekonomikoak itzuli beharreen daudenak dira. Epaileek pertsona baten ezintasuna deklaratu gero, legezko ordezkariak eginen du ordainketa edo itzulketak, eta, horretarako, pertsona horren ondarea erabiliko du (17/2000 Legea, 12. art.).

KOTIZAZIO GABEKO PENTSIONEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ERDI-MAILAKO ETA GEHIENENKO PENTSIONEN KASUEN AZALPENA

67. eta 68. taulan adierazitako kasuen artetik honako alderdiak dira aipagarriak:

67. TAULA. ERABILTZAILEAK ORDAINDUTAKOIA ETA EGINIKO ZORRA LEKU BEREKI ETA ITUNDUETAN

	Berez baliatzen direnendako zahar-etxeak	Laquntza behar dutenendako zahar-etxeak	Berez baliatzen direnendako eguneko zentroak	Laquntza behar dutenendako eguneko zentroak
Tarifa (euro hilero)	543,69	1106,29	258,09	368,75
Kotizazio gabeko pentsioa (276,30 euro hilero)				
Erabiltzailearen diru-ekarpena	211,77	247,88	211,77	247,88
Esfortzua (errentaren % a)	76,64	89,71	76,64	89,71
Eginiko zorra	331,92	858,42	46,32	120,88
Gizarte Segurantzaren erdi-mailako pentsioa (650,56 euro hilero)				
Erabiltzailearen ekarpena	543,69	683,09	258,09	368,75
Esfortzua (errentaren % a)	83,57	105,00	39,67	56,68
Eginiko zorra	0,00	423,00	0,00	0,00
Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioa (2086,10 euro hilero)				
Erabiltzailearen diru-ekarpena	543,69	1.106,29	258,09	368,75
Esfortzua (errentaren % a)	26,06	53,03	12,37	17,68
Eginiko zorra	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Elaborazio propioa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Zentro berekiak eta itunduak

- Zentro berekietan eta itunduetan ez dirudi diskriminazio ekonomikorik dagoenik. Dena dela, laguntza behar duten pertsonak berez baliatzen direnak baino gehiago ordaintzen dute: alde batetik, lekuaren tarifa handiagoa da; beste alde batetik, laguntza behar duten pertsonen euren esku geratzeko kentzen zaien zenbatekoa berez baliatzen direnei kentzen zaiena baino txikiagoa da (% 33an, gutxi gorabehera: 893,70 euro eta 1.327,00 euro, hurrenez hurren- urtero).
- Ikusten ahal dugunez, erabiltzaileek zahar-etxeetan egoteko esfortzu ekonomikoa ezberdina da: % 26,06tik (berez baliatzen direnendako lekuetan egoteko gehieneko pentsioa) % 105eraino (laguntza behar dutenendako lekuetan egoteko erdi-mailako pentsioa). Ehuneko altu honen arrazoia da ekarpena urteroko zenbaketa dela, 14 errenta-ordainketa kontuan hartuta, eta hileroko egiten dela.
- Zahar-etxeei dagokienez, erdi-mailako pentsioa duten pertsonen esfortzu ekonomikorik handiena egin behar dute, bai laguntza behar dutenendako bai berez baliatzen direnendako lekuetarako, hileroko errentaren % 83,57a ordaindu behar baitute.
- Eguneko zentroetan, kotizazio gabeko pentsioa duten erabiltzaileak dira esfortzu ekonomikorik handiena egin behar dutenak, laguntza behar dutenendako leku baterako, hileroko errentaren % 89,71a ordaindu behar baitute.

Administrazioaz besteko zentroak

- Administrazioaz besteko zentroi dagokienez (68. taula), deigarria da bai berez baliatzen direnendako bai laguntza behar dutenendako lekuak betetzen dituzten pertsonen eginiko zorra jasotzen duten diru-laguntza baino handiagoa dela. Hau gertatzen da gehieneko laguntzak lekuaren prezioaren eta ordaindutakoaren arteko aldea baino txikiagoak direlako. Kopuru hau, berez, egoiliarra dagoen zahar-etxeari itzuli beharko litzaioke, hura baita kostua bere gain hartzen duena.

- Gizarte Segurantzaren erdi-mailako pentsioa duten laguntza behar duten pertsonak ezin dute lekuaren kostu osoa ordaindu euren diru-sarrerekin; ondorioz, eginiko zorra 423,20 eurokoa da hilero. Hau kitatzeko, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen dute.
- Azkenik, Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioa jasotzen duten pertsonak ditugu. Hauek lekuaren kostu osoa ordaindu behar dute eta ez dagokie laguntza-mota hau administrazioaz besteko zentroetan.

68. TAULA. ERABILTZAILEAK ORDAINDUTAKOA ETA EGINIKO ZORRA ADMINISTRATIOAZ BESTEKO ZENTROETAKO EGONALDIETARAKO LAGUNTZA BEHAR DUTENENDAKO LEKUETAN


	Euro (14 ordainsari)	Euro hilero Berez baliatzen direnak	Laquntza behar dutenak	Laquntza behar dutenak Zentroa	Berez baliatzen direnendako Eguneko zentroak	Laquntza behar dute- nendako Equ- neko zentroak
Kotizazio gabeko pentsioa	3.868,20	276,30				
Erabiltzailearen ekarpena hilero			211,77	247,88	211,77	247,88
Diru-laguntza hilero			322,35	726,00	46,32	120,87
Eginiko zorra hilero			331,92	858,42	46,32	120,88
Gizarte Segurantzaren erdi-mailako pentsioa	9.107,84	650,56				
Erabiltzailearen ekarpena hilero			543,69	683,09	258,09	368,75
Diru-laguntza hilero			0,00	423,20	0,00	0,00
Eginiko zorra hilero			0,00	423,20	0,00	0,00
Gizarte Segurantzaren gehieneko pentsioa	29.205,40	2.086,10				
Erabiltzailearen ekarpena hilero			543,69	1.106,29	258,09	368,75
Diru-laguntza hilero			0,00	0,00	0,00	0,00
Eginiko zorra hilero			0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Elaborazio propioa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Adibide hauetan, administrazioaz besteko zentroetako lekuaren prezioa ezartzeko, leku publikoen edo itunduen tarifa erabili dugu.

JARRITAKO ADIBIDEEN ADIERAZPEN GRAFIKOAK


2. GRAFIKOA. KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOTIAK



ZENTRO MOTA ETA FINANTZAZIOA

Iturria: Elaborazio propioa 67. eta 68. tauletan oinarrituta.


3. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN ERDI-MAILAKO PENTSIOTIAK (650,56 EURO/HILEKO)



ZENTRO MOTA ETA FINANTZAZIOA

Iturria: Elaborazio propioa 67. eta 68. tauletan oinarrituta

4. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN GEHIENEO PENTSIOAK (2.086,10 EURO/HILEKO)



Iturria: Elaborazio propioa 67. eta 68. tauletan oinarrituta.

5.3.2.4.3. BERMEAK ERATZEA

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak berme pertsonal edota errealak eratzeko eskatzen die honakoei (17/2000 FL):

- euren diru-ekarpenen bidez lekuaren edo tarifaren prezio osoa ordaintzen ez duten pertsoneri, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin eginiko zorraren ordainketa bermatzeko (8. art.);
- prestazioa jasotzen duten pertsoneri, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari emaniko prestazio ekonomikoen itzulketa bermatzeko (11. art.).

Bermeak administrazioaren zahar-etxeen nahiz zahar-etxe itunduen erabiltzaileek eratu beharko dituzte, bai eta prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsoneri (bigarren xedapen gehigarria), bermeak hauen ondasunen bidez betearazteko. Bermeak eratzeko sorrarazten dituen gastuak, orokorrean, pertsona zordunak ordaindu beharko ditu (16. art.).

17/2000 Foru Legearen arabera zerbitzuaren prestazioa honakoek jasotzen ahalko dute, nahiz eta ez duten tarifaren zenbateko osoa ordaindu, ez eta bermerik eratu ere:

- bermerik eratu ezin dutela frogatzen duten erabiltzaileek; hauei ezin izanzen zaie, inola ere, zerbitzua ukatu (zioen azalpena, 11. atala).
- Aldi bateko -gehienez ere, sei hilerako-, familiaren atsedenerako edo Eguneko zentroetako egonaldietarako tokia eskatzen duten pertsonak; hauek ez dute foru lege honek ezarritako bermerik eratu beharko (laugarren xedapen gehigarria).

Bermea eratzeko ondarea kalkulatu eta zenbateko bat salbuetsi egingen da; hain zuzen ere, bermea eratzean, lanbide arteko gutxieneko soldataren halako hamabi egiten duen zenbatekoa. Erabiltzailearen ondareen bidez betearazi behar bada zorra, betearazte hori ez da etxebizitzaren bidez egingen, honako kasuotan:

- etxebizitza hori norberak beharrezkoa badu bizitzeko, zahar-etxea utzi duelako;
- honako hauen bizitoki bakarra bada: ezkontidearena edo harekin elkarbizitza egonkorraren bidezko lotura duenarena, seme-alaba adingabeena, minusbaliatuena edo baliabide sozio-ekonomikorik ez dutenena, edota beste norbaitena. Pertsona horien beharra Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aztertu beharko du (17. art.).

Eginiko zorrek ez dute, inola ere, korriturik sorraraziko eta urtero jakinaraziko zaizkio erabiltzaileari edo haren tutoreari (15. art.). Edozein arrazoi dela medio zerbitzua emateari utzi eta orduan eskatu ahalko zaie zorra zor bateratua duten erabiltzaileei, edo, baita ere, zorrak bermeak gaintitzen dituenean (17. art.). Dena dela, erabiltzaileak, bere borondatez, noiznahi ordain dezake zor osoa nahiz zati bat (15. art.).

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak erabiltzaileei adierazitako prestazio ekonomikoak emateaz gain, Udalen zahar-etxeek, edo Irabazi asmorik gabekoek, diru-laguntzak jaso ahalko dituzte, baldin eta defizita justifikatuta badago (17/2000 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria). Diru-laguntza horiek hurrengo arteko aldea berdintzeko izanen dira:

- erabiltzaile bakoitzak ordaindutakoa gehi diru-laguntza
- arau honetan ezarritako gehieneko prezioak edo, horiek baino merkeagoa bada, lekuaren prezioa.

69. TAULA. NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRU-LAGUNTZAK DEFIZITA JUSTIFIKATUTA DAGOEN KASUETARAKO (2003)

	Zahar-etxeak	Ordaindutako zenbatekoak
Udalenak	2	15.196,83
Irabazi asmorik gabeko pribatuak	3	18.093,52
Guztira	5	33.290,35

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko datuetan oinarritua.

Defizit-laguntzak finantzaketa publikoaren hirugarren modu gisa aurkezten ditugun arren, 2003. urtean bakarrik 5 zahar-etxek jaso zituzten Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emaniko diru-laguntzak. Hauen urteroko zenbaketa administrazioaz besteko zentroetako egonaldietarako emaniko itun (13.900.782,2 euro) eta diru-laguntzak (3.170.034,33 euro) baino askoz ere txikiagoa izan zen.

70. TAULA. ZENBATEKO EZBERDINAK ETA ARAUDIA (I)

Izena	Deskribapena	Arau aipagarriak	2004. urterako zenbatekoa
Zentroetako tarifa	Nafarroako Foru administrazioaren zahar-etxeetako edo zahar-etxe itunduetako lekuen prezioa	<ul style="list-style-type: none"> • Erabakia, 2001eko irailaren 6koa. <ul style="list-style-type: none"> – Deskribapena (4. art.) – Zenbatekoen gaurkotzea (4. art.) • 17/2000 Foru Legea <ul style="list-style-type: none"> – Prezioak publikoak dira (3. art.) 	<ul style="list-style-type: none"> • Berez baliatzen direnendako zahar-etxeak: 543,69 euro hilero • Laguntza behar dutenendako zahar-etxeak: 1106,29 euro hilero • Berez baliatzen direnendako eguneko laguntza: 258,09 euro hilero • Laguntza behar dutenendako eguneko laguntza: 368,75 euro hilero • Janari zerbitzua ez egoiliarrei: 3,53 euro zerbitzuko • Ikuztegi zerbitzua: 3,53 euro zerbitzuko • Bainu geriatrikoa: 3,53 euro zerbitzuko
Hileroko diru-ekarpena zahar-etxei	Administrazio publikoaren zahar-etxeetako edo zahar-etxe itunduetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa	<ul style="list-style-type: none"> • 17/2000 Foru Legea <ul style="list-style-type: none"> – Ordaintzeko betebeharra duten pertsonen ahalmen ekonomikoa ezartzea (2.art.) – Pertsona bakoitzak hilean ordaindu beharrekoa zehaztea (7. art.) • Erabakia, 1997ko ekainaren 18koa, 2001eko irailaren 6ko Erabakiak aldatutakoa <ul style="list-style-type: none"> – Salbuespenak eta hobariak (5.1.1. art.) – Erabiltzaileek euren esku dituzten gutxieneko zenbatekoen gaurkotzea (4. art.) 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharrekoa, errenta, ondasun higigarri eta higiezin, eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopuruaren arabera • Erabiltzaileek ezin badute tarifa osoa ordaindu, hileko per capita errentaren % 90 ordainduko dute • Egoiliarren esku geratuko den gutxieneko diru kopurua: <ul style="list-style-type: none"> – Laguntza behar dutenak: 893,70 €urte – Berez baliatzen direnak: 1327,00 €urte – Ezkontidea etxean bizi baldin bada, 1.475,18 euro kenduko zaizkio urtero
Zentro gerontologikoetako lekuen gehieneko prezioak	Nafarroako administrazio publikoaren zahar-etxeetako edo zahar-etxe itunduetako egonaldietarako gehieneko prezioak, hileko. Administrazioaz besteko zentroetarako egonaldietarako prestazio ekonomikoak emateko gehieneko erreferentzia gisa balio dute.	<ul style="list-style-type: none"> • 17/ 2000 FL <ul style="list-style-type: none"> – Deskribapena (4. art.) – Gaurkotzea (bigarren Azken Xedapena) • 34/ 2003 Foru Legeak 2004ko ekitaldirako gehieneko prezioak gaurkotzen ditu 	<ul style="list-style-type: none"> • Berez baliatzen direnendako lekua: LGSren halako 1.5 • Laguntza behar dutenendako lekua: LGSren halako 2,5 • Eguneko zentroa: LGSren halako 1 • 2004rako prezio gaurkotuak <ul style="list-style-type: none"> • Berez baliatzen direnendako lekua: 719,30 euro hilero • Laguntza behar dutenendako lekua: 1307,82 euro hilero • Eguneko zentroa: 719,30 euro hilero
Prestazio ekonomikoak administrazioaz besteko zentroetako egonaldietarako	Foru administrazioak administrazioaz besteko hirugarren adinarendako zentroetako erabiltzailei emaniko diru-laguntzak, jasotako zerbitzuak ordaintzeko	<ul style="list-style-type: none"> • 17/ 2000 FL <ul style="list-style-type: none"> – Kontzeptua (9. art.) – Prestazioa zehaztea (10. art.) – Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak ekonomikoak (11. art.) 	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbatekoa zehazteko baremoan kontuan hartuko da: <ul style="list-style-type: none"> – erabiltzaileak benetan ordaindutakoaren eta – lekuaren prezioaren edo gehieneko prezioen arteko aldea (lekuaren prezioa hauek baino handiagoa bada) • Erabiltzaileek ordaindu beharko dute: <ul style="list-style-type: none"> – erabiltzaileak ordaindutakoaren eta – zentro bereki edo itunduen prezioaren arteko aldea

70. TAULA. ZENBATEKO EZBERDINAK ETA ARAUDIA (II)

Zentro gerontologikoetako egonaldietarako gehieneko diru-laguntzak	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak administrazioaz besteko erabiltzaileei ematen ahal dizkien gehieneko diru-laguntzak.	<ul style="list-style-type: none"> • 17/2000 FL <ul style="list-style-type: none"> – Kontzeptua (9. art.) – Prestazioa zehaztea (10. art.) – Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak ekonomikoak (11. art.) 	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza behar dutenendako lekua: LGSren halako 1,6 • Berez baliatzen direnendako lekua: LGSren halako 0,7 • 2004. urterako ezarritako gehieneko diru-laguntzak (ez dugu honekin loturiko araurik aurkitu) <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza behar dutenendako lekua: 726,00 euro hilero • Berez baliatzen direnendako lekua: 322,35 euro hilero • Eguneko zentroa: 463,83 euro hilero
Zentroetako erabiltzaileek euren esku duten ondarearen zenbatekoa	Bermea eratzeko ondarea kalkulatu eta zenbateko bat salbuetsi egiten da; hain zuzen ere, bermea eratzean, LGSren halako hamabi egiten duen zenbatekoa.	<ul style="list-style-type: none"> • 17/2000 Foru Legea <ul style="list-style-type: none"> – Erabiltzaileen betebeharrak ekonomikoak (8. art.) – Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak ekonomikoak (11. art.) 	<ul style="list-style-type: none"> • LGSren halako 12, hilero

5.4. FUNTZIONAMENDUA ETA ANTOLAKETA

Atal honetan, zahar-etxeen funtzionamendua eta antolaketa, bereziki, eta Nafarroako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua aztertuko dira. Hainbat alderditan sakonduko dugu, hala nola, Nafarroan eskatzen diren kalitatezko gutxieneko betekizunak, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, eta partaidetza sistema. Aztertuko ditugu ere bai, nahiz eta ez hain sakonki, zahar-etxeei funtzionatzeko eskatzen zaizkien betekizunak, hala nola, beste elementu batzuk, Organo ofizial eskudunak duen beharra ikuskapenak burutzeko.

Beste herrialdeen araudiarekin konparazio-esparru bat izateko, kapitulu honetan Alemanian mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta eta zahar-etxeen barneko laguntzaren inguruko betekizunak eta arauak aurkeztuko ditugu. Herrialde hau aukeratu dugu gizarte-laguntzan eta lege-esparruan, bereziki, garatuago dagoelako.

Hona hemen atal honetan aztertuko ditugun alderdiei buruzko Nafarroako araudia:

- 9/1990 FL, azaroaren 13koa, Gizarte Zerbitzuen baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa.
- 209/1991 FD, maiatzaren 23koa, Gizarte Zerbitzuen baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena.

Alemanian zahar-etxeen funtzionamendu eta antolaketari buruzko hainbat arau daude. Txosten honetan aipatuko ditugun legeak estatuaren eskuduntzakoak dira eta Alemaniako estatu guztietan aplikatzen dira. Gainera, kontuan izan behar dugu Alemanian, Nafarroan eta Espainian existitzen ez den Mendekotasun Asegurua dagoela. Aseguru honek zahar-etxeen kostuak finantzatzen ditu, hein

71. TAULA. ARAUDIA NAFARROAN ETA ALEMANIAN

	Spainia - Nafarroa	Alemania
Antolaketa	<ul style="list-style-type: none"> • 9/1990 Foru Legea, azaroaren 13koa, Gizarte Zerbitzuen baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa • 209/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, 9/1990 Foru Legea garatzen duena 	<ul style="list-style-type: none"> • Zahar-etxeeri buruzko Legea³³ • Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua³⁴ • Eraikitze gutxieneko baldintzei buruzko Dekretua³⁵ • Erabiltzaileen partaide-tzari buruzko Dekretua³⁶ • Mendekotasuna zaintzeko kalitateari buruzko Legea³⁷
Gizarte eskubidea		<ul style="list-style-type: none"> • SGB XI, XI Gizarte Segurantzari buruzko arauak, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea³⁸

Iturria: Elaborazio propioa

batean, eta horiek kudeatzeko baldintzak ezartzen ditu, zehazki, kalitatearekin loturikoak. Honela bereizten da Alemaniako araudia, bitan banatzen dena. Alde batetik, gizarte-eskubideko araudia dugu, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legeak osatzen duena (Sozialgesetzbuch XI, Pflegeversicherungsgesetz); beste alde batetik, antolaketako araudia dugu, Zahar-etxeei buruzko Legeak (Heimgesetz) eta honetatik eratorritako dekretuek- langileak, eraikitze gutxieneko baldintzak eta erabiltzaileen partaidetza arautzen dutenak- osatzen dutena.

5. 4.1. KALITATEZKO GUTXIENEO BETEKIZUNAK

5.4.1.1. ETXEZ ETXEXO LAGUNTZA ZERBITZUA

Kalitatea gero eta garrantzitsuagoa da Gizarte Zerbitzuen arloan. Nahiz eta Nafarroako zahar-etxeetan gutxieneko betekizun batzuk dauden, ez dago araututa inolako irizpiderik Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuetan. Atalean ikusitako ordenantzek kalitateari buruzko hainbat arau jasotzen dituzte, baina egiturarekin loturikoak dira. Iruñean, esaterako, langileak eta funtzionamendua arautzen duten gutxieneko betekizunak daude³⁹. Azkenekoan arreta-prozesua, ordutegia eta eman beharreko eginkizun eta zerbitzu zehatzak jasotzen

33. Zahar-etxeei buruzko Legea: 1974ko abuztuaren 7koa, 2001eko azaroaren 5eko argitalpenean. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an.

34. Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua, 1993ko urriaren 1koa. Azkeneko aldaketa 1998ko ekainaren 22an.

35. Zahar-etxeak eraikitzeari buruzko Dekretua, 1983ko maiatzaren 11koa. Azkeneko aldaketa 2003ko uztailaren 25ean.

36. Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretua, 1976ko abuztuaren 1koa. Azkeneko aldaketa 2002ko uztailaren 25ekoa.

37. Mendekotasuna zaintzeko kalitateari buruzko Legea (Pflege-Qualitätssicherungsgesetz) 2001eko irailaren 9koa. Lege honek Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea aldatu zuen.

38. Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea, 1994ko maiatzaren 26koa. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an.

39 VIII. kapitulua, I. eta IV. atalak, Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalaren esku utzitako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arau erregulatzailen eta prezio publikoen behin betiko onespena.

dira. Baita Tafallaren kasuan ere⁴⁰. Dena dela, arauak ezberdinak dira udalerrriaren arabera eta ez da beti esplizituki adierazten zerbitzua emateari buruzko kalitatea.

Alemanian, ordea, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legeak herrialde osorako jarraibideak arautzen ditu. Zahar-etxeek bezala, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuek ere zerbitzuaren kalitatearen egiaztagiriak aurkeztu eta lortutako mailari eusteko neurriak jarraitu behar dituzte. Horretaz gainera, jarraitutako laguntza-prozedurek Eritasun Aseguruaren Zerbitzu Medikuarien frogak pasa behar dituzte.

Nafarroan, aldiz, araudia eskasa izateaz gain, ez da inolako Instantziarik existitzen emaniko zerbitzua kontrolatu, eta gutxieneko arreta bermatu eta hobetzen laguntzen duenik.

5.4.1.2. ZAHAR-ETXEAK

Nafarroako Foru Komunitateak Hirugarren Adinekoei zuzenduriko zahar-etxeetako arretaren kalitatea berritu, aldatu eta hobetzeko jarduketak bultzatu behar ditu (3. art. b 4, Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 FL). 9/1990 Foru Legearen helburua da "Gizarte Zerbitzuen barrutietan aritzen diren zentro eta zerbitzuek bete beharreko kalitate-maila ziurtatzea". Helburu honekin arautzen dira jarduteko beharrezkoak diren materialak eta funtzionamenduko kalitatearen baldintzak (2. art., 9/1990 FL), eta entitateek horiek bete behar dituzte (4. art., 9/1990 FL, eta, 11. art., 209/1991 FD). Horretaz gainera, langileen inguruko gutxieneko baldintzak bete behar dituzte.

Alemanian, Zahar-etxeei buruzko Legearen helburua horien kalitatea bermatzea da. Honekin bat, arautu egiten ditu eraikitzearen eta langileen baldintzei buruzko gutxieneko egiturazko betekizunak. Era berean, entitateari exijitzen zaio kalitate eredu bat ezartzea, hala nola,

40. 7. art., Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespena.

emaitzak eta hori bermatu eta garatzeko hartu beharreko neurriak jasotzea. Alemaniako zahar-etxeen kalitatearen kudeaketaren ezartzea jasotzen dute bai Zahar-etxeei buruzko Legeak (11. art., 2. atala, 4. zenbakia, eta, 13. artikulua ,1. atala) bai Mendekotasun Aseguruari buruzkoak (112. artikulua, 2. atala)⁴¹.

Espainiako beste komunitate autonomo batzuek dokumentazioari eta kalitatearen kudeaketari buruzko arauak dituzte, hala nola, Kataluniak eta Madrilek.

5.4.1.2.1. ERAIKUNTZAKO GUTXIENKO BETEKIZUNAK

Nafarroan hau arautzen da 209/1991 Foru Dekretuaren Eranskinean, baldintza orokorreari buruzko I. kapituluaren, zehazki, eta berez baliatzen direnendako zahar-etxeei buruzko II. kapituluaren 2.6. eta 2.7. artikuluetan. Alemanian eraikuntzako gutxieneko betekizunak Zahar-etxeak eraikitzeari buruzko Dekretuan arautzen dira⁴². Bi arauak honako alderdiak arautzen dituzte: logelak, komuneko gelak, gutxieneko zerbitzu higienikoak, igogailuak, argiteria, deitzeko txirrina, telefonoa eta berogailua.

72. taulan ikusiko dugunez, logelak Alemanian Nafarroan baino handiagoak dira. Alemanian pertsona batendako logelaren eta Nafarroako berez baliatzen den batendako logelaren arteko gutxieneko desberdintasuna 3,5 metro koadrokoa da. Gehieneko desberdintasuna 6 metro koadrokoa da, hiru pertsonendako logeletan ikusten ahal dugunez. Beste alde batetik, deigarria da Alemanian hiru edo lau pertsonendako logelak egotea (betiere, dagokion Organo ofizial eskudunak onesten badu). Nafarroan debekatuta daude berez baliatzen diren hiru pertsonendako logelak. Lau pertsonendako logelak

41. Zahar-etxeei buruzko Legea: 1974ko abuztuaren 7koa, 2001eko azaroaren 5eko argitalpenean. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an.

42. Zahar-etxeak eraikitzeari buruzko Dekretua, 1983ko maiatzaren 11koa. Azkeneko aldaketa 2003ko uztailaren 25ean.

debehatuta daude, bai berez baliatzen diren pertsonendako bai laguntza behar dutenendako. Lau pertsona baino gehiagorendako logelak debehatuta daude bi kasutan.

72. TAULA. LOGELEN TAMAINARI BURUZKO KONPARAZIO-TAULA

	Alemania	Nafarroa
Logelak	Eraikuntzari buruzko Dekretuaren 14.art.	209/ 1991 Dekretua,II. Eranskina (2.6, 2.7)
Pertsona batendako:	12 m ² eta konketa	Baliatzen direnak: 8,5 m ² Laguntza behar dutenak: 10 m ²
Bi pertsonendako:	18 m ² eta konketa	Baliatzen direnak: 12,5 m ² Laguntza behar dutenak: 14 m ²
Hiru pertsonendako:	6 m ² eta bi konketa (Organo ofizial eskudunaren onespenearekin)	Baliatzen direnak: debehatuta Laguntza behar dutenak: 18 m ²
Lau pertsonendako:	6 m ² eta bi konketa (Organo ofizial eskudunaren onespenearekin)	Debehatuta
Lau pertsona baino gehiagorendako	Debehatuta	Debehatuta

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroa eta Alemaniako legeetan jasotako arauetan oinarrituta.

73. taulan ikusten ahal dugu erabilera komuneko eremuek Nafarroan Alemanian baino handiagoak izan behar dutela, araudiaren arabera. Nafarroan, 25 leku baino gutxiagoko zahar-etxeek 12 metro koadro izan behar dute gutxienez, eta metro koadro bat gehiago egoiliar bakoitzeko. Zahar-etxeak 25 leku edo gehiago baditu, bi metro koadro egon beharko da erabiltzaile bakoitzeko, gutxienez. Alemanian, eremu hauek metro koadro bat gutxiago dute.

73. TAULA. ERABILERA KOMUNEKO EREMUEN TAMAINARI BURUZKO KONPARAZIO-TAULA

	Alemania	Nafarroa
Komuneko eremuak	Eraikuntzari buruzko Dekretuaren 16.art.	209/ 1991 Dekretua, I. Eranskina (2.4)
Gutxienez	20 m ² 20 leku baino gutxiago, 1 m ² erabiltzaile bakoitzeko	2 m ² egoiliar bakoitzeko 25 leku baino gutxiago, 12 m ² +1 m ² erabiltzaile bakoitzeko, gutxienez

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako arauetan oinarrituta.

Gutxienezko zerbitzu higienikoetan ezberdintasunak daude (74. taula). Nafarroa eta Alemania bainuontzietan baino ez datoz bat; konketak, dutxak eta komun-ontziak ugariagoak dira Nafarroan.

74. TAULA. GUTXIENEO ZERBITZU HIGIENIKOEN KOPURUARI BURUZKO KONPARAZIO-TAULA

	Alemania	Nafarroa
Gutxienezko zerbitzu higienikoak	Eraikuntzari buruzko Dekretuaren 18.art.	209/ 1991 Dekretua, I. Eranskina (2.6).
Konketa	1, 8 egoiliarrendako (solairu berean)	1, 3 egoiliarrendako
Komun-ontzia	1, 8 egoiliarrendako (solairu berean)	1, 4 egoiliarrendako
Dutxa	1, 20 egoiliarrendako (solairu berean)	1, 5 egoiliarrendako
Bainuontzia	1, 20 egoiliarrendako (solairu berean)	1, 20 egoiliarrendako

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako arauetan oinarrituta.

Azken batean, hainbat ezberdintasun daude hornidurei dagokienez. Nafarroako zahar-etxeek bainugela eta komuneko eremu gehiago dituzte, eta Alemaniakoetan, aldiz, ugariagoak dira banako eremuak.

Nafarroan argiteriari buruz araututa dagoen gauza bakarra zahar-etxeek larrialdietarako argiak eta seinaleztapena izan behar dituztela da (Eranskina, 1. kapitulua, 2.2 atala, 209/1991 FD). Alemaniako araudia zehatzagoa da argiteriari buruz, honakoa gehitzen baitu (6. art., Zahar-etxeak eraikitzeari buruzko Dekretua):

- Etengailuak erabilera errazekoak izanen dira
- Eskaileretan eta korridoretan, ilunpetan badaude, gaueko argiak piztuta egonen dira
- Logeletan, egongeletan eta komuneko eremuetan irakurtzeko lanparak erabili ahal izateko entxufeak egonen dira. Logeletako entxufeak ohetik gertu kokatuko dira. Nafarroako araudian jasotzen denez, logelek irakurtzeko argi sistema izanen dute (Eranskina, II. kapitulua, 2.6 eta 2.7 atalak, 209/1991 FD).

209/1991 Foru Dekretuaren arabera, zahar-etxeek berogailua izan beharko dute (Eranskina, I. kapitulua, 1.4 atala, 209/1991 FD). Alemaniako arauak ere hau gauza bera begiesten dute. Berogailua egonen da ere bai, logela, eskailera, korridore eta zerbitzu higieniko guztietan, egoiliarrei tenperatura egokia eskaintzeko (12. art., Zahar-etxeak eraikitzeari buruzko Dekretua).

5.4.1.2.2. LANGILEAK

Nafarroako berez baliatzen direnendako zein laguntza behar dutenendako zahar-etxeetako langileen kopurua eta gaitasuna 209/1991 Foru Dekretuaren Eranskinean araututa dago (II. kapitulua, 2.6. eta 2.7 atalak). Alemanian, Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretuan zehazten dira, baina, bereziki aipatzen dira gerenteen gaitasuna eta erizainen kopurua⁴³.

Zuzendaritzari dagokionez, Nafarroan 50 leku baino gehiago edo gutxiagoko zahar-etxeak bereizten dira (75. taula). 50 leku edo gutxiagoko zahar-etxeetako zuzendariak erdi-mailako unibertsitate-titulua edo hiru urteko esperientzia antzeko lanpostuetan izan behar dute. 50 leku baino gehiagoko zahar-etxeetako zuzendariak goi-mailako unibertsitate-titulua edo bost urteko esperientzia antzeko lanpostuetan izan behar dute, edota erdi-mailako unibertsitate-titulua eta bi urte baino gehiagoko esperientzia.

⁴³ Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua, 1993ko urriaren 1ekoa. Azkeneko aldaketa 1998ko ekainaren 22an.

Alemanian ez da leku-kopuruaren arabera desberdintasunik egiten. Zuzendariek osasun edo gizarte zientzietako adituak izan beharko dute, merkataritzari zein administrazio publikoari loturiko lanposturen batean. Horretaz gainera, bi urteko esperientzia izan beharko dute zahar-etxeren batean, non zentro-mota hauen gerentziari buruzko ezagutzak lortu dituen.

75. TAULA. LANGILEEI BURUZKO KONPARAZIO-TAULA

	Alemania Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua	Nafarroa Nafarroa209/ 1991 Dekretua II. Eranskina (2.6, 2.7)
Gerentzia	2. art. 1. Osasun edo gizarte zientzietako adituak izan beharko dute, merkataritzari zein administrazio publikoari loturiko lanposturen batean. 2. Bi urteko esperientzia, gutxienez.	50 egoiliar edo gutxiago: erdi-mailako unibertsitate-titulua edo hiru urteko esperientzia antzeko lanpostuetan 50 leku baino gehiago: goi-mailako unibertsitate-titulua edo bost urteko esperientzia antzeko lanpostuetan izan behar dute, edota erdi-mailako unibertsitate-titulua eta bi urte baino gehiagoko esperientzia

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako arauetan oinarrituta.

Langileen kopuruari dagokionez, (76. taula) Nafarroan araututa dago zuzeneko arretako langileen gutxieneko proportzioa 0,10ekoa izanen dela berez baliatzen direnendako zahar-etxeen kasuan, eta 0,35ekoa laguntza behar dutenendako zahar-etxeen kasuan. Horretaz gainera, araudiaren arabera, laguntza behar dutenendako zahar-etxeetan erizainak uneoro egonen dira. Berez baliatzen direnendako zahar-etxeen kasuan ez da proportzio zehatzik finkatzen, erizainak berekiak, itunduak edo publikoak izanen dira. Halaber, honako zerbitzuak izanen dituzte, kudeaketa erregimen pribatuan, publikoan edo itunduan: Medikuntza Orokorra, Gizarte Lana eta Fisioterapia, eta, laguntza behar dutenendako zahar-etxeetan, Psikologia.

76. TAULA. ZUZENEKO ARRETAKO ETA ERIZAINTZAKO LANGILEEI BURUZKO KONPARAZIO-TAULA

	Alemania Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua (93/10/01) eta horren aldaketa 98/06/22	Nafarroa 209/ 1991 Dekretua II. Eranskina (2.6, 2.7)
Zuzeneko arreta	Zuzeneko arretako langileak Egoiliarren mendekotasun-mailaren arabera: 0. maila (baliatzen direnak): 0,125 1. maila (arina): 0,25 2. maila (moderatua): 0,4 3. maila (larria): 0,56 0. eta 1.* mailen arteko batez bestekoa (baliatzen direnak Nafarroan): 0,1875 2. eta 3. mailen arteko batez bestekoa (lagundutakoak): 0,48	Zuzeneko arretako langileak Baliatzen direnendako zahar-etxeak: 0,10, egoiliar bakoitzeko Laguntza behar dutenendako zahar-etxeak: 0,35, egoiliar bakoitzeko Zuzeneko arretako langileak erizaintzako diplomatua eta zerbitzu orokorretako langileak izanen dira.
Erizaintza	Erizainak (5. art.): – baliatzen diren 20 egoiliar baino gehiago: 1 gutxienez. – laguntza behar duten lau egoiliar baino gehiago: 1, bi langileko	Erizainak Baliatzen direnendako zahar-etxeak: erizaintzako zerbitzuak izanen dituzte (berekia, itundua edo publikoa) Laguntza behar dutenendako zahar-etxeak: erizaintzako diplomatua uneoro egonen da zentroan.

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako arauetan oinarrituta.

* Mendekotasuna neurtzeko tresnak ezberdinak izan arren, 0. eta 1. mailak baliatzen diren eta laguntza arina behar dutenekin, 2. eta 3. mailak laguntza moderatua eta larria behar dutenekin lotuko ditugu.

Alemanian, zuzeneko arretako langileen proportzioa estatu-mailan araututa dago (Länder) Oinarrizko Hitzarmenen bidez (Mendekotasun Aseguruari buruzko Legearen 75. art.).

77. TAULA. ESTATUETAKO OINARRIZKO HITZARMENETAN JASO BEHARREKO ALEMANIAKO ZAHAR-ETXEETAKO LANGILEEN DERRI-GORREZKO ALDERDIEI BURUZKO ARAUDIA (LÄNDER)

Mendekotasun Aseguruari buruzko Legearen 75. art. Mendekotasunaren laguntzarako Oinarrizko Hitzarmena.

2. atala, 3. zenbakia. Hitzarmenek laguntza behar dutenendako zahar-etxeak langileez hornitzeko neurriak eta printzipioak arautzen dituzte.

3. atala. Hitzarmen horien barne, honakoak adostu behar dira

1. Estatu guztirako balioko duten prozedurak (Land), langileen beharra ezarri eta laguntza-denborak neurtzeko edo

2. Langileei buruzko balore adierazgarriak, estatu osorako baliagarriak (Land)

Iturria: Alemaniako Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea, (94/05/26) eta bere aldaketa 94/12/27.

Iparaldeko Renania-Westfalian, langile hauen ratioa egoiliarren mendekotasun-mailaren arabera da, eta handiagoa da berez baliatzen direnendako (0,088 puntutan) zein laguntza behar dutenendako (0,13 puntutan).

Erizain bat dago gutxienez, berez baliatzen diren 20 pertsona baino gehiagoko zahar-etxetan, eta, bi langiletik bat, laguntza behar duten 4 pertsona baino gehiagokoetan.

Iparaldeko Renania-Westfaliako araudian, horretaz gainera, honako langileak aurkitzen ditugu:

- Gizarte arloko langileak edo terapeutak: 1, 59,2 erabiltzaileko.
- Administrazioaileak: 1, 35 erabiltzaileko.
- Bedelak: 1, 100 erabiltzaileko.

- Atezainak: 1, 100 erabiltzaileko.
- Sukaldari eta garbitzaileak: 1, 7,7 erabiltzaileko.
- Arropa-garbitzaileak: 1, 38,5 erabiltzaileko.

Langileei buruzko araudi honen adibide gisa, jarraian asmatutako zahar-etxe bateko taula duzue, baliatzen direnendako zein laguntza behar dutenendako lekuak dituen:

78. TAULA. MENDEKOTASUN-MAILA EZBERDINEKO 85 ERABILTZAILE DITUEN ZAHAR-ETXE BATEKO LANGILEAK

		Nafarroa			Alemania	
		Zuzeneko			Zuzeneko arre-	
		Erizainakarretako langileak			tako langileak	
Baliatzen direnak		10	1		1	1,25
	Arina	20		2		5
Laguntza behar dutenak						
	Moderatua	25		8,75	Langileen	10
	Larria	30		10,5	erdia	16,8
					erizainak dira	33,05
					(1/2 zuzeneko arretako langileak, 1/2 erizainak)	
Guztira		85	1	22,25	16,52	16,52

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako arauetan oinarrituta (Iparraldeko Renania-Westfalia)

Nafarroako zuzeneko arretako langileek arropak garbitu, eta, zenbaitetan, bestelako garbiketa zereginez ere arduratzen dira. Eginkizun hauetarako beste bi lanpostu eta erdi gehiago egonen lirateke Iparraldeko Renania-Westfalian, gure adibidearen arabera. Horrela, asmatutako zahar-etxe honetan, 23,25 lanpostu egonen lirateke Nafarroan zuzeneko arretako eta erizaintzako langileen artean, eta 35,55 egonen lirateke Alemanian. Ezberdintasun handia da eta, zalantzarik gabe, egoiliarrei eskaintzen ahal zaien laguntzaren kalitatean eragin zuzena du.

Eginiko elkarrizketetan ere alderdi hau jaso dugu. Elkarrizketatu gehienek zahar-etxe barruko langileei, bai gerokultoreei bai erizainei, loturikoa ikusten zuten alderdi gisa. Lana oztopatzen duen beste alderdi bat gerokultoreen lan aniztasuna da, eta, ondorioz, ezin dute eskusiboki lanbide honi berezkoa zaion zuzeneko arretako lana bete. Lan hau garbiketa orokorrarekin edo/eta arropa-garbiketarekin bat burutu behar dute.

Langile eskasiak, edo bestela esanda, gehiegizko lanak oztopatu egiten du, gerokultoreen ikuspegitik, arreta bizkortzaileagoa eskaini ahal izatea. Egoiliarren berez baliatzeko gaitasuna indartzeko, denbora gehiago behar da: gerokultoreak lortu behar du egoiliarrak bere kabuz egitea ahalik eta eguneroko bizitzako zereginik gehien. Dena dela, eta askotan, egoiliarrek lan hauek burutzen dituzte: lanak bizkorrago egiten dituzte, eta lan bakoitzean denbora gutxiago erabiltzen dute. Zuzeneko arretako langileek honako adierazpenak egin dituzten maiz: "Lan handia badut, nik egiten dut egoiliarraren garbiketa osoa, horrela bizkorrago joan eta guztira heltzen ahal bainaiz".

Nafarroako zahar-etxeei buruzko araudian ez da ezer ere jasotzen langileek informazioa jasotzeko eskubideari ezta entitate kudeatzaileak hori emateko beharrari buruz. Alemanian, aldiz, ikasketak sakondu eta hobetzeari buruzko artikulua bat dago (8. art., Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua). Honen bidez, zahar-etxearen entitate titularra behartuta dago bertako langileei zein zuzendariari aipatu ikastaroetan parte hartzeko aukera ematera. Ikastaroen edukiak eta guzti aipatzen dira.

Landa-ikerketari esker egiaztatu ahal izan dugu prestakuntza, bereziki gerokultoreena, ez dela bisitatutako zahar-etxeen lehentasunetako bat. Bisitatutako lau zahar-etxeetan, gerokultoreek uste dute prestakuntza gehiago behar dutela. Baina, duela 1-6 urte bitartetik gaur egun arte prestakuntza ikastarorik jaso ez duten gerokultoreak aurkitu ditugu. Hauek dira egin beharko lituzketen ikastaroetako batzuk: langile berriendako hasierako ikastaroak, jarrera aldaketak eta mobilizazioak egiteko ikastaroak, sintomak ezagutzekoak, eta sendagaien aplikazioari, podologiari, hirugarren adinekoen psikologiari, animazioa eta aisiaren antolaketari eta lehen

sorospenei buruzkoak. Elkarrizketatutako gerokultore gehienek birziklatzeko ikastaroak egiten dituzte euren borondatez eta beren denbora librean: ikastarook ez dituzte entitateek eskaintzen eta ezin dira lanorduetan egin. Zenbait kasutan, prestakuntza ikastaroak ukatzen dira, gerokultoreek horietan parte hartu gabe urteak eraman arren.

Gerokultoreak dira egoiliarren zuzeneko arretan denborarik gehien ematen dutenak, baina baliabide hau ez da behar adina baloratzen: langile eskasia dago, gerokultoreek ez dagozkien lanak burutu behar dituzte, eta birziklatzeko eta hobetzeko ikastaroen falta nabari da. Kalitatezko arreta nahi bada, derrigorrezkoa da zahar-etxean beharrezko langile-kopurua izatea eta beharrezko ikastaroak eskaintzea langileak hezten jarraitzeko.

5.4.1.2.3. Zahar-etxeen barne-funtzionamenduaren betekizunak

Nafarroako Foru Komunitatean zahar-etxeen funtzionamendurako eskatzen ahal diren betebeharrak eta baldintzak 209/1991 Dekretuaren 11. artikuluan arautzen dira.

Honako alderdiak bete behar dira:

- Betetzea, gutxienez, materialen eta azpiegituren hornikuntza baldintzak, eta Dekretuaren Eranskinean arautzen diren baldintza funtzionalak (a atala).
- Betetzea, gutxienez, Dekretuaren Eranskinean langileen kopuruari eta gaitasunari buruz jasotakoa (b atala).
- Suteei aurre egiteko segurtasun eta babes arauak betetzea (c atala).
- Erabiltzaileen eskubideak errespetatzea (d atala).
- Erabiltzaileen partaidetza sistema ezartzea (e atala).

- Administrazioari eskatutako alderdi guztiak jakinaraztea (f atala).
- Prezioen araudia ezartzea eta Administrazioari jakinaraztea (g atala).

Alemanian Zahar-etxeei buruzko Legea dugu, eta 11. artikuluan zahar-etxeen funtzionamendurako betekizunak jasotzen dira esplizituki (ikus Eranskina). Hauek ez dira eskatutako betekizun guztiak, baina, betetzen ez badira, Lege horren 19. artikulua araberan, funtzionamendua eten egiten ahal da, besteak beste. Jarraian, Nafarroako araudiak jaso ez, eta erabiltzailean eta honen arretan oinarrituriko ikuspegia ematen diguten alderdi horietako batzuk adieraziko ditugu:

1. Entitateak eta gerenteak egoiliarren duintasuna, interesak eta beharrak babestu, eta euren independentzia, autodeterminazioa eta erantzukizuna defendatzea (1. atala, 1. zenbakia).
2. Minusbaliatuen laguntza soziala eta pedagogikoa, eta mendekotasuna duten pertsonen laguntza gizatiarra eta bizkortzailea bermatzea (1. atala, 2. zenbakia).
3. Entitateak eta zuzendaritzak egoiliarren laguntzaren eta ostatu-hartzearen kalitate egokia bermatzea (1. atala, 3. eta 6. zenbakiak).
4. Minusbaliatuen berrintegrazioa sustatzea (1. atala, 4. zenbakia).
5. Egoiliarrei euren arreta-beharrei egokitutako bizimodua eta horretarako beharrezko laguntzak ematea (1. atala, 5. zenbakia).
6. Laguntza-planak diseinatzea eta horien praktikan jartzea dokumentatzea (1. atala, 7. zenbakia).

7. Egoiliarren babesaren bermatzea infekzioen aurrean eta langileen euren eremuan beharrezko neurri higienekoak hartzen dituztela ziurtatzea (1. atala, 9. zenbakia).
8. Sendagaiak egoiliarrekiko erlazioa mantenduz eta indarreko erregelamenduak betez gordetzea. Zuzeneko arretako langileek sendagaiak erabiltzeari buruzko aholkuak jasotzea, urtean behin gutxienez (1. atala, 10. zenbakia).
9. Zahar-etxea kudeatzea, baldin eta entitateak emaniko zerbitzuen truke arrazoizko prezioa eskatzen badu (2. atala, 3. zenbakia).
10. Entitatea kalitatearen kudeaketaz arduratzea (2. atala, 4. zenbakia).
11. Kontratatuak zerbitzuak ematea (3. atala, 2. zenbakia).

Zahar-etxe bat kudeatzeko betekizuna da ere bai, Nafarroan bezala, langileei eta eraikuntzari buruzko dekretuen arauak betetzea (3. atala, 1. zenbakia). Nafarroan eskatzen diren eta Zahar-etxeei buruzko Legearen 11. artikuluan aipatzen ez diren beste betekizun batzuk, Lege honen edo Mendekotasun Aseguruari buruzko Legearen beste artikulua batzuetan jasotzen dira. Horrela, zigorrak ezartzen dira, esaterako, partaidetzari, langileei eta eraikuntzari buruzko dekretuen arau-hauste zehatzengatik. Beste alde batetik, eta Mendekotasun Aseguruari buruzko Legearen 7. artikulua 3. atalaren arabera, Mendekotasun Aseguruaren Kutzak prezioen konparazio-zerrendaren arabera izanen dira.

Laburbilduz, esaten ahal dugu, Nafarroako zahar-etxeen funtzionamenduari buruzko araudiak (11. art., 209/1991 FD) ez diela Alemaniako araudiak bezainbesteko garrantzirik ematen erabiltzaileari, honen arretari eta zerbitzuaren kalitateari.

Organo ofizial eskudunari dagokionez, atal honetan burutu beharreko ikuskapenak zein euren maiztasuna adieraziko ditugu, oraingoan, Alemaniako eta Madrilgo indarreko araudien arteko konparazioa eginez.

Nafarroan, 209/1991 Foru Dekretuaren 38. artikulua xedatzen du Gizarte zerbitzuen ikuskapenak ofizioz, salaketaren bidez edo pertsona interesdunek hala eskatuta jardunen duela. Dena dela, ez 9/1990 Foru Legeak ezta 209/1991 Foru Dekretuak ere ez dute jasotzen ikuskapenak zenbatean behin burutu behar diren.

Madrilgo Komunitatean, 11/ 2002 Legeak ezartzen du zahar-etxeak zein eguneko zentroak urtean behin ikuskatu behar dituztela gutxienez (22. artikulua).

Alemaniako Zahar-etxeei buruzko Legearen 15. artikulua arabera, ikuskapenak urtean behin egiten ahal dira gutxienez⁴⁴. Denbora tarte hau urtebetetik gorakoa izaten ahal da, Eritasun Aseguruaren Zerbitzu Medikua bidez edo Mendekotasun Aseguruak izendatutako adituen egiaztagirien bidez jasotzen bada zahar-etxeak eskatutako betekizunak betetzen dituela. Horretaz gainera, eta Nafarroan ez bezala, Ikuskapeneko Organo ofizialek argitara emanen den memoria bat egin beharko dute bi urtean behin (23. art., 3. atala).

Ikuskapen zerbitzuak bisiten urteko programazioaren arabera jarduten ahal du, edo erabiltzaileek, zentroko langileek edo senideek hala eskatuta (erreklamazioak), edo ofizioz, inguruabar zehatzek programatu gabeko bisita eskatzen dutenean (esaterako, jardunean hasi ez diren zahar-etxe berrietan, egin beharreko ikuskapen bisita

⁴⁴ Zahar-etxeei buruzko Legea: 1974ko abuztuaren 7koa, 2001eko azaroaren 5eko argitalpenan. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an. Zahar-etxeei buruzko Legea: 1974ko abuztuaren 7koa, 2001eko azaroaren 5eko argitalpenan. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an.

egiten da funtzionatzen hasteko derrigorrezko baimena emateko; beste adibide bat, ratioa- langileak/erabiltzaileak- betetzea).

Bisita guztien akta jaso eta zentroko zuzendaritzari kopia bat emanen zaio; izan ere, hau baita antzemandako hutsuneak zuzentzeko neurri egokiak hartu beharko dituen. Beste kopia bat zentro bakoitzeko Ikuskapenen Erregistro Historikoari gehitzen zaio. Erregistro Historiko honetan jasotzen dira halaber, ikuskapenaren data, ikuskapenaren teknikari arduraduna (bisita bi teknikarik egiten duten arren, bakarrik arduradunaren izena ematen da), bisitaren akta-zenbakia, oharrak eta gertakariak, ekintzen harrera-data (hutsuneak, egotekotan, zuzendutako data) eta, azkenik, ekintza-planaren oharrak, hau da, hutsuneen zuzenketaren oniritzia edo gaitzespena.

Hasieran, aktez gainera, dagokion txostena (45) egiten da. Bertan, bisitaren emaitzak eta derrigorrezko bestelako agiriak, hala nola, memoriak edo erakundeen arteko korrespondentzia, jasotzen dira. Horrek guztiak osatzen du ikuskapen bisita batekin hasi eta jarduketan planaren oharrekin bukatzen den espedientea.

79. TAULA. ZAHAR-ETXEAK ETA IKUSKAPENAK. 2000-2004

		2000	2001	2002	2003	2004
Zahar-etxeak guztira	62	65	68	72	73	
Ikuskapenak guztira	Programatutakoak	3	6	1	6	14
	Eskaeren bidezkoak (salaketak)			1	4	7
	Ofiziozkoak (inguruabar zehatzengatik)			1	12	8
	Guztira	3	6	3	23	28
Bisitaturiko zahar-etxeak %tan		4,8	9,2	4,4	31,9	38,4

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Ikuskapen Zerbitzuaren eta NGOIren Memoriako (2000- 2003) datuetan oinarrituta.

45 Zenbaitetan, aktak, hutsunen erregistroan emaniko xehetasun-maila dela eta, derrigorrezko txostena ordezkatzen du.

Ikuskapenen Erregistro Historikoei buruzko informazioa, euskarri informatikoan, 2000. urtetik aurrera dago. Ondoko taulak azken 4 urteotan gutxienez behin bisitatu diren zahar-etxeak jasotzen ditu.

Datuen arabera, eta azken bi urteotan gorakada gertatu arren, argi dago ikuskapen jarduera zabaldu beharra dagoela. Horretarako, ikuskapen zerbitzua indartzeko neurriak hartu beharko dira, langile gehiagoren bidez edo gero eta gehiago diren adinekoen arretaz arduratzen diren zentroen jardueraren kontrol bizkorra eta eraginkorra ahalbidetzen duten bitarteko egokien bidez; ahaztu gabe jarritako salaketen kopuruak ere gora egin duela.

Azken bi urteotan ofizioz eginiko bisiten gorakadaren arrazoi nagusia, Ikuskapen Atalaren helburuetako bat zahar-etxe guztiei poztasun-inkestak egitea dela da, 2003an hasitako lana. Ekimen hau eginkizunak hobe eta era eraginkorragoan betetzeko helburua duen eta Kalitatearen ISO 9001:2000 Ziurtagiria 2003an lortzea eragin zuen kalitate sistema bat ezartzeko prozesuari dagokio.

Inkesta hauen helburu orokorra egoiliarren, euren senideen eta langileen poztasun-maila ezagutzea da, zentroek ematen dituzten zerbitzuei buruz. Informazio honen bilketa estatistikoaren xedea indarreko araudiaren betetzea da, bai zentroetako instalazioei bai funtzionamenduari dagokionez, erabiltzaileen onerako. Hona zentroetako erabiltzaile, senide eta langileei eginiko galdeketa osatzen duten gaiak:

1. Elikadura
2. Garbiketa orokorra
3. Garbiketa pertsonala
4. Instalazioak eta altzariak
5. Zentroaren antolaketa
6. Arreta osasun fisikoari zein psikoari
7. Segurtasuna
8. Harremanak
9. Jarduerak
10. Langileek profesionaltasuna
11. Erreklamazioak

Honekin batera, zentroaren zuzendaritzak berak emandako informazioa jasotzen da, besteetatik bereizitako inkesta espezifiko baten bitartez. Inkesta hau ondoko alderdietan oinarritzen da: administrazio-agiriak, ebakuazio-plana, jardueren programazioa, memoriak, ordutegiak, ekipamendua, langileak, e.a.

Lortutako txostenak poztasun-elkarrizketen emaitzak, langileen ikerketa eta zentroaren balorazio globala, inplikatu guztiak kontuan hartuta, jasotzen ditu. Jasotzen ditu baita ere, egotekotan, antzemandako hutsuneak; hauek kontuan hartu beharko baitira zentroek ematen dituzten zerbitzuak hobetu edo zuzentzeko.

Ikuskapen jarduera zabaldu arren, Nafarroan ez da bermatzen ikuskapenak sistematikoki eginen direnik ezta zahar-etxe ezberdinak eta entitate titularrak gauza bera izanen diren arlo honetan. Arautze gabezia honek erabiltzaileen ongizatearen segurtasun falta eragiten du.

Horretaz gainera, Nafarroan ez da Ikuskapen Atalari burutzen duen lanaz biztanleei jakinaraztera behartzen dion legegintza-esparrurik.

5.4.1.2.5. KALITATEAREN KUDEAKETA

Gizarte Zerbitzuen arloan geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaio kalitatearen kudeaketari. Ugariak dira gai hauetaz arduratu eta horretarako ereduak ezartzen dituzten zentro eta zerbitzuak. Hainbat arrazoi daude hau egiteko: alde batetik, zerbitzuetatik eratorritako arrazoiak ditugu, hala nola, arretaren profesionalizatzea eta zerbitzuaren etengabeko hobekuntza, kalitatearen kudeaketaren eragilea. Beste alde batetik, entitateei ez dagozkien arrazoiak ditugu, hala nola, arauen eskakizuna, erabiltzaileendako abantailak lortzea merkatuan edo finantzaketaz arduratzen diren entitateen konfiantza eskuratzea. Gogoan izan behar dugu hasieran, entitate batek kalitatearen arloari ekiten dionean, lan gehiago izatea eragiten ahal duen horrek guztiak, gerora, lanaren bizkortzean eta zerbitzuaren hobekuntzan eraginen duela.

Nafarroako Foru Komunitatean, lehenago adierazi dugunez, zerbitzuaren kalitatearekin harreman zuzena duten hainbat alderdi daude araututa. Zentroen barne-funtzionamenduaren inguruko hainbat betekizun arautzen diren arren, egituraren (eraikuntza eta langileak) kalitatearen inguruko alderdiak dira garatuenak. Orain arte aipatutako araudiak ez ditu begiesten prozesuen zein emaitzen kalitatea arautzen duten alderdiak. Nafarroan kalitatearen kudeaketa ereduak ezarrita dituzten edo ezartze-prozesuan diren zahar-etxeak dauden arren⁴⁶, ez da horren derrigortasuna arautu. Honen arabera, ez dira zerbitzua emateko prozeduraren zein beharrezko dokumentazioaren inguruko betekizunak ezartzen, eta ez dira aipatzen banan-banako arreta-programak, egoiliar bakoitzarendako adierazitako helburuak, ezta horien betetzea ere.

Azken urteotan, Espainiako zein Europako beste herrialdeetako araudiei gehitzen joan zaizkie kalitateari buruzko arauak, eta ez bakarrik egituraren ingurukoak, baizik eta baita prozesuaren eta emaitzaren ingurukoak ere.

Alemanian, honi lotuta, Zahar-etxeei buruzko eta Mendekotasun Aseguruari buruzko Legeak aldatu zituzten 2002. urtean. Bi aldaketak osagarriak dira, eta zahar-etxeen kudeaketan zein erabiltzaileen arretan kalitate handiagoa lortzea dute helburu (Richter, 2002).

Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea 2001eko irailaren 9ko Mendekotasunaren Arretaren Kalitateari buruzko Legeak aldatu zuen (Pflege-Qualitätssicherungsgesetz), kalitatea eta honen etengabeko garapena mendekotasunaren arretan bermatzeko asmoz. Horrela, aurreko artikulua aldatu, eta kalitateari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen babesari buruzko kapitulu berri bat gehitu zen.

⁴⁶ Bisitatutako lau zahar-etxeetako batek ezarrita zuen kalitate-eredua eta, beste batean, ezartzen hasiak ziren.

Zahar-etxeei buruzko Legearen aldaketak beste arrazoi batzuetan, zerbitzuaren kalitatearen hobekuntzan, alegia, du oinarria. Beste puntu garrantzitsu bat zahar-etxeetako hitzarmenen gardentasun falta izan zen. Horregatik gehitu ziren erabiltzaileek ordaindu beharrekoari eta zahar-etxeek eman beharreko zerbitzuei buruzko informazio zabalago eta zehatzagoaren inguruko arauak. Era berean, eta egoiliarrei eskainitako arreta eskasaren ondorioz, zahar-etxeen ikuskapena indartu da, arreta hobe bermatzeko asmoz (Richter, 2002).

Madrilgo Komunitatean, 2002an, 11/ 2002 Legea garatu zen, bestek beste, Gizarte Zerbitzuen Prestazioaren kalitatea hobetzera zuzendutakoa. Legearen garapena egiteke egon arren, bertan jasotzen da zentroek kalitatearen barne- eta kanpo-ebaluazioak egin behar dituztela, erabiltzaileen kopuruaren arabera.

Katalunian ere aldaketak egin dituzte arlo honetan, zehazki, dokumentazioarekin loturiko alderdietan oinarrituta.

Lehen aipatu dugunez, Nafarroan ez daude araututa kalitatearen kudeaketarekin loturiko betekizunak. Alemanian, aldiz, Zahar-etxeei buruzko eta Mendekotasun Aseguruari buruzko Legeek kalitatearen kudeaketa eskatzen dute Hirugarren Adinekoendako zahar-etxeetan. Hau ere beste arau batzuen kasua da, gizarte-laguntza arautzen dutenak gizarte zerbitzuetako beste alor batzuetan.

Madriren, aipatu 11/ 2002 Legeak⁴⁷ ehun erabiltzaile edo gehiagoko zahar-etxe baimenduei derrigortzen die kalitatearen ebaluazioaren ziurtagiria izatera, horretarako kreditaturiko Erakundeak igorria. 100 erabiltzaile baino gutxiagoko zentro eta zerbitzuek "emaniko zerbitzuen kalitatearen barne-ebaluazioa" egin behar dute, "erregelamendu bidez zehaztutako betekizunen arabera" (12. art., 11/2002 Legea). Hona aipatzen diren balizko betekizunak:

- Zerbitzu-gutunak.

47 Lege honi dagokion erregelamenduzko garapena egiteke dago.

- Jarduketa-protokolo zehatzen definizioa.
- Prozesu zehatzen ziurtagiria.
- Informazio sistemak.
- Estandar eta adierazleen definizioa.
- Prestakuntza planak.

Katalunian, Kataluniako Gizarte Zerbitzuen Institutuan (ICASS), zentro ezberdinetako Gizarte Zerbitzuen alorren kalitatearen kanpo-ebaluaziorako adierazleak garatu dira; horien barne daude laguntza behar duten adinekoendako zahar-etxeak (80. taula) . Baloratu beharreko lau esparru orokor garatu dira:

- Pertsonarendako arreta.
- Egoiarraren harremanak eta eskubideak.
- Ostatu zerbitzuak, konforta eta ingurunea.
- Antolaketa.

Esparru hauetako bakoitza hainbat alor garrantzitsutan banatzen da. Guztira 23 alor dira. Ebaluatu beharreko adierazleak alor ezberdinen barne daude, eta 37 dira guztira. Adierazleok egituraren, prozesuaren eta emaitzaren kalitateari egiten diete erreferentzia. Adierazle bakoitzak estandar bat du, bakoitzak lortu beharreko betetze-maila ehunekotan zehazten duena. Adibide gisara, 80. taulan⁴⁸ egoiarraren harremanen eta eskubideen esparrua, honen sei alorrak eta alor bakoitzeko irizpide bana adieraziko ditugu:

⁴⁸ Kataluniako Generalitatea, Avedis Donabedian Fundazioaren euskarri metodologikoarekin (1999): KGZlaren zentroyen kalitatearen kanpo-ebaluazioa. Zerbitzu-alorra: Laguntza behar duten adinekoendako zahar-etxeak. Kalitatea ebaluatzeko adierazleak.

80. TAULA. LAGUNTZA BEHAR DUTEN HIRUGARREN ADINEKOENDA-KO ZAHAR-ETXEETARAKO KALITATEA EBALUATZEKO ADIERAZLEAK. ESPARRUA: EGOILIARREN HARREMANAK ETA ESKUBIDEAK

Alorrak	Adierazle edo irizpide espezifikoak
Zahar-etxean sartzeko harrera	Zentroak pertsona bat esleituko dio egoiliar bakoitzari zahar-etxean sartzen den unetik persona de referencia para cada residente desde el momento del ingreso
Asiako jarduerak	Zentroak egoiliarri eskaini beharko dizkio planifikatutako aisiako jarduerak
Harremanak senideekin eta taldearekin	Zentroak egoiliarren eta familien arteko jarduerak sustatu beharko ditu, banaka zein taldeka
Egoiliarren eta senideen poztasuna	Zentroak egoiliarren eta senideen poztasun-maila ezagutu beharko du
Konfidentzialtasunaren babesa	Zentroak zehaztuta izan beharko ditu egoiliarren konfidentzialtasunaren arau etiko-profesionalak
Laguntza izpirituala	Zentroak egoiliarren laguntza izpirituala erraztu beharko du

Iturria: Elaborazio propioa, Kataluniako Generalitateko Gizarte Ongizateko Departamentuak Avedis Donabedian Fundazioarekin (1999) bat eginiko hirugarren adinekoendako zahar-etxeen kalitatea ebaluatzeko adierazleetan oinarritua.

Gaur egun, hauek ezartzera behartuta daudenak zentro berekiak, administrazioaz kanpoko entitateek kudeatutako zentro berekiak eta zentro itunduak dira. Horiek ezartzeaz gain, Kataluniako Generalitateaz kanpoko entitateek eginiko kanpo-ikuskapenak gainditu behar dituzte. Betebehar hau dagozkion klausula-orrietan jasotzen da. Gainerako zentroek ez dute hori betetzeko beharrik. Dena dela, 176/2000 Dekretuaren bidez aldatutako 284/1996 Dekretuak Gizarte Zerbitzuetako establezimendu guztiei eskatzen dizkie kalitatearen kudeaketarekin zuzenki loturako dokumentazioa. Departamentu eskudunek aipatu araudian eskatutako betekizunei buruzko Ikuskapena burutzen dute.

Nafarroan ez dago laguntzaren kalitatearekin loturiko alderdien dokumentazioari buruzko araurik. Alemanian, ordea, Zahar-etxeei buruzko Legearen 13. artikulua ezartzen du kalitatea bermatu eta garatzeko hartutako neurriak zein emaitzak dokumentatzea. Horretaz gainera, entitate titularrek aldiari-aldian egiaztatu behar dute ematen duten zerbitzua, hala nola, horren kalitatea⁴⁹. Frogagiri hauek dekretu bidez ezarri behar diren baldintza zehatzak bete behar dituzten kanpo-adituek ematen dituzte⁵⁰ (113. art., 2. atala, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea). Laguntza behar dutenendako zahar-etxeek eskubidea dute Laguntza-tarifei buruzko Erabakiak hartzeko⁵¹, baldin eta azken bi urteotan jasotako frogagiririk badute (113. art., 5. atala, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea).

Kataluniako araudian, adierazi dugunez, kalitatearen alderdiak jasotzen dituzten hainbat agiri aipatzen dira (18. artikulua, 176/ 2000 Dekretuaren bidez aldatutako 284/ 1996 Dekretua); hauek dira:

- Laguntza behar dutenen erregistro-liburua.
- Jardueren urteko programa.
- Erreklamazio-orriak⁵².
- Laguntza-hitzarmena.
- Laguntza-espeditatea, identifikazio datuak, erabiltzailearen senide edo arduradunaren datuak eta preskripzio mediko-farmazeutikoa biltzen dituen.

Laguntza behar dutenendako zahar-etxeek, horretaz gainera, honako jarduketako protokoloak izan behar dituzte:

- Harrera eta egokitzapena.

⁴⁹ 113. artikulua, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea.

⁵⁰ Garatzeke dago Mendekotasun Aseguruari buruzko Legetik eratorritako dekretu hau.

⁵¹ Mendekotasun Aseguruak Laguntza behar dutenendako zahar-etxeekin bat hartzen ditu Laguntza-tarifei buruzko Erabakiak. Tarifa hauek egoiliarrek, edo hala dagokienez, Finantza-erakundeek (Mendekotasun Aseguruaren Kutxak edo Gizarte Laguntzako Departamentuak) egoitza zerbitzuaren truke ordaindutakoa da, eta barne-hartzen dituzte mendekotasunaren arretaren prestazio orokorrak, laguntzako tratamendu medikoa eta gizarte-laguntza (84. art., 1. atala, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea). Tarifak jasotako laguntzaren araberakoak izanen dira eta egoiliar guztiendako printzipio uniformearen arabera kalkulatu behar dira, kostuak ordaintzen dituzten erakundeak alde batera utzita (84. art., 2. atala, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legea).

⁵² Nafarroan erabiltzaileek "kexatzeko eskubidea" dute. Horretarako, zentroak erabiltzaileen zein senideen esku izanen ditu erreklamazio-orriak (13.f art., 209/ 1991 FD).

- Arreta berezia honakoetan: inkontinentzietan, erorketetan, euskarrietan, presioaren edo higienearen ondoriozko lesioak eta sendagaiak ematean.

Horretaz gainera, derrigorrezkoa da datu zehatzak jasota izatea, hala nola, honakoak:

- Inkontinentzia duten egoiliarrak eta behar bezalako arreta.
- Presioaren ondoriozko lesioak dituzten egoiliarrak, arrazoia, tratamendua, lesioen data eta osaketaren data.
- Egoiliarren erorketak, inguruabarrak eta prebentzio sistemak.
- Eusteko neurriak behar dituzten egoiliarrak, neurririk egokiena, medikuak aldez aurretik aginduta, iraupenaren adierazpena eta mobilizatzeko jarraibideak.
- Garbiketa pertsonala mantentzeko jarduerak.
- Medikazioa.
- Erabiltzaileek jarduera-programan duten partaidetzaren jarraipena.

Adierazitakoarekin batera, bai berez baliatzen direnendako bai laguntza behar dutenendako zahar-etxeek bana-banako arreta-programa izan behar dute, erabiltzaile bakoitzarekin zehaztutako helburuak adierazten dituen.

Esandakotik ondorioztatzen dugu hainbat era daudela kalitatearen kudeaketari buruzko betekizunak araudian jasotzeari dagokionez. Nafarroan oraindik ez zaio horri ekin. Honek legeria berri bat eraginen luke, Alemanian, Katalunian eta Madrilan azken urteotan gertatu den bezala, bana-banako eta erabiltzaileari egokitutako arreta bermatzeko, zeina beharrezko dokumentazioarekin indartu eta etengabeko garapenera zuzenduko litzatekeen.

5.4.2. ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

5.4.2.1. ZAHAR-ETXEETAKO PARTAIDETZA SISTEMA

Nafarroan, entitate titularraren betebeharra da erabiltzaileen partaidetza sistema ezartzea (209/1991 FD, 11. e artikulua). Helburu

honetarako ezarri da Partaidetza Kontseilua, behin osakideen kopurua eta mota, hautaketa-epaek, eskuduntzak eta bileren maiztasuna zehaztuta (Dekretu beraren 14. artikulua).

Alemanian ere araututa dago erabiltzaileen partaidetza Zahar-etxeei buruzko Legearen 10. artikuluan eta Lege honetatik eratorritako Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretuan(53). Lege honen 2002ko aldaketak lortu nahi dituen helburuetako bat erabiltzaileen babesaren eta eskubide-objektu gisa duten estatusaren hobekuntza da. Erabiltzaileen adinaren batez bestekoak, hala nola, mendekotasun egoeran diren adinekoak zein mendekotasun-mailak gora egin dutenez, aldaketak gertatu dira baita ere erabiltzaileen partaidetzari buruzko araudian, horren bidez partaidetza handiagoa sustatzeko.

Aipatu Dekretuak 35 artikulua ditu, eta alderdi hauek arautzen ditu:

- Eraketa eta osaketa (1-11a art.ak).
- Karguaren iraupena (12-15 art.ak).
- Partaidetza Kontseiluaren Lehendakaritza (16-21 art.ak).
- Partaidetza Kontseiluko kideen estatusa (22 – 24 art.ak).
- Zahar-etxeko delegatua (25 –28a art.ak).
- Kontseiluaren eta delegatuaren partaidetza (29 –33 art.ak).
- Arau-hausteak eta azken xedapenak (34 –35 art.ak).

Alemanian arauaketa luzea eta zehatza da, Nafarroan, aldiz, Partaidetza Kontseilua artikulua bakarrean eta artikulua bateko atal batean arautzen da. Honetatik ondorioztatzen ahal dugu indarreko araudiak ez dituela begiesten zahar-etxeetako erabiltzaileen partaidetza sistema baten benetako garapenerako ezinbesteko alderdi asko.

Nafarroako araudia eskasa izateaz gain, bisitatutako zahar-etxeetan araututako alderdien ezartzea mugatua dela ikusi dugu. Hainbat egoiliarrek eta langilek badakite Partaidetza Kontseilu bat dagoela, baina ez dakite zein eginkizun eta helburu dituen. Egiaztatu dugu halaber, hainbat egoiliarrek eta langilek ez dakitela delako organorik

53 Zahar-etxeei buruzko Legea: 1974ko abuztuaren 7koa, 2001eko azaroaren 5eko argitalpenan. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an.

dagoenik ere. Zahar-etxe batean jakinarazi digute badagoela Partaidetza Kontseiluko kide gisa izendatutako egoiliar bat, baina hau ez dela halakotzat existitzen, eta ez dela ez bilerarik ez organo honen berezko bestelako jarduerarik egiten.

Eskuduntzak

Nafarroako eta Alemaniako araututako elementuen arteko konparaketa eginez gero, ezberdintasunak antzematen ditugu ondoko alderdietan.

Nafarroan Partaidetza Kontseiluaren bi ikuskera daude, bata, nahiko murritzaillea eta, bestea, izaera orokorrekoa. Alde batetik, egoiliarrarendako informazio-organoa gisa ulertzen da: zentroko jarduera-programari eta Barne-araudiari buruzko informazioa eman, eta zentroaren martxa eta funtzionamenduari buruzko informazioa jaso beharko du. Beste alde batetik, eta zentzu zabalagoan, erabiltzaileen interesen babesletzat ulertzen da: zentroak behar bezala funtzionatzeko auzi interesgarriak planteatzea eta antzeko zentroekiko lankidetzaharremanak ezartzea. Horretaz gainera, zentroko jarduera-programa ebaluatu, instalazioen berrikuntza sustatu eta euren mantentzea zaindu beharko du.

Alemanian era zehatzagoan arautzen dira Partaidetza Kontseiluaren funtzioak (81. taula): alde batetik, eskumen gehiago ditu, eta, beste alde batetik, partaidetza-eredua zehatzagoa da eta egoiliarrek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen dute. Nafarroan alderdi honen hutsunea nabari da, izan ere, Partaidetza Kontseiluaren zeregin nagusia informazioa ematea baita.

81. TAULA. PARTAIDETZA KONTSEILUAREN EGINKIZUNAK NAFARROAN ETA ALEMANIAN

Nafarroa	Alemania
<p>Eskuduntzak (14. art., 6. atala, 209/1991 Dekretua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Zuzendaritzak eginiko zentroko jardura-programa jakinarazi eta ebaluatzea b. Instalazioen berrikuntza sustatu eta horien mantentzea zaintzea c. Zentroaren martxa onerako auzi interesgarriak planteatzea d. Zentroaren martxa eta funtzionamenduari buruzko informazioa jasotzea e. Antzeko beste zentorekiko lankidetzaharremanak ezartzea f. Barne-araudia eta Erabiltzaileen Araudia jakinaraztea 	<p>Betebeharrak (29. art., Partaidetzari buruzko Dekretua):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoiliarrendako neurriak eskatzea gerentziari edo entitateari. • Egoiliarren kexak jaso eta, behar izanez gero, horiek betetzen saiatu gerentziarekin edo entitatearekin negoziatuz. • Egoiliarren integrazioa sustatzea. • Dekretu honen 30. eta 31. artikuluetan araututako zahar-etxeei eragiten dizkieten erabakietan parte hartzea . • Hauteskunde-batzordea izendatzea kargua utzi baino lehen. • Urtean behin egoiliarren arteko bilera bat egitea eta euren esku uztea eginiko jardueren memoria . • Laguntzaren kalitatea sustatzeko neurrietan parte hartzea . • Zahar-etxeei buruzko Legearen 7. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan aipatutako prestazio eta kalitateari, tarifei eta egiaztatzei buruzko erabakietan parte hartzea

Alemania
<p>Partaidetzari buruzko Dekretua (Art. 30) Honako erabakietan parte hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoiliarrendako hitzarmen-eredua eta Barne-araudia egin edo aldatzean • Istripuei aurrea hartzeko neurrietan • Lekuen prezioaren aldaketan • Ekitaldiak planifikatu eta burutzean • Eguneroko bizitza eta aisia antolatzean • Ostatu-hartzean, laguntzan eta elikaduran • Zahar-etxearen jardueraren zabaltean, murriztean edo etetean • Beste zahar-etxeekiko bategitean • Zahar-etxeen helburuak edo euren zatiak aldatzean • Zahar-etxearen saneamenduan edo aldaketa arkitektonikoetan • Laguntzaren kalitatea sustatzeko neurrietan

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako araudian oinarrituta (209/1991 FD eta 2002/07/2ean aldatutako Partaidetzari buruzko Dekretua, hurrenez hurren).

Ikusten ahal dugunez, Alemaniako Partaidetza Kontseiluak, informazio-funtzioak izateaz gain, lankidetzarako aukera gehiago, eta zahar-etxeetan hartzen dituzten erabaki eta neurrietan parte-hartze zuzenagoa du.

Partaidetza Kontseiluko erabiltzaile kideei, hala nola, gainerako erabiltzaile eta langileei eginiko elkarrizketen bidez egiaztatu dugu bisitatutako zahar-etxe gehienetako Partaidetza Kontseiluaren eginkizunak kexen transmisiora mugatzen direla. Gainera, honi gehitu behar diogu egoiliarren eta langileen ustez kexa hauen bitartez ez direla zahar-etxeen funtzionamenduaren alderdiak benetan aldatzen. Bi zahar-etxetan aldaketak egin dituzte zentroaren horniduretan eta funtzionamenduaren alderdi zehatzen batean. Legeetan araututako funtzionamendua aztertuz gero, eta Partaidetza Kontseiluko kideen informazioaren arabera, ikusten ahal dugu horren zati txiki bat baizik ez dela praktikara eramaten (82. taula).

82. TAULA. PARTAIDETZA KONTSEILUAK EGINIKO FUNTZIOAK BISITATUTAKO ZAHAR-ETXEETAN

Nafarroako Partaidetza Kontseiluaren eskuduntzak	Hauek betetzen dituzten zahar-etxeak
Zuzendaritzak eginiko zentroko jarduera-programa jakinarazi eta ebaluatzea	Batek ere ez
Instalazioen berrikuntza sustatu eta horien mantentzea zaintzea	Batek
Zentroaren martxa onerako auzi interes-garriak planteatzea	Hiruk (bitan, elikagaien ebaluaziora mugatuta)
Zentroaren martxa eta funtzionamenduari buruzko informazioa jasotzea	Batek ere ez
Antzeko beste zentorekiko lankidetzaharremanak ezartzea	Batek ere ez
Barne-araudia eta Erabiltzaileen Araudia jakinaraztea	Batek ere ez

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako lau zahar-etxeetan eginiko elkarrizketetan oinarrituta.

Hortaz, betetzen dituzten bi eginkizunetako bat gai edo auzi interesgarriak lantzea da; baina, ikusten ahal dugunez, elikadurara mugatzen da nagusiki. Garrantzitsua da menua kontuan hartzea, izan ere, elkarrizketatutako egoiliarrek ez baitzeuden oso pozik janariarekin. Dena dela, ezin dezakegu esan, era honetako gaiak planteatzeagatik Partaidetza Kontseiluak zentroaren martxan benetan eragiten duenik.

Botoa emateko eskubidea eta hautagarritasuna

Nafarroako Partaidetza Kontseiluko bi taldek dute botoa emateko eskubidea: langileek bi eta erabiltzaileek hiru ordezkari hautatzen ahal dituzte. Antzeko bi zentro edo gehiago entitate beraren menpe badaude, langileek zein erabiltzaileek pertsona bana aukeratzen ahalko dute.

Alemanian, ordea, botoa emateko eskubidea dute hauteskudearen egunean zahar-etxean bizi diren pertsona guztiek (3. art., 1. atala, 1976/08/01eko Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretua eta 2002/07/25ean aldatutakoa).

Nafarroan hautatuak izaten ahal dira erabiltzaileak eta langileak. Haez gain, Partaidetza Kontseiluko kide izanen dira zentroko eta entitateko (bi zentro entitate beraren menpe badaude) zuzendaria; zentroko medikuntza, psikologia edo psikopedagogia alorretako teknikari bat; zentroa kokatzen den lekuko toki-korporazioaren ordezkari bat; Lan eta Gizarte Ongizateko kontseilariak izendatutako Nafarroako Gobernuako ordezkari bat, entitatearen zentroetakoren bat itundua bada; eta idazkari bat. Legerian ez dago araututa zeinek aukeratuko dituen azken kide hauek, zentroko/entitateko zuzendaria salbu; izan ere, zuzendaria Legeak hala adierazita baita Partaidetza Kontseiluko lehendakaria (209/1991 Dekretua, 14. art., 2.b atala).

Alemanian hautatuak izaten ahal dira egoiliarrek, egoiliarren senideak, konfiantzazko pertsonak, hirugarren adinekoen elkarteetako kideak, minusbaliatuen elkarteetako kideak, hala nola, Organo ofizial eskudunak proposatutako pertsonak (3. art., 2. atala, Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretua 1976 eta 2002). Ezinen dira hautatu entitate titularrean, zahar-etxeak finantzatzen dituzten erakundeetan

edo Organo ofizial eskudunean diru truk lan egiten duten pertsonak. Ezinen dira Partaidetza Kontseiluko kideztat hautatu ere ez, zuzendaritza batzordeko kideak, administrazio batzordeko kideak edo entitateko antzeko organoren bateko kideak. Era berean, ezinen dira hautatu beste zahar-etxeetako entitate titularretan edo zahar-etxeetako entitate titularretako elkarteetan zuzendaritza-karguak dituztenak (3. art., 3. atala, Erabiltzaileei buruzko Dekretua). Partaidetza Kontseiluko lehendakaria eta honen ordezkoa Partaidetza Kontseilu kideek hautatuko dituzte gehiengoz. Lehendakaria zahar-etxeeko erabiltzailearen bat izanen da (16. art., 1. atala, Partaidetza Kontseilua).

Kideen mota eta kopuruan ere ezberdintasunak antzematen dira, 83. taulan ikusiko dugunez. Araudiaren arabera, Nafarroako Partaidetza Kontseiluan erabiltzaileak, beste kideekin konparatuta, gutxiago dira.

83. TAULA. PARTAIDETZA KONTSEILUKO KIDEAK

Nafarroa	Alemania Art. 4 Decreto de Participación
<p>Lehendakari 1 (zentroko zuzendaria edo arduraduna). Mediku, psikologo edo psikopedagogo 1. Langileen 2 ordezkari. Erabiltzaileen 3 ordezkari beraiek hautatuak euren artetik. Zentroa kokatzen den lekuko toki-korporazioaren ordezkari 1.</p> <p>Antzeko bi zentro edo gehiago entitate beraren menpe badaude:</p> <p>Lehendakari 1 (entitateko zuzendaria). Entitatearen programen koordinazioa garatzen dituen mediku, psikologo edo psikopedagogo 1. Zentro bakoitzeko langileen ordezkari 1. Zentro bakoitzeko erabiltzaileen ordezkari 1, edo bere legezko ordezkapena. Lan eta Gizarte Ongizateko kontseilariak izendatutako Nafarroako Gobermuko ordezkari 1, itundua bada.</p>	<p>Egoiliarrak</p> <p>50 egoiliar edo gutxiago: 3 kide 51-150: 5 kide 151-250: 7 kide 250etik gora: 9 kide</p> <p>Zahar-etxean bizi ez diren beste kide batzuk</p> <p>50 egoiliar edo gutxiago: kide 1 51-150: 2 kide 151-250: 3 kide 250etik gora: 4 kide</p>

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako araudian oinarrituta (209/1991 FD eta 2002/07/2ean aldatutako Partaidetzari buruzko Dekretua, hurrenez hurren).

Alemaniko Partaidetza Kontseilua egoiliarrek eta beste kide batzuek osatzen dute, baina, gehiengoa egoiliarrek osatzen dute beti: egoiliarrek ez diren kide kopuruaren bikoitza gehi bat. Kideen kopurua egoiliarren kopuruaren araberakoa da.

Laburbilduz, Nafarroako araudiak ez du ziurtatzen, Alemaniakoak bezala, Partaidetza Kontseilua egoiliarren interesak eta beharrak benetan ordezkatzeko dituenik, eta zentroaren funtzionamenduan euren parte-hartzea bermatzen duen organoa denik (gutxiengoa baitira). Nafarroan partaidetza oso paternalista da. Alemanian, aldiz, erabiltzaileari funtzio autonomoagoa eman eta eskatzen zaio. Hau deigarriagoa da, gainera, kontuan hartzen badugu Alemaniako mendekotasun egoeran dauden egoiliarren ehunekoa Nafarroakoa baino handiagoa dela: egoiliarren % 65,7 daude mendekotasun egoera moderatuan eta larrian (54); Nafarroan, ordea, % 52,06.

Partaidetza ulertzeko era hauek honako alderdietan islatzen dira:

- Nafarroan, Partaidetza Kontseilua egoiliarrek edo eurek hautatutako pertsonak osatzeaz gain, zahar-etxeko langileek ere osatzen dute. Alemanian, partaidetza Kontseiluko kideak ez dira zahar-etxean bizi; kideek, egoiliarrekiko harremanarengatik (senideak eta konfiantzazko pertsonak) edo elkarrengatik (hirugarren adinekoen edo minusbaliatuen elkarrengatik), erabiltzaileen beharrak eta interesak ordezkatzeko dituzte. Organo ofizial eskudunak proposatutako pertsonak ere kideak izaten ahal dira, baina, egoiliarrek hautatu beharko dituzte betiere.

⁵⁴ Mendekotasun arina duten pertsonak Alemanian mendekotasun egoeran dauden pertsona gisa jotzen dira. Nafarroan, aldiz, berez baliatzen dituztenen lekuak betetzen dituzte. Hau kontuan hartuta, Alemaniako egoiliar guztiak mendekotasun egoeran daudela esaten ahal dugu. Dena dela, bi herrialdeetan balorazio-irizpide ezberdinak daudenez, bi mailarik altuenak hautatu ditugu, mendekotasun egoera gisa ulertzen baitira bi herrialdeetan.

- Egoiliarrek gutxiengoa osatzen dute Nafarroan, gainerako kideekin konparatuz gero. Alemanian, Partaidetza Kontseiluko kideen gehiengoa egoiliarrek osatu behar dute.
- Nafarroan, kideen erdia gutxienez, langileak edo zentoko edo entitateko zuzendariak izanen dira. Hortaz, Nafarroako legeriak ez du bermatzen Partaidetza Kontseiluaren bidez erabiltzaileen eskubideak ordezkatzeko direnik, ezta hauek benetako eragina izanen dutenik ere zentroaren martxan. Alemanian, esplizituki araututa dago ezin izanen direla Partaidetza Kontseiluko kide izan zahar-etxeko, entitateko, kostu-betebeharrak dituzten entitateetako edo Organo ofizial eskuduneko langileak. Honen bidez, erabiltzaileen interesen kontrako interesak dituzten pertsonak kide izatea eragozten da.
- Nafarroan, egoiliarrek ezin dute euren lehendakaria aukeratu, legez ezarri egiten da, eta entitateko edo zentroko zuzendaria da. Nafarroan lehendakariak egoiliarren interesak defendatu ordez, zahar-etxearen edo/eta entitatearen interesak defendatzeko dituen aukerak Alemanian baino askoz ere gehiago dira; izan ere, Alemanian, Kontseiluko kideek hautatutako egoiliarra izanen baita lehendakaria. Hortaz, ez da bermatzen honek egoiliarren interesak defendatuko dituenik. Eginkizunekin bezala, hautapenei eta Partaidetza Kontseiluko kideei buruzko araudia ez da erabat betetzen bisitatutako lau zentroetan:
 - Erabiltzaileek, gehienetan, ez dituzte euren ordezkariak hautatzen. Ez dira beti ezagutu Partaidetza Kontseilurako hauteskundeak. Bakarrik zentro batean jakinarazi digute hauteskundeak araudiarekin bat egin direla. Gainerako hiru zahar-etxeetan langileek eurek hautatutako erabiltzaileak izan ziren.
 - Langileek, gehienetan, ez zekiten hauteskundeak egon zirela, ez zekiten Partaidetza Kontseiluan ordezkariarik zuten edo ez eta, izatekotan, ez zekiten zeintzuk ziren.

Honen guztiaren arabera, argi dago erabiltzaileen partaidetzari buruzko araudiaren ez-betetze orokortua dagoela. Erabiltzaileek eta langileek ez dute euren botoa emateko eskubidea egikaritzen. Partaidetza Kontseilua ez dute adierazitako pertsonak osatzen. Ez dirudi Ikuskapen Atala ezer ere egiten ari denik erabiltzaileek zentroetan parte hartzeko dituzten eskubide demokratikoak defendatzearen alde, 209/1991 Foru Dekretuaren 37. artikulua c atalean xedatzen denez.

Bestelako alderdiak

Atal honen hasieran adierazi bezala, Alemaniako legeriak Nafarroak baino alderdi gehiago arautzen ditu Partaidetza Kontseiluaren hautaketari eta funtzionamenduari buruz. Jarraian, erakunde honen formaltasuna eta garrantzia direla-eta esanguratsuak diren alderdi hauetako batzuk adieraziko ditugu, Nafarroako partaidetza-eredua hobetu ahal izateko adibide gisa:

- Hauteskunde-batzordea (6. art., Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretua). Partaidetza Kontseiluak, kargua utzi baino zortzi aste lehenago gutxienez, botoa emateko eskubidea duten hiru pertsona izendatu behar ditu (zahar-etxean bizi direnak) Hauteskunde-batzorde gisa eta, horietako bat, lehendakari gisa.
- Hauteskundeak prestatu eta gauzatzea (7. art., Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretua). Hauteskunde-batzordeak hauteskundeen tokia eta epea zehatu, eta egoiliarrei eta Organo ofizial eskudunari horien berri eman behar die. Hauteskundeen data lau aste lehenago jakinarazi beharko zaie gutxienez. Hauteskunde-batzordeak hautesleei buruz eginiko proposamenak, hala nola, euren kargua onartzeko adostasuna jasoko ditu.
- Entitateak Organo ofizial eskudunari Partaidetza Kontseiluaren osaketaren berri eman beharko dio. Partaidetza Kontseilurik eratzen ez bada, horretarako arrazoiak jakinaraziko dizkio. Organo ofizial eskuduna, entitatearekin eta zuzendaritzarekin

bat, Partaidetza Kontseilua osatzen saiatuko da (11. art., Erabiltzaileen partaidetzari buruzko Dekretua).

- Partaidetza Kontseiluak egoiliarren arteko bilera bat, urtean behin gutxienez, eta memoria bat eginen ditu, eta memoria idatzita egoiliarrei banatzen saiatuko da. Egoiliarrak euren konfiantzazko pertsona batekin joaten ahalko dira bilerara. Partaidetza Kontseiluak hala eskatuz gero, zahar-etxeko zuzendaria ere bileran parte hartu beharko du. Zuzendaria egoiliarren bileratik edo gai-zerrendako hainbat puntutatik at geratzen ahal da.

Azken puntu honek interes berezia du, izan ere, zuzenki lotuta baitago Partaidetza Kontseiluaren funtzionamenduaren gardentasunarekin eta, nagusiki, egoiliarren informazioarekin. Bisitatutako lau zentroetan, Partaidetza Kontseiluko erabiltzaile eta egoiliar kideen arabera, bilerak ez dira egoiliar guztiekin egiten, ez partaidetza-mailan ez informazio-mailan. Beste alde batetik, adierazi dugunez, egoiliarrei ez zaie ematen ez Barne-araudiari ez gainerako arauetako buruzko informaziorik. Zeregin honi garrantzitsua deritzogu, batez ere, kontuan hartzen badugu bisitatutako zentroetako egoiliarrengan euren eskubideei buruzko informazio falta eta konformismo orokortua antzeman genuela.

Partaidetza Kontseilu bateko egoiliar baten arabera, "arazoa da jendeak ez duela haiengana jotzen kexak adierazteko. Egoiliarrak, alde batetik, konformistak dira eta, beste alde batetik, konfiantza falta dute. Euren izenak esan eta zahar-etxetik botatzearen beldur dira. Kexak anonimoki adierazteko aukera dago, baina gutxi erabiltzen da aukera hau". Informazio falta honekin amaitzeko era bat erabiltzaileei Barne-araudia eta gainerako arauak, euren eskubideekin bat, gogorarazteko batzarrak edo bilerak egitea litzateke.

5.4.2.1.1. ERABILTZAILEEI ETA ERABILTZAILE/ENTITATE HARREMANARI BURUZKO BESTELAKO ARAUTZEAK


Nafarroako zahar-etxeek erabiltzaileen edo/eta euren zerbitzuak jaso nahi dituztenen esku egonen diren hiru agiri mota izan beharko

dituzte. Agiriok araudian aipatutako gutxienerako alderdi batzuk jasoko dituzte (209/1991 Dekretua, Eranskina, Baldintza orokorrak, 1.1.8.-1.1.10 atalak). Honela, araututa geratuko da interesdunek eta egoiliarak izanen direnek gutxienerako informazioa idatziz jasoko dutela, zerbitzua erabiltzen hasi baino lehen. Hauek dira agiriak:

- Barne-araudia.
- Onarpenari buruzko araudia.
- Erabiltzaileei buruzko araudia.

Aipatu ditugun alderdietako batzuk Alemanian entitate titularren eta erabiltzaileen artean derrigorrez sinatu behar dituzten hitzarmenetan jasotzen dira, besteak beste (5. art., Zahar-etxeei buruzko Legea). Araudian, gutxienez hitzarmen hauek begietsiko dituzten alderdi jakinak ezartzen dira. 84. taulan, hitzarmenen zein Nafarroako araututako agirien edukiak adieraziko ditugu.

84. TAULA. NAFARROAKO ARAUDIEN ETA ALEMANIAKO HITZARMENEN EDUKIEN ARTEKO KONPARAZIOA



Barne-araudia

- Izaera eta helburuak.
- Hierarkia- eta ondare-mendekotasuna .
- Pertsonala: sailkapena, eginkizunen gidaliburua, postuari atxikitzearen ondorioak, eskubide eta betebeharrak, txandak, atsedanak eta oporrak, segurtasuna eta higiena, diziplina-araubidea, araubide juridikoa

Egoiliarrekiko hitzarmena (5. art., Zahar-etxeei buruzko Legea)

- Entitateak erabiltzaileari, hitzarmena sinatu aurretik, horren edukiei, hala nola, prestazioetan eta prezioan izaten ahalko diren aldaketei buruz idatziz jakinarazi beharko dio.
- Entitatearen eskubide eta betebeharrak (3. atala).
- Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak (3. atala).
- Zerbitzuaren deskripzio orokorra, bereziki, ekipamenduarena (3. atala).
- Prestazioak, bereziki, ostatu-, elikadura- eta laguntza-mota, -edukia eta -bolumena. Zehazki adieraziko dira (3. atala).
- Prestazio ezberdinen prezioa (3. atala).
- Prezioa emaniko zerbitzuen arabera izanen da (7. atala).
- Prezioaren ordainketaren arautzea eta, hala badagokio, zenbatekoarena, erabiltzailea ez dagoenean (8. atala).
- Erabiltzaileek, hitzarmena edo aholkularitza betetzen ez bada, entitatean, Organo ofizial eskudunean eta Lan-taldetan kexatzeko duten eskubidea idatziz jakinaraztea (10. atala).
- Kontratutako zerbitzuak eman ez badira, egoiliarrek ordaindutakoa itzultzea eskatzen ahal du, gehienez ere sei hileko atzera-eraginarekin, jaso behar dituen zerbitzuei kalterik egin gabe (11. atala).
- Entitateak bere prestazioak erabiltzaileen beharren aldaketetara egokitu eta dagozkion hitzarmen-aldaketak eskaini beharko ditu (6. art., 1. atala).
- Hitzarmenaren iraupena (8. art.)

Iturria: Elaborazio propioa, Nafarroako eta Alemaniako araudietan oinarrituta (209/199 FD, eta 74/08/07ko, 01/11/07ko eta 03/12/27an aldatutako Zahar-etxeei buruzko Legea, hurrenez hurren).

Etzanean bi araudietan ageri diren elementuak.

Taulan ikusten ahal dugunez, indarreko legeriaren arabera, Alemaniako hitzarmenek Nafarroakoek baino gardentasun eta informazio gehiago eskaintzen dute.

Espainiako hainbat komunitate autonomok laguntza-hitzarmena arautzen dute ere bai. Katalunian, esaterako, kontraprestazioa ematen ahal duten gizarte zerbitzuei laguntza-hitzarmena sinatzera behartzen zaie. Bertan, ematen den zerbitzua, zehaztutako prezioa eta erabiltzailearen diru-ekarpenak jasoko dira gutxienez. Horretaz gainera, zahar-etxeek jaso behar dute, besteak beste, adinekoa zentroan bere borondatez sartu dela, zentroak zerbitzua emateko eta egoiliarren eskubideak errespetatzeko betebeharra duela, eta Barne-araudia ezagutu eta onartzen duela (18.6 art., 284/1996 Dekretua, 176/2000 Dekretuak aldatutakoa).

Hitzarmena bi alderdik hartutako erabakia da; erabiltzaileak sinatzen duenean, entitateak alde zurretik ezarritako edukiarekiko adostasuna ematen du. Hau kontuan hartzen badugu, Alemaniako erabiltzaileak Nafarroakoak baino estatus hobea dutela esaten ahal dugu, zuzenbide-subjektu gisa.

5.4.3. ZAHAR-ETXEA INSTITUZIO OSO GISA

Zahar-etxea instituzio bat denez, testuinguru berri batera, eta erabiltzaileak orde zuzendaritzak edo zentroko taldeak zehazten dituen azpiegitura berrietara eta antolaketa-moduetara egokitzeko beharra dago. Bisitaturiko zahar-etxeen Erabiltzaileei buruzko araudietan jasotzen dena zentroak behar bezala funtzionatzeko betebeharrak, arauak, bestelako arautzeak eta gomendioei buruz, erabiltzaileen eskubideei eta zentroak haiekiko dituen betebeharrak buruzkoa baino askoz ere gehiago da.

Lau zentroetan daude gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko ordutegiak. Batzuetan baita atsedeen egiteko orduak ere. Guztiek dituzte goiez irten eta gauetik sartzeko ordutegiak. Zahar-etxetik kanpo denbora gehiago egon nahi badute, langileei jakinarazi beharko diote. Elkarrizketa egin genien egoiliarretako batek zera esan zigun honi buruz:

“Nire kasuan ordutegi-mugaketek askatasunaren murrizketa eragin zuten. Nire bizimodua bestelakoa zen, berandu oheratzea gustatzen zitzaidan. Egoera berri honetara egokitu behar izan dut. Krisi bat izan nuen eta bizi-kalitatea kostatu zitzaidan. Gaueko irteeren eta lagunen mira dut, baina, ohitu naiz”.

Zahar-etxeetako batean, egoiliarrek hilean bost pertsona baino ezin dituzte bazkatzera gonbidatu, nahiz eta beraiek ordaindu. Deigarria da ere bai, jaiegun

esanguratsuetan, hala nola, Urteberri egunean, Eguberri egunean edo herriko jaietan, ezin dutela gonbidaturik izan.

Logelei dagokienez, debeku da apaintzea eta norberaren altzariak sartzeko. Horretarako, zentroko langileen baimena izan beharko da. Egoiliar batek

zera esan zigun: "ez zidaten armairu bat ekartzen utzi, gainerako altzariekin bat etortzen ez zelako". Hau oztopo bat da espazioen pertsonalizatzean. Kontuan hartzekoa da, espazio hauek eta, bereziki, logela, erabiltzaileen etxebizitza dela eta, gehienetan, euren bizitza osorako.

Logelak konpartitzen zituzten pertsonak elkarrizketatu genituen; inork ez zuen bere gelakidea aukeratu. Beste egoiliar batzuk beste logela batzuetara eraman dituzte, eurek aukeratu edo eskatu gabe. Honakoa jakinarazi zigun elkarrizketatu batek: "Gustatzen zait nire logela, baina, nahiago nuen lehengoa, orientazio hobea zuen, eta logela berrira eraman ninduten hala erabaki zutelako".

Bisitaturiko lau zahar-etxeetako egoiliarrek, gelakideez gain, zentroko langileek eurek aurretik zehaztutako mahaikideak dituzte jantokian. Hainbat egoiliar tokiz aldatu ziren haiek eskatuta, baina, ezin dute hasiera batetik aukeratu egunero bazkaltzeko nahi duten tokia.

Erabiltzaileek konformismo orokortua erakutsi zuten. Egoiliar asko bat etortzen dira honako komentarioetan: "zirikatzen ez nauten bitartean, pozik nago"; "nik esaten didatena egiten dut, eta kito", " ez ditut arazoak gustuko"; "onez egon behar dugu guztiok". Honetaz gainera aipatu behar dugu, datuak anonimoak zirela adierazi arren, egoiliarrek galdetzen zigutela zentroko zuzendariari edo langileei elkarrizketaren edukien berri emanen genien. Zenbait kasutan, langileek erabiltzaileek eurek baino informazio gehiago eman izan ziguten egoiliarrek izaten ahal zituzten kexa eta poztasun-faltari buruz.

Elkarrizketatutako langile batzuk egoiliarren, bereziki, mendekotasun egoeran daudenen, jokabide konformista hori aipatu zuten: "laguntza behar duten pertsonekin errazagoa da, ez baitakite non dauden". Ikusi ahal izan genuenez, erabiltzaile asko ez ziren oso kontziente zahar-etxean zituzten eskubideez; ez zekiten euren papera ez dela zentrotik erabakitakoa betetzera mugatzen, ezta horretan aktiboki parte hartzeko eta, azken batean, bertako bezero gisa zerbitzua hobetzeko eskatzeko eskubidea dutela ere.

Elkarrizketatutako erabiltzaileek positiboki baloratzen zuten langileek emaniko arreta, behar izanez gero laguntza eskaintzen

ahal dieten langileak daudela jakitea, zahar-etxeak eskainitako zerbitzuak (ileapaindegia, podologia, zerbitzu medikoak, zerbitzu erlijiosoak...) eta, zenbait kasutan, eraikin bera eta baita bere kokapena ere.

Elkarrizketatutako langileek ere alderdi hauek aipatu zituzten egoiliarrek gehien baloratzen dituztenen artean. Era berean, komentatu ziguten erabiltzaileendako gauzarik funtsezkoenetariko bat, haiek entzuten zituen edo haiekin hitz egiteko norbait izatea zela. Eskaera honi, langileen ustez, ezin diote beti erantzun, denbora pertsonalaren falta dela eta. Egoiliarrendako gauza garrantzitsutzat aipatu zuten ere bai, ohikeria alde batera uztea eragiten duten jarduera-mota guztiak, hala nola, aisiako jarduerak, festak eta ekitaldi erlijiosoak, fisioterapia eta lan-terapiako orduak. Bisitaturiko hiru zentrotako egoiliarren kexak gai honekin zuten zerikusia: irteera gutxi antolatzen zituztela eta aisiako jarduera gutxi zeudela.

Negatiboki baloratzen zuten beste pertsonekin bat bizi behar izatea, bereziki, bat etortzen ez diren edo kalte psikiko handiagoa duten pertsonekin. Deigarria da egoiliarrek zahar-etxean "ongi daudela" esan arren, gutxien gustatzen zaien gauzetariko bat bertan bizitzea dela. Hona hemen honi buruzko hainbat komentario: "Etxean hobe zaude beti", "ez naiz etxean bezala sentitzen, ezin naizelako nahi dudanera nahi dudanean joan", "etxean baino gehiago aspertzen naiz, ez dago jendearen arteko konfiantzarik; etxean edozer egiten ahal duzu askatasun osoz, ez dituzu gauzak eskatu behar". Honekin bat, erabiltzaileak ez zeuden oso pozik janariarekin. Bisitatutako zahar-etxeetan menu bereziak zeuden medikuek hala agindutako erabiltzaileendako. Hala ere, erabiltzaileek ezin zuten eguneroko menuan aukerarik egin.

Kontuan izan behar dira halaber, erabiltzaileek euren kabuz kanpora egiten dituzten irteerak. Egiatzatu genuenez, hainbat egoiliar mendekotasun fisikoak izateagatik eta, zenbaitetan, euren motibazio faltagatik, ez zirela zahar-etxetik ateratzen, nahiz eta ez litzatekeen arazo bat izan behar, laguntzeko pertsona bat izanez gero. Ibiltzeko zailtasunak/ ezintasuna zuten elkarrizketatutako bi egoiliarrek zera esan ziguten:

- "Normalki zahar-etxetik paseatzen dut, ez dut inor kanpora paseatzera irteteko".
- "Etorri nintzenean asko irteten nintzen, baina lau urte daramatzat dagoeneko aulkian. Orain ez naiz irteten ez dudalako eramanen nauen inor. Lehen andre bat etortzen zen eta harekin irteten nintzen".

Egoiliar batek bost urte zeramatzan, zahar-etxean sartu zenetik, bere herria bisitatu gabe.

Bisitaturiko zahar-etxeetako batek zailtasun handiak ditu udalerriko erdigunera joateko. Bakarrik bi autobus daude, bata hara joateko 10:15ean eta bestea itzultzeko 12:30ean; hortaz, zaila da hara joatea, bereziki, zailtasun fisikoak dituztenendako.

Langileen ustez, erabiltzaileei gutxien gustatzen zaizkien eta kexarik gehien eragiten dituzten mugatzeak ordutegiari, funtzionamendu-arauei, eguneroko janariaren aukeraketarik ezari, inposaketa guztiei eta honek eragiten duen askatasun faltari loturikoak dira.

Azaldutakoa bisitaturiko zahar-etxeetako eguneroko bizitzaren, eta horrek eragiten duen askatasunaren eta autodeterminazioaren mugatzearen adibideak dira. Funtzionamendu on baterako bizikidetzaren eta antolaketaren inguruko arau zehatzak behar diren arren, arauok zahar-etxea erabiltzaileei egokitzera

ordez erabiltzaileak zahar-etxera egokitzera zuzenduta daudela dirudi, eta lehenengo aukera litzateke kalitatezko zerbitzua eskaini, eta egoiliarra "etxean bezala" sentitu eta zahar-etxea bere etxe gisa identifikatzeko erarik egokiena.

5.5. IKERKETA-METODOLOGIA

Txosten honen helburua Nafarroan mendekotasun egoeran diren hirugarren adinekoen egoerari buruzko ikerketa bat egitea zen. Horretarako, talde horren eta zerbitzu-sarearen estaldura-mailei

buruzko datu bilketa, hala nola, baliabideen erabilera, finantzaketa, funtzionamendu eta kalitatearen inguruko ikerketa egin dugu. Hau lortzeko, agiriak aztertu, Gizarte Ongizateko Departamentuko, eta, bereziki, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko, hainbat langileekin elkarrizketak egin, eta landa- eta agiri-ikerketa egin dugu Nafarroako Komunitateko lau zahar-etxeetan.

Agiri-azterketa

Bizi kalitateari buruzko inkesta, hala nola, Erroldaren eta Zentsuaren datuak erabili ditugu Nafarroako Hirugarren Adinekoei buruzko azterketa estatistikoa egiteko.

Nafarroako Foru Komunitateko hainbat araudi aztertu ditugu (ikus 1. eranskina). Honi esker, finantzaketa bideak eta alderdi funtzionalak ezagutu ditugu. Espainiako zein Espainiatik kanpoko beste eskualdeekiko konparazio-esparru bat ezartzeko, Madrilgo eta Kataluniako eta, bereziki, Alemaniako araudiak erabili ditugu.

Agiri administratiboak ere erabili ditugu, Administrazio Publikoaren baremo eta prozedura ezberdinak ezagutu, eta zerbitzu-sareari buruzko datu estatistikoaren inguruko azterketa egiteko.

Azkenik, bestelako argitalpenak eta iturri bibliografikoak kontuan hartu ditugu.

Gizarte Ongizateko langileekin eginiko elkarrizketak

Elkarrizketa hauek datu kuantitatiboak bildu, eta lekuak eta diru-laguntzen ematean eta erabilitako baremoetan praktikoki aplikatutako araudia ezagutzeko egin genituen. Elkarrizketak egin genizkien Nafarroako Gizarte Ongizatearen

Institutuko langileei, bereziki, Itunen Atalekoei, Kalitate Atalekoei, Mendekotasunen arretaren zuzendaritza-ordekoei, hala nola, Oinarrizko Laguntzako Atalekoei. Gizarte Ongizatearen zuzendaritza Orokorreko eta, bereziki, bere Kalitate eta Ikuskapen Ataleko langileei ere elkarrizketak egin genizkien.

Landa-ikerketa

Bisitak eta elkarrizketak Nafarroako lau zahar-etxeetan egin genituen. Zahar-etxeak euren titulartasunaren, kokatzen diren ingurunearen (landatarra/ hiritarra) eta tamainaren arabera aukeratu genituen.

85. TAULA. BISITATURIKO ZENTROAK ETA EGINIKO ELKARRIZKETAK (2004KO IRAILA)

	Zentroak				Guztira
	1	2	3	4	
	Irabaz		Pribatu		
	asmoarekin	Publikoak	Udalenak	soziala	
Ingurunea	Hiritarra	Landatarra	Landatarra	Hiritarra	
Enginiko elkarrizketak					
Zuzendaritza	1	1	1	1	4
Laginleak	6	5	6	7	24
Gerokultoreak	3	3	4	4	14
Erizainak	1	1	1	1	4
Gizarte-langileak	1			1	2
Fisioterapeutak	1	1		1	3
Lan-terapeutak			1		1
Psikologoak	1				1
Erabiltzaileak	5	6	6	6	23
Egoiliarrak	3	5	5	5	18
Partaidetza Kontseilua	2	1	1	1	5
Guztira	12	12	13	14	51

Iturria: Elaborazio propioa.

Garrantzitsua iruditu zitzaigun erabiltzaileei buruzko, hala nola, instituzionalizazioarekin loturiko beste alderdi batzuei buruzko informazioa biltzea. Era berean, erabiltzaileen bizipena eta iritzia jasotzen saiatu ginen, zentroaren funtzionamenduari eta zerbitzuaren kalitateari buruz. Horretarako, 51 elkarrizketa sakon egin genizkien zentroetako zuzendari, langile eta erabiltzaileei, 85. taulan ikusi dugunez. Hona jarraitutako metodologiaren laburpena:

- Zahar-etxeko zuzendariei lehenengo bisitan egin genien elkarrizketa. Helburua, hasiera batean, ikerketari buruzko informazioa ematea, hala nola, zahar-etxeari buruzko egiturazko datuak lortzea izan zen.
- Elkarrizketatutako langileak, euren lana dela eta, erabiltzaileekiko etengabeko harremana dutenak izan ziren. Gerokultoreei egin genizkien elkarrizketarik gehien, egoiliarren zuzeneko arretaz arduratzen direlako, higiene eta garbiketa pertsonaleko lanak burutzearen bidez. Honetaz gainera, erizainen, lan-terapeuten, fisioterapeuten, gizarte-langileen eta psikologo baten laguntza jaso genuen.
- Erabiltzaileak mendekotasun-mota eta -mailaren Test Deltaren balorazioaren arabera aukeratu genituen: mendekotasun fisiko edo/eta psikiko moderatuko eta larriko pertsonak parte hartu zuten. Era berean, Partaidetza Kontseiluko kideak elkarrizketatu genituen, organo honi buruzko informazioa lortzeko.

Lau zahar-etxeetako Barne-araudiak eta Erabiltzaileen araudiak ere aztertu genituen. Eta, araudiarekin eta elkarrizketetatik lortutako informazioarekin alderatu genituen erabiltzaileen betebeharrak, eskubideak, bisita-ordutegiak eta bestelako arautzeak.

5.6. ONDORIOAK

5.6.1. GOGOETA OROKORRAK

Komunitate Autonomoen arteko bizi-kalitateari buruzko azterketa konparatiboen arabera, Nafarroa batez besteko egoera ezin hobean egon ohi da oro har. Hornikuntza-maila handiko komunitate txikia da, eta osasuneko eta hezkuntzako gizarte-babeseko sistema onak ditu konparazioei aurre egiteko. Hortaz, eta hasiera batean, Nafarroako adinekoen egoera beste eskualdeetan baino hobea dela esaten ahal dugu. Baieztapen hau mantenduz, zenbait gabezia edo desoreka edo, nahi bada, nabarmenki hobetzen ahalko ziren alderdiak, antzematen ahal ditugu adinekoendako baliabideetan. Hona azpimarragarrienak.

5.6.1.1. KALITATEA ETA INFORMAZIO FALTA

Planifikatu ahal izateko, beharrezkoa da, errealitatea ezagutzea, beharrak antzeman eta hierarkizatzea, eta helburuak zehaztea gutxienez. Gaur egun, gure komunitateko adineko pertsonen buruzko datu gaurkotuak aurkitzea lan zaila da. Horrela,

- Nafarroan hainbat eremu daude: osasuneko oinarrizko unitate edo eremuak, I. Plan Gerontologikoaren eremuak, mekanizatutako mugikortasuneko eremuak, Nafarroako Lurralde antolamenduko Jarraibideetan ezarritako eremu funtzionalak, e.a.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko informazio estatistikoko bilketa sistema ezberdinak erabiltzen dira: SIPSS eta SIUSS.
- Osasun Zerbitzuei buruzko informazio estatistikoko bilketa sistema ezberdinak daude (banan-banako laguntza eta oinarrizko laguntza).
- Ez dugu antzeman inolako batasunik adinekoek denbora handia ematen duten beste alorretako informazio estatistikoko bilketa sistema bat edo batzuk erabiltzean: zahar-etxeak, eguneko zentroak, klubak, elkarteak eta sindikatuak.

Ezinegon handiagoak eragiten dituzte "gabeziek". Joera nagusia, bereziki, izaera ekonomiko eta administratiboko informazio bilketa izan da. Erabiltzailea bigarren mailako presentzia izatera pasa da kasu batzuetan, eta hondar-

balorea izatera, besteetan. Interesatzen zaiena da erabiltzailearen arreta-eskaerarekin, eta diru-sarrerak eta gastuak sortzeko gaitasunarekin loturiko guztia. Interes gutxiago pizten dute bere adinak, egoera zibilak, sexuak, heziketa-mailak, zaletasunak, eta abarrek. Laguntzaren esparruan, aldagai sozio-demografiko hauei garrantzi handiagoa eman beharko litzaieke, oreka handiagoa erraztuko zutelako dauden zerbitzuen eta horien erabiltzaile errealen eta balizko erabiltzaileen artean.

Testuinguru hau kontuan hartuta, egoki deritzogu oinarrizko proposamen batzuk planteatzeari:

- Nafarroan eremu bakarra ezartzea, ahal izanez gero, Osasunaren eta Gizarte Ongizatearen artean.
- Edozein informazio biltzea, ezarritako eremuan oinarrituta.
- Ahalik eta datu-baserik oso, adostu eta eraginkorrena eratzea.
- Adineko pertsonen buruzko daturik gehien (sexua, adina, heziketa, egoera familiarra, e.a.) sistematikoki eta euskarri informatikoan biltzea, oraindik horrela egiten ez den tokietan.
- Zahar-etxeei eta eguneko zentzoei inplikaturako Foru administrazioko erakundeekin, zehazki, Osasun eta Gizarte Ongizateko Departamentuekin, informazioa elkartrukatzea ahalbidetzen dien aplikazio informatikoa sortzea.
- Organismo eta entitate publikoen artean sinatutako hitzarmenak bete eta gauzatzea, komuneko informazio sistemak ezartzeko.
- Osasun eta Gizarte Ongizateko Departamentuen arteko politiken koordinazioa hobetu eta sustatzea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Oinarrizko Laguntza Zerbitzuen arteko koordinazioa eraginkorra izan dadin.
- Instituzio eta erakunde publiko ezberdinen, bereziki, lehenago aipaturakoen arteko komuneko alorrak eta informazioa zehaztea, ahalegin guztiak egin ditzaten. Horrela, gizarte- eta osasun-partaidetzako beharrei egokitutako fitxategi sozio-sanitario osatua lortuko litzateke.
- NBEk, OMEk eta Europako Kontseiluak gai honen inguruan egin dituzten gomendioak aintzat hartzea, eskura dauden datuak homologatu eta komuneko erreferentzia-markoak ezarri ahal izateko.

Proposamen hauek aldagaien eta adierazleen informazio kuantitatibo eta kualitatiboaren hobetzea ekarriko dutela uste dugu⁵⁵, diagnostikoen zehaztapen handiagoari, beharren eta baliabideen eta zerbitzuen arteko balantzeei, eta bildutako informazioaren etengabeko eguneratzeari dagokionez.

5.6.1.2. ADINEKOENDAKO HORNIKUNTZEN ARTEKO DESOREKAK

Adineko pertsonen lehendabiziko aukera beren etxeetan ahalik eta gehien egotea da. Gauza bera aldarrikatzen dute proposamen gerontologikoek, adineko pertsonak beren ingurunean bizitzea erraztu eta sustatzearen bidez. Hori adierazten du 1997-2000 Nafarroako Plan Gerontologikoak bere oinarrietan: "Gizartea adin guztietako gizabanakoek osatzen dute. Adinaren arabera, euren beharrak eta behar duten arreta aldatzen ahal dira, baina, hauek komunitatearen barruan emanen zaizkie".

Dena dela, adinekoek gehien erabiltzen dituzten baliabideak aztertuz gero, egiaztatzen ahal dugu familiak direla euren zainketaz gehien arduratzen direnak. Familiak laguntza eta prestakuntza eskasa jasotzen ditu. Horretaz gainera, gizarte-partaidetzako programen gabezia dago, etxebizitzan mendekotasun egoeran diren adinekoak dituzten familiei laguntzeko.

Adinekoen instituzionalizazioa mendekotasun egoeran- ez lehenago- diren adinekoen arretarako baliabide espezializatua izan beharko litzateke. Lortutako informazioaren arabera, adinekoen baliabide bihurtu da, beste baliabideen, hala nola, etxez etxeko laguntzaren eskasiaren edo horiek lortzeko murrizketen aurrean. Ikuspegi hau aintzat hartuta, ulergarria da zahar-etxeen eta lekuen gorakada, etxez etxeko laguntza baino askoz ere ugariagoa dena.

⁵⁵ Otsailaren 9ko 12/99 Foru Legaren arabera, 67 aldagai daude (55 estatistikoak eta 12 lege-agindukoak); horietako 12 gai ekonomikoei buruzkoak dira eta 23 arreta-zentroei buruzkoak (SIIseko- Dokumentazio eta ikerketa zentrok- Txostena, 2000)

Baina, programen barne ere desorekak daude. Hori etxez etxeko laguntzaren bi modalitateetan gertatzen da: zuzeneko arretan eta diru-laguntzetan. Zuzeneko arretak erabiltzaile gehiago ditu, baina, ez arreta-orduei dagokienez. Adineko pertsona batek gero eta arreta-ordu gehiago behar, hau da, gero eta mendekotasun handiagoa izan, orduan eta eskasagoa da zuzeneko arreta. Kasu horietan (bi ordu baino gehiago arreta-eguneko) diru-laguntza ematen da. Modalitate honek ez du bermatzen ez arreta ez arreta hori horretarako prestaturiko langileek ematea, kontrola eskasa edo hutsala baita.

Zahar-etxeen programan aurretik adierazitakoarekin kontraesanean dauden hainbat auzi nabarmentzen dira. Horrela, berez baliatzen direnendako lekuak lekuen eskaintza osoaren erdia dira, gutxi gorabehera. Ikuspegi ekonomikotik, leku libreak (finantzaketa publikorik gabeak) publikoak edo itunduak baino ugariagoak dira.

Alderdi ekonomikoa kezkatzekoa da. Zahar-etxeak izaera unibertsaleko gizarte-eskubidetzat aitortutako baliabideak ez direnez eta euren xedea– hau da, adinekoarendako baliabide onuragarria izateko honek izan behar dituen beharrak– zehazturik ez dagoenez, ondoko paradoxa sortzen da. Berez baliatzen direnendako lekuak ez lirateke egon behar eta, egotekotan, ez lukete diru-laguntza publikorik jaso behar. Gehiegizkoa da egoiliarrek egin behar duten diru-ekarpena laguntza behar dutenendako lekuetan, hau da, ezintasuna eragiten duten adimen-gaixotasunak edo gaixotasun fisikoak izan, eta eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko hirugarren pertsona baten laguntza behar duten pertsonendakoetan. Hortaz, guztiek izan beharko lukete finantzaketa publikoa.

5.6.1.3. ZAHAR-ETXEETAKO LANGILEAK

Zuzeneko langileek, adinekoekin denborarik gehien eman, eta arretarik "delikatuena" eskaintzen dietenek, gaur egun eskatzen ez den prestakuntza espezifiko behar dute. Horretaz gainera, langile espezializatuak egonen dira, hala nola, honakoak: gizarte-langilea, fisioterapeutak, lan-terapeutak, psikologoa, e.a. Adinekoendako zahar-etxeek langile gehiago eta prestatuagoak behar dituzte.

5.6.1.4. PARTAIDETZA

Zahar-etxe batean sartzen den adinekoari instituzionalizazioak eragiten dizkion galerak direla eta, ahalik eta gehien babestu behar dira haren eskubideak. Hori lortzeko modu bat, zahar-etxearen funtzionamendurako egitura guztietan parte-hartzea erraztu eta babestea da, ordutegiei, bisitei, janariei, jardueri, eta abarri buruzko erabakiak hartzeko.

Nafarroako araudiak nolabaiteko partaidetza bultzatzen du, nahiz eta ikusmolde mugatu eta paternalista batetik, baina, egiaztatu ahal izan dugunez, ez da betetzen. Zahar-etxeetako estamentuek- zuzendaritzak, langileek eta egoiliarrek- ez dute partaidetza baloratzen.

5.6.1.5. KALITATEAREN KULTURA SUSTATZEA, HOBEKUNTZAKO TRESNA GISA

Kalitate-eredu bat abian jarri beharko da, erakunde batek zerbitzua ematen dien pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Nafarroako Gobernuak adinekoen zahar-etxeei kalitate-planak eskatu beharko lizkioke, adinekoei ematen zaien laguntza bermatzeko.

Instituzionalizatzen diren adinekoen eskubideak defendatzeko betebeharra erraztuko litzateke, baldin eta zahar-etxeei euren egoiliarrendako arreta ona ematea ziurtatzeko eskatzen dien kalitate-plan bat sustatuko balitz.

5.6.1.6. IKUSKAPEN ZERBITZUA

Ezinbestekoa dirudi egoiliarren eskubideen defentsa, zerbitzuen kalitatea eta diru publikoaren kontrola bermatzen dituen ikuskapen zerbitzu bat zehaztu eta bultzatzea.

Ezarri beharreko neurrien artean, zahar-etxeei buruzko araudi orokorraren gaurkotzea azpimarratuko dugu. Gaurkotze horrek zehapenen araubide bat, eta langile eta bitarteko egokiz osatutako ikuskapen zerbitzu baten indartzea, besteak beste, barne hartuko ditu.

5.6.2. ETORKIZUNEKO JOERAK

5.6.2.1. BIZTANLEEN ETENGABEKO ZAHARTZEA

Azken urteotan, gizarte- eta osasun-politikan ondorioz gehien izaten ari den fenomeno demografikoetako bat adineko pertsonen gorakada da, kopuru absolutu eta erlatiboetan. Biztanleriaren zahartzeak lortzen ahal duen pisua jaiotza-tasaren, inmigrazioaren eta bizi-itxaropenaren bilakaeraren arabera izaten da.

Egunero eta etorkizuneko errealitatea, Nafarroan zein Espainian eta Europan, biztanleria zaharkitua dagoela eta bide erregresibo ebolutiboa jarraitzen duela da. Zentzugabea litzateke aurreikuspenak ez erabiltzea etengabeko zahartze horrek eragiten ahal dituen egoerei erantzun ahal izateko prest egoteko.

Berri ona da bizi-itxaropenak gora egitea. Gizartearen eta medikuntzaren lorpen handia da. Kontua da, zein den irabazitako urte horietako bizi-kalitatea. Hau da, etorkizuneko apustuak mendekotasunaren atzeratzea eta, ahal izanez gero, desagertzea ekarriko luke. Hau ez da garrantzi gutxiagoko gaia.

Biztanleriaren zahartzearen ikuspegi positiboarekin hasi garen arren, komenigarria litzateke gogoan izatea etorkizuneko erronkarik garrantzitsuenetako bat. Biztanleriaren etengabeko gainzahartzearen ondorioz (75-80 urtetik gorakoak), gero eta gehiago izaten dira ahultasun eta mendekotasun egoeran izaten diren pertsonak, horrek sortuko dituen ondorio sozio-sanitario, ekonomiko eta, nola ez, familiarak ahaztu gabe.

Inork ez du egoera honetara iristerik nahi. Gizabanakoak berak ez du bere burua egoera horretan ikusi nahi. Familiak ere ez du bere senideetako baten zahartzea ikusi bahi. Mendekotasun egoeran diren guztiak okerrera egin dute nabarmenki eta, gainera, horren ondoriozko arreta behar dute. Administrazioa ezin da kanpo geratu. Egunero egiaztatzen da pertsona hauek behar dituzten zainketa prezioaren gorakada.

Aditu guztiek azpimarratzen dute eginiko topaketa zientifikoetan, irismen handiko prebentzio-neurririk ez dagoela. Ezin dugu denbora gehiago galdu mendekotasuna lantzeko era bilatzen, era paraleloan eta koordinatuan lan egin behar dugu mendekotasuna atzeratzeko, saihesteko. Duela gutxiko ikerketa batzuen arabera, mendekotasun-tasaren gorakada eten egin da azken

hamarkadetan. Eginiko aurreikuspenetan baino kopuru txikiagoak azaltzen ari dira. Hau berri ona da, izan ere, adinekoen bizi-kalitatearen eta zainketen batez bestekoaren hobekuntza egiaztatzen baitu. Emaidza pozgarri gehiago lortuko genituzke, prebentzio-programak 50etik 64 urtera bitarteko biztanleekin abian jarriko bagenu.

Mendekotasunari eta bere kostuei buruz ohartarazi zigun Vancouverreko Biltzarrean (2001eko uztaila) inoiz baino irakurketa negatiboagoa egin zuen Paul Baltes alemaniarrek, "arrakastaz zahartu" terminoaren asmatzaileak. Berlingo zahartzeari buruz Baltesek eginiko ikerketaren arabera, bizi-itxaropenaren kostuak gainezka egiten ahal digu. Hortaz, beharrezkoa da neurri eraginkorrak, prebentiboak, hartzea, zahartzearen mendekotasunaren arazoa aldentzeko.

5.6.2.2. MENDEKOTASUNAREN BABES SISTEMA BATEN ERATZEA

Europako hainbat herrialdeetan, hala nola, Alemanian, Austrian eta Frantzian, besteak beste, mendekotasunaren babes sistemak eratu dituzte.

Gaur egun, mendekotasunaren babesa behar eta premia handiko modako gai bihurtu da Europa osoan. Lerro honetan, badirudi Espainiako Gobernuak Babes sistema bat ezarri nahi duela. Balizko bi modalitate daude. Alde batetik, pertsonak behar duten arreta bermatzen dituzten zerbitzuak eskaintzea. Beste alde batetik, zerbitzu horiek erabili ahal izateko beharrezko diru-laguntza errazteko eredu bat diseinatzea. Dena dela, zehazteke daude zeintzuk izanen diren Sistema horretan sartuko diren pertsonen mendekotasun-maila, hala nola, hori neurtzeko era.

Adierazten denez, Gizarte Segurantzaren finantzaketaz arduratuko da eta komunitate autonomoek arlo honetan izanen duten papera zehaztuko da. Eskuduntzen deszentralizazio-maila ikusirik, espero izatekoa da komunitate autonomoak arduratzea zerbitzuaren kalitatea antolatu, bermatu eta kontrolatzeaz.

5.6.2.3. ADINEKO BERRIAK

Etorkizun hurbilean adineko pertsona gehiago egonen dira, baina, batez ere, ez dira egungo adinekoak bezalakoak izanen. Ezberdintasun horietan hainbat alderdik eraginen dute, hala nola, gizartearen bilakaerak, hezkuntzak, sozializazio motak, teknologia berriak, pertsonen arteko harremanek eta familiaren egoera berriak, besteak beste.

Pertsona helduek bestelako baliabideak beharko dituztela uste da, hiritar gisa dituzten gaitasunak eta eskubideak garatzen jarraitzen ahal izateko. Hasiera batean, ezin da onartu egungo instituzionalizazio-eredua izatea, hortaz, zerbitzuen eskakizun-maila handiagoa izanen da.

Hau guztia dela eta, erabiltzaileen kopuru handiago batendako baliabideak ugaritzeaz gain, adineko berrien behar, nahi eta proiektuak ezagutu beharko dira. Era berean, gizarteak berak eta protagonistek adinekoengandik espero

den paperari buruzko gogoeta egin beharko dute. Hainbat galdera erantzun beharko dira, hala nola, zein den eurek nahi duten gizarte-papera eta zein emanen zaien edo eman beharko litzaiekeen.

Honekin bat, generoa eta gutxitasunak ere kontuan hartu beharko dira. Datu estatistikoaren arabera, Nafarroako emakumeen eta gizonen artean 7 urteko ezberdintasuna egonen da gutxienez. Osasun Publikoko azken txostenak dioenez, Nafarroako emakumezkoen bizi-itxaropena 84 urtekoa da eta gizonezkoena 77 urtekoa. Hortaz, zahartzearen feminizazioa mantenduko da. Aldagai hau politiketan eta zerbitzuen programazioan sartu beharko da, ahal dela, hein handigoan, eta prestazioak gertakari honetara egokitu beharko dira.

Azkenik, azpimarratu behar dugu, gero eta gehiago direla gutxitasunak dituzten pertsonak adinekoen artean. Lehen adin hauetara iristen ez ziren adimen-atzerapena, adimen-osasuneko arazoak, eta abar dituzten pertsonak zahartzen dira. Argi dago plan eta programetan kontuan hartu beharko diren premia bereziak dituztela.

BIBLIOGRAFIA

Bibliografia

Aguilar, M., Corera, C., Goñi I., Laparra, M., Liberal, B., Pérez, B., (2002), Etxez Etxeko Laguntza Nafarroan. Nafarroako Gobernu, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruña.

Edvartsen, Trond O. (1997), "Pflegesicherung in Dänemark und Norwegen", Forschungsberichte 8. zk.

Eurostat (2002) Statistiques sociales européennes, résultats de l'enquête sur les forces de travail 2001: données 2001. EUR-OP, Office des publications officielles des Communautés européennes, Luxembourg.

Nafarroako Gobernu (1997), Nafarroako Plan Gerontologikoa. Hirugarren Adinarendako Gizarte Ekintzako Eredua 1997-2000. Nafarroako Gobernu, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua, Iruña.

Hendriksen C, Lund E, Stromgard E. (1984), "Consequences of Assesment and Intervention among Elderly People: A Three Year Randomised Controlled Trial", en British Medical Journal, 289. zk:1522-4.

Richter, R. (2002), Das neue Heimrecht. Nomos Verlagsgesellschaft.

Rostgaard, T. (2002), Care Services for Children and Other Dependent People, European Unión Presidency Conference, Elsinore, azaroak 25-26.

Sarasa Urdiola, S. (2003), Zerbitzuen komunitarioen proposamena adineko pertsonen arretarako. (Argitaratzeke).

ERANSKINAK

1. ERANSKINA ERABILITAKO ARAUDIA

Erabakia, 1997ko ekainaren 18koa	Erabakia, 1997ko ekainaren 18koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak hartua, erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuak emateko tarifak eta horiek aplikatzeko arauak aldatzen dituena
Erabakia, 2001eko irailaren 6koa	Erabakia, 2001eko irailaren 6koa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak hartua, erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuak emateko tarifak eta horiek aplikatzeko arauak aldatzen dituena
176/ 2000 Dekretua	176/ 2000 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Kataluniako Gizarte Zerbitzuen Sistema arautzen duen uztailaren 23ko 284/1996 Dekretua aldatzen duena
284/ 1996 Dekretua	284/ 1996 Dekretua, uztailaren 23koa, Kataluniako Gizarte Zerbitzuen Sistema arautzen duena.
11/1987 FD	11/1987 Foru Dekretua, urtarrilaren 16koa, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen araubidea ezartzen duena
126/ 1998 FD	126/1998 Foru Dekretua, apirilaren 6koa, Hirugarren adinekoen laguntza premia neurtzeko metodo ofiziala onesten duena
168/ 1990 FD	168/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Gizarte Zerbitzuetako prestazio eta diru-laguntza bakarkakoak zein familientzakoak arautzen dituena
209/ 1991 FD	209/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, Gizarte Zerbitzuen arloko Baimen, Arau-hauste eta Zehapenen gaineko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena
633/2003 FD	633/2003 Foru Dekretua, urriaren 6koa, martxoaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua aldatzen duena
Heimbauverordnung	Zahar-etxeak eraikitzeari buruzko Dekretua
Heimgesetz	Alemaniko Zahar-etxeei buruzko Legea
Heimmitwirkungs-Verordnung	Alemaniko Zahar-etxeetan erabiltzaileek duten partaidetzari buruzko Dekretua
Heimpersonal-Verordnung	Alemaniko Zahar-etxeetako langileei buruzko Dekretua

11/ 2002 L	11/ 2002 Legea, abenduaren 18koa, Madrilgo Komunitateko Gizarte Ekintzako Zentro eta Zerbitzuen Jarduera Antolatu, eta Gizarte Zerbitzuen Prestazioaren Kalitatea Hobetzeari buruzkoa
17/2000 FL	17/2000 Foru Legea, abenduaren 29koa, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena
20/1985 FL	20/1985 Foru Legea, urriaren 25ekoa, Gizarte Zerbitzuen arloko itunei buruzkoa
34/2003 FL	34/2003 Foru Legea, abenduaren 30ekoa, 2004ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa
9/1990 FL	9/1990 Foru Legea, azaroaren 13koa, Gizarte Zerbitzuen arloko Baimen, Arau-hauste eta Zehapenen gainekoa
14/1983 Gizarte Zerbitzuei buruzko FL	14/1983 Foru Legea, martxoaren 30ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
317/ 1997 FA	317/ 1997 Foru Agindua, abuztuaren 26koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, Gizarte-etxeak Gizarte Zerbitzuetako arlo gisa sailkatu, eta Hirugarren Adinekoen Atalean sartzen dituen
75/2003 FA	75/2003 Foru Agindua, irailaren 24koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, "zentro gerontologikoetako eguneko egonaldietarako zerbitzua" sailkatzen duena
Pflegeversicherungs-gesetz	Alemaniko Mendekotasun aseguruari buruzko Legea
1040/2004 Ebazpena	1040/2004 Ebazpena, martxoaren 17koa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2004an etxetz etxeko laguntzarako dirua pagatzeko irizpide eta baremoak onesten dituen
459/2003 Ebazpena	459/2003 Ebazpena, otsailaren 5ekoa, Nafarroako Gizarte Ongizateren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Zentro gerontologikoetan sartzeko lehentasunezko baremoak onesten dituen

2. ERANSKINA

ALEMANIAKO ZAHAR-ETXEEI BURUZKO LEGEAREN LABURPENA (HEIMGESETZ)⁵⁶

⁵⁶ Zahar-etxeei buruzko Legea: 1974ko abuztuaren 7koa, 2001eko azaroaren 5eko argitalpenean. Azkeneko aldaketa 2003ko abenduaren 27an.

1. Aplikazio eremua eta helburua (1. eta 2. art.ak)

Legearen aplikazio eremua hirugarren adinekoendako eta minusbaliotasunak dituzten edo mendekotasun egoeran diren adinekoendako zahar-etxeek osatzen dute. Zahar-etxeak erabiltzaileei etxebizitza, arreta eta elikadura eskaintzen dizkieten, erabiltzaileen kopuruaren eta aldaketaren menpe ez dauden, eta diru truk kudeatzen diren entitateak dira (1. art., 1. atala, Zahar-etxeei buruzko Legea).

Legearen helburuak dira egoiliarren interesak eta beharrak babestea, euren askatasuna eta erantzukizuna bermatzea zahar-etxean, aholkularitza sustatzea zahar-etxeari buruzko gaietan, entitateek erabiltzaileekiko dituzten betebeharren betetzea bermatzea, erabiltzaileen partaidetza bermatzea zahar-etxeari buruzko gaietan, egonaldiaren eta arretaren kalitatea bermatzea, eta ikuskapeneko organo ofizialaren eta Mendekotasun Aseguruaren Kutxen, Eritasun Aseguruaren Kutxako Medikuntza Zerbitzuaren eta Gizarte Laguntzako Departamentuen arteko lankidetzak bultzatzea (2. art.).

2. Zahar-etxeek emaniko zerbitzuak eta dekretuak (3. art.)

Artikulu honek xedatzen du zahar-etxeek euren zerbitzuak aitortutako ezagutza tekniko eta profesionalen maila orokorraren arabera eman behar dituztela (1. atala).

Horretaz gainera, Alemaniako Gobernuari baimena ematen zaio eraikuntzari eta langileei buruzko gutxiengo estandarren inguruko dekretuak promulgatzeko (2. atala).

3. Ikuskapeneko organo ofizialak egoiliar, interesdun eta entitate kudeatzaileei aholkatzeko duen betebeharra (4. art.)

Organo ofizial eskudunak ondokoei eskaini beharko die informazioa eta aholkularitza:

Egoiliarrei eta Partaidetza Kontseiluari, euren eskubide eta betebeharrei buruz

Justifikatutako interesa duten pertsoneri, egoiliarren eta kontseiluen eskubide eta betebeharrei buruz

Zahar-etxeak kudeatzen dituzten edo kudeatu nahi dituzten pertsona edo entitateei

4. Zahar-etxeetako hitzarmenei buruzko arauak (5.-9. art.ak, Zahar-etxeei buruzko Legea)

Artikulu hauek entitate titularren eta zahar-etxeetako erabiltzaileen arteko hitzarmenek bete beharreko gutxieneko baldintzak zehazten dituzte. 5. artikulua hitzarmen hauek arautu beharreko alderdiak xedatzen ditu. Alderdiok hauek dira:

- Entitate titularren eta egoiliarren eskubide eta betebeharrak (3. atala)
- Entitateak emaniko zerbitzuak, horien deskribapena eta guzti, eta zerbitzu bakoitzaren truke ordaindu beharrekoa: egonaldia, elikadura eta arreta. Zahar-etxearen eta Mendekotasun Aseguruaren Kutxen arteko hornidura-hitzarmenik egotekotan, hitzarmenek zerbitzuak eta horien kostuak bereizi beharko dituzte, Mendekotasun Aseguruari buruzko Legean ezarritakoari jarraiki (3. eta 5. atalak).
- Egoiliarra ez dagoenean emaniko zerbitzuen kostua itzuli behar zaion ezartzen duen arautzea (8. atala).
- Entitateak idatziz jakinaraziko die egoiliar izanen direnei aholkularitza jasotzeko eta kexak adierazteko eskubidea dutela, bai entitatean bai Organo ofizial eskudunean (10. atala)
- Entitateak hitzarmenean ezarritako zerbitzuen prestazioa betetzen ez badu, egoiliarrak hitzartutako prezioa murriztea

eskatzen ahal du, gehienez ere sei hilabetez, zerbitzuaren prestazioan eraginik izan gabe (11. atala)

Erabiltzaileen arreta-beharra aldatuz gero, entitate titularrak zerbitzuen prestazioa premia berriei egokitu, hala nola, hitzarmenaren aldaketa eskaini beharko die (6. art., 1. atala).

7. artikulua erabiltzaileen diru-ekarpenaren igoera xedatzen du. Entitate titularrak egoiliarren diru-ekarpenaren igoera eskatzen ahal du, kalkulu-oinarria aldatu eta igoera onargarria bada. Igoera inbertsio-kostuen ondorioz gertatu bada, kostu hauek beharrezkoak diren eta diru-laguntza publikorik ez duten aztertuko da (1. atala).

Prezioa igotzeko derrigorrezkoa da egoiliarren oniritzia. 1. atalean zehaztutako baldintzak betetzen badira, hitzarmenetan zehaztu ahalko da igoerak ez duela erabiltzaileen oniritziaren beharrik izanen (2. atala).

Diru-ekarpenaren igoera baliozkoa izanen da, baldin eta egoiliarrei igoerak indarra hartu baino gehienez ere lau asteko epean jakinarazten bazaie. Jakinarazpena idatziz eta kostuen igoera justifikatuz eginen da (3. atala).

Igoera Mendekotasun Aseguruaren erabiltzaileendako baliozkoa izanen da, baldin eta igoera mendekotasun aseguruan ezarritakoarekin bat badator. Horretaz gainera, entitate titularra behartuta dago partaidetza kontseiluko ordezkariari entzun, hala nola, behar ekonomikoari eta tarifaren igoeraren egokitzapenari buruzko agiri ulergarriak aurkeztera. Hau egin beharko du Zerbitzuaren eta horren kalitatearen, hala nola, tarifen hitzarmenen negoziatioari ekin baino lehen. Era berean, partaidetza kontseiluko ordezkariak honi buruzko iritzia idatziz emateko aukera izanen dute. Txosten hau entitateak finantza-erakundeei aipatutako hitzarmenen negoziatioari ekin baino lehen aurkeztu behar dizkien agirien zati izanen da. Zahar-etxeetako entitate titularrek hala eskatuta, partaidetza kontseiluko ordezkariak delako negoziatioetan parte hartu beharko dute (4. atala).

Egoiliarren diru-laguntza jasotzen badute, Alemaniako Gizarte Laguntzari buruzko Legeari jarraiki (Bundessozialhilfegesetz), diru-

ekarpenaren igoera baliozkoa izanen da, baldin eta igoera Lege honetan ezarritakoarekin bat etortzen bada. Zahar-etxeetako entitate titularrek hala eskatuta, partaidetza kontseiluko ordezkariak zerbitzuaren prestazioari, tarifei eta egiaztapenei buruzko hitzarmenen inguruko negoziazioetan parte hartu beharko dute (5. atala).

8. artikuluan hitzarmenen iraupena zehazten da. 9. artikuluan, multzo honetako azkenekoaren, arabera, baliorik gabe geratuko dira 5etik 8ra bitarteko artikuluetan ezarritakoa bete ez eta egoiliarren desabantaila eragiten duten hitzarmenak.

5. Erabiltzaileen partaidetza (10. art.)

Egoiliarrek Partaidetza Kontseiluaren bidez parte hartzen dute zahar-etxearen inguruko gaitan. Artikulu honetan gai hauek aipatzen dira zehazki: ostatu-hartzea, arreta, zahar-etxeen baldintzak, barne-araudia, elikadura eta aisiaren antolaketa. Honekin bat, lankidetzak aipatzen da laguntzaren behar bezalako kalitatearen segurtasunean, hala nola, 7. artikuluan 4. eta 5. atalen arabera, zahar-etxeen eta erakunde eskudunen arteko zerbitzuaren prestazioari, tarifei eta egiaztapenei buruzko hitzarmenetan. Partaidetza Kontseiluak bere eginkizunak bete eta eskubideak erabiltzeko, arloan adituak diren euren konfiantzazko pertsonen laguntza eskatzen ahal du (1. atala).

Organo ofizial eskudunak egoiliarrei eta Partaidetza Kontseiluari informazioa ematea sustatuko du, Partaidetza Kontseiluaren hautaketari, honen zereginei eta egoiliarren interesen ordezkapenari buruz (2. atala).

Partaidetza Kontseiluak egoiliarrek bilera batera gonbidatuko ditu urtean behin gutxienez; egoiliarrek konfiantzazko pertsona batekin joaten ahalko dira bilerara (3. atala).

Partaidetza Kontseilua eratzen ez den bitartean, zahar-etxeko delegatu bat izendatu beharko da, ohorezko kargua izan eta dohainik lan eginen duena (4. atala).

Artikulu honetatik Egoiliarren partaidetzari buruzko Dekretu bat eratortzen da (5. atala).

6. Zahar-etxeetako funtzionamenduari buruzko betekizunak (11.-14. art.ak)

11. artikuluak zahar-etxeetako kudeaketari buruzko hainbat baldintza zehazten ditu. Jarraian adieraziko ditugu horietako batzuk. 1. atalean, esaterako, ezartzen da zahar-etxeak gobernatuko direla baldin eta:

1. Entitateak eta gerenteak egoiliarren duintasuna, interesak eta beharrak babestu, eta euren askatasuna, autodeterminazioa eta erantzukizuna defendatu eta sustatzen badituzte. (1., 2. zenbakiak).
2. Era berean, minusbaliatuen laguntza sozial eta pedagogikoa, eta mendekotasun egoeran diren pertsonen laguntza gizatiarra eta eraginkorra bermatu behar dituzte (2. zenbakia).
3. Entitatearen zein gerentziaren betebeharra da egoiliarren arretaren eta egonaldiaren behar bezalako kalitatea bermatzea (3., 6. zenbakiak).
4. Laguntza-planak diseinatu eta horien praktikan jartzea dokumentatu beharko da (7. zenbakia).
5. Sendagaiak egoiliarrekiko erlazioa mantenduz eta indarreko araudiak betez gordeko dira. Zuzeneko arretako langileek sendagaiak erabiltzeko aholkuak jasoko dituzte urtean behin gutxienez (10. zenbakia).

10. artikuluaren 2. atalean ezartzen da zahar-etxeak gobernatzen ahalko direla, baldin eta entitateak arrazoizko ordainketa eskatu, eta kalitatearen kudeaketaz arduratzen bada (2. atala, 3. zenbakia).

12. artikuluan, zahar-etxea abian jarri baino lehen Organo ofizial eskudunean aurkeztu beharreko datuak zehazten dira.

13. artikulua entitate titularrei behartzen die zahar-etxeen funtzionamenduari buruzko alderdi zehatzak erregistratu, hala nola, kalitatea eta honen emaitzak bermatu eta garatzeko neurriak dokumentatzera (1. atala, eta 1. ataleko 8. zenbakia).

Familia, Adineko pertsona, Emakume eta Gazteriarendako Ministerioak, Lan eta Gizarte Gaietako, eta Osasun Ministerioekin bat, dekretu bidez ezartzen dituzte era zehatzagoan 1. atalean aipatutako betebeharrak (3. atala).

14. artikuluan, entitate titularrari debekatzen zaio egoiliarrengandik zein egoiliarren onerako diru-laguntzarik edo moneta-balorerik jasotzea. Horrekin bat, zahar-etxeei laguntza jakinak onartzea ahalbidetzen dieten hainbat salbuespen eta hori kudeatzeko arauak ezartzen dira.

7. Zahar-etxeen ikuskapena eta aholkularitza, hutsuneak daudenean (. 15.- 19. art.ak)

15. artikulua zahar-etxeen ikuskapena arautzen du. Honen arabera, ikuskapenak edozein unetan egiten ahal dira, baita alde zuzen jakinarazi gabe ere. Ikuskapenak gauz egiten ahalko dira, baldin eta ikuskatu beharrekoa beste orduren batean ikuskatu ezin bada. Zahar-etxeek Lege honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten ikuskatu da. Entitateek 13. artikuluan eskatutako erregistroak aurkeztu beharko dituzte (1. atala).

Ikuskariei emaniko baimenak ere zehazten dira; hona horietako batzuk: egoiliarrekin eta Partaidetza Kontseiluarekin harremanetan jartzea, langileak elkarrizketatzea eta mendekotasun egoeran diren egoiliarren egoera aztertzea, betiere euren baimena badute (2. atala).

Organo ofizial eskudunak gutxienez ikuskapen bat egin beharko du urtero. Denbora-tartea handiago izan daiteke, baldin eta Gizarte Segurantzako Kutxetako medikuntza zerbitzuko ikuskapenen edo Mendekotasun Aseguruaren Kutxek izendatutako adituen ziurtagirien bidez egiaztatzen bada zahar-etxeak eskatutako betekizunak betetzen dituela.

Hutsuneak antzeman badira, Organo ofizial eskudunak zahar-etxearen entitate titularrari aholkatuko dio horiek estaltzeko dituen aukerei buruz (16. artikulua, 1. atala).

17. artikulua ezartzen du xedapenak promulgatzen ahal direla, egoiliarren ongizaterako kalteak edo arriskuak deuseztatzeko, entitateak erabiltzaileekiko dituen betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, eta erabiltzaileen diru-ekarpenen eta emaniko zerbitzuen arteko desegokitasunak saihesteko (1. atala).

18. artikulua arabera, gerentearen edo langileen lanaren jarraipena eten ahalko da, guztiz edo jarduera eta eginkizun batzuetarako bakarrik, baldin eta beharrezko gaitasuna ez dutela egiaztatzen duten gertakariak antzeman badira.

19. artikulua arabera, zahar-etxearen funtzionamendua bertan behera geratuko da, baldin eta Lege honen artikuluetan eta ataletan jasotzen diren arauak hausten badira, besteak beste, 11. artikuluan ezarritako funtzionamendu-betekizunak betetzen ez badira.

8. Bestelako instituzioekiko lankidetzak (20. art.)

Organo ofizial eskuduna Mendekotasun Aseguruaren Kutxekin, bere Estatu Elkarrekin, Eritasun Aseguruaren Kutxetako Medikuntza Zerbitzuarekin, eta Gizarte Laguntzako Departamentuekin elkarlanean arituko da, egoiliarren interesak eta beharrak babesteko, eta egonaldiaren eta arretaren, hala nola,

ikuskapenaren kalitatea bermatzeko. Erakunde hauek informazioa elkartrukatu, euren ikuskapen jarduerak koordinatu, eta kalitatea bermatu eta hutsuneak estaltzeko neurriei buruzko hitzarmenak lortu beharko dituzte (1. atala).

Helburu honetarako, Organo ofizial eskudunaren lehendakaritza eta gerentziaren menpeko Lan Taldeak eratuko dira (5. atala).

9. Arau-haustek eta aurkeztu beharreko txostenak (21., 22. art.ak)

21. artikuluan, Lege honen artikuluetan eta ataletan jasotzen diren arauen arau-haustek zehazten dira. Honekin bat, arau-hauste hauetatik eratorritako zigorrak ezartzen dira.

22. artikulua arabera, Familia, Adineko pertsona, Emakume eta Gazteriarendako Ministerioak gorputz legegileei zahar-etxeen eta egoiliarren arretaren egoera jakinaraziko die, lau urtean behin, 2004. urtetik aitzina (1. atala).

Familia, Adineko pertsona, Emakume eta Gazteriarendako Ministerioak hala eskatuta, Organo ofizial eskudunek, Lege honetan ezarritakoaren arabera, beren betebeharrak gauzatzeko ezagutu beharreko gertakariei buruzko informazioa emanen dute (2. atala).

Ikuskapeneko organo ofizialek argitara emanen den memoria bat egingen dute bi urtean behin (3. atala).

10. Bestelako arautzeak (23.- 26. art.ak)

23. artikulua Lege honek ezarritakoa gauzatzeko eskuduntzak arautzen ditu. Horretarako, estatuko gobernuek (Länder-retan) organo ofizial eskudunak ezarriko dituzte. Izendatuek jarduera hauei egokitutako nortasuna eta heziketa edo lan-esperientzia izan beharko dute. Estatuko gobernuek organo ofizial eskudunen eginkizun hauen betetzea interes kontrajartzearen ondorioz kalterik edo arriskurik ez izatea bermatuko dute.

Lege honen aplikazio eremuaren menpeko eta era komertzialean gobernatutako zahar-etxeek araudi industrialia bete beharko dute (24. art.).

25. artikuluan, araudi industrialetik eratorritako dekretuen indarraldia zehazten da, Lege honen 3. eta 13. artikuluetatik eratorritako dekretuak indarrean sartu arte.

25.a artikuluan, Organo ofizial eskudunak, entitate titularrek hala eskatuta, onartzen ahal dituen 10. artikuluan egoiliarren partaidetzari buruz zehaztutako betekizunen eta 3. artikulutik eratorritako dekretuen inguruko salbuespenak ezartzen dira.

26. artikuluan, Lege honen 2002. urteko aldaketak indarra hartu baino lehen sinatutako zahar-etxeetako hitzarmenen baliozkotasun eta egokitzapenari buruzko arau iragankorrak, bereziki, jasotzen ditu (1. eta 2. atalak).

3. ERANSKINA
NAFARROAKO ADINEKOEN EZAUGARRIAK.

TAULAK

Kapitulu honetako informazioa Biztanleen eta Etxebizitzen Zentsutik (2001) eta Nafarroako Biztanleen Bizi Baldintzen gaineko inkestatik (2001 eta 2003) bildu dugu batik bat. 2003ko urtarrilaren 1ean berrikusitako Erroldaren datuak eta Estatistikako Institutu Nazionalak egini-ko Espainiako Biztanleen Proiekzioak ere erabili ditugu.

86. TAULA. NAFARROAKO ETA ESPAINIAKO POPULAZIOA ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2003)

	NAFARROA			ESPAINIA		
	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak		Gizonak	Emakumeak
Guztira	578.210	288.991	289.219	42.717.064	21.034.326	21.682.738
0 a 4 urte	2.7160	14.005	13.155	1.901.859	979.748	922.111
5 a 9 urte	2.5947	13.302	12.645	1.967.866	1.008.889	958.977
10 a 14 urte	2.6259	13.624	12.635	2.173.754	1.116.646	1.057.108
15 a 19 urte	2.8972	15.094	13.878	2.444.387	1.254.415	1.189.972
20 a 24 urte	4.0547	20.843	19.704	3.202.594	1.642.044	1.560.550
25 a 29 urte	4.9975	26.103	23.872	3.739.772	1.926.047	1.813.725
30 a 34 urte	4.9917	26.362	23.555	3.631.764	1.866.097	1.765.667
35 a 39 urte	4.8405	25.254	23.151	3.543.043	1.800.981	1.742.062
40 a 44 urte	4.3945	22.710	21.235	3.231.439	1.627.803	1.603.636
45 a 49 urte	3.8985	19.922	19.063	2.801.243	1.401.726	1.399.517
50 a 54 urte	3.5981	18.243	17.738	2.553.834	1.270.029	1.283.805
55 a 59 urte	3.3432	16.817	16.615	2.368.915	1.162.092	1.206.823
60 a 64 urte	2.5485	12.668	12.817	1.879.974	907.536	972.438
65 a 69 urte	2.6953	13.006	13.947	2.084.403	975.471	1.108.932
70 a 74 urte	2.6269	12.087	14.182	1.931.919	868.467	1.063.452
75 a 79 urte	2.1983	9.418	12.565	1.503.454	629.464	873.990
80 a 84 años	1.5352	5.799	9.553	978.020	362.050	615.970
85 eta gehiago	1.2643	3.734	8.909	778.824	234.821	544.003

Iturria: Biztanleen errolda. 2003ko urtarrilaren 1ean berrikusia (EIN).

87. TAULA. NAFARROAKO ETA ESPAINIAKO POPULAZIOA ADIN-TARTE ETA SEXUAREN ARABERA (2003)

	NAFARROA			ESPAINIA		
	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak		Gizonak	Emakumeak
Guztira	578.210	288.991	289.219	42.717.064	21.034.326	21.682.738
0/14 urte	79.366	40.931	38.435	6.043.479	3.105.283	2.938.196
15/44 urte	261.761	136.366	125.395	19.792.999	10.117.387	9.675.612
45/64 urte	133.883	67.650	66.233	9.603.966	4.741.383	4.862.583
65 eta gehiago	103.200	44.044	59.156	7.276.620	3.070.273	4.206.347

Iturria: Biztanleen errolda. 2003ko urtarrilaren 1ean berrikusia (EIN), eta elaborazio propioa.

88. TAULA. NAFARROAKO ETA ESPAINIAKO POPULAZIOAREN PROPORTZIO-BANAKETA ADIN-TARTE ETA SEXUAREN ARABERA (2003)

	NAFARROA			ESPAINIA		
	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak		Gizonak	Emakumeak
Guztira	100,00	49,98	50,02	100,00	49,24	50,76
0 a 14 urte	100,00	51,57	48,43	100,00	51,38	48,62
15 a 44 urte	100,00	52,10	47,90	100,00	51,12	48,88
45 a 64 urte	100,00	50,53	49,47	100,00	49,37	50,63
65 eta gehiago	100,00	42,68	57,32	100,00	42,19	57,81

Iturria: Biztanleen errolda. 2003ko urtarrilaren 1ean berrikusia (EIN), eta elaborazio propioa.

89. TAULA. NAFARROAKO BIZTANLEEN BILAKAERA ADIN-TALDEEN ARABERA (1915-2003)

	Adin-tarteak				
	0-14	15-44	45-64	65 eta gehiago	Guztira
1975eko ERROLDA	25,92	41,45	21,63	11,00	100,00
1981eko ZENTSUA	23,97	42,04	22,01	11,98	100,00
1986ko ERROLDA	20,85	43,96	21,88	13,31	100,00
1991ko ZENTSUA	17,35	45,25	22,04	15,36	100,00
1996ko ERROLDA	14,29	45,53	22,80	17,38	100,00
2001eko ZENTSUA	13,72	45,20	22,98	18,10	100,00
02/01/01ean	13,41	45,69	22,87	18,03	100,00
03/01/01ean	13,73	45,27	23,15	17,85	100,00

Iturria: Homogeneizatutako zentsuak eta erroldak (EIN eta NEI), eta elaborazio propioa.

90. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2003)

	NAFARROA			NAFARROA (%tan)		
	Guztira	Sexua		Guztira	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak		Gizonak	Emakumeak
65 a 69 urte	26.953	13.006	13.947	100,00	48,25	51,75
70 a 74 urte	26.269	12.087	14.182	100,00	46,01	53,99
75 a 79 urte	21.983	9.418	12.565	100,00	42,84	57,16
80 a 84 urte	15.352	5.799	9.553	100,00	37,77	62,23
85 eta gehiago	12.643	3.734	8.909	100,00	29,53	70,47
Guztira	103.200	44.044	59.156	100,00	42,68	57,32

Iturria: Biztanleen errolda, 2003ko urtarrilaren 1ean berrikusia (EIN), eta elaborazio propioa.

91. TAULA. ADINEKO PERTSONAK GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI, ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

	Adin-tarteak					
	65-69	70-74	75-79	80-84	85 eta gehiago	Guztira
Ipar-mendebaldea	2.843	2.663	2.116	1.352	1.110	10.084
Ipar-ekialdea	1.234	1.259	1.231	813	669	5.206
Lizarra	3.872	4.031	3.510	2.197	1.844	15.454
Iruñerria	3.446	2.687	2.028	1.364	1.164	10.689
Tafalla	2.393	2.519	2.073	1.385	1.147	9.517
Erribera	4.469	4.262	3.816	2.467	1.813	16.827
Iruñea	9.450	8.263	6.710	4.409	3.899	32.731
Guztira	27.707	25.684	21.484	13.987	11.646	100.508

GIZONAK

Ipar-mendebaldea	1.471	1.319	943	522	336	4.591
Ipar-ekialdea	623	624	569	349	229	2.394
Lizarra	1.918	1.918	1.551	876	539	6.802
Iruñerria	1.698	1.281	868	498	339	4.684
Tafalla	1.138	1.166	900	534	366	4.104
Erribera	2.138	1.905	1.677	956	566	7.242
Iruñea	4.353	3.544	2.621	1.509	1.090	13.117
Gizonak guztira	13.339	11.757	9.129	5.244	3.465	42.934

EMAKUMEAK

Ipar-mendebaldea	1.372	1.344	1.173	830	774	5.493
Ipar-ekialdea	611	635	662	464	440	2.812
Lizarra	1.954	2.113	1.959	1.321	1.305	8.652
Iruñerria	1.748	1.406	1.160	866	825	6.005
Tafalla	1.255	1.353	1.173	851	781	5.413
Erribera	2.331	2.357	2.139	1.511	1.247	9.585
Iruñea	5.097	4.719	4.089	2.900	2.809	19.614
Emakumeak guztira	14.368	13.927	12.355	8.743	8.181	57.574

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

92. TAULA. ADINEKO PERTSONAK GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI, ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

Adin-tarteak

	65-69	70-74	75-79	80-84	85 eta gehiago	Guztira
Ipar-mendebaldea	2,83	2,65	2,11	1,35	1,10	10,03
Ipar-ekialdea	1,23	1,25	1,22	0,81	0,67	5,18
Lizarra	3,85	4,01	3,49	2,19	1,83	15,38
Iruñerria	3,43	2,67	2,02	1,36	1,16	10,63
Tafalla	2,38	2,51	2,06	1,38	1,14	9,47
Erribera	4,45	4,24	3,80	2,45	1,80	16,74
Iruñea	9,40	8,22	6,68	4,39	3,88	32,57
Guztira	27,57	25,55	21,38	13,92	11,59	100,00

GIZONAK

Ipar-mendebaldea	1,46	1,31	0,94	0,52	0,33	4,57
Ipar-ekialdea	0,62	0,62	0,57	0,35	0,23	2,38
Lizarra	1,91	1,91	1,54	0,87	0,54	6,77
Iruñerria	1,69	1,27	0,86	0,50	0,34	4,66
Tafalla	1,13	1,16	0,90	0,53	0,36	4,08
Erribera	2,13	1,90	1,67	0,95	0,56	7,21
Iruñea	4,33	3,53	2,61	1,50	1,08	13,05
Gizonak guztira	13,27	11,70	9,08	5,22	3,45	42,72

EMAKUMEAK

Ipar-mendebaldea	1,37	1,34	1,17	0,83	0,77	5,47
Ipar-ekialdea	0,61	0,63	0,66	0,46	0,44	2,80
Lizarra	1,94	2,10	1,95	1,31	1,30	8,61
Iruñerria	1,74	1,40	1,15	0,86	0,82	5,97
Tafalla	1,25	1,35	1,17	0,85	0,78	5,39
Erribera	2,32	2,35	2,13	1,50	1,24	9,54
Iruñea	5,07	4,70	4,07	2,89	2,79	19,51
Emakumeak guztira	14,30	13,86	12,29	8,70	8,14	57,28

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

93. TAULA. ADINEKO PERTSONAK GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI,
ADIN ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

Adin-tarteak

	65-69	70-74	75-79	80-84	85 eta gehiago	Guztira
Ipar-mendebaldea	10,26	10,37	9,85	9,67	9,53	10,03
Ipar-ekialdea	4,45	4,90	5,73	5,81	5,74	5,18
Lizarra	13,97	15,69	16,34	15,71	15,83	15,38
Iruñerria	12,44	10,46	9,44	9,75	9,99	10,63
Tafalla	8,64	9,81	9,65	9,90	9,85	9,47
Erribera	16,13	16,59	17,76	17,64	15,57	16,74
Iruñea	34,11	32,17	31,23	31,52	33,48	32,57
Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

GIZONAK

Ipar-mendebaldea	11,03	11,22	10,33	9,95	9,70	10,69
Ipar-ekialdea	4,67	5,31	6,23	6,66	6,61	5,58
Lizarra	14,38	16,31	16,99	16,70	15,56	15,84
Iruñerria	12,73	10,90	9,51	9,50	9,78	10,91
Tafalla	8,53	9,92	9,86	10,18	10,56	9,56
Erribera	16,03	16,20	18,37	18,23	16,33	16,87
Iruñea	32,63	30,14	28,71	28,78	31,46	30,55
Gizonak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

EMAKUMEAK

Ipar-mendebaldea	9,55	9,65	9,49	9,49	9,46	9,54
Ipar-ekialdea	4,25	4,56	5,36	5,31	5,38	4,88
Lizarra	13,60	15,17	15,86	15,11	15,95	15,03
Iruñerria	12,17	10,10	9,39	9,91	10,08	10,43
Tafalla	8,73	9,71	9,49	9,73	9,55	9,40
Erribera	16,22	16,92	17,31	17,28	15,24	16,65
Iruñea	35,47	33,88	33,10	33,17	34,34	34,07
Emakumeak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

94. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO PERTSONAK OSASUNEO OINARRIZKO UNITATE ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

	Sexua			Sexua (%otan)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Altsasu	761	1000	1.761	0,76	0,99	1,75
Allo	744	894	1.638	0,74	0,89	1,63
Antzin-Ameskoa	598	720	1.318	0,59	0,72	1,31
Agoitz	350	413	763	0,35	0,41	0,76
Los Arcos	457	565	1.022	0,45	0,56	1,02
Artaxoa	583	717	1.300	0,58	0,71	1,29
Auritz	409	432	841	0,41	0,43	0,84
Barañain	604	920	1.524	0,60	0,92	1,52
Berriozar	631	783	1.414	0,63	0,78	1,41
Buñuel	1.245	1483	2.728	1,24	1,48	2,71
Burlata	991	1315	2.306	0,99	1,31	2,29
Zarrakaztelu	567	716	1.283	0,56	0,71	1,28
Cascante	1.048	1333	2.381	1,04	1,33	2,37
Cintruénigo	740	997	1.737	0,74	0,99	1,73
Corella	929	1223	2.152	0,92	1,22	2,14
Doneztebe	441	502	943	0,44	0,50	0,94
Elizondo	781	1079	1.860	0,78	1,07	1,85
Lizarra	1.079	1573	2.652	1,07	1,57	2,64
Étxarri Aranatz	603	663	1.266	0,60	0,66	1,26
Uhartea	440	533	973	0,44	0,53	0,97
Irurtzun	599	637	1.236	0,60	0,63	1,23
Ízaba	242	249	491	0,24	0,25	0,49
Leitza	343	358	701	0,34	0,36	0,70
Lesaka	703	850	1.553	0,70	0,85	1,55
Lodosa	409	561	970	0,41	0,56	0,97
Mendabia	816	964	1.780	0,81	0,96	1,77
Noain	649	730	1.379	0,65	0,73	1,37
Erriberri	823	1.121	1.944	0,82	1,12	1,93
Orkoien	304	348	652	0,30	0,35	0,65
Azkoien	1.114	1.460	2.574	1,11	1,45	2,56
Gares	641	777	1.418	0,64	0,77	1,41
Zaraitzu	270	317	587	0,27	0,32	0,58
San Adrián	1.085	1.474	2.559	1,08	1,47	2,55
Zangoza	1.123	1.401	2.524	1,12	1,39	2,51
Tafalla	1.017	1.399	2.416	1,01	1,39	2,40
Tutera	2.006	2925	4.931	2,00	2,91	4,91
Ultzama	360	404	764	0,36	0,40	0,76
Valtierra	1.274	1.624	2.898	1,27	1,62	2,88
Viana	439	507	946	0,44	0,50	0,94
Villatuerta	534	617	1.151	0,53	0,61	1,15
Atarrabia	525	694	1.219	0,52	0,69	1,21
Zizur	297	412	709	0,30	0,41	0,71
Aranquiren	133	151	284	0,13	0,15	0,28
Égues	110	119	229	0,11	0,12	0,23
Iruña	13.117	19.614	32.731	13,05	19,51	32,57
Guztira	42.934	57.574	100.508	42,72	57,28	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

95. TAULA. ADINEKO PERTSONAK OSASUNeko OINARRIZKO UNITATE ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

	Sexua			Sexua (%tan)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Altsasu	761	1000	1.761	43,21	56,79	100,00
Allo	744	894	1.638	45,42	54,58	100,00
Antzin-Ameskoa	598	720	1.318	45,37	54,63	100,00
Agoitz	350	413	763	45,87	54,13	100,00
Los Arcos	457	565	1.022	44,72	55,28	100,00
Artaxoa	583	717	1.300	44,85	55,15	100,00
Auritz	409	432	841	48,63	51,37	100,00
Barañain	604	920	1.524	39,63	60,37	100,00
Berriozar	631	783	1.414	44,63	55,37	100,00
Buñuel	1.245	1483	2.728	45,64	54,36	100,00
Burlata	991	1315	2.306	42,97	57,03	100,00
Zarakaztelu	567	716	1.283	44,19	55,81	100,00
Cascante	1.048	1333	2.381	44,02	55,98	100,00
Cintruénigo	740	997	1.737	42,60	57,40	100,00
Corella	929	1223	2.152	43,17	56,83	100,00
Doneztebe	441	502	943	46,77	53,23	100,00
Elizondo	781	1079	1.860	41,99	58,01	100,00
Lizarra	1.079	1573	2.652	40,69	59,31	100,00
Etzarri Aranatz	603	663	1.266	47,63	52,37	100,00
Uharte	440	533	973	45,22	54,78	100,00
Irurtzun	599	637	1.236	48,46	51,54	100,00
Izaba	242	249	491	49,29	50,71	100,00
Leitza	343	358	701	48,93	51,07	100,00
Lesaka	703	850	1.553	45,27	54,73	100,00
Lodosa	409	561	970	42,16	57,84	100,00
Mendabia	816	964	1.780	45,84	54,16	100,00
Noain	649	730	1.379	47,06	52,94	100,00
Erriberri	823	1121	1.944	42,34	57,66	100,00
Orkoien	304	348	652	46,63	53,37	100,00
Azkoien	1.114	1460	2.574	43,28	56,72	100,00
Gares	641	777	1.418	45,20	54,80	100,00
Zaraitzu	270	317	587	46,00	54,00	100,00
San Adrián	1.085	1474	2.559	42,40	57,60	100,00
Zangoza	1.123	1401	2.524	44,49	55,51	100,00
Tafalla	1.017	1399	2.416	42,09	57,91	100,00
Tutera	2.006	2925	4.931	40,68	59,32	100,00
Ultzama	360	404	764	47,12	52,88	100,00
Valtierra	1.274	1624	2.898	43,96	56,04	100,00
Viana	439	507	946	46,41	53,59	100,00
Villatuerta	534	617	1.151	46,39	53,61	100,00
Atarrabia	525	694	1.219	43,07	56,93	100,00
Zizur	297	412	709	41,89	58,11	100,00
Aranquren	133	151	284	46,83	53,17	100,00
Egues	110	119	229	48,03	51,97	100,00
Iruña	13.117	19614	32.731	40,08	59,92	100,00
Guztira	42.934	57574	100.508	42,72	57,28	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

96. TAULA. ADINEKO PERTSONAK OSASUNeko OINARRIZKO UNITATE ETA ADIN-TARTEEN ARABERA (2001)

	Adin-tarteak					Guztira
	65 - 69	70 - 74	75 - 79	80 - 84	85 eta gehiago	
Altsasu	532	473	384	201	171	1.761
Allo	364	446	394	246	188	1.638
Antzin-Ameskoa	325	342	284	183	184	1.318
Agoitz	171	175	194	118	105	763
Los Arcos	249	283	250	139	101	1.022
Artaxoa	313	338	287	203	159	1.300
Auritz	194	215	165	139	128	841
Barañain	534	365	275	185	165	1.524
Berriozar	482	360	275	168	129	1.414
Buñuel	780	713	614	385	236	2.728
Burlata	769	572	423	292	250	2.306
Zarrakaztelu	342	311	297	204	129	1.283
Cascante	658	581	545	331	266	2.381
Cintruénigo	436	415	371	276	239	1.737
Corella	522	584	523	286	237	2.152
Doneztebe	256	254	186	136	111	943
Elizondo	477	467	392	267	257	1.860
Lizarra	696	675	579	366	336	2.652
Etxarri Aranatz	371	350	257	166	122	1.266
Uhartea	285	273	192	134	89	973
Irurtzun	348	341	283	147	117	1.236
Izaba	121	123	108	84	55	491
Leitza	216	195	137	95	58	701
Lesaka	445	371	328	235	174	1.553
Lodosa	252	244	214	151	109	970
Mendabia	475	470	381	247	207	1.780
Noain	498	361	220	169	131	1.379
Erriberri	481	505	440	267	251	1.944
Orkoien	180	141	142	92	97	652
Azkoien	604	749	551	364	306	2.574
Gares	362	351	297	228	180	1.418
Zaraitzu	135	140	154	81	77	587
San Adrián	636	644	628	361	290	2.559
Zangoza	613	606	610	391	304	2.524
Tafalla	653	616	498	347	302	2.416
Tutera	1.332	1.233	1.094	741	531	4.931
Ultzama	198	212	149	105	100	764
Valtierra	741	736	669	448	304	2.898
Viana	248	254	205	126	113	946
Villatuerta	265	322	278	150	136	1.151
Atarrabia	344	308	258	168	141	1.219
Zizur	195	171	148	93	102	709
Aranuren	92	72	47	36	37	284
Egues	67	64	48	27	23	229
Iruña	9.450	8.263	6.710	4.409	3.899	32.731
Guztira	27.707	25.684	21.484	13.987	11.646	100.508

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

97. TAULA. ADINEKO PERTSONAK OSASUNEKO OINARRIZKO UNITATE ETA ADIN-TARTEEN ARABERA (2001)

	Adin-tarteak					Guztira
	65 - 69	70 - 74	75 - 79	80 - 84	85 eta gehiago	
Altsasu	30,21	26,86	21,81	11,41	9,71	100
Allo	22,22	27,23	24,05	15,02	11,48	100
Antzin-Ameskoa	24,66	25,95	21,55	13,88	13,96	100
Agoitz	22,41	22,94	25,43	15,47	13,76	100
Los Arcos	24,36	27,69	24,46	13,60	9,88	100
Artaxoa	24,08	26,00	22,08	15,62	12,23	100
Auritz	23,07	25,56	19,62	16,53	15,22	100
Barañain	35,04	23,95	18,04	12,14	10,83	100
Berriozar	34,09	25,46	19,45	11,88	9,12	100
Buñuel	28,59	26,14	22,51	14,11	8,65	100
Burlata	33,35	24,80	18,34	12,66	10,84	100
Zarrakaztelu	26,66	24,24	23,15	15,90	10,05	100
Cascante	27,64	24,40	22,89	13,90	11,17	100
Cintruénigo	25,10	23,89	21,36	15,89	13,76	100
Corella	24,26	27,14	24,30	13,29	11,01	100
Doneztebe	27,15	26,94	19,72	14,42	11,77	100
Elizondo	25,65	25,11	21,08	14,35	13,82	100
Lizarra	26,24	25,45	21,83	13,80	12,67	100
Etzarri Aranatz	29,30	27,65	20,30	13,11	9,64	100
Uharte	29,29	28,06	19,73	13,77	9,15	100
Irurtzun	28,16	27,59	22,90	11,89	9,47	100
Izaba	24,64	25,05	22,00	17,11	11,20	100
Leitza	30,81	27,82	19,54	13,55	8,27	100
Lesaka	28,65	23,89	21,12	15,13	11,20	100
Lodosa	25,98	25,15	22,06	15,57	11,24	100
Mendabia	26,69	26,40	21,4	13,88	11,63	100
Noain	36,11	26,18	15,95	12,26	9,50	100
Erriberri	24,74	25,98	22,63	13,73	12,91	100
Orkoien	27,61	21,63	21,78	14,11	14,88	100
Azkoien	23,47	29,1	21,41	14,14	11,89	100
Gares	25,53	24,75	20,94	16,08	12,69	100
Zaraitzu	23,00	23,85	26,24	13,80	13,12	100
San Adrián	24,85	25,17	24,54	14,11	11,33	100
Zangoza	24,29	24,01	24,17	15,49	12,04	100
Tafalla	27,03	25,5	20,61	14,36	12,5	100
Tutera	27,01	25,01	22,19	15,03	10,77	100
Ultzama	25,92	27,75	19,50	13,74	13,09	100
Valtierra	25,57	25,40	23,08	15,46	10,49	100
Viana	26,22	26,85	21,67	13,32	11,95	100
Villatuerta	23,02	27,98	24,15	13,03	11,82	100
Atarrabia	28,22	25,27	21,16	13,78	11,57	100
Zizur	27,50	24,12	20,87	13,12	14,39	100
Aranquren	32,39	25,35	16,55	12,68	13,03	100
Egues	29,26	27,95	20,96	11,79	10,04	100
Iruña	28,87	25,25	20,50	13,47	11,91	100
Guztira	27,57	25,55	21,38	13,92	11,59	100

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

98. TAULA. ADINEKO EMAKUMEAK OINARRIZKO UNITATE ETA ADIN-TARTEEN ARABERA (2001)

	Adin-tarteak					Guztira
	65 - 69	70 - 74	75 - 79	80 - 84	85 eta gehiago	
Altsasu	271	262	217	121	129	1.000
Allo	175	239	207	146	127	894
Antzin-Ameskoa	148	172	159	114	127	720
Agoitz	90	91	89	68	75	413
Los Arcos	130	151	135	79	70	565
Artaxoa	150	184	159	114	110	717
Auritz	80	91	100	78	83	432
Barañain	283	218	163	133	123	920
Berriozar	240	185	159	112	87	783
Buñuel	399	395	325	220	144	1.483
Burlata	389	308	247	184	187	1.315
Zarakaztelu	175	151	177	128	85	716
Cascante	315	316	308	200	194	1.333
Cintruénigo	232	222	211	169	163	997
Corella	286	314	283	181	159	1.223
Doneztebe	109	126	96	91	80	502
Elizondo	241	253	229	175	181	1.079
Lizarra	379	365	348	229	252	1.573
Etxarri Aranatz	183	152	145	105	78	663
Uharte	152	133	113	77	58	533
Irurtzun	152	167	150	84	84	637
Izaba	56	53	61	50	29	249
Leitza	94	97	71	57	39	358
Lesaka	230	185	181	139	115	850
Lodosa	129	134	132	92	74	561
Mendabia	231	246	204	135	148	964
Noain	241	186	113	101	89	730
Erriberri	257	272	250	170	172	1.121
Orkoien	95	66	74	50	63	348
Azkoien	331	400	298	218	213	1.460
Gares	159	186	154	147	131	777
Zaraitzu	67	69	77	53	51	317
San Adrián	345	336	374	222	197	1.474
Zangoza	318	331	335	215	202	1.401
Tafalla	342	346	289	221	201	1.399
Tutera	715	721	639	457	393	2.925
Ultzama	92	102	84	58	68	404
Valtierra	384	389	373	284	194	1.624
Viana	118	124	101	75	89	507
Villatuerta	140	160	145	82	90	617
Atarrabia	174	155	154	109	102	694
Zizur	107	93	82	59	71	412
Aranquren	40	36	25	23	27	151
Egues	27	26	30	18	18	119
Iruña	5.097	4.719	4.089	2.900	2.809	19.614
Emakumeak guztira	14.368	13.927	12.355	8.743	8.181	57.574

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

99. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO GIZONAK OINARRIZKO UNITATE ETA ADIN-TARTEEN ARABERA (2001)

	Adin-tarteak					Guztira
	65 - 69	70 - 74	75 - 79	80 - 84	85 eta gehiago	
Altsasu	261	211	167	80	42	761
Allo	189	207	187	100	61	744
Antzin-Ameskoa	177	170	125	69	57	598
Agoitz	81	84	105	50	30	350
Los Arcos	119	132	115	60	31	457
Artaxoa	163	154	128	89	49	583
Auritz	114	124	65	61	45	409
Barañain	251	147	112	52	42	604
Berriozar	242	175	116	56	42	631
Buñuel	381	318	289	165	92	1.245
Burlata	380	264	176	108	63	991
Zarrakaztelu	167	160	120	76	44	567
Cascante	343	265	237	131	72	1.048
Cintruénigo	204	193	160	107	76	740
Corella	236	270	240	105	78	929
Doneztebe	147	128	90	45	31	441
Elizondo	236	214	163	92	76	781
Lizarra	317	310	231	137	84	1.079
Etzarri Aranatz	188	198	112	61	44	603
Uharte	133	140	79	57	31	440
Irurtzun	196	174	133	63	33	599
Izaba	65	70	47	34	26	242
Leitza	122	98	66	38	19	343
Lesaka	215	186	147	96	59	703
Lodosa	123	110	82	59	35	409
Mendabia	244	224	177	112	59	816
Noain	257	175	107	68	42	649
Erriberry	224	233	190	97	79	823
Orkoien	85	75	68	42	34	304
Azkoien	273	349	253	146	93	1.114
Gares	203	165	143	81	49	641
Zaraitzu	68	71	77	28	26	270
San Adrián	291	308	254	139	93	1.085
Zangoza	295	275	275	176	102	1.123
Tafalla	311	270	209	126	101	1.017
Tutera	617	512	455	284	138	2.006
Ultzama	106	110	65	47	32	360
Valtierra	357	347	296	164	110	1.274
Viana	130	130	104	51	24	439
Villatuerta	125	162	133	68	46	534
Atarrabia	170	153	104	59	39	525
Zizur	88	78	66	34	31	297
Aranquren	52	36	22	13	10	133
Egues	40	38	18	9	5	110
Iruña	4.353	3.544	2.621	1.509	1.090	13.117
Gizonak guztira	13.339	11.757	9.129	5.244	3.465	42.934

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

100. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO PERTSONAK OINARRIZKO UNITATE ETA ZAHARTZE-TASAREN ARABERA

	Gizonak	Emakumeak	Guztira 65 urte<	Zahartze- tasa	Biztanleak guztira
Los Arcos	457	565	1.022	36,40	2.808
Izaba	242	249	491	30,16	1.628
Allo	744	894	1.638	29,38	5.576
Antzin-Ameskoa	598	720	1.318	29,22	4.511
Zaraitzu	270	317	587	28,66	2.048
Auritz	409	432	841	27,02	3.112
Mendabia	816	964	1.780	26,90	6.618
Zangoza	1.123	1401	2.524	25,05	10.077
Erriberri	823	1121	1.944	24,93	7.799
Zarrakaztelu	567	716	1.283	24,81	5.172
Villatuerta	534	617	1.151	24,59	4.681
Valtierra	1.274	1624	2.898	24,40	11.878
Artaxoa	583	717	1.300	24,20	5.373
Agoitz	350	413	763	23,81	3.205
Viana	439	507	946	22,92	4.128
Elizondo	781	1079	1.860	22,87	8.134
Ultzama	360	404	764	22,86	3.342
Cascante	1.048	1333	2.381	22,54	10.562
Cintruéniqo	740	997	1.737	21,44	8.102
Gares	641	777	1.418	21,29	6.660
Lodosa	409	561	970	21,12	4.593
Corella	929	1223	2.152	20,80	10.347
Etxarri Aranatz	603	663	1.266	20,51	6.172
Azkoien	1.114	1460	2.574	20,17	12.759
Tafalla	1.017	1399	2.416	20,14	11.998
Buñuel	1.245	1483	2.728	20,13	13.550
San Adrián	1.085	1474	2.559	19,52	13.112
Altsasu	761	1000	1.761	19,16	9.192
Lesaka	703	850	1.553	18,93	8.204
Irurtzun	599	637	1.236	18,87	6.551
Lizarra	1.079	1573	2.652	18,23	14.547
Doneztebe	441	502	943	18,21	5.178
Uharte	440	533	973	18,17	5.354
Iruña	13.117	19614	32.731	17,79	183.964
Leitza	343	358	701	16,63	4.216
Tutera	2.006	2925	4.931	16,48	29.918
Orkoien	304	348	652	15,34	4.249
Noain	649	730	1.379	14,55	9.478
Burlata	991	1315	2.306	13,44	17.164
Atrarrabia	525	694	1.219	11,08	10.997
Berriozar	631	783	1.414	8,18	17.280
Barañain	604	920	1.524	7,25	21.021
Aranquren	133	151	284	7,01	4.050
Egues	110	119	229	6,71	3.413
Zizur	297	412	709	5,41	13.108
Guztira	42.934	57574	100.508	18,08	555.829

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

101. TAULA. ADINEKO PERTSONAK EGOERA ZIBIL ETA SEXUAREN ARABERA (2001)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ezkongabeak	5.534	6.575	12.109	13,35	12,13	12,66
Eskondutakoak	30.820	24.474	55.294	74,38	45,15	57,81
Alargunak	4.742	22.758	27.500	11,44	41,98	28,75
Banandutakoak	245	295	540	0,59	0,54	0,56
Dibortziatuak	97	108	205	0,23	0,20	0,21
Guztira	41.438	54.210	95.648	100,00	100,00	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001 (EIN), eta elaborazio propioa.

102. TAULA. ADINEKO PERTSONAK EGOERA ZIBIL, SEXU ETA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA (2001)

Guztira	Ezkongabeak	Eskondurakoak	Alargunak	Banandutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Ipar-mendebaldea	1.823	5.003	2.709	31	12	9.578
Ipar-ekialdea	1.064	2.598	1.295	15	6	4.978
Lizarrarria	2.005	8.669	4.158	66	24	14.922
Iruñerria	1.233	5.878	2.913	91	29	10.144
Tafalla	963	5.365	2.615	39	6	8.988
Erribera	1.289	9.934	4.644	75	42	15.984
Iruñea	3.732	17.847	9.166	223	86	31.054
Guztira	12.109	55.294	27.500	540	205	95.648

GIZONAK

Ipar-mendebaldea	1.110	2.894	437	19	5	4.465
Ipar-ekialdea	604	1.449	241	10	6	2.310
Lizarrarria	1.052	4.731	786	40	15	6.624
Iruñerria	619	3.377	550	41	14	4.601
Tafalla	445	2.921	501	19	4	3.890
Erribera	618	5.437	873	33	23	6.984
Iruñea	1.086	10.011	1.354	83	30	12.564
Gizonak guztira	5.534	30.820	4.742	245	97	41.438

EMAKUMEAK

Ipar-mendebaldea	713	2.109	2.272	12	7	5.113
Ipar-ekialdea	460	1.149	1.054	5	0	2.668
Lizarrarria	953	3.938	3.372	26	9	8.298
Iruñerria	614	2.501	2.363	50	15	5.543
Tafalla	518	2.444	2.114	20	2	5.098
Erribera	671	4.497	3.771	42	19	9.000
Iruñea	2.646	7.836	7.812	140	56	18.490
Emakumeak guztira	6.575	24.474	22.758	295	108	54.210

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001 (EIN), eta elaborazio propioa.

103. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO PERTSONAK EGOERA ZIBIL, SEXU ETA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA (2001)

Guztira	Eskongabeak	Eskondutakoak	Alargunak	Banandutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Ipar-mendebaldea	15,05	9,05	9,85	5,74	5,85	10,01
Ipar-ekialdea	8,79	4,70	4,71	2,78	2,93	5,20
Lizarra	16,56	15,68	15,12	12,22	11,71	15,60
Iruñerria	10,18	10,63	10,59	16,85	14,15	10,61
Tafalla	7,95	9,70	9,51	7,22	2,93	9,40
Erribera	10,64	17,97	16,89	13,89	20,49	16,71
Iruñea	30,82	32,28	33,33	41,30	41,95	32,47
Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

GIZONAK

Ipar-mendebaldea	20,06	9,39	9,22	7,76	5,15	10,78
Ipar-ekialdea	10,91	4,70	5,08	4,08	6,19	5,57
Lizarra	19,01	15,35	16,58	16,33	15,46	15,99
Iruñerria	11,19	10,96	11,60	16,73	14,43	11,10
Tafalla	8,04	9,48	10,57	7,76	4,12	9,39
Erribera	11,17	17,64	18,41	13,47	23,71	16,85
Iruñea	19,62	32,48	28,55	33,88	30,93	30,32
Gizonak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

EMAKUMEAK

Ipar-mendebaldea	10,84	8,62	9,98	4,07	6,48	9,43
Ipar-ekialdea	7,00	4,69	4,63	1,69	0,00	4,92
Lizarra	14,49	16,09	14,82	8,81	8,33	15,31
Iruñerria	9,34	10,22	10,38	16,95	13,89	10,23
Tafalla	7,88	9,99	9,29	6,78	1,85	9,40
Erribera	10,21	18,37	16,57	14,24	17,59	16,60
Iruñea	40,24	32,02	34,33	47,46	51,85	34,11
Emakumeak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001 (EIN), eta elaborazio propioa.

104. TAULA. ADINEKO PERTSONAK GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATE ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA (2001)

Oinarrizko unitateak	Ezkon- gabeak	Ezkon- dutakoak	Alargunak	Banan- dutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Altsasu	160	1.027	493	7	4	1.691
Allo	222	944	437	4	0	1.607
Antzin-Ameskoa	281	643	389	4	1	1.318
Agoitz	152	375	199	3	1	730
Los Arcos	196	571	244	1	0	1.012
Artaxoa	156	732	350	4	0	1.242
Auritz	238	363	233	3	0	837
Barañain	146	830	417	16	5	1.414
Berriozar	143	833	409	15	2	1.402
Buñuel	230	1.701	717	16	7	2.671
Burlata	175	1.286	570	23	7	2.061
Zarrakaztelu	137	754	364	7	0	1.262
Cascante	200	1.402	641	6	6	2.255
Cintruéni	131	989	497	4	1	1.622
Corella	143	1.288	603	10	8	2.052
Doneztebe	218	438	273	2	2	933
Elizondo	360	729	530	5	1	1.625
Lizarra	267	1.441	719	16	9	2.452
Etxarri Aranatz	175	767	303	1	0	1.246
Uharte	165	518	254	4	2	943
Irurtzun	300	595	313	6	0	1.214
Izaba	136	244	108	0	3	491
Leitza	124	378	198	1	0	701
Lesaka	278	788	415	7	4	1.492
Lodosa	89	536	273	10	0	908
Mendabia	177	1.074	488	5	4	1.748
Noain	201	801	349	12	2	1.365
Erriberri	229	1.067	527	10	2	1.835
Orkoien	123	327	197	4	1	652
Azkoien	208	1.519	705	9	1	2.442
Gares	255	766	355	8	2	1.386
Zaraitzu	163	271	153	0	0	587
San Adrián	196	1.518	762	10	3	2.489
Zangoza	375	1.345	602	9	2	2.333
Tafalla	233	1.293	669	9	3	2.207
Tutera	324	2.859	1.344	28	14	4.569
Ultzama	208	281	184	2	1	676
Valtierra	261	1.695	842	11	6	2.815
Viana	116	524	233	4	2	879
Villatuerta	206	652	258	4	3	1.123
Atarrabia	145	611	378	9	6	1.149
Zizur	76	368	202	5	3	654
Aranuren	22	166	92	3	1	284
Egues	37	138	45	0	0	220
Iruña	3.732	17.847	9.166	223	86	31.054
Guztira	12.109	55.294	27.500	540	205	95.648

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

105. TAULA. ADINEKO PERTSONEN PORTZENTAJE-BANAKETA GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATE ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA (2001)

Oinarrizko unitateak	Ezkon- gabeak	Ezkon- dutakoak	Alargunak	Banan- dutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Altsasu	9,46	60,73	29,15	0,41	0,24	100,00
Allo	13,81	58,74	27,19	0,25	0,00	100,00
Antzin-Ameskoa	21,32	48,79	29,51	0,30	0,08	100,00
Agoitz	20,82	51,37	27,26	0,41	0,14	100,00
Los Arcos	19,37	56,42	24,11	0,10	0,00	100,00
Artaxoa	12,56	58,94	28,18	0,32	0,00	100,00
Auritz	28,43	43,37	27,84	0,36	0,00	100,00
Barañain	10,33	58,70	29,49	1,13	0,35	100,00
Berriozar	10,20	59,42	29,17	1,07	0,14	100,00
Buñuel	8,61	63,68	26,84	0,60	0,26	100,00
Burlata	8,49	62,40	27,66	1,12	0,34	100,00
Zarrakaztelu	10,86	59,75	28,84	0,55	0,00	100,00
Cascante	8,87	62,17	28,43	0,27	0,27	100,00
Cintruéni	8,08	60,97	30,64	0,25	0,06	100,00
Corella	6,97	62,77	29,39	0,49	0,39	100,00
Doneztebe	23,37	46,95	29,26	0,21	0,21	100,00
Elizondo	22,15	44,86	32,62	0,31	0,06	100,00
Lizarra	10,89	58,77	29,32	0,65	0,37	100,00
Etxarri Aranatz	14,04	61,56	24,32	0,08	0,00	100,00
Uharte	17,50	54,93	26,94	0,42	0,21	100,00
Irurtzun	24,71	49,01	25,78	0,49	0,00	100,00
Izaba	27,70	49,69	22,00	0,00	0,61	100,00
Leitza	17,69	53,92	28,25	0,14	0,00	100,00
Lesaka	18,63	52,82	27,82	0,47	0,27	100,00
Lodosa	9,80	59,03	30,07	1,10	0,00	100,00
Mendabia	10,13	61,44	27,92	0,29	0,23	100,00
Noain	14,73	58,68	25,57	0,88	0,15	100,00
Erriberri	12,48	58,15	28,72	0,54	0,11	100,00
Orkoi	18,87	50,15	30,21	0,61	0,15	100,00
Azkoien	8,52	62,20	28,87	0,37	0,04	100,00
Gares	18,40	55,27	25,61	0,58	0,14	100,00
Zaraitzu	27,77	46,17	26,06	0,00	0,00	100,00
San Adrián	7,87	60,99	30,61	0,40	0,12	100,00
Zangoza	16,07	57,65	25,80	0,39	0,09	100,00
Tafalla	10,56	58,59	30,31	0,41	0,14	100,00
Tutera	7,09	62,57	29,42	0,61	0,31	100,00
Ultzama	30,77	41,57	27,22	0,30	0,15	100,00
Valtierra	9,27	60,21	29,91	0,39	0,21	100,00
Viana	13,20	59,61	26,51	0,46	0,23	100,00
Villatuerta	18,34	58,06	22,97	0,36	0,27	100,00
Atarrabia	12,62	53,18	32,90	0,78	0,52	100,00
Zizur	11,62	56,27	30,89	0,76	0,46	100,00
Aranuren	7,75	58,45	32,39	1,06	0,35	100,00
Egues	16,82	62,73	20,45	0,00	0,00	100,00
Iruña	12,02	57,47	29,52	0,72	0,28	100,00
Guztira	12,66	57,81	28,75	0,56	0,21	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

106. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO GIZONAK GIZARTE
ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATE ETA EGOERA ZIBILAREN
ARABERA (2001)

Oinarrizko unitateak	Ezkon- gabeak	Ezkon- dutakoak	Alargunak	Banan- dutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Altsasu	87	572	76	3	2	740
Allo	132	511	87	3	0	733
Antzin-Ameskoa	159	359	76	3	1	598
Agoitz	84	213	37	2	1	337
Los Arcos	113	300	41	1	0	455
Artaxoa	88	397	70	2	0	557
Auritz	145	207	52	1	0	405
Barañain	44	477	73	8	2	604
Berriozar	71	485	66	3	2	627
Buñuel	132	924	157	7	2	1.222
Burlata	82	734	113	14	3	946
Zarrakastelu	73	407	66	4	0	550
Cascante	93	777	126	4	3	1.003
Cintruéni	78	536	89	2	1	706
Corella	68	692	115	4	7	886
Doneztebe	128	270	42	1	0	441
Elizondo	200	440	76	3	1	720
Lizarra	96	800	106	9	4	1.015
Etzarri Aranatz	105	432	59	1	0	597
Uharte	92	296	49	2	1	440
Irurtzun	209	339	46	4	0	598
Izaba	75	139	25	0	3	242
Leitza	84	227	32	0	0	343
Lesaka	152	454	70	5	2	683
Lodosa	44	287	50	5	0	386
Mendabia	91	581	121	4	2	799
Noain	114	459	68	2	0	643
Erriberri	97	579	101	7	0	784
Orkoien	76	184	41	2	1	304
Azkoien	92	828	134	3	1	1.058
Gares	147	431	50	5	2	635
Zaraitzu	91	157	22	0	0	270
San Adrián	81	820	151	5	1	1.058
Zangoza	209	733	105	7	2	1.056
Tafalla	95	710	130	3	3	941
Tutera	114	1.578	214	11	5	1.922
Ultzama	145	160	36	2	0	343
Valtierra	133	930	172	5	5	1.245
Viana	70	288	50	2	2	412
Villatuerta	119	354	54	3	3	533
Atarrabia	64	353	72	5	3	497
Zizur	43	208	41	3	2	297
Aranuren	14	98	19	2	0	133
Egues	19	83	8	0	0	110
Iruña	1.086	10.011	1.354	83	30	12.564
Guztira	5.534	30.820	4.742	245	97	41.438

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

107. TAULA. 65 URTE ETA GEHIAGOKO EMAKUMEAK GIZARTE
ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATE ETA EGOERA ZIBILAREN
ARABERA (2001)

Oinarrizko unitateak	Ezkon- gabeak	Ezkon- dutakoak	Alargunak	Banan- dutakoak	Dibortziatuak	Guztira
Altsasu	73	455	417	4	2	951
Allo	90	433	350	1	0	874
Antzin-Ameskoa	122	284	313	1	0	720
Agoitz	68	162	162	1	0	393
Los Arcos	83	271	203	0	0	557
Artaxoa	68	335	280	2	0	685
Auritz	93	156	181	2	0	432
Barañain	102	353	344	8	3	810
Berriozar	72	348	343	12	0	775
Buñuel	98	777	560	9	5	1.449
Burlata	93	552	457	9	4	1.115
Zarrakaztelu	64	347	298	3	0	712
Cascante	107	625	515	2	3	1.252
Cintruéñigo	53	453	408	2	0	916
Corella	75	596	488	6	1	1.166
Doneztebe	90	168	231	1	2	492
Elizondo	160	289	454	2	0	905
Lizarra	171	641	613	7	5	1.437
Etxarri Aranatz	70	335	244	0	0	649
Uharte	73	222	205	2	1	503
Irurtzun	91	256	267	2	0	616
Izaba	61	105	83	0	0	249
Leitza	40	151	166	1	0	358
Lesaka	126	334	345	2	2	809
Lodosa	45	249	223	5	0	522
Mendabia	86	493	367	1	2	949
Noain	87	342	281	10	2	722
Erriberri	132	488	426	3	2	1.051
Orkoién	47	143	156	2	0	348
Azkoién	116	691	571	6	0	1.384
Gares	108	335	305	3	0	751
Zaraitzu	72	114	131	0	0	317
San Adrián	115	698	611	5	2	1.431
Zangoza	166	612	497	2	0	1.277
Tafalla	138	583	539	6	0	1.266
Tutera	210	1.281	1.130	17	9	2.647
Ultzama	63	121	148	0	1	333
Valtierra	128	765	670	6	1	1.570
Viana	46	236	183	2	0	467
Villatuerta	87	298	204	1	0	590
Atarrabia	81	258	306	4	3	652
Zizur	33	160	161	2	1	357
Aranuren	8	68	73	1	1	151
Egues	18	55	37	0	0	110
Iruña	2.646	7.836	7.812	140	56	18.490
Guztira	6.575	24.474	22.758	295	108	54.210

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

108. TAULA. 64 URTE BAINO GEHIAGOKO PERTSONEN
IKASKETA-MAILA GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTI ETA SEXUAREN
ARABERA (2001)

251

Guztira	Lehen-mailakoak edo gutxiago	Graduatua, Batxilergoa edo baliokidea	Unibertsitate- ikasketak	Guztira
GUZTIRA				
Ipar-mendebaldea	7.150	2.271	157	9.578
Ipar-ekialdea	2.976	1.892	110	4.978
Lizarra	11.343	3.233	346	14.922
Iruñerria	6.664	3.151	329	10.144
Tafalla	6.809	1.997	182	8.988
Erribera	12.416	3.277	291	15.984
Iruñea	18.718	9.679	2.657	31.054
Guztira	66.076	25.500	4.072	95.648
GIZONAK				
Ipar-mendebaldea	3.267	1.104	94	4.465
Ipar-ekialdea	1.336	906	68	2.310
Lizarra	4.880	1.538	206	6.624
Iruñerria	2.850	1.546	205	4.601
Tafalla	2.884	907	99	3.890
Erribera	5.282	1.526	176	6.984
Iruñea	6.802	4.195	1.567	12.564
gizonak guztira	27.301	11.722	2.415	41.438
EMAKUMEAK				
Ipar-mendebaldea	3.883	1.167	63	5.113
Ipar-ekialdea	1.640	986	42	2.668
Lizarra	6.463	1.695	140	8.298
Iruñerria	3.814	1.605	124	5.543
Tafalla	3.925	1.090	83	5.098
Erribera	7.134	1.751	115	9.000
Iruñea	11.916	5.484	1.090	18.490
Emakumeak guztira	38.775	13.778	1.657	54.210

Iturria: Biztanleen eta itxebizitzaren zentsua, 2001 (EIN) eta elaborazio propioa.

109. TAULA. 64 URTE BAINO GEHIAGOKO PERTSONEN IKASKETA-MAILA GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

Guztira	Lehen-mailako edo gutxiago	Graduatua Batxilergoa edo baliokidea	Unibersitate ikasketak	Guztira
Altsasu	1.248	424	19	1.691
Allo	1.207	373	27	1.607
Antzin-Ameskoa	980	313	25	1.318
Agoitz	295	417	18	730
Los Arcos	907	81	24	1.012
Artaxoa	1.075	140	27	1.242
Auritz	500	315	22	837
Barañain	836	490	88	1.414
Berriozar	994	388	20	1.402
Buñuel	2.268	371	32	2.671
Burlata	1.389	630	42	2.061
Zarrakaztelu	944	289	29	1.262
Cascante	1.980	254	21	2.255
Cintruéñigo	1.327	267	28	1.622
Corella	1.520	485	47	2.052
Doneztebe	781	133	19	933
Elizondo	1.331	253	41	1.625
Lizarra	1.879	475	98	2.452
Etxarri Aranatz	993	244	9	1.246
Uharte	608	316	19	943
Irurtzun	865	328	21	1.214
Izaba	217	262	12	491
Leitza	372	315	14	701
Lesaka	1.071	400	21	1.492
Lodosa	737	159	12	908
Mendabia	1.216	502	30	1.748
Noain	907	430	28	1.365
Erriberri	1.310	479	46	1.835
Orkoien	420	225	7	652
Azkoien	2.159	250	33	2.442
Gares	886	452	48	1.386
Zaraitzu	273	301	13	587
San Adrián	2.142	305	42	2.489
Zangoza	1.691	597	45	2.333
Tafalla	1.321	839	47	2.207
Tutera	3.084	1.350	135	4.569
Ultzama	489	174	13	676
Valtierra	2.237	550	28	2.815
Viana	422	440	17	879
Villatuerta	967	133	23	1.123
Atarrabia	767	354	28	1.149
Zizur	401	198	55	654
Aranguren	196	69	19	284
Egues	146	51	23	220
Iruña	18.718	9.679	2.657	31.054
Guztira	66.076	25.500	4.072	95.648

Fuente: Censo de Población y Viviendas, 2001.

**110. TAULA. 64 URTE BAINO GEHIAGOKO GIZONEN
IKASKETA-MAILA GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN
ARABERA (2001)**

Guztira	Lehen-mailakoak edo gutxiago	Graduatua Batxilergoa edo baliokidea	Unibersitate ikasketak	Guztira
Altsasu	522	208	10	740
Allo	554	164	15	733
Antzin-Ameskoa	439	143	16	598
Agoitz	127	199	11	337
Los Arcos	402	41	12	455
Artaxoa	474	66	17	557
Auritz	250	142	13	405
Barañain	318	236	50	604
Berriozar	430	186	11	627
Buñuel	1.021	184	17	1.222
Burlata	612	307	27	946
Zarakaztelu	408	131	11	550
Çascante	872	118	13	1.003
Cintruéniqo	572	115	19	706
Corella	628	229	29	886
Doneztebe	366	68	7	441
Elizondo	581	114	25	720
Lizarra	724	235	56	1.015
Etxarri Aranatz	461	128	8	597
Uharte	278	151	11	440
Irurtzun	414	168	16	598
Izaba	105	128	9	242
Leitza	186	149	8	343
Lesaka	488	184	11	683
Lodosa	302	74	10	386
Mendabia	533	243	23	799
Noain	408	214	21	643
Erriberrri	545	213	26	784
Orkoien	173	128	3	304
Azkoien	922	118	18	1.058
Gares	397	210	28	635
Zaraitzu	116	146	8	270
San Adrián	878	152	28	1.058
Zangoza	738	291	27	1.056
Tafalla	535	379	27	941
Tutera	1.217	625	80	1.922
Ultzama	249	85	9	343
Valtierra	972	255	18	1.245
Viana	198	205	9	412
Villatuerta	453	71	9	533
Atarrabia	305	171	21	497
Zizur	172	91	34	297
Aranguren	90	31	12	133
Egues	64	31	15	110
Iruña	6.802	4.195	1.567	12.564
Guztira	27.301	11.722	2.415	41.438

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzien zentsua, 2001.

111. TAULA. 64 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEEN IKASKETA-MAILA GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATEEN ARABERA (2001)

Guztira	Graduatua		Unibersitate ikasketak	Guztira
	Lehen-mailakoak edo gutxiago	Batxilergoa edo baliokidea		
Altsasu	726	216	9	951
Allo	653	209	12	874
Antzin-Ameskoa	541	170	9	720
Agoitz	168	218	7	393
Los Arcos	505	40	12	557
Artaxoa	601	74	10	685
Auritz	250	173	9	432
Barañain	518	254	38	810
Berriozar	564	202	9	775
Buñuel	1.247	187	15	1.449
Burlata	777	323	15	1.115
Zarrakaztelu	536	158	18	712
Cascante	1.108	136	8	1.252
Cintruénigo	755	152	9	916
Corella	892	256	18	1.166
Doneztebe	415	65	12	492
Elizondo	750	139	16	905
Lizarra	1.155	240	42	1.437
Étxarri Aranatz	532	116	1	649
Uharte	330	165	8	503
Irurtzun	451	160	5	616
Izaba	112	134	3	249
Leitza	186	166	6	358
Lesaka	583	216	10	809
Lodosa	435	85	2	522
Mendabia	683	259	7	949
Noain	499	216	7	722
Erriberry	765	266	20	1.051
Orkoien	247	97	4	348
Azkoien	1.237	132	15	1.384
Gares	489	242	20	751
Zaraitzu	157	155	5	317
San Adrián	1.264	153	14	1.431
Zangoza	953	306	18	1.277
Tafalla	786	460	20	1.266
Tutera	1.867	725	55	2.647
Ultzama	240	89	4	333
Valtierra	1.265	295	10	1.570
Viana	224	235	8	467
Villatuerta	514	62	14	590
Atarrabia	462	183	7	652
Zizur	229	107	21	357
Aranguren	106	38	7	151
Egues	82	20	8	110
Iruña	11.916	5.484	1.090	18.490
Guztira	38.775	13.778	1.657	54.210

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzien zentsua, 2001.

112. TAULA. HIRU ETXEBIZITZA-MOTA 2001EKO BIZTANLEEN ETA ETXEBIZITZEN ZENTSUAREN ARABERA

	65 urte edo gehiagoko gizon bat	65 urte edo gehiagoko emakume bat	Bi heldu, 65 urte edo gehiagoko bat gutxienez, adingaberik gabe
Altsasu	68	208	432
Allo	101	198	394
Antzin-Ameskoa	103	166	253
Agoitz	46	82	161
Los Arcos	59	128	233
Artaxoa	71	163	311
Auritz	52	81	138
Barañain	51	145	339
Berriozar	46	127	314
Buñuel	138	312	660
Burlata	90	233	470
Zarakaztelu	72	175	301
Cascante	110	320	555
Cintruénigo	93	260	400
Corella	95	302	539
Doneztebe	57	83	155
Elizondo	77	152	294
Lizarra	87	394	631
Etxarri Aranatz	59	113	222
Uharte	41	78	192
Irurtzun	73	99	188
Izaba	41	45	84
Leitza	46	62	126
Lesaka	68	136	272
Lodosa	46	141	230
Mendabia	94	226	454
Noain	54	91	277
Erriberri	100	256	461
Orkoien	32	37	112
Azkoien	103	330	632
Gares	77	144	263
Zaraitzu	39	60	102
San Adrián	94	325	618
Zangoza	105	211	471
Tafalla	98	300	539
Tutera	146	667	1.202
Ultzama	50	24	94
Valtierra	112	367	703
Viana	54	79	197
Villatuerta	68	94	200
Atarrabia	47	120	278
Zizur	31	53	123
Aranguren	8	16	40
Egues	7	7	40
Iruña	1.080	4.587	7.907
Etxebizitzak guztira	4.189	12.197	22.607

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001.

113. TAULA. NAFARROAKO ETXEBIZITZAK ETA BIZTANLEAK ETXEBIZITZA-MOTAREN ARABERA (2001 ETA 2003)

	Etxebizitza-kopurua		Nafarroako biztanleak	
	2001	2003	2001	2003
Bakarrik bizi diren pertsonak	15.033	20.452	15.033	20.452
Seme-alabarik gabeko bikotea	28.578	39.204	57.156	78.409
Bikotea, seme-alabekin	80.280	91.971	313.092	349.490
Guraso bakarra	8.823	10.458	23.822	27.190
Bikotea, seme-alaba eta bestelako senideekin	2.434	3.946	12.413	20.519
Bikotea, seme-alaba eta aita edo ama	6.275	5.574	32.003	28.984
Bestelako etxe-motak	17.410	14.405	64.417	43.214
Pertsona bakarrik, beste batekin	4.751	3.623	14.728	11.955
Guztira	163.584	189.633	532.664	580.213

Iturria: Bizi Baldintzen gaineko inkestak, 2001 eta 2003 (NEI) eta elaborazio propioa.

114. TAULA. NAFARROAKO 65 URTETIK GORAKO BIZTANLEAK ETXEBIZITZA-MOTAREN ARABERA, 2001.

	Guztira	Etxebizitza Kolektiboa	Etxebizitza Familiarra	Guztira (%tan)
Guztira	100.508	4.871	95.637	100,00
65 a 69 urte	27.707	2,10	97,90	100,00
70 a 74 urte	25.684	3,05	96,95	100,00
75 a 79 urte	21.484	4,58	95,42	100,00
80 a 84 urte	13.987	7,20	92,80	100,00
85 a 89 urte	7.831	11,84	88,16	100,00
90 a 94 urte	3.071	14,75	85,25	100,00
95 a 99 urte	676	17,16	82,84	100,00
100 o más urte	68	29,41	70,59	100,00
Guztira %	100.508	4,85	95,15	100,00

Iturria: Biztanleen eta etxebizitzaren zentsua, 2001, eta elaborazio propioa.

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Espainiako populazio- proiekzioa (2002-2070) eta bere portzentaje-banaketa adinaren arabera _____	53
2. taula. Bizi-itxaropena Nafarroan, 1976-1998 _____	55
3. taula. Nafarroako populazioaren banaketa lau adin-taldetan banatuta (1975-2003) _____	59
4. taula. Nafarroako eta Espainiako populazioaren portzentaje-banaketa adin eta sexuaren arabera (2003) _____	60
5. taula. Nafarroako 65 urte eta gehiagoko biztanleak adin eta sexuaren arabera (2003) _____	62
6. taula. Nafarroako emakumeen tasa adin-taldeen arabera (1998-2003) _____	62
7. taula. Nafarroako pupolazioaren zahartze-tasa Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera (1998 eta 2001) _____	64
8. taula. Nafarroako 65 urte eta gehiagoko biztanleak, Gizarte Zerbitzuen barruti eta sexuaren arabera (2001) _____	65
9. taula. Adinekoen portzentaje-banaketa Gizarte Zerbitzuen barruti, adin eta sexuaren arabera (2001) _____	67
10. taula. Adinekorik gehieneko eta gutxieneko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateak (2001) _____	69

11. taula. Zahartze-tasak Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 70
12. taula. Adinekoen egoera zibila Nafarroan (2001) _____ 71
13. taula. Nafarroako adinekoen portzentaje-banaketa egoera zibil eta Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera (2001) _____ 72
14. taula. Ezkondutako 65 urte edo gehiagoko adinekoen ehunekorik handienak eta txikienak Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 73
15. taula. 65 urte edo gehiagoko gizon ezkongabeen ehunekorik handienak eta txikienak Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 74
16. taula. 65 urte edo gehiagoko emakume alargunen ehunekorik handienak eta txikienak Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 75
17. taula. Nafarroako adinekoen ikasketa-mailaren portzentaje-banaketa (2001) _____ 76
18. taula. 64 urtetik gorakoen ikasketa-maila sexuaren arabera, portzentaje bertikalean _____ 77

19. taula. Nafarroako adinekoen
ikasketa-mailaren portzentaje-
banaketa Gizarte Zerbitzuen barruti
eta sexuaren arabera (2001) _____ 78
20. taula. Adineko pertsonen
amaitutako unibertsitate-ikasketen
ehunekoa sexu eta Gizarte Zerbitzuen
oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 79
21. taula. Ikasketa-maila baxuko
adinekoen ehunekoa sexu eta
Gizarte Zerbitzuen oinarrizko
unitateen arabera (2001) _____ 80
22. taula. Nafarroako adinekoak bizi
diren etxebizitzaren tipologia eta batez
besteko tamainaren zenbatespena
eta kopuru osoa (2001) _____ 82
23. taula. Adineko pertsona bakarreko
etxebizitzaren ehunekoa Nafarroako
Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera
Çetxebizitza guztiak kontuan hartuta
(2001) _____ 83
24. taula. Nafarroako populazioaren
osasun egoeraren pertzepzioa sexu
eta adinaren arabera (2001) _____ 84
25. taula. Nafarroan bizi-kalitate/osasun
erlazioan dauden arazo nagusiak
adin-taldearen arabera (2001) _____ 85
26. taula. Nafarroan ezintasunen bat
duten 65 urte edo gehiagoko
pertsonak sexu eta udalerraren
tamainaren arabera (1999) _____ 87

27. taula. Nafarroako 65 urtetik gorako adinekoen ezintasun-tasaren portzentaje-banaketa eta minusbaliotasun-tasa (2001) _____ 89
28. taula. Nafarroako 65 urtetik gorako minusbaliotasunen ezintasun-mailaren portzentaje-banaketa (2001) _____ 90
29. taula. Ezintasunen bat izan eta laguntza pertsonala jasotzen duten adinekoak, zaintzaile nagusiak ezinduarekiko duen harremanaren arabera (1999) _____ 92
30. taula. Nafarroan zainketa fisikoak behar dituzten adinekoak eta etxebizitzak guztira (2001) _____ 93
31. taula. Nafarroako hirugarren adinari zuzendutako zentro eta zerbitzuak (2003) _____ 99
32. taula. Emandako datuetan aurkitutako ezberdintasunak _____ 100
33. taula. Urteko kasu-kopurua (2003) _____ 103
34. taula. Adinekoendako oinarritzko zerbitzuak Europan (90. hamarkadaren bukaeran) eta Nafarroan (2003. urtean) _____ 104
35. taula. Gastu publikoa Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan eta Zahar-etxeetan (2003). _____ 105

36. taula. EELZren (zuzeneko arreta) kostua orduko eta hiru finantzaketa- iturrien arteko banaketa (%tan) 2003. _____	107
37. taula. EELZren (zuzeneko arreta) kostua orduko eta hiru finantzaketa- iturrien arteko banaketa 2003. _____	107
38. taula. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzko Udal Ordenantzak, erabiltzaileen orduko kostu eta prezioen arabera aukeratutakoak (2003) _____	109
39. taula. Erabiltzaileak hileko 20 orduko arretarengatik ordaindu beharrekoa (tan) _____	109
40. taula. Etxez etxeko laguntzarako dirua jasotzeko diru-sarreraren baremoa _____	112
41. taula. Etxez etxeko laguntza- orduen kostua diru-laguntzako (2003) _____	113
42. taula. Diru-laguntzen baztertzeak kapital higigarriko errentengatik _____	114
43. taula. Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko onuradunaren ekarpena (2003)._____	115
44. taula. Etxez etxeko laguntzaren onuradunak jasotzen duen zenbatekoa hileroko (2003). _____	115
45. taula. Gehieneko diru-sarrerak etxez etxeko laguntzarako dirua jaso ahal izateko _____	116

46. taula. Nafarroako zahar-etxeen estaldura-maila (2003)	117
47. taula. Nafarroako zahar-etxeetako leku-motak (2003)	118
48. taula. Nafarroako lekuen titulartasun-mota (2003)	119
49. taula. Nafarroako lekuen kudeaketa-mota (2003)	120
50. taula. Nafarroako lekuen titulartasuna eta finantzaketa (2003)	121
51. taula. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordaindutako zenbatekoak leku itunduko (2003)	122
52. taula. Nafarroako Eguneko Zentroen leku-kopurua (2003)	124
53. taula. Nafarroako Eguneko Egonaldietarako lekuen kopurua (2003)	125
54. taula. Eguneko Zentroetako eta Eguneko Egonaldietarako lekuen finantzaketa-mota (2003)	126
55. taula. Zentro ezberdinetako itxaron-zerrendak 2004ko martxoan	127
56. taula. Zahar-etxeetako lekuen eta itxaron-zerrendan dauden pertsonek kopurua (2004ko martxoa)	128

57. taula. Nafarroako Gobernuaren leku bereki ete itunduen tipologia (2003 – 2004) _____	128
58. taula. Nafarroako Gobernuaren zahar-etxeetako leku-motak (2004ko iraila) _____	129
59. taula. Finantzaketa-motaren araberako lekuen kopurua eta birkalifikazioak (2003). _____	134
60. taula. 2003. urtean eginiko birkalifikazioak _____	134
61. taula. Terminoen definizioa araudian _____	138
62. taula. Gizarte Ongizatearen Institutuak jarraitutako prozedura erabiltzaileen esku geratzen den diru-kopurua edo/eta euren per capita errentaren % 90 aplikatzeko _____	140
63. taula. 2004. urterako ezarritako gehieneko prezioak _____	143
64. taula. 2004. urterako ezarritako gehieneko diru-laguntzak _____	144
65. taula. Gehieneko prezioen eta gehieneko diru-laguntzen arteko aldea berez baliatzen direnendako eta laguntza behar dutenendako lekuetarako _____	145
66. taula. Zenbatekoen aplikazioa: lekuaren prezioa NGOIren lekuena baino txikiagoa denean _____	146

67. taula. Erabiltzaileak ordaindutakoa
eta eginiko zorra leku bereki eta itunduetan. _____ 147
68. taula. Erabiltzaileak ordaindutakoa
eta eginiko zorra administrazioaz
besteko zentroetako egonaldietarako
laguntza behar dutenendako lekuetan _____ 149
69. taula. Nafarroako Gobernuaren
diru-laguntzak defizita justifikatuta
dagoen kasuetarako (2003) _____ 153
70. taula. Zenbateko ezberdinak eta
araudia _____ 154
71. taula. Araudia Nafarroan eta Alemanian _____ 156
72. taula. Logelen tamainari buruzko
konparazio-taula _____ 160
73. taula. Erabilera komuneko eremuen
tamainari buruzko konparazio-taula _____ 161
74. taula. Gutxieneko zerbitzu higienikoen
kopuruari buruzko konparazio-taula _____ 161
75. taula. Langileei buruzko
konparazio-taula _____ 163
76. taula. Zuzeneko arretako eta
erizaintzako langileei buruzko
konparazio-taula _____ 164
77. taula. Estatuetako Hitzarmenetan
jaso beharreko Alemaniako
zahar-etxeetako langileen derrigorrezko
alderdiei buruzko araudia (Länder) _____ 165

78. taula. Mendekotasun-maila ezberdineko 85 erabiltzaile dituen zahar-etxe bateko langileak _____	166
79. taula. Zahar-etxeak eta ikuskapenak 2000-2004 _____	172
80. taula. Laguntza behar duten hirugarren adinekoendako zahar-etxeetarako kalitatea ebaluatzeko adierazleak. Esparrua: egoiliarren harremanak eta eskubideak _____	178
81. taula. Partaidetza Kontseiluaren eginkizunak Nafarroan eta Alemanian _____	183
82. taula. Partaidetza Kontseiluak eginiko funtzioak bisitatutako zahar-etxeetan _____	184
83. taula. Partaidetza Kontseiluko kideak _____	186
84. taula. Nafarroako araudien eta Alemaniako hitzarmenen edukien arteko konparazioa _____	191
85. taula. Bisitaturiko zentroak eta eginiko elkarrizketak (2004ko iraila) _____	198
86. taula. Nafarroako eta Espainiako populazioa adin eta sexuaren arabera (2003) _____	233
87. taula. Nafarroako eta Espainiako populazioa adin-tarte eta sexuaren arabera (2003) _____	234

88. taula. Nafarroako eta Espainiako
populazioaren proporzio-banaketa
adin-tarte eta sexuaren arabera (2003) _____ 234
89. taula. Nafarroako biztanleen
bilakaera adin-taldean arabera
(1975-2003) _____ 234
90. taula. 65 urte eta gehiagoko
biztanleak adin eta sexuaren arabera
(2001) _____ 235
91. taula. Adineko pertsonak Gizarte
Zerbitzuen barruti, adin eta sexuaren
arabera (2001) _____ 235
92. taula. Adineko pertsonak Gizarte
Zerbitzuen barruti, adin eta sexuaren
arabera (2001) _____ 236
93. taula. Adineko pertsonak Gizarte
Zerbitzuen barruti, adin eta sexuaren
arabera (2001) _____ 237
94. taula. 65 urte eta gehiagoko
pertsonak osasuneko oinarrizko
unitate eta sexuaren arabera (2001) _____ 238
95. taula. Adineko pertsonak osasuneko oinarrizko unitate
eta sexuaren arabera (2001) _____ 239
96. taula. Adineko pertsonak osasuneko
oinarrizko unitate eta adin-tartean
arabera (2001) _____ 240
97. taula. Adineko pertsonak osasuneko
oinarrizko unitate eta adin-tartean
arabera (2001) _____ 241

98. taula. Adineko emakumeak
oinarrizko unitate eta adin-tarteen
arabera (2001) _____ 242
99. taula. 65 urte eta gehiagoko gizonak
oinarrizko unitate eta adin-tarteen
arabera (2001) _____ 243
100. taula. 65 urte eta gehiagoko
pertsonek oinarrizko unitate eta
zahartze-tasaren arabera _____ 244
101. taula. Adineko pertsonak egoera
zibil eta sexuaren arabera (2001) _____ 245
102. taula. Adineko pertsonak egoera
zibil, sexu eta Gizarte Zerbitzuen
barrutien arabera (2001) _____ 245
103. taula. 65 urte eta gehiagoko
pertsonek egoera zibil, sexu eta
Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera
(2001) _____ 246
104. taula. Adineko pertsonak Gizarte
Zerbitzuen oinarrizko unitate eta egoera
zibilaren arabera (2001) _____ 247
105. taula. Adineko pertsonen
portzentaje-banaketa Gizarte Zerbitzuen
oinarrizko unitate eta egoera zibilaren
arabera (2001) _____ 248
106. taula. 65 urte eta gehiagoko
gizonak Gizarte Zerbitzuen oinarrizko
unitate eta egoera zibilaren arabera
(2001) _____ 249

107. taula. 65 urte eta gehiagoko emakumeak Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitate eta egoera zibilaren arabera (2001) _____ 250
108. taula. 64 urte baino gehiagoko pertsonen ikasketa-maila Gizarte Zerbitzuen barrutien eta sexuaren arabera (2001) _____ 251
109. taula. 64 urte baino gehiagoko pertsonen ikasketa-maila Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 252
110. taula. 64 urte baino gehiagoko gizonen ikasketa-maila Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera (2001) _____ 253
111. taula. 64 urte baino gehiagoko emakumeen ikasketa-maila Gizarte Zerbitzuen oinarrizko unitateen arabera _____ 254
112. taula. Hiru etxebizitza-mota 2001eko biztanleen eta etxebizitzaren zentsuaren arabera _____ 255
113. taula. Nafarroako etxebizitzak eta biztanleak etxebizitza-motaren arabera. _____ 256
114. taula. Nafarroako 65 urte edo gehiagoko pertsonak etxebizitza-motaren arabera _____ 256

6. irabazi asmorik gabeko egoitzak nafarroan

Arartekoak hirugarren adinekoen egoitzak bisitatu zituen aldietan, aparteko interesa izan zuen beti honako hauen berri izateko, hain zuzen ere, sektore pribatukoaren aldean ezberdinak direla-eta, "irabazi asmorik gabeko egoitza" deritzanena.

"Irabazi asmorik gabeko" egoitza kopuru handia eta ematen dituzten zerbitzuak ezin dira balioetsi euren ezaugarri bereziak kontuan izan gabe. Izan ere, batzuk hainbat partikularrek euren sorterriaren aldera izan zuten eskuzabaltasunaren emaitza dira; beste batzuk, berriz, beste partikular batzuen karitatearenak eta, azkenik, bada udal ekimenez abian jarri zenik. Hirugarren adinekoentzako laguntza sistemen bilakakeraren eta "historiaren bide erdian" duten eremuak eragozpen larriak eragin ditu –gaur egun ere eragiten ditu– martxan jarraitzeari dagokionez eta, Arartekoak bisita horietan barrena egiaztatu ahal izan zueenez, baita hutsuneak ere zerbitzu mota honen kudeaketa kontzeptuari dagokionez; hutsune horiek udal finantza arazo larrien ondorio ere izan daitezkeela egiaztatu zen.

Gogoan izan beharra dago honako hauek hornitzen dituztela egoitza hauek:

- Hildako ongileek sustatuko patronatuek eta fundazioek. Oro har, fundatzaileak emandako eraikinen baten jabeak dira eta kudeatu egiten dute (%33).
- Ordena erlijiosoek.
- Udaletako eta mankomunitateetako patronatuek. Organismo autonomoak izan ohi dira, baina udalbatzek gainbegiratu egiten dituzte.

1. Udalen mendekoak: %41

2. Udal patronatuak: %25

3. Udalaren mendeko organismo autonomoak: %15


Bestalde, langile erlijiosoen batez besteko presentzia handiagoa da egoitza hauetan Nafarroako laguntza zentroen osotasunean baino; izan ere, langile guztien %10 erlijiosoak dira halako egoitzetan. Hortaz, beste berezitasun bat dugu, hain zuzen ere, langileen egituraren ingurukoa.

Oro har, zentro eta langile kopuru handiaz gain –1.000 pertsona; batez ere, emakumezkoak eta landa esparrukoak–, esan liteke egoitza hauen ezaugarriarik nabarmenena kokalekua dela. Nafarroako hiribildu esanguratsurik gehienetan barrena sakabanatuta daude eta, hartara, Foru Komunitateko zaharren euskarria osatzen dute, azken urteotan sortu berri diren zentroekin batera; azken horiek Iruña inguruan sortu dira batez ere, eta pribatuak dira funtsean.

Laguntza sarearen barruan duten garrantzi espezifikoak eta erakunde diren heinean duten forma berezia dira egoitza hauek lan egiten duten baldintzei arreta bereziaz erreparatzeko arrazoia. Sektore honetako ordezkariak Lares Navarra Zaharrei Laguntzeko Egoitzen eta Zerbitzuen Nafarroako Elkarteko sektore solidarioaren barruan daude. Hain zuzen ere, haiekin izandako elkarrizketei eta elkarte horrek 2002ko txostenaren bitartez egindako ekarpenei esker, egoitzek gaur egun dituzten zailtasunetara hurbil gaitzeko, zailtasun horiek askotarikoak badira ere; halaber, Arartekoak azken lau urteotan zentro hauetako batzuetara egindako bisitetan hartutako oharrak berresten dituzte.

IRABAZI ASMORIK GABEKO EGOITZEN KOPURUA ETA BANAKETA

Honako mapa honetan, margoturik daude irabazi asmorik gabeko egoitzaren bat dauden udalerrriak:



Egun Nafarroan dauden 62 egoitzetako 39k karitateari eta lan pertsonalari esker jarraitzen dute abian. Horrenbestez, ezin esan daiteke gizarte ongizateko sistema publikoaren barruan daudenik; aitzitik, hirugarren sektorea delakoaren barruan daude, hau da, gizarte zibilaren beraren barruan.

Mapan antzeman daitekeenez, irabazi asmorik gabeko egoitza asko eta asko Nafarroako erdialdean eta hegoaldean daude. Hala ere, bada salbuespen nabarmenik, hala nola, Iruñeko Erruki Etxea; hala-ko egoitzetan eskaintzen diren toki guztien ehuneko handi bat eskaintzen da bertan.

Udalerrien artean, nabarmentzekoak dira Tafalla eta Tuteran, irabazi asmorik gabeko hiru eta bi egoitza baitaude bertan, hurrenez hurren. Laguntza alderdiari dagokionez ere dute eskualdeburu eginkizuna bi udalerririk.

Honako taula honek argi eta garbi erakusten du egoera hori, baita eskualde bakoitzeko biztanle kopuruarekiko eta zahartze tasarekiko harremana ere:

ESKUALDEAK*	BIZTANLEAK	ZAHARTZE TASA	Egoitzak orotara		Elkartearen egoitzak	
			KOPURUA	EHUNEKOA	KOPURUA	EHUNEKOA
Ipar-mendebaldea	53.642	19,12	8	%12,90	4	%50,00
Ipar-ekialdea	20.517	25,32	4	% 6,45	3	% 75,00
Lizarran aldea	65.822	22,91	12	%19,35	8	%66,67
Tafalla aldea	41.079	22,14	13	% 20,97	13	% 100,00
Tutera aldea	79.550	20,08	11	%17,74%	10	%90,91
Iruña eta Iruñerria	269.784	14,67	14	% 22,58	1	% 7,14
GUZTIRA	530.394	20,71	62	%100,00	39	%62,90


Ikus daitekeenez, zahartze tasa ezberdina da eskualde batetik bestera: Ipar-ekialdekoa da handiena, eta Iruña ingurukoa eta Iruñerrikoa, berriz, txikiena.

Nafarroan diharduten egoitza guztien artean, %63 irabazi asmorik gabeko sektorearen barruan daude. Ehuneko horrek, ordea, nabarmen egiten du gora hainbat eskualdetan eta, esate baterako, %100ekoa ere da Tafalla aldean, %90 baino handiagoa Tutera aldean eta %75ekoa Ipar-ekialdean; Iruñean eta Iruñerrian baino ez da egoitza hauen ehuneko %50 baino txikiagoa, hain zuzen ere, %7,14koa. Datu hori abiapuntu hartuta, Elkarteko egoitzen zentralizaziorik eza eta landa esparruan zenbateraino dauden errotuta ondoriozta daiteke.

Gogoan izan beharra dago Iruña inguruan eta Iruñerrian dagoela zahartze tasarik txikiena, eta Elkarreak eskualde horretan duen egoitza bakarrean toki eta zerbitzu ugari eskaintzen dela; hortaz, erlatibotasunez hartu behar dugu kontuan ehuneko txiki hori, azken batean, inguruko toki kopuru osoaren %33 gainditzen baitu.

Honako taula honetan egoitza horiek eskualde bakoitzean duten ordezkaritza ageri da:

ELKARTEAREN ZAHAR-ETXEEK ESKUALDE BAKOITZEAN DUTEN ORDEZKARITZA



Iturria: "Lares Navarra" eta NGOlaren 1999, 2000 eta 2001eko jardueren oroit-idazkia.

	Euren kabuz moldatzen	Laguntza behar		
Udalerria	direnak	dutenak	Guztira	
1	Agoitz	44	6	50
2	Alesbes	30	20	50
3	Altsasu	6	35	41
4	Artaxoa	18	17	35
5	Azkoien	34	22	56
6	Barasoain	10	7	17
7	Bera	22	18	40
8	Buñuel	28	12	40
9	Caparroso	20	0	20
10	Carcar	34	10	44
11	Castejón	11	13	24
12	Cintruénigo	18	54	72
13	Corella	38	18	56
14	Cortes	14	19	33
15	Elizondo	105	40	145
16	Erriberri	35	20	55
17	Faltzes	33	7	40
18	Fitero	32	12	44
19	Funes	23	18	41
20	Irunberri	57	61	118
21	Iruña	373	187	560
22	Lerín	17	7	24
23	Lesaka	22	18	40
24	Lizarra	42	12	54
25	Lodosa	30	30	60
26	Los Arcos	17	7	24
27	Miranda	6	21	27
28	Muruzabal	23	9	32
29	San Martín	21	3	24
30	Sesma	50	10	60
31	Tafalla I	57	43	100
32	Tafalla II	43	27	70
33	Tafalla III	20	74	94
34	Tutera I	31	42	73
35	Tutera II	80	81	161
36	Valtierra	14	14	28
37	Viana	48	23	71
38	Zangoza	40	27	67
39	Zarrakaztelu	15	7	22
	1.561	1.051	2.612	

Iturria: Landa lanean lortutako datuak, LARES NAVARRA.

Mapan ikus daitekeenez, irabazi asmorik gabeko egoitzen kokalekuak heterogeneoak dira.

IRABAZI ASMORIK GABEKO EGOITZEN ESKAINTZA AHALMENA

Egoiliarrak hartzeko toki kopurua aldatu egiten da gorabeheren arabera baina, oro har, egoitza horietako leku kopurua ertaina/txikia da, Foru Komunitate osoan barrena sakabanatuta daude eta landa esparruaren berezko ezaugarriak dituzte.

Honako taula honetan ikus daitekeenez, 2.612 laguntzako tokia dago orotara; toki horietako 1.561 euren kabuz molda daitekeen jendearentzat dira, eta 1.051, berriz, laguntza behar dutela jotzen den pertsonentzat:

Gainera, arautu gabeko tarteko egoera konplexuan dago egoitza horietan hartutako hainbat zahar: ez da jotzen laguntza behar duenik baina, gaur egun dauden tarifak izanik, ez da ekonomikoki bideragarria bere osasun egoerari, mendekotasun mailari eta laguntza beharrari aurre egitea.

Egoitzen heren batek diotenez, zailtasunak dituzte langileak kontratatzeko, igandeetan eta jaiegunetan lan egin behar delako; beste batzuek, berriz, lanpostuetarako zenbait hautagaik ez duela laguntza zuzeneko zentroetan lan egin nahi, ezta asteburuko ordutegian ere. Hori guztia dela-eta, ostalaritza sektorean dagoen egoeraren antzeko egoera jazotzen da, lan ordutegiek langileak aurkitzea eragozten dutelako zenbaitetan.

ETORKIZUNARI BEGIRA

"Lares Navarra" elkartearen 2002ko erreferentzia txostenarekin bat, egoitzek etorkizunak honako ezaugarri hauek izango dituela uste dute:

- Gero eta eskari handiagoa eta betetasun maila gorena zentroetan.
- Egoiliar zaharragoak eta andeatuagoak.

- Buruko gaixotasun tasa handiagoa egoiliarren artean.
- Laguntza behar handiagoa egoiliarren artean eta langile kopuru handiagoaren beharra.
- Senilitatean, alzheimerrean eta antzeko gaixotasunetan espezializatutako langileak izateko beharra.
- Ekipamendu eta azpiegitura behar berriak, eta gero eta handiagoak.
- Emaidza ekonomiko txarrak, baita egoitzen bideraezintasuna ere, ez badira tarifak garestitzen edo diru laguntzak ematen.
- Laguntza irizpideei kudeaketa irizpide berriak gehitu beharra.
- Egoitzen eta Administrazio Publikoaren baterako datu basea, eskariaren berri izan eta itxaron zerrendak kudeatzeko.
- Gastua egoitza publikoen gastuarekin parekatzea eta Administrazioak gastu maila hori onartzea.
- Administrazio Publikoarekin harreman ona izateko interes handia.
- Egoitzetako langileentzako hitzarmen kolektibo espezifikoaren beharra.
- Administrazioarekin aritzeko burokrazia sinplifikatzea.
- Hutsuneak bakarrik nabarmenduko ez dituzten ikuskapenak; aitzitik, eskura dauden bitartekoen bidez aplika daitezkeen konponbideak bilatzen ere lagunduko dutenak.

Arartekoak Txosten Berezia osatzeko eta aurretik izandako bileretan, hala zahar etxeak zuzentzen dituzten fundazioetako alkate patroiek, nola bertako gerenteek gaur egun baino etorkizun itxaropentsuagoa espero izateko moduko aldaketen beharra nabarmendu zuten. Bestek beste, honako urrats hauek eman beharra nabarmendu zuten:

- Egungo finantzazio sistemaren erreforma. Eragileen arteko tratu ezberdintasunak desagerrarazi behar dira, eta finantzazio nahikoa bermatu.
- Irabazi asmorik gabeko zentroetako instalazioak mantentzeko eta hobetzeko laguntzak ezartzea. Hartara, alde horretatik egoitza pribatuen mesedetan dagoen bereizkeria desagertuko litzateke; izan ere, haiekiko itunek bertako azpiegiturak finantzatzea aurreikusten dute, baina irabazi asmorik gabeko egoitzek, berriz, ezin dituzte kargatu erabiltzaileei toki bakoitzeko kobratzen dieten prezioan.
- Enplegua sortzeko eta trebakuntza planak finantzatzeko laguntza zuzenak.
- Administrazioak kalitate sistemak ezartzeko esparru egokia sustatzea.
- Egoitzen erabiltzaileek PFEZaren kenkariak lortzeko jardunbideak abiatzea.
- Irabazi asmorik gabeko zentroi kargatutako BEZa salbuestea.

7. esparru publikoaren eta pribatuaren arteko koordinazioa eta lankidetz

Foru Administrazioak Foru Komunitateko zaharrengan eraginik handiena duten gizarte zerbitzuak antolatzeko lege ekimenak gauzatzeko zain gaude oraindik, itxaropena dugulako argitasun handiagoa izango dela baliabideak kudeatzen eta ekimen publikoaren –edozein administrazio–, erdi–publikoaren eta pribatuaren eginkizunean. Artean, interes handikoak dira Héctor Maravallek gaiaren inguruan egin dituen gogoetak, hainbat legegintzalditan IMSERSOko zuzendaria izan zen heinean, ideologia ezberdineko gobernuak izan arren; gogoeta horiek are interesgarriagoak dira, El envejecimiento en España (Zahartzea Espainian) liburua Gobernuak Mendekotasunari buruzko Liburu Zuria kalera-tuko zuela iragarri baino lehenago argitaratu baitzen.

"Gizarte arloko eta gizarte eta osasun arloko baliabideak optimizatzeko, horiek lurraldeen artean orekaz banatzeko, eta herritar guztientzako oinarrizko kalitatea eta ekimen pribatuko kudeatzaileen eta arduradunen beren segurtasuna bermatzeko –GKE, fundazioak, gizarte ekonomiaren alorreko enpresak, ordena erlijiosoak eta merkataritza enpresak barne–, beharrezkoak dira administrazio publikoen eta ekimen pribatuaren arteko koordinazio eta lankidetzaren bideratzeko baliabide egonkorrak", Maravallek dioenez.

"Lehentasunen programazioa, egin beharreko inbertsioen zehaztapena eta eman beharreko programen eta zerbitzuen izaria era antolatuan hitzartu behar dira.

Lehenik eta behin, Gizarte Arazoetarako Konferentzia Sektorialak eta Osasun Sistema Nazionalerako Lurralde arteko Kontseiluak Estatu mailako oinarrizko helburuak, adierazleak eta irizpideak finkatu beharko lituzkete. Bigarrenik, programazio hori gauzatu egin beharko litzateke autonomia erkidego bakoitzaren esparruan, bertako tokiko erakundeekin laguntzaz.

Esparru publikoko oinarrizko akordio hori abiapuntu hartuta, lehentasun horiek ekimen pribatura aldatu beharko lirateke, eki-

men pribatuak zuzenean eta aldez aurretik izan dezan Administrazioaren jardunbideen berri, baita zerbitzuekin lankidetzan aritzeko eta horiek ituntzeko kontuan izango diren irizpideen berri ere.

Administrazioaren eta sektore pribatuaren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren barruan, zentroak eta zerbitzuak homologatzeko irizpideak, oinarrizko kalitate arauak eta kontrolatzeko eta ikuskatzeko moduak sartu beharko lirатеke.

Egoitzei dagokienez, berebiziko garrantzia du sektore publikoa eta pribatua programatzeko/antolatzeo oinarrizko irizpideak planteatzeko. Hartara, zentroak antolatu gabe eraikitzea saihestuko litzateke, batez ere, tokiko erakunde txikiek sustatutakoak, baita zentro pribatuak eraikitzea ere; sarritan, zentro pribatuek dimentsio eta ezaugarri desegokiak dituzte, ez dago eragingarritasunez mantentzeko eta kudeatzeko aukerarik, ez da epe ertainerako eta luzerako bideragarritasunari buruzko azterketa zorrozki egiten, ez daude kokaleku onean...

Bestalde, administrazio autonomikoei eskakizun maila handiagoa izan beharko lukete zerbitzu eta zentro pribatuak kontrolatzen, hala zerbitzuen homologazioari dagokionez abian jartzen direnean, nola urtero zerbitzuen funtzionamenduaren jarraipena egiteari dagokionez.

Aurrekoa ez da bateraezina honako zentro hauek babesteko neurriak eta prozedurak ezartzearekin, hain zuzen ere, homologazio eta kalitate eskakizunak bete ez baina homologatzeko prest daudenekin; hartara, zigorrak eta ixteko aginduak ekidingo lirатеke.

Erakunde autonomikoei parte hartzen duten organoek jarraipena egin beharko lukete aldiari-aldian sindikatu eta enpresa organizazioekin eta zaharrak ordezkatzeko dituzten gizarte organizazioekin batera, gizarte baliabideak koordinatzeko eta planifikatzeko hartu beharreko neurriak eta proposamenak direla eta".

**8. nafarroako arartekoak
hartu tako kexarik
nabarmenen laburpena**

8. NAFARROAKO ARARTEKOAK HARTUTAKO KEXARIK NABARMENEN LABURPENA

Gizarteak eta Foru Administrazioak zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzaren inguruan duten ikuspegia osatzeko, interesgarri jo da Arartekoak azken urteotan izapidetutako kexarik nabarmenenetako batzuk laburtzea Nafarroako Parlamentuarentzako Txosten Berezi honetan.

1. LAGUNTZA BEREZIEN UKAPENA

04/103/B txostena. Pertsona interesatuak diru laguntza eskatu zuen aitarentzako ohe ortopedikoa erosteko, eta gastua justifikatzeko dokumentu guztiak aurkeztu zizkion osasun zentroko gizarte langileari, hark izapidetu zitzaion.

Eskaera egin eta bost egun geroago, aita hil zen. Gainera, honako hau jakinarazi zitzaion pertsona interesatuari, alegia, eskabidea ez zela heldu Gizarte Ongizateko Departamentura aurkeztu ondoko 16. egunera arte. Horregatik ukatu zitzaion, hain zuzen ere, eskabide hori aita hil ondoren aurkeztu zuelako. Izan ere, eskabidea ez zen aurkeztu Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erki-deari buruzko Legeko 38. artikulua zehaztutako inongo tokitan.

Hala ere, interesatuak azaldu zigun, Departamentuak egindako interpretazioa gorabehera, Osasunbideak egun berean eskatutako diru laguntza eman ziola gurpil aulki tolesgarria erosteko.

Edonola ere, Arartekora jo zuen, eta gaiaren inguruko dokumentazio zabala aurkeztu. Hortaz, egokia iruditu zitzaigun informazio hori guztia Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentura igortzea, zehaztutako auziak argitzearen.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari gerenteak idazki-txosten bat igorri zigun. Jarraian, haren edukia transkribatu dugu:

"Gizarte Zerbitzuen esparruko banakako eta familiarteko zerbitzuak eta laguntzak arautzeko ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuko 7. artikulua xedatzen du laguntza bereziak larrialdi egoerak konpontzeko eta, besteak beste, minusbaliatu fisikoen mugikortasuna errazteko direla. Laguntza horiek behin bakarrik jasotzen dira, eta euren zenbatekoa kasu bakoitzeko gorabeheren arabera da. Honako irizpide hauek hartzen dira kontuan laguntza horiek emateko: behar mota, beharraren presakotasuna, eskatzailearen egoera sozio-ekonomikoa eta egoeraren ohiz kanpokotasuna. Hortaz, laguntzaren helburua ohiz kanpoko eta pre-sazko beharrak diruz laguntzea da.

2003ko otsailaren 21ean, [...] and.k nagusien esparruan diru laguntza berezia eskatzeko egindako eskabidea heldu zen Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko erregistrora, ohe artikulatua erosteko. Eskabidean ez da ageri aipatutakoaz aurreko aurkezpen datarik.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari gerentearen .../2003 Ebazpena ikusirik, laguntza hori ukatu zitzaion, [...] jna. otsailaren 21aren ondoren hil zela kontuan harturik; izan ere, eskabidea heriotzaren ondoren aurkeztu zela jo zen. Horregatik, laguntza ematea bidegabeta zela ondorioztatu zen, araudiak argi eta garbi uzten duelako laguntza onuraduna bizirik dagoen artean aurkeztu behar dela, laguntzaren beraren helburua dela-eta.

2003ko ekainaren 17an, [...] and.k gorako errekurtsioa aurkeztu zuen ebazpen ukatzailearen aurka. Errekurtsioak dioenez, 2003ko otsailaren 5ean diru laguntza berezia eskatzeko eskabidea aurkeztu zen Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko nagusien sailean. Baieztapen hori frogatzeko, eskabidearen kopia aurkeztu zen. Bertan ageri da dokumentua 2003ko otsailaren 21ean aurkeztu zela 30/1992 Legeko 38. artikulua xedatzen duen moduan.

Ezerk ez du egiaztatzen eskabidea 2003ko otsailaren 5ean aurkeztu zenik, [...] and.k dioenez. Data hori eskabidean bakarrik ageri da, eskuz idatzita.

[...] and.k aurkeztutako errekurtsua eta frogak ikusirik, Nafarroako Gobernuak ebazpen ukatzailea berretsi zuen 2003ko irailaren 1ean, eta aurkeztutako errekurtsua ezetsi. Hartara, administrazio bidea amaitu zen, eta jurisdikzio bidea ireki.

Administrazio bidea amaitu ostean, [...] and.k Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura jo zuen berriz, eta Osasunbideko gizarte langilearen egiaztagiria aurkeztu zuen, honako hau dioena, alegia, eskabidea 2003ko otsailaren 5ean sartu zela osasun zentroan.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Nagusien Saileko buruak laguntza ukatzeko arrazoiak azaldu zizkion idatziz [...] and.ri. Zehaztu zuen administrazio bidea Gobernuak aurkeztutako errekurtsua ezesteko akordioa eman zuenean amaitu zela, baina ez zuen gizarte langileak ondoren egindako egiaztagiriaren baliozkotasuna balioetsi, eskabidea legez aurkezteari dagokionez".

Txosten hori ikusirik, honako gogoeta hauek transmititu nahi dizkiogu Departamentuari, Arartekoak planteatutako kasuaren inguruan duen iritzia islatzeko:

ANALISIA

Egia esan, deskribatutako egitateak bat datoz hasiera batean kexa idazkiarekin batera aurkeztu zigunarekin; hortaz, ez dirudi aparteko aipamena egin behar denik ageri ez den inongo daturen inguruan, transmititu zaigun informazioan bertan ageri baita nolabait.

Planteatu zaigun auzia alderdi formal baten ingurukoa da funtsean, aukeratutako irtenbidea erabaki duen elementua baita: laguntza eskatzeko eskabidea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko erregistroan sartu zen data eta, Nagusien Saileko buruak igorri zion azken idazkiaren arabera, data horren aurretik ez zela eskabiderik aurkeztu legez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 38.4. artikulua xedatutako moduren batean.

Lege testu hau aipatu dugunez, egokia izan liteke bertako beste hainbat printzipio eta erabaki kontuan hartzea. Izan ere, edukian oinarrituta, adieraz dezakegu hala Legeak, nola Espainiako Konstituzioak berak administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanen ikuspegi berria ezarri zutela.

Alde horretatik, 30/1992 Legeak herritarren eskubideak jasotzen ditu 35. artikuluko katalogoan, eta informazioaren funtzio orokorrek harreman zuzena duten hiru aipatzen ditu a), b) eta g) paragrafoetan; informazioa informazio orokorren eta informazio partikularraren ikuspegitik interpretatu behar da. Informazio orokorra herritar guztiei eman behar zaie ezinbestean, eta herritarrek gauzatu nahi dituzten proiektuen, jardunbideen eta eskabideen inguruan xedapenek ezartzen dituzten baldintza juridiko eta teknikoei buruzkoa da; halaber, prozedurak izapidetzeari, zerbitzu publikoei eta herritarrek administrazio publikoekiko edo euren jardunbide esparruren batekiko harremanetan jakin beharreko bestelako datuei buruzkoa da.

Informazio partikularra, berriz, izapidetzen ari diren prozeduren egoerari edo edukiari buruzkoa eta informazio hori eskatzea eragin duten prozedurak izapidetzen dituzten Administrazioko agintarien eta langileen identifikazioari buruzkoa da. Informazio mota hau prozedura bakoitzean interesa duten pertsoneri bakarrik eman dakieke.

Herritarrei berariaz aitortutako eskubide horien ondorioz, administrazio publikoek informazio nahikoa eman dezaten eska daiteke; gainera, administrazioek herritarrek aurkeztutako eskabide eta idazki oro egokiro izapidetzeko eska daiteke, jardunbide eskasak ondorio kaltegarriak izan ezean eskubide horiek begiratu ez zaizkien herritarrentzat.

Azken batean, Administrazio Publikoa, hau da, Nafarroako Gobernu materialki behartuta dago herritarrek eskubide horiek erabil ditzaten erraztera; zailtasunak saihestu behar ditu, eta prozedurei, izapideei, baldintzei eta dokumentazioari buruzko orientazioa, azalpenak eta laguntza praktikoa ere eman behar ditu, herritarrek lantzen ari garena bezalako zerbitzu publiko bat eskuratzeko aukera izateko.

Alde horretatik, osasun zentroko gizarte langileak beharrezko dokumentazioa osatzen lagundu zuen, eta otsailaren 5eko 12:15ean jaso

zuen formalki eskabidea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan izapidetzeko. Horixe egiaztatzen dute Osasun Saileko LM eta ZM zuzendariordearen eta gizarte langilearen txostenek.

Gorabehera hori ikusirik, eta dokumentazioa eta eskabidea behar bezala izapidetuko zituen langile publiko bati emateak eskatzaileari sorrarazi zion konfiantza ikusirik, ez dirudi alderdi formal batek eraginik izan beharko lukeenik hala jokatu duen norbaitengan eta, ondorioz, justizia eta zuzentasun irizpideak aintzat hartu ez dituen emaitza izan beharko lukeenik.

Komenigarria da gogoan izatea, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren eta Espainiako Auzitegi Gorenaren doktrinekin bat, bidezko konfiantzaren printzipioak honako hau duela bere baitan: "Aginpide publikoak ezin ditu hartu bere erabakien itxurazko egonkortasunak eragindako itxaropenaren aurkako neurriak, partikularrek horien arabera hartu dituztelako erabaki jakin batzuk" (Auzitegi Gorenaren 1999ko maiatzaren 10eko epaia). Bestalde, bidezko konfiantzaren printzipioa "Administrazioak sorrarazitako kanpo zantzu nahikoa eztabaidaezinean oinarrituta dagoenean eta gertatuko zirela espero ez zen kalteak izan direnean aplika daiteke bereziki" (Auzitegi Gorenaren 1999ko azaroaren 15eko epaia).

Auzitegi Gorenako jurisprudentziarekin bat, printzipio hori Europako Erkidegoko Zuzenbidearen barruan sartzan ez diren harreman juridikoetan ere onar daiteke, "segurtasun juridikoaren printzipioaren ondorio gisa; segurtasun juridikoaren printzipioa Espainiako Konstituzioko 9.3. artikuluan xedatuta dago" (Auzitegi Gorenaren 2002ko uztailaren 8ko epaia).

Printzipio hau eta 30/1992 Legeak xedatutako administrazio publikoen betebeharreri buruzko gogoetak kexa idazkiak planteatzen duen auziari aplikatuz gero, uste dugu ohe ortopedikoa erosteko diru laguntza emateko egindako eskaera onartu egin behar dela.

Bestalde, uste dugu irtenbide hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak berak antzeko izapideetan izaten duen jardunbidearekin bat datorrela, halako laguntzak emateko eskabideak Institutuko erregistroan bertan "edo oinarritzko gizarte zerbitzuen bitartez" aurkez daitezten

baimentzen baitu (GONiko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 1045/2004 Ebazpena). Halakoetan, bertara jotzen duen eskatzaileak ezin du kalterik izan, eskabidea Institutura bertara igortzea atzeratzen bada; hortaz, badirudi argi dagoela bertan aurkezten den datari lotu behar zaiola.

Aurrez azaldutakoa kontuan harturik, uste dugu aintzat izan beharko liriatekeela kasu honetako gorabeherak eta, hori dela-eta, egokia iruditzen zaigu Departamentuari GOMENDIOA egitea, [...] and.k aurkeztutako laguntza eskabidea onar dezan. Laguntza emateko ezarritako gainerrako baldintzekin bat, laguntza eman dadin ebatzi beharko luke, eskabidea Institutuko erregistroan sartu den data dela-eta baino ez bada ukatu.

Gizarte Ongizateko Departamentuak gure gomendioa erantzun zuen, baita uko egin ere:

"Ukapena ez zen oinarritu eskabidea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan sartu zen data zorrotz aplikatuz, aurrez aurkeztu zela zioen beste data bat ageri ez zelako baizik.

Gomendioak administrazio bideko egintza finko bat berrikusteko eskatzen du: laguntza ukatzeko ebazpena berretsi zuen Gobernuaren akordioa. Egintza interesatuaren aurkakoa izanik, interpretatzen dugu Arartekoaren gomendioa HAAJAPE Legeko 105.1 artikulua xedatutako berrikusketari buruzkoa dela. Agindu horrekin bat, administrazio publikoek uneoro baliogabetu ditzakete kontrako egintzak, baliogabetze hori legeek galarazitako salbuespena ez bada, edo berdintasunaren printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurkakoa ez bada betiere:

a) Lehenik eta behin, baliogabetzea legezkotasun arrazoien bitartez justifika daiteke. Azken batean, egintza antolamendu juridikoa urratuz egin zela interpretatzea litzateke, bai erabateko deuseztasun akatsa egiteagatik, bai deuseztagarritasun hutseko akatsa egiteagatik. Hasierako prozedura izapidetu bitartean, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eskabidea aurkeztu zen dataren berri jakiteko zuen modu bakarra eskabidea

erakunde administrazio horretako erregistroan sartu zen data zen. Berrikusketa prozedura izapidetu bitartean ere ez zen baliarazi eskabidea aurrez aurkeztu zela zioen datarik. Egoera horretan, ezin pentsatuzkoa zen 30/1998 Legeko 38. artikulua xedatutakoaz beste aplikatu, eta eskabidea erregistroan sartu zen datan aurkeztu zela interpretatzea. Administrazio bidea amaitu ondoren, [...] and.k Osasunbideko langileek egindako idazkiak aurkeztu zituen, eskabidea aurrez jaso zela baina ez zela erregistratu ziotenak. Egoera honetan, Departamentuak ez du uste jardunbidea zuzenbidearen aurkakoa izan zenik, ezta bidezko konfiantzaren printzipioaren aurkakoa are, gomendio testuak dioenez.

- b) Bestalde, baliogabetzea egokitasun arrazoiaren bitartez justifikatu daiteke. Administrazio egintza baliagarria izanik, interes publiko arrazoi bereziek justifikatu behar dute bertan behera uztea. Arauaren helburuaren arabera, arrazoi horiek kasu bakoitzeko gorabeherekin lotuta egon behar dute. 168/1990 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat, laguntza bereziak emateak larrialdi egoerak konpontzea du helburu, besteak beste, presakotasuna eta ohiz kanpokotasuna kontuan hartuz. Kasu honetan, ordea, interesatua hila izanik, diru laguntza ematea ez litzateke bat etorriko bere helburuarekin; hortaz, ez dago baliogabetzea zilegituko duen egokitasun arrazoirik.

Orain arte adierazitakoarekin bat, Departamentuak bidegabetzat du lantzen ari garen prozedura berrikustea eta, hori dela-eta, auziaren inguruan egindako gomendioa begirune osoz ukatu behar du".

Ez gaude ados Departamentuaren iritziarekin eta, beraz, gure uste sendoa transmititu nahi diogu, auzi honen inguruan berriro ditugun egitateek gomendioan aipatutako bidezko konfiantzaren printzipioa argi eta garbi urratu dutelakoa, bertan azaltzen genituen arrazoiak direla eta.

Halako irtenbideak ikusirik, ezin da bestela interpretatu Administrazioak herritarrei zerbitzu eta babes hobea eskaintzeko ezarritako zerbitzua (osasun zentroetan gizarte langileak izatea, halako eskabideak hartu,

bete eta Departamentura igorri ere egiten dituztenak) herritarrek halako prozedurak izapidetzeko elementu desitxuratzaille eta kaltegarria izatea. Hartara, Administrazioa aldendu egiten da, esate baterako, oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten duten izapide ugaritan gauzatzen duen prozeduratik, gure gomendioan aipatu genuen Ebazpenak dioenez.

2. ZAHAR ETXEETAN EGINDAKO EGONALDIEK ERAGINDAKO ZORRAK ESKATZEA

01/10/B, 02/18/B, 02/209/B, 03/297/B, 04/27/B, 04/55/B, 04/76/B eta 04/157/B txostenak. Planteatu zitzaigun hainbat kasutan, Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuak kexatzaileen gurasoek Nafarroako Gobernuak finantzaturako zahar etxeetan egindako egonaldiak eragindako zorra eskatzeak ekarritako arazoak jakinarazi zitzaizkion Arartekoari.

Kasu horietako batzuetan, interesatuek adierazi zuten inoiz ez zutela delako zorra existitzen zelako inolako berririk izan; beste batzuetan, berriz, gizarte zerbitzuek zorra eragiten zela jakinarazi zietela zioten, baina sinbolikoa zela eta ez zutela ordaindu beharko.

Kasu guztietan, ordea, Gizarte Ongizateko Departamentuari eskatu zitzaion zorraren onarpena formalizatzeko moduari buruzko informazioa emateko, baita zorraren galdagarritasunari buruzkoa ere, zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeko 17. artikulua xedatzen duenarekin bat.

Departamentuak honako hau jakinarazi zigun:

"I.- ZORRA ONARTZEA:

- 1.- Gizarte zerbitzuen esparruko banakako eta familiarterko zerbitzuak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Legeko 12. artikuluko 13. paragrafoak xedatzen du onuradunak edo lege ordezkariak dokumentua sinatu

behar duela eragiten den zorra onartzeko; zorra haren ondasunen bitartez kobratuko da, zerbitzuak emateari uzten zaionean edo, bestela, hura hil ondoan.

- 2.- Aurreko xedapena betearaztearren, atal bat dago sarrera eskabidean eta zahar etxeetan egonaldia egiteko diru laguntza eskatzeko eskabidean (hain zuen ere, IV. atala). Haren bitartez, erabiltzaileak onartu egiten du zorra eragiten dela Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ematen dizkion zerbitzuen trukean, egonaldiaren gastuei aurre egiteko. Zor hori bere ondasunen bitartez ordaintzen da, zerbitzuak behin betiko emateari uzten zaionean, eta bere ondasunak ez transmititzeko konpromisoa hartzen du.
- 3.- Sarrera eskabidea eta zahar etxeetan egonaldia egiteko diru laguntza eskatzeko eskabidea erregistratzen denean Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan, honako atal hauek sartzen dira eskabidearen barruan: eskatutako zerbitzua –diru laguntza eskatzen da bertan–; interesatuaren datuak; familia unitatearen datu ekonomikoak; eta, azkenik, zorra onartzea –diru laguntza eskatzen dutenek bakarrik–. Kasu batean, onartu beharra dago eskabidea ez zela sinatu baina, hein berean, argi dago helburua laguntza ekonomikoa jasotzea zela, halaxe gertatu baitzen. Oinarri horren ondorioz, zorra onartu beharra dago, 168/1990 Foru Dekretuak xedatzen duenez.
- 4.- Edonola ere, nabarmendu beharra dago zorra izatea eta haren galdagarritasuna ez dagoela hura formalki onartzearen mendean. Hau da, zorra ez du hura onartzeak eratzen. Diru laguntza jasotzen den neurrian, zorra egon badago, eta onartzeak kreditua baliarazteko aukera ematen dio hartzekodunari (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari).

II.- ZORRA JAKINARAZTEA

- 1.- Urtean behin, erabiltzailea zahar etxean sartzen denetik hil egiten den arte, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institu-

tuko zuzendari gerenteak ebazpena ematen du, erabiltzaileari diru laguntza emateko, zahar etxeko tokiaren balioaren eta urte hartako tarifaren arteko aldearen baliokidea; gainera, kopuru hori Gizarte Ongizateko Institutuari ordaintzeke izango dela jakinarazten zaio interesatuari. Hortaz, ez dirudi onargarria denik haren beraren eta kopuruaren berri ez zelako argudioa.

- 2.- Zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeko 15. artikulua xedatzen du urtean behin metatutako zorraren zenbatekoa jakinarazi behar zaiola erabiltzaileari edo, bestela, haren tutoreari; zenbateko horren zati bat edo zenbateko osoa uneoro ordain daiteke. Lege agindu hau eskakizun berritzailea da zorra jakinarazteari dagokionez, metatutako zenbatekoa jakinarazi beharra agintzen baitu.

III.- GALDAGARRITASUNA

- 1.- 17/2000 Foru Legeko 17. artikulua xedatzen du zerbitzua dena delakoagatik emateari uzten zaion unetik aurrera galda dakiekeela zorra metatutako zorra duten pertsoneri, edo zorrak emandako bermeak gainditzen dituen unetik aurrera. Aginduko azken tarte berritzailea alde batera utzita - 17/2000 Lege Foruaren aurretik, ez zegoen bermerik eman beharrik-, araudia aurrekoaren berdina da funtsean. Izan ere, 168/1990 Foru Dekretuak xedatu zuen zorra zerbitzuak emateari uzten zitzaionean kobratuko zela edo, bestela, erabiltzailea hil ondoan.

Horrenbestez, galdagarritasuna eta, hortaz, zorra ordaindu beharra zerbitzua ematen hasten denerako eta erabiltzailea hiltzen denerako dago araututa, eta ezin da inola ere argudiatu eragindako zorra sinbolikoa denik.

- 2.- Erabiltzailearen ondasunen ondarezko betearazpena egin behar bada, Legeak xedatzen du ez dela etxebizitzaren

bitartez betearaziko, zahar etxeko erabiltzaile ohiak berak behar badu. Betearazpena bertan behera uzteko aukera hori honako egoera honetan ere aplika daiteke, hain zuzen ere, etxebizitza erabiltzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen, seme-alaba txikien, ezgaitasunak jotakoen edo baliabide sozio-ekonomikorik ez duen pertsonaren baten etxebizitza bakarra bada, baita Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak behar duen ala ez balioetsiko duen beste pertsonaren batena bada. Nabarmendu beharra dago betearazpena bertan behera uzteko egoera horren oinarria ondarezko betearazpena gauzatzeko asmoa eta egitate hori dokumentu bidez justifikatzea dela -ez da halakorik gertatu orain arte-.

- 3.- Aurrekoari dagokionez, nabarmendu beharra dago 17/2000 Foru Legeko, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko eta 177/2001 Foru Dekretuaren bitartez onartutako Nafarroako Foru Komunitateko Bilketa Araubideko xedapenekin bat, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko organo eskudunei dagokiela bilketa egitea garai betearazlean, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari, berriz, borondatezko garaian.
- 4.- Hortaz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zorra galdatzea inola ere ezin da ondarezko betearazpentzat hartu. Horrek ez dio kalte egiten, bilketa prozeduraren fasea iristean, Institutuak delako pertsonak etxebizitza behar duela jo eta, ondorioz, betearazpena bertan behera uzteko aukerari. Halako egoerak analizatu eta aztertzearen, batzorde bat eratu da.

IV.- ONDORIOAK

- 1.- Egia bada ere interesatuaren sinadura ez dela ageri sarrera eskabide eta zahar etxeetan egonaldia egiteko diru laguntza eskatzeko eskabide batean -bere baitan zorra onartzea duena-, eztaba da ezina dirudi bere helburua eskatutako laguntza jasotzea zela, halaxe gertatu baitzen. Edonola ere,

zorra ez du hura onartzeak eratzten, eskatutako laguntza jasozten den unetik aurrera existitzen baita; aitzitik, onarpena hartzekoduna indartzen duen bitartekoa da, kreditua kobratzeko erraztasun handiagoa izan dezan.

- 2.- Urtean behin, emandako diru laguntzaren zenbatekoa jakinarazi zaie interesatuei, eta zenbateko hori Gizarte Ongizateko Institutuari ordaintzeke izango zela ohartarazi. Hori dela-eta, onartzen zaila dirudi haren beraren eta kopuruaren berri ez zelako argudioa.
- 3.- Zorra interesatua hiltzen denetik aurrera galda daiteke, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokio borondatezko aldian galdatu eta biltzea. Horrek ez dio kalte egiten, ondarezko betearazpena gertatzekotan –zorra borondatez ez ordaintzea gertatu behar da lehenik–, etxebizitzaren betearazpena bertan behera uzteko aukerari, 17/2000 Foru Legeko 17. artikulua xedatutakoarekin bat, egitate hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren aurrean justifikatzen bada betiere”.

ANALISIA

Halako auziak analizatzean, adierazi dugu zaharren egoitzetako arretaren oinarria 1978ko Konstituzioko 58. artikulua dela; haren arabera, botere publikoek zaharren ongizatea sustatu behar dute, euren osasun, etxebizitza, kultura eta astialdi behar espezifikoerantzungo dieten gizarte zerbitzuen bitartez.

Konstituzioko 50. artikuluko aginduarekin bat, botere publikoek parte hartze eta konpromiso handiagoa hartu behar dute kolektibo honen helburuekin; alde horretatik, baliabide ekonomiko nahikoak izango dituztela bermatu behar dute, aldizka gaurkotutako pentsioen bitartez, eta euren ongizatea sustatu behar dute, euren osasun, etxebizitza, kultura eta astialdi behar espezifikoerantzungo dieten gizarte zerbitzuen bitartez. Hori guztia lortzeko bitartekoa pertsona hauek benetan babestuko dituen politika sendoa da, eta mekanismo egokiak sortu eta bizkortzea, eguneroko bizitzan dituzten arazoei arreta handiagoa emateko.

Foru Komunitatean, Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeak honako jardunbide hauek sustatzea xedatzen du nagusiei eta, zehazkiago, egoitzei dagokienez:

- Toki nahikoak sortzea laguntza behar dutenentzako egoitzetan ezgaitasunak dituzten zaharrentzat.
- Egungo egoitzak erreformatu eta eraldatzea, bertako arretaren kalitatea hobetzea, familiarteko babesa emateko zerbitzuak eta euren kabuz molda daitezkeenentzako behar adina toki sortzea.

Zaharrei dagokienez, zerbitzua emateak eragiten duen gastu osoa Administrazioak har dezan bere gain espero izaten da sarritan –osun arloaren eraginez, agian–; hartara, publikoa eta pribatua identifikatu egiten dira. Hala ere, botere publikoek ezin diote eurek bakarrik aurre egin laguntza karga horri eta, bestalde, gastuaren arrazionaltasunaren ikuspuntutik, ez dirudi arrazoizkoa denik euren gain hartzea euren egoera ekonomikoaren (edota ondarezko egoeraren) bitartez ordain dezaketen pertsonak eragiten duten gastua.

Erantzukizun partekatuaren inguruko ikuspegiak gero eta indar handiagoa du, hau da, alor honetako gastuei gizarteak eta Administrazioak aurre egin behar dietelako usteak; hortaz, Administrazioari zerbitzu gehiago eman ditzan eskatzeak ez du zertan ekarri doakoak izan behar dutenik. Funtsean, ikuspegi hori bereganatu du Nafarroako legegileak, zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legea ematean; izan ere, zentro horietako erabiltzaileek eta laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak dituzten betebeharrak ekonomikoak aipatzen ditu, bertan egindako egonaldiak ordaintzeko kuotei aurre egiteko.

Hausnarketa horiek egin eta planteatu dizkiguten egoeretan aplikatu ostean, uste dugu Administrazioa behartuta dagoela, ahal dela, eman dituen kopuruak itzuli edo ordain daitezzen ahalegintzera, interes publikoa bermatu behar duen heinean. Izan ere, ildo horretan ez jarduteak halako zerbitzuei aurre egiteko baliabideen eskasia nabarmena eragingo luke.

Planteatutako kasu batean, Gizarte Ongizateko Departamentuak ez zuen igorri interesatuaren sinadura berariaz ageri zen sarrera eta diru-laguntza eskaerarik.

Hala ere, ezin da ukatu Administrazioak zilegitasuna duenik berarekin hartutako zorrak kitatzen ahalegintzeko; are gehiago, hori egin behar duela uste dugu.

Zorraren balizko amortizazioa jaraunspen jasogabearen edo ondorengoek jarauntsitako ondasunen gehieneko zenbatekoaren bitartez betearaz dadin planteatzeak ere arrazoizkoa dirudi; hartara, helburua da sortu izan litekeen zorrari erabiltzailearen balizko ondareak aurre egin diezaion.

Aurrekoari kalte egin gabe, auzi honen alderdi formala nabarmendu beharra dago berriro ere, baita erabiltzaileari edo haren tutoreari zorraren zenbatekoa jakinarazi izana ere.

Are gehiago, 17/2000 Foru Legeak horixe bera irizten dio, halako zenbatekoak Administrazioari itzuli beharrarekin bat, metatutako zorra urtero jakinarazi beharra xedatu baitu; zorraren zati bat edo zenbateko osoa uneoro ordain daiteke.

Gainera, nabarmendu beharra dago, egungo araudiko xedapenei jarraiki, abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeko zioen azalpenean eta 17. artikuluan betearazpena bertan behera uzteari buruz ezarritakoa kontuan hartzeko aukera dagoela, ondarezko betearazpena etxebizitzaren bitartez gauzatu beharko balitz zorra kitatzeko; izan ere, kexatzaileek adierazi digute ohiko etxebizitza dela, eta ez dutela ahalmen ekonomikorik galdatutako zorrari aurre egiteko.

Horren guztiaren ondorioz, LEGE BETEBEHARRAK GOGORARAZI zitzaizkion Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, 17/2000 Foru Legeko 15. artikuluko betebeharrari dagokionez; betebeharrari hori urtean behin zentroetako erabiltzaileei metatutako zorra jakinarazteari buruzkoa da eta, horretarako, neurri egokiak hartu behar dira, jakinarazpen hori lehenbailehen hel dakien interesatutakoei, oraindik heldu ez bazaie.

Bestalde, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak balioetsi behar duenez gero delako pertsonak etxebizitza behar duen ala ez haren bidezko ondarezko betearazpena bertan behera utzi ala ez erabakitze-ko, GOMENDIOA egin zitzaion Departamentuari. Haren arabera, egoera hori planteatuko balitz, dagokion lege xedapena hartu beharko luke kontuan (17. artikulua), eta modu eragingarrian balioetsi beharko luke egoera, behar hori jazotzen bada, organo eskudunak erabaki egokia hartu ahal izan dezan.

3. ALARGUNTASUN PENTSIOKAK

03/200/T, 04/28/T, 04/29/T, 04/161/T eta 04/206/T txostenak. Hainbat pentsiodunek euren egoeraren inguruko keak aurkeztu dizkigute, Foru Komunitatean alarguntasun pentsioak osatzeko laguntza bereziak ezartzearen ondorioz.

Guztiek baztertuta sentitzen direla diote, martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legeak alarguntasun pentsioak jasotzen dituztenei bakarrik egiten die-lako mesede, gutxieneko erretiro pentsioak jasotzen dituztenei ere egin ezean; izan ere, gutxieneko erretiro pentsioen zenbatekoa ere ez da lanbide arteko gutxieneko soldataren adinakoa eta, hortaz, "konparazi-ozko bidegabekeria" dela diote.

Hori dela-eta, beharrezko neurriak hartzeko eskatzen dute, laguntza hauek hain murriztuki eman ez daitezen, eta lanbide arteko gutxiene-ko soldata baino pentsio txikiagoak jasotzen dituzten guztiek eskuratu ahal izan ditzaten.

Horretarako, Gizarte Ongizateko Departamentura eta Ekonomia eta Ogasun Departamentura jo genuen, arazo honen inguruan zuten iritzi-aren berri jakitearren.

Bi departamentuek nabarmendu zuten Nafarroako Parlamentuko Foru Legeak hartu behar duela kontuan 11/2003 Foru Legeak baztertutako pertsona ororen egoera.

Bestalde, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak alarguntasun pentsio-ak jasotzeagatiko kenkariei buruzko zerga araudia azaldu, eta kenkari

horiek alarguntasun pentsio batzuei bakarrik dagokienez xedatuta daudela berretsi zuen.

Jasotako erantzunak ikusirik, eta kexa idazkiaren bitartez planteatutako egoera ikusirik, honako adierazpen hauek egin nahi dizkiegu interesatuei:

Lehenik eta behin, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legeak, maiatzaren 20ko 127/2003 Foru Dekretuak garatzen duenak, honako aukera hau ezartzen du: urtean 2.700 euro baino gutxiagoko alarguntasun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek, eta Gizarte Segurantzaren araubidean gutxienekoak jasotzeagatik ezarritako osagarriak jasotzeko eskubidea dutenek, 900 euroko kenkari gehigarria ere aplikatuz dezakete urtero, zenbateko horien (pentsioen, gutxienekoa jasotzeagatik gehigarrien eta kenkarien) batura osoak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa izan behar duela kontuan harturik.

Gainera, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legeak laguntza gehigarria xedatzen du, eskasia ekonomikoko egoerak arindu eta lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitiko alarguntasun pentsioak jasotzen dituzten pertsonen oinarrizko beharrei erantzuteko.

Laguntza gehigarri hori lanbide arteko gutxieneko soldataren %100en, eta alarguntasun pentsioagatik zegokien kopuruaren eta Gizarte Segurantzak gutxienekoak jasotzeagatik ordaintzen zuen osagarriaren arteko baturaren arteko aldearen baliokidea zen.

Azken lege testu hori 1/2004 Foru Legeak ordezkatu du; alarguntasun pentsioak jasotzeagatik kenkariak eta, pentsio eskasa jaso arren, neurri hori aplikatu ezin duten pertsonen aplikatu beharreko kenkariak arautzen ditu.

Ikus daitekeenez, testu horiek guztiek alarguntasun pentsioak jasotzen dituzten pertsonak bakarrik hartzen dituzte kontuan.

Bestalde, ezin dira alde batera utzi pentsio ezberdinek eragiten dituzten egoera ezberdinak. Alarguntasun pentsioen zenbatekoa legez arau-

tzeari dagokionez, zenbateko hori kausatzaileari zegokion oinarri arautzailearen %52koa zen 2004. urtean, duela gutxi arte %45ekoa bazen ere. Nolabait, formula horrek zehazten du pentsioaren kausatzailearen heriotzak murrizketa handia dakarrela alargunak jasotzen duen zenbatekoan.

Aitzitik, erretiro pentsioak oinarri arautzaileari kotizatutako urte kopuruaren arabera ehunekoa aplikatuz kalkulatzeko dira; ehuneko hori %50 -15 urtez kotizatu bada; horixe da eskubidea galdatzeko eskatzen den gutxienekoa- eta %100 -35 urtez edo gehiagoz kotizatu bada- artekoa da. Hortaz, interesatuaren kotizazioaren ezaugarrien arabera-koa da jaso beharreko pentsioaren zenbatekoa. Azken batean, kontribuzioaren eta banakako pentsioaren arteko oreka hartzen da kontuan; oreka horren jatorria sistemaren kontribuziozko izaera eta proportzionaltasuna da, estatu mailako egungo araudiarekin bat. Araudi horretan, pentsio hauek jasotzeko beharrezko baldintzak eta euren zenbatekoak finkatzen dira.

Horrenbestez, argi eta garbi dago testuinguru honetan zaila dela egoera hauek horretarako mekanismo posible guztien bitartez ezarri edo hobetzeko lehentasunak finkatzea. Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak aipatu ditugun neurrien bitartez Gizarte Segurantzako sistemako alarguntasun pentsioez arduratzea erabaki izana bere eskumenera eta erabakien esparruan dago. Bestalde, beste pentsio batzuk lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko hainbat ekimen planteatu da Nafarroako Parlamentuan, baina ukatu egin da orain arte.

Aurrekoari kalte egin gabe, kontuan izan beharra dago pentsio hauen araudia estatu mailakoa dela, eta horrek Arartekoak esku hartzeko dituen aukeretan eragina duela. Hala ere, uste dugu ezin direla aipatu gabe utzi herritarrek gaiaren inguruan egin dituzten eskariak; izan ere, sistemako gutxieneko pentsioen eskasia nabarmendu dute, alor honetan aurrerapenak izan badira ere.

Alde horretatik, Gizarte Segurantzako pentsioen kudeaketak onera egin duen arren, nabarmena izaten jarraitzen du sistemako gutxieneko pentsioen eskasiak. Bermatzen jarraitu behar dira, eta gainerako pentsio publikoen balioa batez beste handitzen den maila gaindituz handitu behar dira. Izan ere, egungo zenbatekoek ez dute bermatzen zahartza-

roan nahikotasun ekonomikoa izatea, Konstituzioak dioen arren botere publikoek herritar guztientzako gizarte segurantza sistemaren bitartez bideratu behar dutela, pentsio egoki eta aldizka gaurkotuen bitartez.

Hori dela-eta, nahiz eta planteatutako kasuetan ez dugun antzematen Administrazioak irregulartasunez jokatu duenik, eskaerak aplikazio araudian xedatutako baldintzak ez betetzeagatik ukatu direnez gero, gogoan ditugu jazotzen diren egoera ezberdinak. Ondorioz, komenigarria iruditzen zaigu Gizarte Ongizateko Departamentuari egoera horiek jakinaraztea, baita Konstituzioko xedapenak bermatu beharri buruzko aurreko hausnarketak ere; helburua da Departamentuak beharrezko neurriak har ditzan, hala zuzenean, nola dagokion administrazioaren aurrean, gaiaren inguruan ahalik eta irtenbiderik egokiena aukeratzeko.

Beste arazo bat Gizarte Segurantzak gutxieneko pentsioen osagarriak kendu izana da, Nafarroako Gobernuak kontribuziozkoa ez den pentsioa ematen dielako aldi berean erretiratuei.

4. ETXEKO ARRETARAKO LAGUNTZA UKATZEA

02/375/B, 03/14/B eta 03/77/B txostenak. Hainbat pertsona etorri zitzaigun kexatzera, etxeko laguntza ukatu edo baliogabetu ziotelako.

Guztiek beste pertsona batzuk kontratatu beharra aipatu zuten eguneroko egitekorik oinarritzkoenak egiten laguntzeko; euren baliabideen bitartez aurre egin ezin dioten gastua dakar horrek.

Iritzia eskatu ondoren, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari gerenteak gaiari buruzko txostenak igorri zizkigun, eta etxeko arretarako laguntzak ekainaren 26ko 168/1990 Foru Dekretuko 8. artikuluko bigarren atalean azaltzen direla argitu zigun. 8. artikulua xedatzen duenez, "salbuespenetan, etxeko arretarako laguntzak eman daitezke, onuradunak etxean bertan ematen dizkieten zerbitzu pertsonalak eskura ditzan, edo eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzeko ezinbesteko ondasunak eros ditzan".

Agindu hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari gerentearen 2191/2002 Ebazpenaren bitartez garatu da; 2191/2002

Ebazpenak 2002an etxeko arratarako laguntzak emateko aplikatu beharreko irizpideak eta baremoak onartzen ditu.

Nabarmentzen du elkarbizitza unitate bakoitzak behin bakarrik jaso ditzakeela diru laguntza hauek; berdin dio 65 urtetik gorako pertsonen kopuruak, adin horretatik beherako minusbaliatu kopuruak eta euren arteko ahaidetasun mailak, familiako kide edo elkarrekin bizi diren guztiei egiten baitie mesede.

Laguntza horiek eskuratzeko eskubidea izateko, eskatzailea ezgaitasun larriko egoeran dagoela egiaztatu behar da, baina elkarbizitza unitateko kide guztien diru sarrerak, adina eta lan egiten duten ala ez ere hartzen dira kontuan, txostenaren arabera. Hiru egoera islatzen dituen eranskina gehitu da:

A taula elkarbizitza unitatean 65 urtetik gorako pertsonak bakarrik badaude aplikatzen da, eta honako oinarrizko errenta hauek finkatzen ditu:

KIDE KOPURUA	ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK
1	5.397,00 €	KOSTU OSOA
2	8.095,50 €	KOSTU OSOA
3	10.794,00 €	KOSTU OSOA
4	13.492,50 €	KOSTU OSOA
5	16.191,00 €	KOSTU OSOA

B1 taula 65 urtetik beherakoei aplikatzen zaie, eta honako oinarrizko errenta hauek finkatzen ditu:

KIDE KOPURUA	ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK
1	12.381,60 €	KOSTU OSOA
2	18.572,40 €	KOSTU OSOA
3	24.763,20 €	KOSTU OSOA
4	30.954,00 €	KOSTU OSOA
5	37.144,80 €	KOSTU OSOA
6	43.335,60 €	KOSTU OSOA

B2 taula 65 urtetik beherakoak daudenean eta familiarteko bi kidek gutxienez lan egiten dutenean aplikatzen da, eta honako muga hauek finkatzen ditu:

KIDE KOPURUA	ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK
2	20.429,64 €	KOSTU OSOA
3	27.239,52 €	KOSTU OSOA
4	34.049,40 €	KOSTU OSOA
5	40.859,28 €	KOSTU OSOA
6	47.669,16 €	KOSTU OSOA

Halaber, laguntzetatik kanpo geratzen dira kapitalak eta haietatik eratorritako errentak dituzten 65 urtetik gorakoak, honako muga hauek gainditzen badituzte:

PERTSONA KOPURUA	KAPITALA / ONSASUNAK	INTERESAK
1	30.050,61 €	1.202,02 €
2	48.080,97 €	1.923,24 €
3	60.101,21 €	2.404,05 €

Txostenak nabarmentzen duenez, B1 taula A taularekin batera aplikatzen da, 65 urtetik gorako pertsonen gain, elkarbizitza unitatean 65 urtetik beherakoak badaude eta horietakoren batek lan egiteagatiko diru sarrerak baditu; halaber, B2 taula A taularekin batera aplikatzen dela nabarmentzen du, 65 urtetik gorako pertsonen eta minusbaliatuz gain, elkarbizitza unitatean 65 beherakoak badaude, eta horietako bik edo gehiagok lana egiteagatiko diru sarrerak badituzte.

Eskabide bakoitzean eskatzaile bakoitzak behar dituen arreta orduak zehazten dira eta, horren arabera, interesatuaren beharraren kostu ekonomikoa zehazten da. Kopuru hori zenbateko osoa izango da, eskatzailearen elkarbizitza unitateak I. eranskineko A taulako diru sarrerak baino txikiagoak baditu. Tauletan ezarritako kopuruak "oinarrizko diru sarrerak" deitzen dira, eta laguntza hauek emateko gutxieneko irizpide ekonomikoak dira.

Gainera, Departamentuak nabarmentzen du baremoa publikoa dela, eta pertsona ororen eskura dagoela, prozeduran interesatua izan ala ez. Hala ere, etxeko arretarako laguntzak emateko irizpideak eta baremoak ez dira argitaratu Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Aitzitik, Foru Komunitateko oinarrizko gizarte zerbitzuei eta osasun zentroeiei bidaltzen zaizkie, bertan kudeatzen, izapidetzen eta proposatzen baitira laguntzak; hartara, irizpideak eta baremoak bertan eskura daitezke, baita Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan ere. Laguntza hauek eskatzeko prozedura norberaren oinarrizko gizarte zerbitzuan edo osasun zentroan abiatu behar da ezinbestean; bertan, laguntzak eskuratzeko bete beharreko baldintzen, dokumentazioaren eta ezaugarrien berri ematen zaie eskatzaileei.

Planteatutako gaia analizatzen hastean, ohartu ginen zailtasunak genituela etxeko arretarako laguntza zerbitzuak jaso ditzakeen biztanleria definitu eta mugatzeko; gainera, Gizarte Ongizateko Departamentuak ekitaldi bakoitzerako aurrekontu mugak ditu. Hala ere, uste dugu onuradun potentzialen taldeak laguntzaren helburuen arabera eta administrazio publiko guztiak mendean dauden berdintasunaren printzipioaren esparruan mugatu behar direla.

Konstituzioa irizpide baztertzailerik eta, hortaz, bidegabeak ezartzearen aurkakoa da etxeko arretarako laguntzak emateari dagokionez. Irizpide horiek helburuaren (gehien behar duena laguntzearen) arabera izan daitezkeen galdatzen du, baina baita Konstituzioko 14. artikuluko berdintasunaren printzipioaren arabera izan daitezkeen ere. Harekin bat, "espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta".

Aginduak legearen aurreko berdintasunaren printzipioa herritarren eskubide subjektibo gisa taxutzen du, euren artean desberdintasun arbitrarioak sustatzen dituzten arauetatik babesten dituen; betiere, konparagaiak izateko egoera antzeko edo analogoetatik eratorri behar dira, eta tratamendu juridiko bera eman behar zaie, arauak berdina izan behar duelako halakoetan guztientzat eta xedapen juridikoek ondorio berdinak izan behar dituztelako. Berdintasunaren printzipioaren ondorioz, arauak herritarren eskubide eta betebeharrak berdintasuna ezarri

behar dute egoera homogeneousetan. Ez balute hala jokatu, Konstituzioko printzipioa urratuko lukete.

Arauek tratu ezberdindu ezar dezakete egoera juridiko heterogeneoak arautzen badituzte; izan ere, bataren eta bestearen ezaugarrien ondorioz, desberdintasun horien arabeko xedapenak behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da justifikazio objektibo eta arrazoizkoa izan dadin, oro har onartutako irizpideekin eta balio juridikoekin bat, eta eskakizun maila landutako neurriaren helburuaren eta ondorioen arabera aplikatu dadin, erabilitako bitartekoen eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasun irizpideak aplikatuz betiere. Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan adierazi duenez, tratu ezberdina izateak ez du zertan arbitrariotasuna esan nahi; aitzitik, ezberdintasun "irrazionala" dakarren tratamendua bakarrik da arbitrarioa, hau da, neurritz kanpoko eta herritar batzuk besteen aldean ezberdin (onerako edo kalterako) tratatzeko justifikaziorik ez duena.

Azkenik, Departamentuaren atentzioa eman nahi izan genuen alderdi formal oso garrantzitsuaren inguruan; izan ere, aplikatu daitezkeen araudia eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak urtero egiten dituen deialdiak ez dira argitaratzen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Egokia litzateke laguntzen inguruko araudia, baremoak eta onuradunek bete beharreko baldintzak araudi bidez ematea, argia baitirudi aplikazioa hainbat urtetan barrena jazotzen dela, onuradunen bizi baldintzak nabarmen aldatu ezean.

Analizatutako kasua dugu horren adierazgarri, [...] andreak 1992az geroztik jasotzen baitzituen laguntzak. Hau da, alor honetan jarraitutasuna izaten da, eta nekez aldatzen da onuradunen bizitzan barrena; horregatik, komenigarria litzateke xedapen orokorrek ematen duten araudi egonkorragoa erabiltzea.

Jakinaenez, araudiak antolamendu juridikoa osatzen dute, eta egintzek, berriz, antolamendua kasu jakin batean aplikatzen dute. Administrazio egintzak hartzaile zehatza izaten du oro har, eta zuzeneko eta berehalako efektu juridiko indibidualak ditu; araudiak, ordea, subjektu talde zehaztugabea du hartzailezat. Bi horiek bereizteko doktrinak onartutako irizpide bat da administrazio egin-

tza betetzen denean amaitzen dela, eta araudia, berriz, behin eta berriro bete daitekeela.

Azaldutakoa gorabehera, [...] ebazpena ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuaren egintza osagarria edo betearazlea dela onarturik, nahitaezkoa zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara zedin, orokorra baitzen, hartzaileak laguntzen onuradun talde zehaztugabea izanik. Hala bakarrik bermatuko zatekeen segurtasun juridikoaren printzipioa eta herritarrek euren eskubideak ezagutu, erabili eta babesteko aukera.

Hori guztia dela-eta, GOMENDIOA egin zitzaion Nafarroako Gobernu-ko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Sailari, beharrezko izapideak egin ondoan, laguntza hauei buruzko araudi berria egin dezan, laguntzen helburuekin eta berdintasunaren konstituzio printzipioarekin bat etorriko dena; aldi berean, [...] andreak aurreko ekitaldietan jasotzen zituen laguntzak ematen jarraitzeko gomendatu zitzaion. Halaber, laguntzak araudi bidez arautu ditzan eta araua edo egintza Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin gomendatu zitzaion.

5. EGOILIARRENTZAKO LAGUNTZA UKATZEA

03/42/B txostena. Kexa idazkia mendekotasun handiko pertsonentzako egoitzako egonaldia ordaintzeko diru laguntza ukatu izanari buruzkoa zen, "ez zuelako baldintza betetzen egonaldia ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatekoa".

Alde horretatik, Gizarte Ongizateko Departamentuak honako hau adierazi zuen: "Laguntza ahalmen ekonomikoa egonaldiaren gastuaz biderkatzearen ondorioz ukatu zen, errenta, ondarea eta kapital higigarria eta higiezina (lehen etxebizitza izan ezik) kontuan hartuz.

Kasu honetan, diru laguntza ukatu zen egonaldia ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikoak zituelako; eskabidearekin batera aurkeztutako bankuko egiaztagirien arabera, (...) euro zituen guztira.

Halaber, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, etxebizitzaren %50 semeari utzi zion, etxebizitza (...) and.rena izanik.

Horrenbestez, laguntza hau emateari uko egitea bi aldetatik da egokia: batetik, Gizarte Zerbitzuen esparruko banakako eta familiarterko zerbitzuak eta laguntzak arautzeko ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuko 15. artikulua aplikatuz, eta bestetik, eskatzaileak ez duelako onibarraren eskualdatzea ez egiteko baldintza bete, zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeko 2. artikulua xedatzen duenarekin bat".

Foru Komunitatean, banakako eta familiarterko zerbitzuak eta laguntzak arautzeko uztailaren 20ko 168/1990 Foru Dekretuak zehazten du zentroetan edo egoitzetan egindako egonaldi itunduak zeharkako diru laguntzat hartzen direla, zentro edo egoitza batean sartu behar duten eta egonaldia ordaintzeko nahikoa baliabide ekonomikorik ez duten zaharrei ematen zaizkienak.

Zahar baliaezinei dagokienez, 15. artikulua dio lau baldintza bete behar direla ezinbestean egoitzetan itundutako egonaldia egiteko aukera izateko, besteak beste, egonaldiaren kostua ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez dela frogatzea eta onibarren eskualdatzerik egin ez izana edo pentsioei, esleipenei edo bestelako diru sarrei uko egin ez izana.

Txostenari erantsitako dokumentaziotik erauz daitekeenez, [...] and. alarguntasun pentsio baten titularra da eta, eskabidearekin batera aurkeztutako bankuko egiaztagirien arabera, [...] euroko kapitala zuen; hortaz, nekez argudia zezakeen egoitzako egonaldia ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez zuenik.

Halaber, araudiak itundutako hauetako toki bat eskuratzeko ezarritako beste baldintza bat onibarren eskualdatzerik egin ez izana da. Interesatuak sarrera eskabidean adierazi zuenez, ordea, 2000n semeari transmititu zion etxebizitzaren gainean zuen partaidetzaren ehunekoa; hortaz, ez zuen betetzen araudiak eskatzen duen bigarren baldintza ere.

Edonola ere, beharrezkoa da nabarmentzea itundutako egoitzetako egonaldiek zorra eragiten dutela, eta zor hori onuradunaren ondasunen bitartez kobratzen dela zerbitzuak emateari uzten zaionean edo hil egiten denean.

Hori dela-eta, uste dugu beharrezkoa dela interesatuari argitzea gizarte zerbitzu hori ez duela Nafarroako Gobernuak finantzatzen erabat baizik eta, onuradunak ondasunak baditu, berak edo ondorengoek hartzen dutela euren gain itundutako egoitzako egonaldiak eragindako kostua.

Ondorioz, uste dugu ez zela izan antolamendu juridikoaren aurkako administrazio jardunbiderik, edo administrazio publiko orok begiratu behar duen konstituzio printzipioren bat errespetatzen ez duenik, Departamentuak ez duelako egoitzako egonaldiak eragindako kostua [...] and.ren mesedetan bere gain hartzeko betebeharririk.

6. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ZAHARRENTZAT

02/263/U txostena. Kexa idazkia aurkeztu zuenak izan zen aukeraketa prozesuetan behin eta berriro alokatzeko edo erosteko babes ofizialeko etxebizitza ukatu izanaren ondorioz aurkeztu zuen.

Alde horretatik, jakinarazi zigun %45eko minusbaliotasuna duen 62 urteko pertsona dela, eta aldi baterako hartu zuen pertsona bate etxean bizi dela behin-behinean, baina etxea utzi behar duela laster. Ez du baliabiderik eta ez du baliabideak lortzeko aukerarik, oinarrizko errentatik bizi baita.

Hori dela-eta, egin izan diren sustapen publikoetan alokairuko babes ofizialeko etxebizitza lortzeko eskaera egin izan duenean izan dituen arazoen berri eman zigun. Izan ere, adierazi zigunez, ezarri izan diren baldintzekin bat, "baremo ekonomikora heltzen banaiz, zaharregia naiz, eta eskatzen duten adinekoa banaiz, berriz, ez naiz baremo ekonomikora heltzen".

Idazkiarekin batera, 2000ko urriaren 19an eta 2001eko maiatzaren 10ean [...] enpresaren aurrean aurkeztutako eskabideak aurkeztu dizkiugu, baita 2000ko urriaren 20an Viviendas de Navarra SArean aurrean aurkeztutakoa ere.

Planteatutako kasua ikusirik, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura eta Gizarte Ongizateko Departamentu-

ra jo genuen, informazioa eskatzeko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko edo alokatzeko baremoetan halako egoerak kontuan hartzen diren moduari buruz eta deskribatutako kasua bezalakoak konpontzeko aukerei buruz.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak honako hau azaldu zigun:

- 1.- [...] and.k arazo larria du etxebizitza erosi edo alokatzeko, ez baitu baliabiderik, ezta baliabideak lortzeko aukerarik ere, oinarrizko errentatik bizi denez gero. Izan ere, etxebizitza erosi edo alokatzeko, interesatuak hainbat gastu ordaindu behar du, etxebizitza diruz lagunduta egon arren.
- 2.- Nahaspilatsu adierazten badu ere, baremo ekonomikora heltzen ez dela edo zaharregia dela esatea honako honen ondorio izan liteke: babes ofizialeko etxebizitza sustapen batzuk 35 urtetik beherakoentzat –gazte alokairua- edo 65 urtetik gorakoentzat –zaharrentzako apartamentu babestuak- dira.
- 3.- [...] and.k 2000ko urrian Vinsa enpresan aurkeztu zuen eskabideari dagokionez, jakin dugu araubide bereziko alokairuko babes ofizialeko 46 etxebizitzak osatutako sustapena izan zela, 785 eskabide aurkeztu zirela eta, aukeraketa baremoa aplikatuz, [...] and.k 90. tokia eskuratu zuela.
- 4.- [...] and.rena bezalako kasuak konpontzeko, bi egitateri aurre egin behar zaie: batetik, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen eskasia dago, araubide bereziko alokairukoa batez ere, eta bestetik, sustapen hauetan sartzeko baremoek errealistak izan behar dute, eta alokairua (%75 ematen zaie lanbide arteko gutxieneko soldatetik beherako diru sarrerak dituztenei), komunitate gastuak (igogailua, mantentzea, eskailera...), zergak (zaborrak, estoldak, sustatzaileak maizterri eskualda liezaiokeen kontribuzioa...) ordaintzea ahalbidetuko duen diru sarreraren bat dutenak lehenetsi.
- 5.- Araubide bereziko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen arazo ekonomikoari aurre egin behar diete (prezioa araubide orokorrean baino txikiagoa da), gizarte arazoei (pertsonek batzuek

nahiago dute euren etxeetatik gertu lan eta ekonomia egoera normalizatuan daudenentzako etxebizitzak kokatzea) eta zentzuz halako etxebizitzak eskatzen dituzten pertsona eta talde ugariak eragindako arazoei”.

Gizarte Ongizateko, Kirol eta Gazteria Departamentuak, berriz, honako hau jakinarazi zuen:

“Eskutitza irakurriz erauzten da [...] and. 62 urteko pertsona dela, aitortutako %45eko minusbaliotasuna duela eta oinarritzko errenta jasotzen duela.

Nagusien Sailaren ikuspuntutik, pertsona horrek ezin du egoitza baliabiderik jaso, 65 urtetik beherakoa denez gero; aitortutako %45eko minusbaliotasunari dagokionez, berriz, Minusbaliotasunak dituzten Pertsonen Sailak bakarrik argudia dezake minusbaliotasun horrek puntu gehiago ematen diola Etxebizitza Departamentuak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko ezarritako baremoetan.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak babes ofizialeko etxeak emateko baremoak osatzen parte hartzen ez duenez gero, ezin diogu erantzun Arartekoak planteatutako auziari”.

ANALISIA

Auzi honi dagokionez, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko arazoari aplika dakioken araudia urriaren 1eko 276/2001 Foru Dekretuan jasota dago; 276/2001 Foru Dekretuak arautzen du zer finantzazio eta laguntza neurri hartu behar diren etxebizitza gaietako ekintza babesgarrietarako, bizileku eraikinak sustatzeko, ikuskapen eta kontrolerako, Nafarroako babes ofizialeko etxebizitzaren prezio araubidea eta deskalifikazio aukerak finkatzeko, eta aurrez aplikatzen ziren 350/2000, 75/2000, 621/1999 eta 287/1998 foru dekretuak ordezkatu zituen.

Kexa idazkiaren egileak aurkeztutako eskabide gehienak araubide bereziko alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak eskatzeko ziren, eta horien araudia Foru Dekretuko 80. eta 87. artikuluen artean jasota dago. Izan ere, interesatuaren familiarreko diru sarreraz haztatuak ez dira lanbide arteko gutxieneko soldata halako 2,5 baino handiagoak.

Etxebizitza hauen esleipendunak aukeratzeari dagokionez, Foru Dekretuko 21. artikulua xedatzen du, araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko, esleipendunek lanbide arteko gutxieneko soldata halako 2,5 baino txikiagoak diren familiarterako diru sarrera haztatuak eta esleitzen zaien etxebizitzaren balioaren zazpiren bat baino handiagoak diren familiarterako diru sarrerak izan behar dituztela.

[...] and.k adierazi du Arartekoaren aurrean dituen diru sarrera bakarrak Gizarte Ongizateko Departamentuak halako laguntzak arautzeko apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua aplikatuz ematen dion oinarritzko errentatik ateratzen dituela.

Departamentuaren arabera, VINSAk araubide bereziko alokairuko babes ofizialeko 46 etxebizitzaren inguruan egindako sustapenean, Rodrigo and.k 90. tokia eskuratu zuen. Hau da, bere egoera ekonomiko makala gorabehera, sustapenean sartu zen, nahiz eta baremoa aplikatu eta beste eskatzaile batzuek puntuazio handiagoa izan zuten.

Hasiera batean, ditugun datuak ikusirik, interesatuak araudiak xedatutako baldintza orokorrak betetzen ditu; gainera, %45eko minusbalioetasuna du. Antza denez, gorabehera horiek kontuan hartu dira eta ego-kiro balioetsi dira, baina aukeraketa prozesuaren emaitza bere eskaerari uko egitea izan da azkenean.

Txostenaren bitartez, Departamentuak berak onartzen du egungo arazoa alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen eskasia dela. Hori dela-eta, Arartekoak gauza bakarra egin dezake: Departamentuari egungo eskaria zein den arretaz azter dezan eskatzea, baita kopurua eta eskaintza handitzeko aukera azter dezan ere. Badirudi neurri horrek konponduko duela funtsean kexa idazkiaren egileak bizi duen egoera; izan ere, deialdietan eskatzen diren baldintza guztiak bete arren, ezin du etxebizitza duinik eskuratu, bere beharren arabera egokitzen den etxebizitza eskasia dagoelako eta egoera hobean dauden beste pertsona batzuk daudelako aukeraketa irizpideak aplikatzean.

Alde horretatik, kontuan izan beharra dago Konstituzioak etxebizitza izateko eskubidea onartzea ez dela etxebizitza erosteko eskubidearen sinonimoa. Hortaz, etxebizitza alokatzea lantzen ari garen arazoa konpontzeko oinarritzko irtenbideetako bat da.

Espainiako higiezin merkatuak inguruko herrialdeetako merkatuaren aldean duen ezaugarri berezietako bat da erostea dela etxebizitza eskuratzeko modua oro har. Hori dela-eta, beharrezkoa da alokairu araubidearen egokitasuna nabarmentzea, euren diru sarrerak direla-eta, etxebizitzak erosteko aukerarik ez duten sektore zabalek etxebizitza duina eskura dezaten.

Horrenbestez, botere publikoek alokairuaren aldeko apustua egin behar dute etxebizitza eskuratzeko araubide gisa, alokairu eskaintza bideratuko duten neurriak hartuz eta eskaria erakargarriagoa bihurtuz ikuspuntu ekonomikotik; hartara, egun hutsik dagoen etxebizitza kopuruak behera egingo luke.

Etxebizitzen alokairuaren alorrean eragin zuzenagoa izateko modu bat da administrazioek edo hirugarrenek alokairurako babes publikoko etxebizitzak susta ditzaten; bide batez, administrazio publikoek gizarte larrialdiko egoerei bizkor eta modu eragingarrian esku hartuz erantzuteko duten parkea handituko litzateke. Halako etxebizitzen sustapena handitzea oso bitarteko egokia da behar mailarik handiena duten gizarte taldeak gizarteratzeko; nolana ere, etxebizitza horiek egokiro kudeatzeko sistema ere sortu behar da.

Etxebizitza eskuratzeko errazteko ekintza publiko orotan bezala, kontuan izan beharra dago kolektibo batzuek aparteko arreta eman dakien behar dutela, euren gorabehera espezifikoak direla eta. Izan ere, zaharrek, gazteek, etorkinek, ezgaituek, familia ugarietako kideek eta banaketa edo dibortzio prozesuak edo bikotekidearengandik tratatu txarrak saihesteko banatu beharra direla-eta seme-alabak euren gain hartu behar dituzten emakumezkoek errenta eta gizarteratze arloko arazo espezifikoak dituzte, eta garatzen diren esku hartze politiken bitartez erantzun behar zaie arazo horiei.

Hori guztia egiteko, kontuan izan behar da halako ekintzak hala hiri-guneetan, nola aldirietako andeatutako auzoetan gauzatu behar direla. Hartara, ingurune egokia lortzeko jarduerak bat egiten dute, hiri eredu jasangarrian oinarrituz gizartearen, ekonomiaren eta ingurunearen ikuspuntutik, eta hainbat hiritan gertatzen ari den toki bazterketak eragindako arazoak saihesten dira; izan ere, hainbat hiritan sozialki homogeneoak diren taldeak zona jakin batzuetan bil-

tzen ari dira, eta zona horiek bazterkeria eta andeatze lekuak bihurtzen ari dira.

Hor guztia dela-eta, iruditu zitzaigun egokia zela GOMENDIOA egitea Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, arretaz azter zezan alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren egungo eskaria, eta eskaintza handitu eta eskari errearen arabera egokitzeko aukera azter zezan; horretarako, halako etxebizitzak sustatzeko beharrezko neurriak hartu beharko lituzke.

7. ADINA DELA-ETA EMATEN DEN BONO-TAXIA UKATZEA

02/105/B eta 02/221/B txostenak. Aurkeztu zizkiguten bi kasutan, kexa idazkiaren egileek adierazi zuten ez zeudela ados Iruñeko Udalak ezgaituei ematen dien bono-taxia eskuratzeko ezarritako adin mugarekin.

Lehenengo kasuan azaldu zigutenez, delako pertsonak 91 urte zituen, eta mugimendu oro eragozten zion ezgaitasun larria zuen. Hortaz, ezin zituen garraibide publikoak erabili joan-etorriak egiteko. Nabarmendu zuen ezinbestekotzat zuela pertsonak gurpildun aulkian eramateko egokitutako taxa erabiltzea joan-etorriak egiteko, baina horretarako beharrezkoa zela Udalak egiten duen bono-taxia eskuratzea. Azkenik, Udalaren bono-taxia emateko eskatu zuen, baztertzaila iruditzen baitzitzaien adina dela-eta ukatzea.

Bigarren kasua %73ko ezgaitasuna zuen 84 urteko pertsona baten ingurukoa zen. Pairatzen zuen gaixotasuna zela-eta, beharrezkoa zen sarritan Nafarroako Ospitalera eta Vianako Printzea kanpo kontsultetarako zentrori eramatea baina, gurpildun aulkia erabiltzen zuenez gero joan-etorriak egiteko, materialki ezinezkoa zitzaion garraibide publiko kolektiboak erabiltzea.

Bi kasuetarako aurkeztutako informazio eskaerei erantzutearren, Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Sailak laguntzak jasotzeko lehenengo baldintza aipatu zigun, hain zuzen ere, "5 eta 75 urte artean izatea, edo 75etik gora izatea, ezgaitasuna 65 urte bete aurretik agertu bazen. Baliabide honen onuradunak izandako pertsonak onuradun izaten jarraitu ahal izango dute 75 urte bete

ostean. Halaber, 5 urtetik beherakoen ohiz kanpoko egoerak aztertuko dira".

Gainera, Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Sailak zerbitzu horren jatorria azaldu zuen txostenaren bitartez. Harekin bat, Minusbaliatu Fisikoen Koordinakundeak Iruñeko Udalarari egin zion eskaera baten ondorioz jaio zen, eta 1998az geroztik diru laguntza emateko hitzarmenaren eta oinarriaren bitartez ebatzi da.

Iruñeko Udalak honako hau ere azaldu zuen: "Bestalde, laguntzen hartzaileak mugatu egin behar dira programa gauzatu ahal izateko, zerbitzuaren kudeaketa urteko aurrekontu jakin baten arabera delako eta helburua zerbitzua bideragarria izatea delako. Muga horiek 3., 4. eta 5. ataletan araututa daude".

ANALISIA

Beharrezkoa da Bono-taxia eskuratzeko Banakako Laguntzen Oinarrietako 3. atalaren edukia aztertzea. Oinarriok Iruñeko Udalak onartu zituen 2002 ekitaldirako, eta laguntzak eskatzen dituztenek bete beharreko baldintzak zerrendatzen dituzte; zehazkiago, adin mugei dagokienez, honako hau xedatzen dute, hain zuzen ere, "5 eta 75 urte artean izatea, edo 75etik gora izatea, ezgaitasuna 65 urte bete aurretik agertu bazen. Baliabide honen onuradunak izandako pertsonak onuradun izaten jarraitu ahal izango dute 75 urte bete ostean".

Kexa honetako gorabehera interesgarri helduz, araudiak honako hau ezartzen du; a) bono-taxia eskuratzeko eskubidea dute gehienez ere 75 urte dituzten eta minusbaliatutzat jo dituzten pertsonak; b) minusbaliatu adierazpena 65 urte bete aurretik egin bazen, adin horretatik gorakoek ere eskubidea dute, eta hil arte jasoko dituzte laguntza horiek; c) aurrez laguntza horiek jaso dituzten pertsonak onuradun izaten jarraituko dute euren adina gorabehera.

Hortaz, minusbaliatu 65 urte bete aurretik izendatu dituzten eta laguntza horiek aurrez eman zizkieten pertsonen aldeko tratua dago; gainera, bi kasu horietan, eskubideak bere horretan jarraitzen du bitziza osoan barrena.

Ezgaitasun egoera 65 urte bete ostean jasaten dutenek, ordea, 75 urte bete arte bakarrik eusten diote eskubide horri, galdu egiten baitute ondoren.

Egia esan, Udalak askatasuna du laguntzen hartzaileak mugatzeko, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuek mugatuta baitago gainera, baina onuradun potentzialen mugak laguntzaren helburuaren arabera eta berdintasunaren printzipioaren esparruan ezarri behar dira; izan ere, gainerako administrazio publikoak bezala, Iruñeko Udala printzipio horren mendean dago.

Oinarrietako tratu ezberdintasun nabarmena justifikatzeko, udal txostenak dio "garai batean baliabide hau oinarritu zuen filosofia, arautzen duten oinarrietako zioen azalpenean eta helburuan ageri dena, ibiltzeko gurpil aulkiak edo makilak behar dituztenei ordezeko garraioidea ematea" izan zela, "helduentzako baliabideak Plan Gerontologikoaren bitartez antola daitezkeelako, adinak eragindako ezgaitasunekin bat gehiago etorririk. Hala ere, adin tarte 75 urte arte hedatu da aurren; pertsona horiek, ordea, ezgaitasuna 65 urte bete aurretik agertu zela justifikatu behar dute egiaztagiri medikoaren bitartez, horixe baita programa orokorrek gizarte baliabideak antolatzeke zehaztutako gehieneko adina".

Txostenak kontrakoa dioten arren, ez dugu antzeman oinarrien "zioek eta helburuak" bazterketa arrazoitzen dutenik; izan ere, 1. eta 2. atalek ez diote ezer gaiaren inguruan, eta 3.ak tratu ezberdintasuna arautzen du. Hala ere, txostenak dioenez, litekeena da Udalak Plan Gerontologikoan xedatutako beste laguntza batzuk kontuan hartu izana, zehatz-mehatz, ezgaituei ematen zaien Laguntza Garraio Egokituko Zerbitzuetik eratorritakoak; Zerbitzuaren helburua ezgaituak programako hainbat zentrorara eta jardueratara eramatea da, erakundeetan sartu behar izatea ahal bezainbat atzeratzearren.

Udalak Plan Gerontologikotik eratorritako laguntzak kontuan hartu izan arren, onartu egin beharra dago ezgaitu 65 urte bete ostean izendatu dituzten 75 urtetik gorako tratuak berdintasunaren printzipioa urratzen duela nabarmen, konparagaiak homogeenak baitira ia: balizko onuradun guztiak ezgaitu larriak dira, eta euren zailtasunak antze-koak dira baina, hala ere, hartutako konponbidea oso desberdina eta

baztertzaila da. Ez da arrazoizkoa ezgaitasuna 65 urte bete aurretik edo ondoren izendatzeak inolako eragin juridikorik duela eustea, ezgaituen egoera bera baita objektiboki, baita euren beharrak eta mugikortasun arazoak ere. Ez da arrazoizkoa herritar batzuek bizitza osoan barrena ateratzea onura bono-taxitik, eta beste batzuei laguntza hori kentzea 75 urte betetzen dituztenean; izan ere, ezgaitu 65 urte bete ostean izendatzeak ez du garrantzirik. Bono-taxia Plan Gerontologiko antzeko beste laguntza batekin bateragarria ez izatea ezar zitekeen, baina bateraezintasunak onuradun guztiengan izan beharko luke eragina, adina gorabehera; esan bezala, adina garrantzi gabeko faktorea da kasu honetan.

Hori guztia dela-eta, egoki jo zen Iruñeko Udalarari GOMENDIOA egitea, bono-taxirako laguntzak ezesteko ebazpena baliogabetu eta kexa idazkia aurkeztu zuten pertsoneri eman ziezaien eskatzeko. Hartara, oinarrietako 3. atala baliorik gabe uzteko eskatu zitzaion 75 urteko mugari zegokionez, berdintasunaren printzipioa urratzen zuelako.

9. la protección de las personas mayores en el ordenamiento jurídico

Europako Erkidegoko estatuetakoko legediek zaharren arreta aitortzen eta babesten dute; izan ere, legedi horiek osatzen dute, adina dela-eta, estatuak arreta eta babes berezia behar duten herritarren aldera duten ardura publikoa. Ezbairik gabe, aitortza eta konpromiso publiko hori da ongizate estatuaren funtsezko oinarrietako bat. Antolamendu juridikoek herritarrok bizitzaren amaiera aldean izan ditzakegun arazoei erantzun diete, eta beharrezko erakundeak sortu dituzte horretarako, hain zuzen ere, babes eta arreta nahikoa bermatuko duten zerbitzuak emateko. Halaber, ahalegina egin dute zaharrentzako baliabide ekonomiko nahikoak izatea bermatzeko, independentzia eta gizarteratzea eskura ditzaten horrela.

Nabarmentzekoa da Europako Konstituzioa osatzen ari dela gaur egun; hain zuzen ere, Europako Konbentzioak 2003ko ekainaren 13an eta uztailaren 10ean onartu zuen haren proiektua, eta Oinarrizko Eskubideen Kartan adierazitako eskubideak, askatasunak eta printzipioak ageri dira bertan. Proiektuarekin bat, zaharren babesa Europako erai-kuntzan kontuan hartu beharreko elementu nagusietako bat da eta, Kartako 25. artikulua dioenez, "Batasunak zaharrek bizitza duina eta independentea izateko eta gizarte eta kultur bizitzan parte hartzeko duten eskubidea aitortzen eta errespetatzen du".

Gainera, mendekotasun egoeran edo zahartzaroan daudenek Gizarte Segurantzako laguntzak eta herritarren babesa bermatzen duten gizarte zerbitzuak eskuratzeko eskubidea dutela aitortzen da (34. artikulua), baita baliabide nahikorik ez dutenek gizarte eta etxebizitza laguntzak eskuratzeko eskubidea dutela ere. Halaber, pertsonok osasun prebentzi-orako eta arretarako dugun eskubidea aitortzen da, eta osasunaren babes maila handia bermatu (35. artikulua).

Espanian, berriz, 1978ko Konstituzioak zaharrak babesteko oinarriak finkatu zituen. Bi esparru ezberdin dira berez, baina elkar osatzen dute, eta 41. eta 50. artikuluetan adierazten dira: Gizarte Segurantzak eta gizarte zerbitzuak.

KONSTITUZIOKO 41. ETA 50. ARTIKULUAK, ABIAPUNTUA

Honako txosten hau Foru Komunitateko administrazio publikoek ematen dituzten edo eman beharko lituzketen zerbitzuetara lerratzen bada ere, ezin ukatuzkoa da zaharrak babesteko erakunderik garrantzitsuena Gizarte Segurantza dela, hala kantitatearen ikuspegitik, nola kalitatearen ikuspegitik. Hortaz, pentsio sistema publikoari buruzko aipamena egin behar dugu labor bada ere, esan bezala, hori baita gure zaharrek bizitza duina izan dezaten dugun babesik onena.

Zaharren babesaren antolamendu juridikoari heltzeko abiapuntutzat balio duten bi gako agindu ageri dira Konstituzioko testuan. Batetik, 41. artikulua dugu; honako hau dioena hitzez hitz: "Botere publikoek herritar guztientzat Gizarte Segurantzako araubide publikoari eutsiko diote; sistema horrek gizarte-laguntza eta -prestazio nahitaezkoak bermatuko ditu beharizan-egoeretan eta, batez ere, langabezia-kasuetan. Laguntza eta prestazio osagarriak askeak izango dira".

Bestetik, honako hau dio 50. artikulua: "Botere publikoek, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko die herritarrei zahartzaroan. Modu berean, eta familiaren betebeharretatik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez".

41. artikulua aurreko erregimen politikotik jasotako Gizarte Segurantzako sistema eraldatzeko oinarriak finkatu zituen, honako printzipio hauen aldetik: a) unibertsaltasun subjektiboaren aldetik, sistemak herritar guztiak babes ditzan, hari ekarpen ekonomikoak egin ala ez; b) orokortasun objektiboaren aldetik, beharizan egoera guztiei erantzun dakien; c) zerbitzuen nahikotasunaren aldetik, herritarrek lanean edo bizitza profesionalean lortu dituzten diru sarreren maila gorabehera; eta d) finantzazio publikoaren aldetik.

Gizarte Segurantzaren egungo sistema mistoa konstituzio zuzentarau horietan oinarrituta eratu da: alde batetik, kontribuziozkoa da, enpresen, langileen eta profesionalen gizarte kotizazioei esker finantzatzen baita; beste alde batetik, ez-kontribuziozkoa da, Estatuak ere egiten dizkielako ekarpenak Gizarte Segurantzako aurrekontuei.

Kontribuzio hutsezko eredutik eredu mistora aldatu izana Gizarte Segurantzako sisteman kontribuziozkoak ez diren zerbitzuen araubidea sartu izanaren ondorio izan zen, abenduaren 20ko 26/1990 Legea aldarrikatu zela eta. Harekin bat, herritar guztiek dute erretiro eta ezgaitasun pentsioak jasotzeko eskubidea, baita seme-alabengatiko diru laguntzak ere, inoiz kotizatu ez badute edo kontribuziozko laguntzak lortzeko denbora nahikoa kotizatu ez badute ere. Hain zuzen ere, indarrean dagoen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategineko 144., 167. eta 182. artikuluetan eta bat datozen xedapenetan adierazten dira kontribuziozko laguntzak jasotzeko baldintzak.

Hala ere, kontribuziozkoak ez diren zerbitzuak sortu arren, nabarmendu beharra dago ez dela behar bezala betetzen 41. artikulua botere publikoei ezarritako konstituzio agindua, Gizarte Segurantzako sistemaren unibertsalizazioa honako kolektibo hauentzat baino ez baitago bermatuta: zaharrentzat, ezgaituentzat eta euren gain seme-alabak dituzten pertsonentzat. Egoera horietakoren batean egon ezean, pobrezia eta bazterketa egoeran dauden herritarren kolektiboa, berriz, araudi orotatik kanpo dago era honetako zerbitzuei dagokienez.

Gizarte Segurantzako sistema sendotzeko eta arrazionalizatzeko uztailaren 15eko 24/1997 Legeak deskribatutako eredu misto eta hein batean unibertsalizatua berretsi zuen. Nolanahi ere, kontribuziozkoak ez diren pentsioak sortzeak baliabiderik gabeko zahar sektore handi batentzat ekarri duen hedatze subjektiboa goraiatu beharra dago. Hainbat arrazoi dela-eta, zahar horiek ez zuten kontribuziozko pentsioak eskuratzeko eskubiderik baina, azken batean, esan liteke Espainiako sistemak unibertsalizatu egin duela zahartzarora heltzen diren herritar guztiek pentsioren bat jasotzeko eskubidea.

Konstituzioko 50. artikulua, berriz, zahar guztiek baliabide ekonomiko nahikoak izan ditzaten bermatzeko agindu zien botere publikoei, pentsio egoki eta aldi-aldi gaurkotuen bitartez. Konstituzio aurreikuspen hori oso-oso garrantzitsua da kolektibo honi dagokienez, nolabaiteko autonomia pertsonala izateko moduko baliabide ekonomiko nahikoak bermatzen baititu zaharrentzat. Hartara, pentsio sistema publikoa lehenengo mailakoa eta giltzarria da beharrezko babesa bermatzeko.

Zehaztugabea den arren berez, Konstituzio Auzitegiak "pentsio egoki" kontzeptua zehaztu zuen bere eskumeneko hainbat epai ematean. Hain zuzen ere, honako hau adierazi zuen gaiaren inguruan: "Ezin da eta ez da bakartuta hartu behar kontuan, pensio bakoitzari erreparatuz; aitzitik, pensio sistema osoa hartu behar da aintzat, unean uneko gizarte eta ekonomia gorabeherak alde batera utzi ezean, eta helburua baliabide kopuru mugatua administratzea dela ahaztu ezean, gizarte behar ugariri erantzuteko" (Konstituzio Auzitegiaren 134/1987, 97/1990 eta 100/1990 epaiak). Konstituzio Auzitegiaren ustez, irizpide hori bera aldiari aldiko gaurkotzea bermatzeari aplikatu dakioke. Izan ere, gaurkotzea ez omen da mekanikoki aplikatu beharreko eskubide hutsa, urtero pensio guztiek gora egitea ekarri behar duena; aitzitik, botere publikoek hartu behar duten ildoan omen da, zaharren erosteko ahalmena bermatzeko ekitaldi bakoitzeko testuinguru ekonomikoan.

Xedapen horretako bigarren atalak "gizarte zerbitzuen sistema" teknikoak sortzeko agindu zien botere publikoek, zaharrek berezko dituzten beharrei erantzuteko; behar fisikoak, eta gizarte eta kultur, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdi beharrak sartzen dira berezko behar horien barnean, baina helburu horiek betetzeko balio lezaketen bestelako behar analogoak ez daude alde batera. Nabarmenezkoa da delako zerbitzuak sortu eta finantzatzeko agindua "familia betebeharrak gorabehera" eman zela. Hau da, botere publikoek ez dute subsidiarioki jardun behar, familiarek zaharrekiko euren betebeharrak betetzen ez badituzte; aitzitik, gizarte zerbitzuak beti eman behar dira, eta administrazio publikoek dagokie ezar daitezten eta behar bezala funtzionatzen dezaten bermatzea.

Azken batean, Konstituzioak pensio publikoko sistema publiko unibertsalizatua ezarri zuen, eta baliabide ekonomiko nahikoak bermatzeko agindu zuen. Hala eta guztiz ere, ordaintzen diren pensio batzuen kopuru eskasa ikusirik (kontribuziozkoak ez direnena batez ere), nabarmena da lehenengo konstituzio agindua bakarrik bete dela oraingoz –zaharrentzako pensioen unibertsalizazio subjektiboa–; ez, ordea, bigarrena –nahikotasun ekonomikoa–. Gainera, Konstituzioak gizarte zerbitzuen sistema sortzeko eskatu zien botere publikoek, zahartzaroaren berezko arazoak eta beharrak konpontzen laguntzarren.

Araudiaren ikuspegi hori ez litzateke nahikoa izango ez bagenu Konstituzioako 10.1. artikulua aipatuko; harekin bat, pertsonen duintasuna da konstituzio sistemako oinarrizko eskubideen burua eta abiapuntua. Aginduak 15. artikulura bideratu eta lotzen gaitu; hain zuzen ere, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea finkatzen da bertan.

Ikus daitekeenez, agindu horiek arautzen dituzten eskubideak lantzen ari garen gaiaren esparrukoak dira bete-betean, zaharrak oso egoera makalean egonik, pertsonen duintasuna eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea guztiz babestuta egotea bermatzeko neurriak indartu behar baitira.

Administrazio publikoek gutxieneko bizi baldintzak sustatu eta bermatzeko betebeharra dute zaharren aldera, batez ere, urritasun fisiko edo psikikoko egoeran dauden zaharren aldera, eta betebehar hori ezin dute agindu hauek edukirik ez bailuten, erretorikoki interpretatuz saihestu.

Helburua botere publikoek bizitzaren amaiera aldean izan litezkeen beharrei eta egoerei erantzutea da. Betebehar horiek ez dira norberaren bizitzaren garapena eta autodeterminazio kontzientea bermatzeko neurrien ingurukoak bakarrik, bere burua babestu eta euren bizitzari buruz erabaki ezin duten pertsonen duintasuna eta osotasun fisiko eta morala babesteko beharrezko neurrien ingurukoak ere baizik. Herritarrek oinarrizko eskubideen jabe dira halako egoera larrian izan arren, eta botere publikoek herritar orok dituen oinarrizko eskubideen alderako errespetua bermatu behar dute.

GIZARTE LAGUNTZAREN, GIZARTE ZERBITZUEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ESKUMEN ESPARRUA

Espainiako Konstituzioak gizarte babeserako sistema publikoa taxutu zuen, eta "Gizarte Segurantza", "gizarte zerbitzuak" eta "gizarte laguntza" terminoak erabiltzen dira hari buruz mintzatzeko. Hala ere, badirudi argi eta garbi dagoela Konstituzioak erakundeek zerbitzu publikoak emateko bi moduz diharduela: Gizarte Segurantzaz eta

gizarte laguntzaz edo, izendapen gaurkotuagoarekin bat, gizarte zerbitzuez.

Konstituzioak eskumen hauek aipatzen dituen moduak eztabaida piztu du, litekeena baita bi izendapen horiek talka egitea hurrenez hurren Estatuari eta autonomia erkidegoei dagozkien eskumenei dagokienez; izan ere, zaila da zehatz-mehatz bereiztea. Hainbat sektorek dioenez, gizarte zerbitzuak osagarriak dira, Gizarte Segurantzaren kontribuziozko eta ez-kontribuziozko sistematik kanpo geratzen diren egoerei erantzuteko prestatuta baitaude; hartara, Gizarte Segurantzaren mendean leudeke, zaharren bizi baldintzak hobetzen laguntzeko Gizarte Segurantzako zerbitzuak nahikoak ez direnean.

Beste sektore batzuk, berriz, irizpide horretatik urruntzen dira, eta erakunde horien ikuskera barneratzaileagoaren alde egiten dute, bakar bat ere jarri ezean mendean, uste baitute gizarte babeserako sistema publikoaren barruan Gizarte Segurantzak –laguntza ekonomikoak, kontribuziozkoak batez ere– eta gizarte zerbitzuak –laguntza zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak, ez-kontribuziozkoak batez ere– sar daitezkeela aldi berean.

Nolanahi ere, Gizarte Segurantzak gizarte laguntzaren esparruko zerbitzuak eman izan ditu. Hortaz, arrunta da iriztea laguntza zerbitzuak hala Estatuak Gizarte Segurantzaren bidez, nola autonomia erkidegoek eman ditzaketela; izan ere, Konstituzioko eta autonomia estatuetako eskumenen banaketarekin bat, autonomia erkidegoek dute gizarte laguntzaren gaineko eskumena. Hori guztia dela-eta, zailtasunak daude bi arloak zehatz-mehatz mugatu eta bereizteko, Konstituzioak eskumen desberdintzat arautu arren.

Edonola ere, Konstituzioko 148.1.20. artikulua autonomia erkidegoei baino ez die egokitzen "gizarte laguntzaren" esparrua, eta 149.1.17 artikulua dioenez, berriz, Estatuak du Gizarte Segurantzako oinarrizko legedia eta araubide ekonomikoa osatzeko ardura, autonomia erkidegoei eskualdatutako ahalmenei kalte egin ezean. Eskumen horien ondorioz, ordea, autonomia erkidegoek gizarte laguntza hartu dute euren gain, oro har "gizarte zerbitzuak" edo "gizarte ekintza" izeneko eremuari buruzko legedia taxutu dute, eta bertako antolamenduek sortutako zerbitzuen finantzazioa hartu duten euren gain.

Azkenik, gizarte zerbitzuen inguruko eskumen esparrua osatzeko, apirilaren 2ko 7/1985 Legea aipatu behar da, toki jaurbidearen oinarriak arautzen dituena. Bertako 25. eta 26. artikuluek xedatutakoaren arabera, udalerriek eskumena dute gizarte zerbitzuak emateari, gizarte sustapenari eta gizarteratzeari dagokienez Estatuako eta autonomia erkidegoetako legediekin bat eta, hori dela-eta, Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin batera, esparru honetako hainbat eskumen dagokie udalerriei. Aurrerago nabarmenduko dugunez, ordea, borondate handia dute zerbitzuak emateko, baina baita baliabide eskasak ere. Alde horretatik, aipatzekoa da ez dagoela orekarik autonomia erkidegoek gizarte zerbitzuetako eskumenak udalerrien artean banatzen dituzten moduan, udalerriak zerbitzuak euren gain hartzera behartuta baitaude baliabide material eta ekonomiko nahikoak izan ezean.

Alde horretatik, 50. artikulua bezala, honako hau nabarmendu behar dugu, alegia, botere publikoek zaharren familiartekoez dituzten betebeharrak gorabehera babestu behar dituztela eskubide horiek eta, horrenbestez, zaharrei euren egoeraren eta baliabideen arabera bizi-tza duina bermatuko dien gizarte zerbitzuen sistema ezartzeko betebeharra dutela.

GAIARI BURUZKO NAFARROAKO LEGEDIAREN AZTERKETA

Foru Komunitateak Konstituzioa onartu ondoren heldu zion gizarte laguntza edo gizarte zerbitzuak arautuko zituen esparru juridiko ego-kia diseinatzeari. Hartara, martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea aldarrikatu zuen, hain zuzen ere, esparru honetako Nafarroako araudiaren abiapuntua. Gizarte zerbitzuen esparruko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea eman zuen pixka bat geroago, zerbitzu publikoak zeharka kudeatzearen alde egiten duena –gaur egun, lege hori indargabetuta dago hein batean, Nafarroako administrazio publikoetako kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak ordezkatu baitzuen–.

Jarraian, bost urte geroago, azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea onartu zen, gizarte zerbitzuen esparruko baimenen, arau hausteen eta zehapenen eraentzari buruzkoa. 14/1983 Foru Legearekin batera, lege horrek Nafarroako gizarte zerbitzuak antolatze eta kudeatzeko erabiltzen

den oinarrizko eskema osatzen du, itunei buruzko Foru Legeak eta alderdi jakin batzuk arautzen dituzten beste legeek araututakoari kalte egin ezean, hala nola, 17/2000 eta 34/2002 foru legeei; hurrenez hurren, lege horiek zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa eta pertsona zaharrak familian hartzea arautzen dute.

Zerrendatu ditugun lege mugarriz gain, araudia garapen araudiek eta Nafarroan zaharrei ematen zaizkien gizarte zerbitzuei buruzko oinarrizko araudia osatzen duen hainbat itunek eratzen dute.

GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO MARTXOAREN 30EKO 14/1983 FORU LEGEA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoarekin bat, Foru Komunitateak "gizarte laguntzaren" eta "komunitate garapenaren, emakumeen eta haur, gazte eta zahar politikaren" esparruko eskumen osoak ditu, 44. artikuluko 17. eta 18. atalek diotenez. Zehaztapen horietan oinarrituta, Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 aldarrikatu zen, eta helburuaren arabera definitu ziren gizarte zerbitzuok: Nafarroako herritarren eta pasadizokoen gizarte ongizatearen erabateko garapena sustatzea. Hartara, gizarte ekintzako sistema globala ezartzea zen helburua.

3. artikulua honako ekintza esparru hauek mugatzen ditu: haurrak eta gazteak, zaharrak, ezgaituak eta bergizarteratzea.

Zaharrei dagokienez, aginduko b) atalak honako hau xedatzen du:

"Zaharren arretaren oinarriak zaharrek euren beharren arabera baliabide ekonomikoak eta zerbitzuak izatea izan behar du, eta euren ingurunean mantentzen daitezkeen bideratzea.

Horretarako, honako ekintza hauek sustatuko dira:

- Beharrezko banakako laguntza ekonomikoak, gutxieneko helburua baliabiderik gabeko Nafarroako zahar guztiek

Gizarte Segurantzako gutxieneko pentsioaren adinakoa izan dezaten izanik, euren familiarterko ingurune naturalan mantentzen daitezten.

- Zahar ezgaituentzako toki nahikoak sortzea laguntza egoitzetan.
- Etxeko laguntza zerbitzua indartzea, baliabideei buruz informatzeko eta beharrei erantzuteko udal zedula gisa.
- Egun dauden egoitzetako arretaren kalitatea erreformatu, eraldatu eta hobetzea, familia babeserako zerbitzuak eta behar adina toki sortzea ezgaituentzat ostatueta.
- Norberaren egoerarekin bat, komunitateari zerbitzua eman diezaioketen erretiratuek egiteko egokia izan dezaten bultzatzea.
- Halaber, hirugarren adineko aisialdi eta entretenimendu programak kontuan hartzea".

Aginduak dioenez, gizarte laguntzako sistema publikoak zaharrek euren egoeraren araberako baliabide ekonomikoak eta zerbitzuak izan ditzaten bermatu behar du. Laguntza ekonomikoek dagokienez, irizpide garrantzitsu bat finkatzen du, zenbatekoak Gizarte Segurantzako gutxieneko pentsioen antzekoa izan behar duela adierazten baitu. Hala ere, nabarmentzekoa da aginduaren idazkerak ez diela honako betebeharrak saihestezin hain ezartzen botere publikoek, hain zuzen ere, laguntza horiek Gizarte Segurantzako gutxieneko pentsioaren adinakoak izateko betebeharra; hortaz, ez dizkie eska ditzaketan eskubideak egokitzen herritarrei.

Era berean, ez die sistema publikoko zerbitzu jakin batzuk eskatzeko eskubidea egokitzen, "sustatu" adierazpidera jotzen baitu zaharrei eman beharreko zerbitzuak zerrendatzeko; alde horretatik, termino horrek ez du inposizio baliorik eta, hortaz, administrazio publikoek zuzurtzarakotasun handia dute gizarte zerbitzuak sortu eta ezartzea erabakitzeko. Egia esan, delako foru legeak ez ditu administrazio bakoitzak sortu edo ezarri beharreko zerbitzu zehatzak mugatzen; aitzitik,

darabiltzan formulek ez dakarte konpromisorik eta ez dituzte herritarrek eska ditzaketen betebeharrak ezartzen. Alde horretatik, legea erretorikoa da, ez du inposatzeko indarrik eta ez da nahikoa materialki, adierazi dugunez, zaharren babesa ongizate estatuak bermatu beharreko oinarrietako bat izan arren eta, horrenbestez, segurtasun juridiko handiagoa behar duen esparrua izan arren eskubideak eta betebeharrak definitzeari dagokionez.

Edonola ere, aginduak zaharrak babesteko neurriak zerrendatzen ditu, Nafarroako gizarte laguntza osatzen dutenak, eta honako zerbitzu hauek finkatzen ditu horretarako:

- a) Baliabiderik ez dutenentzako banakako laguntza ekonomikoak.
- b) Zahar ezgaituentzako egoitzak.
- c) Euren kasa molda daitezkeenentzako egoitzak, bestelako ostatuak eta familientzako babesa.
- d) Etxeko Laguntza zerbitzua eta euren gain zaharrak dituzten familientzako babes zerbitzua.
- e) Egitekoak egokitzea komunitateari zerbitzuak eman diezazkizoketen zaharrei.
- f) Aisialdi eta entretenimendu programak.

Bestalde, 14/1983 Foru Legeak Nafarroako Gobernuaren eta udalen artean banatzen du esparru honen eskumena, ekimen pribatuaren laguntzari kalte egin ezean, eta tokiko administrazioen esku uzten du hein handi batean gizarte zerbitzuetako sistema. 6. artikulua araber, udalei dagokie zerbitzu horiek sortu, antolatu eta kudeatzea Foru Administrazioak giten dituen aurreikuspenekin eta planifikazioarekin bat.

Aginduak udal mankomunitateak proposatzen ditu zerbitzuak antolatzeko lurralde eredutzat; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 47. eta 53. artikuluen artean aipatzen dira udal mankomunitateok, eta Foru Komunitatean oso errotuta dauden tokiko erakundeak dira. Aginduak "udalez gaindiko bestelako

koordinazioak" ere aipatzen ditu, hau da, administrazio publikoen artean sor litezkeen partzuergoak, udal lege bereko 212. artikulua dioenez. Hain zuzen ere, esparru honetan eskumena duten administrazio publikoen arteko itunez dihardu, baita hainbat administrazio publikoren kapital publikoari esker sozietate anonimoak sortzeaz ere, zerbitzuak ikuspegi pribatu hutsetik kudeatzeko.

Nolanahi ere, aurretik esan dugunez, 14/1983 Foru Legeak gizarte zerbitzuak udalek eman behar dituztela hein handi batean xedatzen du, Nafarroako Gobernuak ere zerbitzuok zuzenean emateko aukerari kalte egin ezean. 6. artikulua udalei egokitzen dizkie honako funtzio hauek:

- a) Pertsonak, familiak eta tokiko kolektiboak gizarte zerbitzuen alorreko eskubideei, betebeharrei eta baliabideei buruz informatu, kontzientziatu, aholkatu eta orientatzeko funtzioa duten oinarrizko gizarte zerbitzuak.
- b) Haurtzaindegiak, adingabeen etxeak eta gazte klubak sortu eta kudeatzea.
- c) Zaharren arreta, etxeko laguntzaren, zahar etxeen, klubak eta egoitzen bitartez.
- d) Beste udal batzuekin batera, beharrezko parte hartzea ezgaituen laguntzarako eta lan sustapenerako programetan.
- e) Herritarrek gizarte laguntzako zentron eta zerbitzuen programazioan eta kontrolean parte hartu eta laguntzeko duten eskubidea bermatzea.
- f) Borondatezko lana sustatu eta prestatzea ekintza osagarrietarako.
- g) Koordinazio egokia jorratzea hezkuntza, kultur eta osasun zerbitzuekin, eragingarritasun eta zerbitzu ekonomia goren eskuratzeko eman beharreko zerbitzuetan".

Ikus daitekeenez, zaharrei ematen zaizkien gizarte zerbitzuen zerrenda laburra dago c) atalean: etxeko laguntza, egoitzak, zahar etxeak eta

klubak. Lehenengo biak dira garesti eta beharrezkoenak eta, hortaz, helburua gizarte zerbitzurik garrantzitsuenen kudeaketa udalei egokitzzea da, nahiz eta Nafarroako Gobernuak ere eman litzakeen zerbitzu horiek, 5. artikulua administrazio horri egokitzen dion ahalmen multzoarekin bat. Alde horretatik, planifikazioaren, kontrolaren, ikuskaritzaren, aholkularitzaren eta tarifa araubidearen inguruko funtzioez gain, legeak organismo autonomo bat sortzea xedatzen du zerbitzuak zuzenean emateko, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari bide eman diona.

Legeak egiten duen eskumenen banaketaz gain, garrantzizkoa da arautzen dituen zerbitzuen finantzazio moduaren berri izatea. Ildo horretan, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek gastu osoaren %6 bideratzeko eskatzen du, eta udalek aurrekontuen %4 ematen dituzten gizarte zerbitzuak finantzatzeko gorde dezaten ezartzen du (11. eta 12. artikulua).

Zerbitzuen finantzazioan defizita izan dadin saihestearren, aurreikusita dago Nafarroako Gobernuak diru laguntzak ematea aurrekontu orokorren barruan udalei eta mankomunitateei, betetako toki bakoitzeko kostu estandarraren araberakoak.

Azkenik, honako hau besterik ez dugu eransteko, alegia, atal honetan esandakoa dela zaharrei eman behar zaizkien gizarte zerbitzuei buruzko ia araudi osoa; hau da, agindu urriak dira baina, haiei esker, gizarte zerbitzuak ezarri dira Nafarroan pixkana-pixkana, araudiaren garapenaren bitartez edo betiere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ez diren ebazpen edo akordio hutsen bitartez besterik ez bada ere.

Lege honen helburua herritar talde handi bati erasaten dion alderdi nahiko labaina arautzea zen; gainera, litekeena da babesgabetasuna eragiten duten bazterreko egoeretan izatea talde hori. Nolanahi ere, adierazi dugunez, legeak apenas du arautzen duen gaia eta zerbitzu bakoitzeko elementuak gutxienez irudikatzen edo identifikatzen lagunduko duen araudi materialik. Aitzitik, arau labur eta eskematikoa da -14 artikulua eta hiru xedapen gehigarri besterik ez ditu-, baina gizarte zerbitzuak sortzeko erreferente edo abiapuntutzat balio izan zuen garai batean, horiek ezartzea ahalbidetu baitzuen araudiaren garapenaren bitartez.

Egia esan, Foru Parlamentuak ez dio gizarte zerbitzuetako sistema publikoaren oinarritzko esparrua serio eta lege bitartez arautzeari heldu; aitzitik, Nafarroako Parlamentuari aldatu dio zerbitzuok sortu, diseinatu, arautu eta egoki jotzen duen helmenaz hornitzeko ahalmena. Hori dela-eta, gizarte zerbitzuen lege esparrua berrikusteko garaia dela uste dugu, legediak goi mailako araua izan beharko lukeen alor honen funtsezko alderdiak finka ditzan.

AZAROAREN 13KO 9/1990 FORU LEGEA, GIZARTE ZERBITZUEN ESPARRUKO BAIMENEN, ARAU HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ERAENTZARI BURUZKOA

14/1983 Foru Legeari buruz emandako iritzia ezin hobeto aplika daki-oke beste honi ere; alegia, aurreko legea alor hau arautzeko nahikoa ez izanik, hau ere maila berean da eskasa gutxienez.

Aplikazio esparrua eta jomuga finkatu ostean, gizarte zerbitzuetako zentroetako baimenen araubidearen zirriborro labur-laburra egiteari lotzen zaio 3. eta 7. artikuluen artean. Araudia garatu beharra aipatzen du horietako agindu batzuetan; hortaz, araudi materialak ez du edukirik ia. Gainerako aginduetan -11 orotara-, berriz, zehapen araubidea arautzen du.

Nabarmena da lege honek zentroetako baimenen araubidea eskas arautzen duela, erabaki formalak eta prozedurazkoak besterik ez baitira ageri, eta arlo honen funtsa araudi bidez garatzearen mendean uzten baitu. Hori dela-eta, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua eman zen, hain zuzen ere, lege mailako arauak kontuan hartu beharko zukeen alderdi ugari luze arautzeko. 168/1990 Foru Dekretua ere aipatu beharra dago, egoitzetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzeko eman baitzen; hala ere, ez da gehiago aplikatu 17/2000 Foru Legea indarrean sartu zenetik.

9/1990 Foru Legea zentroi eta zerbitzuei buruzko legea izatea zen helburua; beraz, zaharrei ematen zaizkien zerbitzu askotan eragina duten alderdirik garrantzitsuenak arautzeko egokia izan zitekeen. Alderdi horiek oso esanguratsuak dira zerbitzuok eskatzen dituzten herritarrentzat; izan ere, zerbitzu horietako batzuek erabiltzaileak etxez alda-

tu beharra dakarte, eta erabiltzaileok egoitzetan ematen dute bizitza hiltzen diren arte. Legeak zentro hauetako eskubideen eta betebeharren egitura, baita gainerako funtzionamendu alderdiak ere zehazteko garrantziaren adierazgarri da hori.

Gure ustez, honako alderdi hauek zehaztu beharko lirateke gutxienez lege mailako arau baten bitartez:

- a) Zentroetako eta zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideen karta.
- b) Erabiltzaileek zentroen kudeaketan parte hartzeko modua.
- c) Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoen araubidea.
- d) Barne araudia izan beharra zentroetan.
- e) Erreklamazioak eta iradokizunak.
- f) Zehapen araubidea.

Alderdi horietako batzuek Konstituzioan ere dute eragina, hala nola, bazterketarik gabeko tratu berdintasunerako eskubideak, intimitaterako eskubideak eta pertsonen duintasuna errespetatzeko eskubideak. Beste batzuk, berriz, funtsezkoak dira zerbitzu publikoak behar bezala kudeatzeko, besteak beste, erabiltzaileek ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoen zenbatekoa, zentroetako eskema organikoa –kudeaketa organoetan parte hartzea bideratzeko–, arau hausteen eta zehapenen araubidea eta erabiltzaileak bere eskubideak eskatzeko egin beharreko prozedura.

Nafarroako antolamendu juridikoak zentroetako erabiltzaileen eskubideak zerrendatu egin ditu, baina araudia aukeratu du horretarako, hain zuzen ere, 209/1991 Foru Dekretua. Gure ustez, ordea, lege mailako arauak azaldu beharko zituzkeen zentroetako eta zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideen karta, erabiltzaileek euren kolektiboa ordezkatzan duten organoetan parte hartzeko modua –ahal dela, organo horiek autonomoak izan beharko lukete zentroetako zuzendaritzaren aldera– eta erabiltzaileentzako barne araudiaren gutxieneko edukia, besteak beste.

Zehapen araubidea dela-eta, legearen eskasia nabarmendu beharra dago hala adierazten dituen arau hausteak tipifikatzeari dagokionez, nola kontuan hartutako zehapen tipoei dagokienez: batetik, tipifikazioa ez da batere zehatza tipo batzuk definitzean, zehaztu gabeko kontzeptu juridikoei lotzen baitzaie gehiegitan, kontzeptuok gehiago zehaztu eta segurtasunik eza juridikoa saihestu beharrean; bestetik, arau-hauste tipoak falta dira. Alde horretatik, zentroetako erabiltzaileek bertan paira litzaketan tratatu txarrak aipatu behar dira, zehaztasun handiagoz tipifikatu beharko bailirateke falta gisa tratatu txarren larritasunaren arabera; izan ere, tratatu txarrak emateko modu ugari dago, arina eta oso larria barne, eta neurrian zehatu behar dira, zehapen zuzenbideko proportzionaltasun printzipioarekin bat. Erakunde eta zentro hauek abian izan diren urte luzeetan pilotutako esperientzia ikusirik, arau-hauste tipoak eta zehapenak berrikusi behar dira, zigor esparrua gaurkotu eta zehapenak egitateen larritasunaren arabera egokitzeko.

Lege honek araututako zehapen prozedura ere oinarrizkoegia da, ez baitu kontuan hartzen Zentroen Ikuskaritzak aurretiko espedientea izapidetu behar duela askotan egitateak ikertzeko, zehapen prozedura abiatu aurretik. Akten eta dokumentuen bitartez, ikuskaritza organo horren esku hartzea azaldu behar da espediente horretan, ikerketa egiztatu eta balizko arau hausteak deskribatzeko; halaber, argi eta garbi azaldu behar da ezinbestean interesatuek defentsarako eskubidea erabil zezaaten ahalbidetu dela. Interesatuek alegazioak eginez eta frogak proposatuz erabiliko lukete eskubide hori eta, ikuskaritza aktak behar bezala eginez gero, egitateetara gehiago hurbiltzen lagunduko lukete.

Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritzaren funtzionamenduari dagokionez, gogoan izan beharra dago 209/1991 Foru Dekretuak hainbat alderdi arautzen duela. Gure ustez, ordea, bidezkoa litzateke juridikoki haren jardunbideen oinarrizko eskema legeak arautzea, baita ikuskaritza akten egiazkotasun presuntzioa ere.

Ikerketa espedienteari esker lortutako emaitzak abiapuntu hartuta, zehapen prozedura bera abia daiteke; besteak beste, ebazpen proposamena azaldu behar da nahitaezko izapideen artean, Administrazioak eta salatutako pertsonak egindako proba balioets dezaten beharrezkoa bada. Izapide hori falta larriak eta oso larriak egiteagatik abiatutako

espedienteetako proba balioestean adostasunik ez badago bermatu behar da gutxienez, izapide baliagarri eta beharrezkoa baita hala behin betiko salaketa oinarritzeko, nola defentsarako eskubidea materialki erabiltzeko eta, azken batean, espedientea ebatzi behar duen agintariaren iritzia behar bezala osatzeko. Hala eta guztiz ere, 9/1990 Foru Legeak ere ez du izapide horren berri ematen.

ABENDUAREN 29KO 17/2000 FORU LEGEA, ZAHAR ETXEETAKO EGONALDIEN FINANTZATZEKO ERABILTZAILEEK ORDAINDU BEHARREKOA ARAUTZEN DUENA

Lehenik eta behin, abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legetik eratorritako hainbat alderdi nabarmenduko dugu. Lege horrek zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa arautzen du, eta aurretik zegoen lege hutsune handi bat bete du, zahar etxeetako erabiltzaile bakoitzak bertako egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrekoa arau bidez finkatzen baitzen legea aldarrikatu zen arte (168/1990 Foru Dekretua eta 56/1998 Foru Agindua). Zuzenbide publikoko diru sarreraren ordainarazpenean errespetatu beharreko legezko erreserba printzipioaren aurkakoa zen hori, Konstituzioko 31.3. artikulua honako hau agintzen baitu: "Izaera publikoko prestazio pertsonalak edo ondare-prestazioak legearen arabera, ez bestela, ezarri ahal izango dira". Hain zuzen ere, foru legeak diru sarrera publikotzat du egoiliarrek ordaindu beharreko prezioa.

Nabarmendu beharreko bigarren alderdia lege honek zaharrei ematen zaien gizarte arreta eta osasun arreta inplizituki nahastea da. Legearen arabera, euren ahalmen fisiko eta psikikoen jabe diren zaharrei egoitzetan ematen zaien arretak eta ahalmen horiek murriztuta dituzten edo halakorik ez duten zaharrek behar duten arretak ezaugarri berak dituzte, gizarte zerbitzuak baitira biak ala biak. Hala ere, azken horietako asko osasun arreta hutsa eman beharko litzaiekeen gaixo kronikoak dira, baina sistema publikoak egoera kritikoetan baino ez ditu laguntzen, gizarte arreta behar dutela jotzen baita. Legeak euren kasa molda daitezkeen eta laguntza behar duten erabiltzaileak bereizten dituen arren, horien guztien arreta gizarte arlokotzat besterik ez du berez; laguntza behar duten erabiltzaileek, ordea, zaintza profesional espezializatua behar dute, ezgaitasun fisikoak edo psikikoak dituzte eta.

Ezbairik gabe, antolamendu juridikoak argi eta garbi agintzen du herri-tarrak behar bezala lagundu behar direla dituzten osasun arazoak dire-la eta. Hortaz, administrazio publikoek alor honetan dituzten betebeharrak hartu beharko lituzkete euren gain, eta gaixoen esku jarri beharko lituzkete beharrezko tratamenduak eta arreta zerbitzuak, gaixotasun kronikoak izanda ere; izan ere, gizarte zerbitzuen onuradunak izateaz gain, gaixo zaharrek osasunerako eskubidea ere badute legez. Egia esan, muga komuna dago gizarte zerbitzuen eta osasunerako eskubidetik eratorritako zerbitzuen artean, Konstituzioko 41. eta 50. artikuluek osasunaz baitihardute. Horrexegatik, legeak zehazkiago finkatu beharko luke bataren zein bestearen esparrua, zerbitzuak finantzatzeko iturriak ezberdinak direlako, baita agindu horietatik eta aginduok garatzen dituen antolamendu juridikotik eratorritako eskubideak eta betebeharrak ere.

Hala ere, lantzen ari garen foru legeak ez du inolako bereizketarik egi-ten egoitzetako egonaldia finantzatzeko moduari dagokionez, gizarte arlokotzat baino ez baitu hartzen zerbitzu hori, sarritan osasun zerbitzua ematen dela kontuan hartu ezean. Alde horretatik, foru legeak prezio publikoak ordaintzeko eskatzea erabiltzaileei osasunerako konstituzio eskubidearen funtsezko hainbat alderdi ukatzea da inplizituki; izan ere, Administrazioak ez du dirurik kobratzen eskubide hori erabili eta arreta medikoa izatearen trukean. Halaber, antolamendu juridikoak ez du xedatzen gizarte zerbitzuek hartu behar dutenik euren gain laguntza behar duten pertsonen osasun arreta, osasun sistematik kanpo dagoen izatezko jardunbidea den aldetik. Hartara, badirudi egokiena gizarte zerbitzuen eta osasun sistemaren arteko koordinazio arauak izatea dela, zerbitzu bakoitzaren finantzazio egokia bermatzeko kasu bakoitzean bermatu beharreko interes publikoarekin bat. Azken batean, ezin utz daiteke gizarte zerbitzuek osasun zerbitzuak ordezkatzeko edo euren arduratik salbuestea, nork bere betebeharrak eta finantzatzeko modu ezberdinak baitituzte.

Ez badira koordinazio neurri ganorazko eta eragingarriak hartzen, nahi ez ditugun ondorioak izango dira: ez dira osasunerako eskubidetik eratorritako konstituzio eskakizunak beteko, osasun sistema publikoak ez ditu bere betebeharrak beteko eta, gainera, finantzazioaren zati bat egoiliarrei kargatuko zaie bidegabeki, hain zuzen ere, gaixo kroniko diren heinean behar duten arreta emateari dagokiona. Ondorioz, bide-

gabeki tratatuko dira ezgaitasuna eragiten duten gaixotasunak dituzten zaharrak.

Alde horretatik, ezgaitasun fisiko eta psikiko larriei aurre egiteko osasun laguntzak eragindako arazoa dugu. Konpondu gabeko arazoa da, eta Foru Komunitatea ez da erabakitasunez konpontzen ari; aitzitik, zaharrek behar duten arreta familien esku uztea du helburu, baita arreta horrek eragindako ardura eta kostu gehienak ere, eta gizarte zerbitzuak subsidiarioki erabiltzea. Jakina, gizarte zerbitzuak subsidiarioki erabiltze hori zerbitzuok behar dituen orori emateko aukera erreala existitzen denean bakarrik jazoko da, baina lan asko dago egiteko oraindik alde horretatik.

Hala ere, adierazi dugunez, antolamendu juridikoak beste premisa batzuk ditu abiapuntu. Gizarte zerbitzuez aritzean, Konstituzioko 50. artikulua dioenez, botere publikoek "famiaren betebeharratik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez". Hau da, ez dio famiaren esku dagoenik zaharren ongizatea bermatzeko ardura osoa, baizik eta botere publikoek ere gizarte zerbitzu osagarriak (ez subsidiarioak) emateko betebeharra dutela. Gogoan izan beharra dago ongizate estatuaren oinarria gizarte arriskuari buruzko teoria dela, besteak beste; hots, eurek eragin gabeko beharrian egoeran dauden herritarrek kolektiboak babesten ditu administrazio publikoen bitartez, administrazioak behar horiei erantzutera behartuta baitaude.

Horrenbestez, Konstituzioak herritar bakoitzaren banakako eskubideak arautzen ditu, famiiek zaharren bizi maila mantentzeko eta alde guttietatik babesteko egin dezaketena gorabehera. Hori dela-eta, beharrezkoa da zerbitzuak ematea osasuna eta gizarte arreta bermatzeko, eta administrazio publikoek bermatu behar dituzte betiere.

Beste alderdi batzuei erreparatuta, nabarmendu beharra dago delako foru legeak, zahar etxeetako erabiltzaileek egonaldiak finantzatzeko ordaindu beharrezkoa arautzen duenak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beraren zentroak eta itunpekoak, eta bestelakoak bereizten dituela; oro har, itundu gabeko zentro pribatuak izaten dira beste horiek. Halaber, nabarmenezkoa da legeak prezioak, erabiltzaileek ordaindu beharrezkoa eta itzulerak finkatzeko diseinatutako sistema

nahasia eta korapilotsua dela, eta ez dela nahikoa teknikoki finantza-zioa ezartzea helburu duen zerbitzuen hartzaileek uler dezaten.

10. eta 11. artikulua dira diogun horren adierazgarri, batez ere, 10. artikuluko bigarren paragrafoa. Honako hau dio hitzez hitz: "Hilean egin beharreko prestazioaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da erabiltzaileak benetan ordaindutakoaren –artikulu honetako hirugarren idatz-zatiaren arabera kalkulatu da– eta foru lege honek 4. artikuluko hirugarren idatz-zatian ezarritako gehieneko prezioaren arteko aldea. Prestazio hori ez da, inola ere, lanbide arteko gutxienerako hileko soldataren halako 1,6 baino gehiagokoa izanen, laguntza behar duen batentzako plaza denean, eta, gauza den batentzako plaza denean, berriz, ez da izanen lanbide arteko gutxienerako hileko soldataren halako 0,7 baino gehiagokoa".

11.1. artikulua, berriz, honako hau dio: "Prestazioa jasotzen duten pertsonak hurrengo zenbatekoa itzuli beharko diote, lege honetan ezarritako moduan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari: erabiltzaileak ordaindutakoaren eta Institutuak bere zahar-etxeetarako nahiz itunduetarako ezarritako prezioaren arteko aldea. Prestazioaren gainerako zenbatekoa, beraz, ez da itzuli beharko". Hau da, ordaindu beharreko zenbateko osoa eta, hortaz, betebeharrak ekonomikoak zehatz-mehatz jakiteko, erabiltzaileak hainbat eragiketa aritmetiko egin behar du jarraian, eta bata bestea osatzen duten bi muga mota hartu behar ditu kontuan. Halaber, gogoan izan behar du ordaintzeko eska dakiokkeen zenbateko osoa ezberdina izan litekeela Institutuak egonaldiaren hasieran banan-banan finkatzen duenaren aldean, beste zati bat ordaindu behar baitu, eta sortutako zorra ordainduko duela bermatu behar baitu horrexetarako.

Testu horren helburua egoitzetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileek zentro horietako egonaldiaren trukean dituzten eskubide eta betebeharrak ekonomikoen helmenaren berri izatea da; hala eta guztiz ere, ez dirudi erabiltzaile gehienek halakorik lortuko dutenik, idazkera oso korapilatsua baita, eta konplexua, berriz, berme pertsonalez edo errealez euren gain hartu behar dituzten kargak finkatzeko modua.

Gure ustez, zaharren inguruko lege batek argiro eta gardenki idatzita egon behar du; izan ere, zahar diren neurrian, oso egoera makalean daude eta, hori dela-eta, pertsona diren heinean duten duintasuna eta osotasun fisiko eta moralerako konstituzio eskubidea bermatzeko neurriak areagotu

behar dira. Hartara, legea argiro eta gardenki idatziz gero, laguntzen balizko onuradunek eta hartzaileek nahiko erraz egiaztatu ahal izango lituzkete zentro batean sartzean onartzen dituzten betebeharrak ekonomikoak, baita euren eskubideak errespetatzen ote diren ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariek erabakitakoa kritikatzeko aukerarik ezean onartu beharrean. Ikus dezagun legearen eskema.

A) GIZARTE ONGIZATEKO NAFARROAKO INSTITUAREN BERAREN ZENTROAK ETA ITUNPEKOAK

Honako hau izan liteke Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren beraren zentroak eta itunpekoak finantzatzeko modua zehazteko prozesu logikoa:

1. Institutuak Institutuaren beraren zentroak eta itunpekoak finantzatzeko finkatutako prezioak

Legeak dioenez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Institutuaren beraren zentroetarako eta itunpeko zentroetarako finkatutako prezioak publikoak dira eta, hortaz, abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko araubidearen mendean daude; lege horretako 17.1. artikuluekin bat, Ogasun Publikoak lege ezarritako eskumen guztiak erabil ditzake sortutako zorrak kobratuko dituela bermatzeko. Hain zuzen ere, artikulua horrek Zergei buruzko Foru Lege Orokorra eta zordunaren ondarearekiko premiamendu prozedura aipatzen ditu, zorrak nahitaez biltzeko arau horrek arautzen duena.

Tarifa edo prezio horiek kalkulatzeko, kostu zuzenak eta egotz daitezkeen gainerako kostuak (langileak, materiala eta kontserbazioa, finantza kargak, instalazioen amortizazioa eta administrazioa) hartu behar dira kontuan, eta pixkana-pixkana merkatuko prezioak adinakoak izatea izan beharko luke helburua, errentaren mailak eta pentsioek hobera egiten duten neurrian.

2. Gehienekoa

Nolanahi ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ezin ditu finkatu lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,5 baino gehia-

goko prezioak euren kasa molda daitezkeen pertsonentzako tokietarako, lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 2,5 baino gehiagokoak laguntza behar dutenentzako tokietarako, eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak eguneko zentroetako tokietarako.

3. Erabiltzaileak hilero ordaindu beharrekoa

Organismo berak zehazten du erabiltzaile bakoitzak hilero ordaindu beharrekoa jasotzen dituen errenten –urtero higigarrien eta higiezinaren kapitaletik eratorritakoak barne– eta familiarteko pertsona kopuruaren arabera, eta erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko gehienekoa errentaren %100 da. Kontuan izan beharra dago litekeena dela erabiltzaileak ordaindu beharrekoa egonaldiaren prezioa baino txikiagoa izatea, diru sarrera edo errenta nahikoak ez dituelako. Halakoetan, jarraian aipatuko dugun zorra hartu behar da aintzat.

4. Zorra sortzea eta itzulera bermeak

Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa ez bada Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egonaldietarako finkatzen duen prezio osoa ordaintzeko adinakoa, berme pertsonalez edo errealez bermatu beharreko zorra sortzen da; badago salbuespenik, ordea: lanbide arteko gutxieneko soldata aplikagarria halako 12ko kopurua. Berme horiek aldi-an aldi-an berrikus litezke.

Berme sistema horri esker, zorra ordaindu egingo dela bermatzen da, baita zerbitzuaren finantzazioaren nahikotasuna ere, Administrazioak zorraren bilketa betearazteko eskumenak baititu. Nolanahi ere, legeak berandutzeagatik interesak aplikatzea eragozten du ordainketa atzeratzen bada.

Zorra nahitaez biltzeko prozedura betearazlea izapidetu behar bada, ez dirudi bidezkoa denik interesak sortzea bilketa fasean; 15. artikuluko birlibela dugu horren adierazgarri: "Sortutako zorrek ez dute interesik sorraraziko inola ere". Premiamendu errekaruak, ordea, prozedurak sorrarazten dituen gastuak ordaintzeko aplikatzen dira.

Halaber, etxebizitza baten gaineko bermea betearazi behar bada, litekeena da bahitura prozedura bertan behera uztea, partikularrak berak erabiltzeko

behar badu zentroa utzi ondoren, ezkontidearen eta seme-alaben etxebizitza bakarra bada, ezgaitasunen bat duten edo baliabiderik ez duten beste pertsona batzuen etxebizitza bakarra bada, edo bestelako beharrak badaude eta Administrazioak egoki baderitzo prozedura bertan behera uztea. Edo-nola ere, ondasunaren traba edo bahitura gauzatu egiten da.

Alde horretatik, kontuan izan beharra dago Zergadunen Eskubideei eta Bermeei buruzko otsailaren 26ko 1/1998 Legeko 31.2. artikulua ezarri zuen salbuespen garrantzitsu bat likidazioa inpugnatzen denerako. Agindu horrekin bat, bahitutako ondasunen besterentzea likidazioa irmoa denean bakarrik gauza daiteke; likidazioaren irmotasuna, berriz, egintzaren aurka egin ezin denean hasten da, dela inpugnazio bide guztiak agortu eta emaitzarik eman ez dutelako, dela zergadunak uko egin diolako bidezko beste helegite batzuk jartzen jarraitzeari eta xedatutako legezko epeak bete daitezen utzi duelako. Hortaz, likidazioa irmoa denetik baino ezin dira bahitutako ondasunak besterendu, eta ezinbesteko kasuak, ondasun galkorrak edo balioa gal lezaketen ondasunak, eta salmenta zergadunak berak eskatzen duen kasuak salbuesten dira. Zergei buruzko Foru Lege Orokorreko 127.1. artikulua ildo berean jo zuen.

5. Araubide orokorraren salbuespena

Legeak xedatzen du ordaindu beharrekoa ordaindu eta zorrak kobratuko direla bermatzeko garantiarik emateko ezintasun frogatua ezin direla zerbitzua emateari uko egiteko arrazoia izan. Hartara, baliabide nahikoak ez dituztenen babes egokia bermatzen du.

B) ITUNDU GABEKO KANPOKO ZENTROAK

Zerbitzuak ordaintzeko laguntza zuzenak xedatu dira Foru Administrazioaren mendean ez dauden itundu gabeko kanpoko zentroetako erabiltzaileentzat. Horiek ere Foru Ogasunari itzuli behar zaizkio hein batean, eta zuzenbide publikoko diru sarreraren araubidearen mendeko laguntza ekonomikoak dira. Honako hau da laguntzaren zenbatekoa zehazteko 9., 10. eta 11. artikuluetako prozesu logikoa:

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak finkatuko du erabiltzaileak zentroari ordaindu beharrekoa jasotzen dituen erren-

ten –urtero higigarrien eta higiezin kapitaletik eratorritakoak barne– eta familiarteko pertsona kopuruaren arabera.

2. Laguntza zehazteko, erabiltzaileak ordaindu beharrekoaren eta aurrez aipatutako gehieneko prezioen arteko aldea erauziko da –lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,5 baino gehiagoko zenbatekoa euren kasa molda daitezkeen pertsonentzako tokietarako, eta lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 2,5 baino gehiagokoa laguntza behar dutenentzako tokietarako–. Eraitza diru laguntzaren zenbateko osoa izango da, baina zenbatekoa ezin da izan lanbide arteko gutxieneko soldata halako 0,7 baino gehiagokoa euren kasa molda daitezkeenentzat, eta lanbide arteko gutxieneko soldata halako 1,6 baino gehiagokoa laguntza behar dutenentzat.
3. Erabiltzaileak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Institutuaren beraren zentroetarako eta itunpeko zentroetarako finkatutako prezioaren eta erabiltzaileak ordaindu beharreko zenbatekoaren arteko aldea itzultzera behartuta daude. Aurreko kenketa aplikatu eta hondarrik geratzen bada, itzuli beharrik gabeko laguntzat hartuko da.
4. Zorrak ordaindu egingo direla bermatzeko, halakoetan ere eskatzen da bermeak emateko, Nafarroako Gobernuaren zentroetako edo itunpeko zentroetako erabiltzaileei aplikatzen zaizkien irizpideekin bat.

BESTE FORU LEGE BATZUK

Aipatutako legeez gain, Foru Komunitateko alor honetako lege esparrua gizarte zerbitzuen esparruko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legeak eta zaharrak familian hartzeari buruzko abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legeak osatzen dute.

Batetik, gizarte zerbitzuen esparruko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legearen helburua gizarte zerbitzuak zeharka kudeatzeko itunen inguruko araudia osatzea zen; izan ere, aurreko legea, hau da, kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legea eskasa zen argi

eta garbi. Nolanahi ere, Itunei buruzko Foru Legea Nafarroako administrazio publikoko kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak ordezkatu du hein batean, eta haren aurka egiten ez duten alderdiek bakarrik jarraitzen dute indarrean.

Lege honen bitartez, gizarte laguntzako sistema publikoak itunaren alde egin zuen egoitzetan ematen diren zerbitzuak zeharka kudeatzeko. Legea aldarrikatu zenean, ordea, apenas existitzen zen zerbitzu horiek emate zituen enpresarik; hortaz, kontraesana dirudi kontratu mota hori aukeratzea, itunaren esleipen lehiaketan parte hartzeko moduko hain erakunde gutxi izanik.

Oro har, zerbitzu publikoak kudeatzeko modutzat ituna aukeratzeko arrazoia zerbitzu jakin bat ematen duten enpresa pribatu espezializatuak zerbitzu publikoez arduratzeko erabili nahia da. Hartara, badirudi legearen helburua enpresak eta partikularrak zahar etxeak sortzera bultzatzea zela, kontratua sinatzeko aukera emanaz, eta etxeok ezarri eta kudeatzeko ardura Foru Komunitateko Administrazioetik urruntzea prezio jakin baten trukean.

Gaur egun, lege horren alderdi nabarmengarri bakarra Administrazioarekin zerbitzu publikoak kontrata ditzaketen enpresen eta erakundeen erregistroa sortu izana da, eta Foru Komunitatean kokatuta dauden zentroak egiaztatu beharra; azken baldintza hori 8. artikulua arautzen du berariaz. Hain zuzen ere, zentroak egiaztatzearen helburua legeak xedatutako gizarte zerbitzuren bat ematen duten zentroek beharrezko gutxienerako baldintzak betetzen dituztela bermatzea da.

Bestetik, abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legeak zaharrak etxean hartzea arautzen du. Zerbitzu berri hori nahiko interesgarria da gizarte zerbitzuen ikuspegitik baina, legea denbora laburrez egon denez gero indarrean, zaila da orain arte izan dituen emaitzak balioestea. Funtsean, zaharra hartuko duten etxean elkarbizitza egoera sortzean datza. Gutxienerako baldintza pertsona horien artean bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ahaidetasun harremanik ez izatea da, eta berdina norena den etxea, garrantzitsuena familia batean aurrekoen eta ondorengoen artean dagoen harremanaren antzekoa islatzea baita. Halakotan ere erabakitzen dira prezio bat eta zerbitzuaren baldintzak, Administrazioak baimendutako hitzarmen batean ageri direnak.

Lege honekin bat, harrera ardua publikoko gizarte zerbitzua da, Administrazio Publikoak zerbitzu honetan izan litezkeen fase guztietan zuzenean parte hartzen duen heinean: parte hartzaileen aukeraketan, laguntza ekonomikoetan, espediente bakoitzaren segimendu zehatzean eta kautelazko neurriak hartzeko aukeran, harrera hitzarmenaren baimenduan...

ZAHARREI EMATEN ZAIZKIEN OINARRIZKO ZERBITZUAK

Nafarroan zaharrei ematen zaizkien oinarrizko zerbitzuen inguruko hainbat alderdi interesgarri aztertuko dugu jarraian, aipatutako legeetan eta zerbitzu horiek behar bezala kudeatzeko eman diren bestelako xedapen orokorretan ageri den araudia analizatuz. Halaber, behar bezala tratatu ez direla uste dugun auziak ere nabarmenduko ditugu.

Horretarako, zaharren etxean bertan ematen diren gizarte zerbitzuak eta etxea ez den beste zentro batzuetan ematen direnak bereiziko ditugu. Lehenengo kasuan etxean gera daitezke zaharrak, baina bigarrenengan, ordea, etxea uztera behartuta egon litezke; nolana ere, zerbitzu publikoak konpondu edo, bederen, arindu beharreko egoeraren eta arazo araberakoak izatea ahalegintzen da, zaharrek behar duten arretaren eta zerbitzuok dakarten gastu publikoaren eragingarritasuna lortzen saiatuz betiere. Hortaz, zerbitzuak mailaka eta proportzioan eman behar dira, erabiltzaile bakoitzaren beharren eta ahalmenen arabera.

Alde horretatik, administrazio publikoek zaharra familiartea eta auzoa uztera behartuko ez duten zerbitzuak ematen sakondu behar dutela aldarrikatzen dugu, egoitzak etxea ordezkia dezan saihestearren ahal den neurrian; gainera, zerbitzu horiek buruhauste gutxiago eragiten dizkiote erabiltzaileari alde guztietatik. Azken batean, egoitzen alderako eskariak behera egin dezan ahalegindu behar da, halako zerbitzuak indartuz; hartara, egoitzetan dagoen toki eskasia arindu liteke hein batean. Bestela, aurreikuspen demografikoak eta lan arloko aldaketak ikusirik, gero eta zahar gehiago egongo da bere etxean zaindu ezin daitekeena, eta egoitza kopurua nabarmen emendatzera behartuta egongo gara.

Berebat, zahar gehienek nahiago dute euren etxean bertan geratzea, bizi kalitate hobea, autoestimu handiagoa, utzi egin dituztelako irudi-

pen txikiagoa eta bazterketa txikiagoa dutelako ezagun duten inguru-
nean. Ezbairik gabe, betiko etxean jarraitzea, bizilagun eta auzoko eza-
gun berak izanik eta familiarengandik gertu egonik, osasungarriagoa
da emozionalki.

Bestalde, zaharrak dituen autonomia aukera guztiak aprobeitza daitez-
ke etxeko laguntzari esker, baita laguntza maila beharren arabera mai-
lakatu ere, bakoitzak bere behar eta mendekotasun profila duenez gero.
Hartara, erantzunak neurritza eman litezke eta, beraz, baita modu era-
gingarriagoan ere, ez baitago dudarik gizarteak baliabide gutxiago
bideratu behar dituela honelako laguntzarako.

Horregatik guztiagatik, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak kon-
tuan hartuz, erabiltzailea etxean gera dadin ahalbidetzen duten zerbi-
tzuak lehenetsi behar direla aldarrikatzen dugu egoitzetan sartzea
beharrezkoa den zerbitzuen ordez, aukera hori posible denean betiere;
izan ere, erabiltzaile bakoitzaren osasun egoera hartu beharra dago
aintzat zerbitzurik egokienak aukeratzeko.

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAK

14/1983 Foru Legeko 3.b) 3. artikulua honako hau xedatzen du zaha-
rren alderako ekintzatat: "Etxeko laguntza zerbitzua indartzea, bali-
abideei buruz informatzeko eta beharrei erantzuteko udal zedula gisa".
6. artikulua, berriz, udalen lehentasunei dagokienez, zaharren "etxeko
laguntza bidezko" arreta nabarmentzen du. Hain zuzen ere, horiexek
dira legeak darabiltzan erreferentzia bakarrak zerbitzu publiko hau
arautzeko.

Bestalde, ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuko 8. artikulua etxe-
ko lanak egiten lagunduko duten pertsonen kontratazioa finantzatzen
laguntzeko laguntza ekonomikoa ezartzen du. 168/1990 Foru Dekretu-
ak gizarte zerbitzuen esparruko banakako eta familiarateko zerbitzuak
eta laguntzak arautzen ditu, eta diru laguntza hori familiarate eta
gizarterate neurritzat justifikatzen du, baliabide ekonomiko nahikoak
ez dituzten zaharrak etxean gera daitezkeelako eta egoitzetan sartu
beharra saihestu dezaketelako hari esker. Arau honek zerbitzu eta onda-
sun jakin batzuk eskuratzeko bestelako laguntza espezifikoak ematea

ere xedatzen du, zaharrak egunerako bizitzan behar bezala moldatzeko beharrezkoak direnak.

Etxeko laguntza zerbitzuen inguruko araudia eskasa da argi eta garbi, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari gerentearen ebazpenen bitartez garatu izan den arren. Justizia auzitegiek 2191/2002 Ebazpena baliogabetu zuten arte, ordea, ebazpenok ez ziren Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen, berebiziko garrantziko zerbitzu honen inguruko araudian zegoen obskurantismoaren adierazgarri; are gehiago, Institutuak ez zuen ohiturarik laguntzak arautzen zituzten ebazpen guztiak Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, araudiaren arlokoak izan arren nabarmen.

Ebazpenak argitaratu ez izana konpontzearen, 2004ko maiatzaren 17ko 1040/2004 Ebazpena argitaratu berri da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, aurreko horren edukiaren oso antzekoa duena. Ebazpen horrekin bat, bizikidetzako unitate bakoitzak laguntza ekonomiko bakarra jasotzeko eskubidea du, 65 urtetik gorako pertsona kopurua edo adin horretatik beherako pertsona elbarri kopurua eta lotzen dituen ahaide-tasun maila gorabehera, familia osoak edo elkarrekin bizi diren pertsona guztiek ateratzen baitute etekina haietatik. Laguntza ekonomikoak laguntza plana eguneko bi ordu eta erdikoa baino gehiagokoa bada emango dira, baina laguntza plana eguneko bi ordukoa baino gutxiagokoa bada, aldiz, ez da diru laguntzarik emango, oinarrizko gizarte zerbitzuei baitagokie familiak babestea aurrerago aztertuko ditugun programa espezifikoen bitartez.

Laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, eskatzaileak ezgaitasun egoeran dagoela egiaztatu behar du baina, edonola ere, bizikidetzako unitatea osatzen duten kide guztien diru sarrerak ere hartzen dira kontuan, euren adina eta lan egiten duten ala ez. Hartara, hiru egoera aurreikusten dira, baremo bana osatzen dutenak: batetik, A baremoa, 65 urtetik gorako pertsoneri aplikatzen zaiena; bestetik, B1 baremoa, 65 urtetik beherako pertsoneri aplikatzen zaiena; eta, azkenik, B2 baremoa, 65 urtetik beherako pertsoneri aplikatzen zaiena unitateko bi kidek edo gehiagok lan egiten badute.

Baremo horiek analizatzeko aukera izan genuen 02/275/B kexa espedientearen ildoan. Arartekoak izapidetu zuen nahasitako pertsona baten

eskariari jarraiki, eta emaitza Gizarte Ongizateko Departamentuari zuzendutako gomendioa izan zen, baremoak berriro arautu zitzaizkizuten eskatuz, berdintasunerako konstituzio eskubidea argi eta garbi urratzen zutela uste baikenuen. Formalki erantzun zioten gomendioari; ez, ordea, materialki, 2004ko maiatzaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu berri den 1040/2004 Ebazpenak ez baititu baremoak aldatu, funtsezko aldeetatik berretsi baizik.

Delako ebazpenak 65 urteko mugaren arabera baino ez ditu bereizten A eta B1 baremoak, tratu ezberdintasuna justifikatuko duen beste gorabeherarik aipatu ezean. Hau da, adin aldean oinarrituta, 65 urtetik beherakoek laguntzak jasotzeko aukera dute, euren diru sarrerak 65 urtetik gorako pertsonen diru sarreraren halako bi baino handiagoak izan arren. Esate baterako, bakarrik bizi den 65 urtetik gorako pertsona batek urtean 5.764 euro baino gutxiago irabazi behar du laguntzaren zenbateko osoa jasotzeko eskubidea izateko; 65 urtetik beherakoa bada, berriz, 12.894 euro ere irabaz ditzake eta, hala ere, eskubide bera izan.

Tratu ezberdintasun hori ez da arrazoizkoa, eta berdintasun printzipioaren aurkakoa da, ez dagoelako justifikazio posiblerik tratu ezberdintasuna adinean oinarrituta arautzeko, 65 urte bete izana arrazoi hutsala izanik laguntzak jasotzeko eskubidea arautzeko. Izan ere, badago 65 urte bete ondoren lanean jarraitzen duenik edo, adin hori izan ezean, pentsioa jaso, langabezia aseguru kobratu edo kapital errentatik eratorritako diru sarrerarik duenik.

Halaber, bazterketa araubide bat existitzen da zuzendari gerentearen delako ebazpenean, ondasun eta errenta jakin batzuk dituzten 65 urtetik gorakoek laguntzak jasotzea eragozten duena. Atal hori ere Konstituzioaren aurkakoa da, pertsonen tratamendu arbitrarioa ezartzen duelako adinaren arabera; tratamendu hori ez da arrazoizkoa, baina bai, ordea, bidegabeki baztertzailea.

Konstituzioaren aurkakoa izateaz gain nabarmen, delako arauak ez du errespetu handirik zaharrak 65 urte bete ondoren dauden zaurgarritasun egoeraren aldera. Horrenbestez, ulertezina da zergatik baztertzen dituzten hain bidegabeki euren babes bermatu behar zuten arau hori-exek.

Ondorioz, araudiaren garapenari kalte egin ezean, Arartekoak honelako laguntzak (behinik behin, elementurik oinarrizkoenak) lege bidez arautu behar direla aldarrikatzen du, zerbitzu hau oso garrantzitsua delako hala onuradunen balizko kopuruagatik, nola laguntzen iraunaldiagatik eta jarraitutasunagatik; izan ere, pentsatzekoa da laguntzak nekez aldatuko direla onuradunen bizitzan. Gorabehera horiek guztiak direla eta, lege arauak eta xedapen orokorrek eskaintzen duten araudi egonkorragoa erabiltzea komeni da. Gainera, lege arauak eta xedapen orokorrak Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira eta, hortaz, interesatuek errazago eskura ditzakete. Izan ere, orain arteko araudia aipatutako organismo autonomoko zuzendari gerentearen ebazpen soil batek osatzen du eta, nabarmendu dugunez, 2004. urtera arte ez da sikiera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Horregatik guztiagatik, komenigarriena laguntza hauen inguruko araudia osorik berrikustea da, Konstituzioko printzipioen arabera egokitzearen, eta oinarrizko araudiari lege maila ematea, araudiaren bitartez garatuko beharrekoa.

- **Udal zerbitzuak**

Bigarrenik, udalek eta mankomunitateek oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokien esparruan ematen dituzten etxeko laguntza zerbitzuak aipatuko ditugu; beharrezko hitzarmenak sinatu dituzte Nafarroako Gobernuarekin horiek finantzatzeko, 11/1987 eta 98/1989 foru dekretuetan xedatutakoarekin bat.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen funtzio nagusiak 11/1987 Foru Dekretuko 2. artikuluan ageri dira. Besteak beste, etxeko laguntza ageri da udal organismo horiek ematen dituzten programa espezifikoaren artean.

Zerbitzuetako oinarrizko langileak gizarte langileak, familiarteko langileak eta administrazioko langileak dira. Lehen mailako arreta taldearekin koordinazioan aritzen dira kasu bakoitza balioesten eta segitzen, baterako erantzun osoa ematearren herritarren arazoei.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen funtzionamenduak eragindako gastuak udal aurrekontuen bitartez ordaintzen dira. Nafarroako Gizarte Ongi-

zatearen Institutuaren bidez, Nafarroako Gobernuak oinarritzko gizarte zerbitzuak finantzatzen laguntzen du, aurrekontuetako esleipenen bitartez eta parte hartzen duten udalekiko akordioak ezarriz. Honako hau da ordaindu beharrekoa: oinarritzko taldeko langileei dagozkien gastuen %75 lehenengo eta bigarren urtean, eta gastu horien %50 hirugarren urtetik aurrera; gainerakoa udalei dagokie.

Nafarroako Gobernuak ere laguntzak ematen ditu jarduera eta programa espezifikoak finantzatzeko.

Funtsean, zerbitzuak udal ordenantzen bitartez arautzen dira; hain zuzen ere, antolakuntza eta funtzionamendu diseinua finkatu eta ordainarazpenak ezartzen dituzte, baina ez dago maila handiagoko arau esparru homogeneorik, zerbitzu hauek zehazkiago arautuko duena. Zerbitzuak behar dituen erabiltzailea administrazio publiko bakoitzaren ia erabateko zuhurtziarakotasunaren mendean dago. Administrazio publikoek zerbitzuak antolatzeko erabateko askatasuna dute ia, baina pentsatzekoa da udalek eta mankomunitateek nolabaiteko homogeneotasuna lortu dutela berez zerbitzuak emateko moduari dagokionez, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmen eredu bati esker.

Goi mailako araudirik eza dela-eta, komenigarria iruditzen zaigu ordenantzetan xedatutako zerbitzu horren hainbat alderdi azaltzea, ematen diren zerbitzuak gutxienez irudikatzearen.

Honako hau izan liteke etxeko laguntza zerbitzuen definizioa: ekintza balioaniztun eta koordinatua osatzen dute, profesionalak ematen dituzte eta aurretiko planifikazioaren testuinguruan azaleratzen dira. Banakako programa eratzen dute, prebentzioaren, laguntzaren eta birgaitzearen alorrekoa, eta profesionalak esku hartzen duen zenbait zerbitzu eta teknika antolatzen da haren inguruan, hala nola, laguntza pertsonala, etxeko laguntza, babes psiko-soziala eta familia babesa, eta erabiltzailearen inguruko pertsonetikiko edota familiarekiko harremanak, eguneroko jarduerak ohiko ingurunean gauzatzea ezinezkoa bazaie, zerbitzu hau arautzen duen hainbat udal ordenantzak dioenez.

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak zerbitzu hau definitzeko ituna sinatu dute eta, zehatz-mehatz, honako helburu hauek ditu:

- a) Krisialdi pertsonalak eta familiartekoak prebenitzea, beharrian fase goiztiarretan esku hartuz, egoera pertsonalak eta sozialak okerrera egin dezaten saihestuz, eta erakundeetara jo beharra ahal bezainbat atzeratuz, egokiena ez bada. Prebentzio alderdi-
ei esker, Oinarrizko Arreta Sarea berehalakoari baino erantzuten ez dion espiraletik kanpo dago, eta errazagoa da pertsonak, zaharrak batez ere, egungo bizi ingurunean gera daitezen.
- b) Etxeko arreta ematea eta, hartara, babes pertsonala eta sozia-
la ematea behar handiko egoeran daudenei. Euren arazo guz-
tiak kontuan hartuz ematea arreta pertsonari erantzun osoaren bitartez.
- c) Norbanakoaren autonomia akuilatzea ohiko ingurunean, bizi
kalitatea eta, ahal dela, elkarbizitza, komunitate parte hartzea
eta gizarte eginkizuna mantentzea hobetzearren, nork bere
kasa egin dezakeena egin ezean.
- d) Egoitzetan sartu beharra desagerraraztea beharrezkoa ez
denean, narriadura atzeraezineko egoerak prebenituz eta
ezgaitasunak atzeratuz. Helburua da pertsona komunitatean
barnera dadin, gizarteak beharrei erantzuteko erabili ohi ditu-
en bideetara joz eta horiek erraztuz, eta bizimodu eta giro
jakinak ezartzen dituzten zerbitzuak erabili beharra ahal den
heinean saihestuz, norbanakoa gizarte ingurunetik bakartzen
dutena.
- e) Borondatezko lana eta elkartasuna sustatzea, hau da, elkarla-
guntza sustatzea, eta haren eginkizuna etxeko laguntzaz
babestea.
- f) Zerbitzuak pertsonaren arabera eman daitezen bermatzea,
arreta ematen zaion pertsonaren lurraldean eta ingurune natu-
ralean emanez. Banaka ematen dira, pertsona bakoitzaren
ingurumarira egokiturik, eta denboraren joan-etorriak plante-
atzen dituen beharrei erantzunez.

Iruñeko Udalak etxeko laguntza sustatzeko honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu Foru Administrazioarekiko itunaren esparruan:

Zerbitzu pertsonalak

Erabiltzaileari arreta "trinkoa" –astean hiru eta sei ordu artean– eta "mantentze" arreta –gehenez, hiru ordu astean– ematea dute helburu. Salbuespen egoeretan, bi orduko arreta ere eman daiteke egunean.

Honako zerbitzu hauek daude zerbitzu pertsonalen artean:

- a) Arreta pertsonala eta higiena: norbere garbitasuna ikuskatzea; ohetik altxatzen eta ohera sartzen laguntzea; janzten eta erazten laguntzea; eguneroko edota aldian aldiko norbere garbitasunean laguntzea, bainuan barne; jaten laguntzea; eta ihesetan aholkatzea.
- b) Etxeko lanak egiten laguntzea: hasierako garbiketa orokorra; mantentze garbiketa; zailtasun edo arrisku handiko lanak egitea (kristalak, gainaldeak, azulejuak eta komuna garbitzea); erabiltzailearen ohea egin eta gela txukuntzea; erosketak egin eta etxera eramaten laguntzea; janaria prestatzen laguntzea; baxera garbitzea; konponketa txikiak egitea; eta konponketak, erosketak eta ingurunearen hobekuntzak kudeatzea.
- c) Prebentzioa: osasunaren arloko oinarrizko gaiei buruz orientatzea; baliabideei buruz informatzea; familiarterako gertakariak antzematea; arazoak gainditzen laguntzen duten balio positiboak sustatzea; bakardade egoeretan laguntzea; babes psiko-soziala; gizarte dinamizazioa; etxebizitzaren egoera ikuskatzea; altzariei eta etxeko hornidurari buruz aholkatzea; etxeko eta garbitasun trebetasunak irakastea; errezetak hartu eta kudeatzea; medikazioa ikuskatzea; eta kultur eta aisialdi jardueretan parte hartzen laguntzea.
- d) Gizarte harremanak eta babesa: erabiltzailearen ingurunearekiko komunikazio bideak bideratzea; etxeko harremanak indartzea; eta kudeaketak egiten eta medikuaren kontsultara laguntzea.
- e) Etxean jaten ematea egunero eta arropa garbitu eta lisatzea astean behin.

- f) Klubetara eta eguneko zentroetara eramatea norbere kabuz edo kontratu bidez.
- g) Familia, bizilagunak eta gizarte osoa sentsibilizatzea belaunaldien arteko elkartasuna sustatzeko berariazko kanpainen bitartez.
- h) Oinarrizko hobekuntzak egitea etxean gizarte zerbitzuen alozko proiektu espezifikoak abian jarri. Gizarte Enplegu Programaren barruan.
- i) Etxean laguntzea arazo nagusia bakardadea eta hark dakarren larritasuna den egoeretan. Horretarako, beharrezkoa da boluntarioen laguntza.
- j) Telelaguntza, hau da, larrialdi egoeretan laguntza behar duten zaharren etxeko berehalako arreta bermatzeko zerbitzua -jarraian arituko gara gai honetaz-.

Ikus daitekeenez, lantzen ari garen etxeko zerbitzuek garrantzi handia dute zaharren arretan, eta zaharrak babesteko sistema ororen ardatza izango direla dirudi, erabiltzaileak behar adina zaintzen direlako eta etxetik egoitzetara aldatu beharra saihesten delako. Hartara, egoitzak bigarren mailako aukera bihurtzen dira, haustura gogorra dakarkiolako bere gizarte harremanen ingurunea utzi nahi ez duen zahar ugari.

Nolanahi ere, berriro ere nabarmendu beharra dago legeek ez dutela oinarrizko araudia eskaintzen, herritarrek alor honetan dituzten esku-bideen berri izan dezaten, eta zerbitzu berak kalitate maila eta kostu analogoak eskatu ahal izan ditzaten. Ez Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, ez Nafarroako Tokiko Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ez dute aipatzen berariaz zerbitzu hauek ematea eta finantzatzea; aitzitik, udal ordenantzek baino ez dituzte zehazten zaharren gutxieneko eskubide hauek.

Azkenik, interesgarria da Etxeko Telelaguntza Zerbitzua nabarmentzea, etxeko laguntzak berak osatzen duen zerbitzua izanik. Irailaren 9ko 505/1992 Foru Aginduaren bitartez xedatu da hura ezartzea, eta hel-

burua bakardade, bakartze, larritasun eta patologia akutuak edo larrialdi medikoak izateko arrisku egoerak konpontzea da. Horretarako, laguntza eta larrialdi zerbitzuekin harremanetan berehala jartzeko sistema ematen zaie erabiltzaileei, bakarrik daudenean erabil dezaten.

Zerbitzu honen erabiltzaileak zaharrak dira, euren etxean laguntza handirik gabe bizitzeko moduko autonomia pertsonal nahikoa dutenak baina, egoera pertsonal makala dela-eta, euren kasa konpon ezin ditzaiketen ezbeharrak izan litzaketenak. Hartara, telefono bidezko sistema erabilerraz bati esker, erabiltzaileak behar bezalako arreta emango dieten operadoreekin harremanetan jar daitezke; era berean, operadore horiek beste laguntza zerbitzu batzuk ohartaraziko dituzte, eta zerbitzuok etxebizitzara joko dute berehala.

Gure ustez, telelaguntzaren karakterizazio hori zuen helburu aipatutako Foru Aginduak, nahiz eta 1. artikulua kontrakoa dioela dirudien, honela definitzen baititu erabiltzaileak: "Euren etxean geratzeko moduko autonomia pertsonal nahikoa ez duten pertsonak". Aginduaren idazkera nahasia eta arina da; izan ere, zerbitzuaren erabiltzaileek nolabaiteko autonomia izan behar dute euren etxeetan euren bitartekoez eta ahalmenez geratu ahal izateko. Telelaguntza zerbitzuak salbuespenezko egoeretan bakarrik funtzionatzen du, hain zuzen ere, behar edo larrialdi egoeretan, baina erabiltzaileak autonomiarik ez badu, ordea, ausarkeria litzateke etxean bakarrik uztea, telefono erabilerraza izan arren. Uste dugu zerbitzu hau autonomia nahikoa dutenentzat prestatu dela, telelaguntzara salbuespenezko egoeretan bakarrik jo behar izateko moduan.

Zerbitzu honek oso garrantzi subjektibo handia izan lezake erabiltzaileentzat, zaharrek berehalako arreta izango dutelako berme handia baitute hura ezarriz, etxean bizitzeari utzi beharrik ezean. Zerbitzu fidagarria da, erabiltzaileei lasaitasun eta segurtasun handia ematen diena, eta, era berean, erabiltzaileek duten autonomia maila osoaz goza dezakete hari esker.

Atal honetan, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuaren bitartez xedatutako zerbitzuetan jarriko dugu arreta; hain zuzen ere, 209/1991 Foru Dekretuak 9/1990 Foru Legea garatzen du, Gizarte Zerbitzuen esparruko Baimenen, Arau Hausteen eta Zehapenen Eraentzari buruzkoa. Euren kasa molda daitezkeenentzako eta laguntza behar dutenentzako egoitzez eta psikogeriatrikoez, eguneko zentro psikogeriatrikoez, zahar etxeez eta klubez, zaharren-tzako apartamentu eta etxebizitza komunitarioez, eta jangelez arituko gara bereziki.

1. Ohar orokorrak

Aldez aurretik, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuari buruzko balioespen orokorra egingo dugu, gizarte laguntzak ematen duen zerbitzu ugariaren eskema osoa osatzen duen oinarritzko esparrua baita. Arau horren helburua 9/1990 Foru Legea garatzea da, aurrez analizatu duguna, eta guztiz eskasa dela ondorioztatu duguna gizarte zerbitzuak ematen dituzten zentroak arautzeko. Hala ere, Foru Dekretuak balio balio du zerbitzu horien egiturari eusteko, gizarte arretarekin lotutako zentro eta zerbitzu guztiak arautzeko araudi luze eta handinahia baita; balizko erabiltzaile guztiak hartzen ditu aintzat, haurrak eta zaharrak, gazteak, ezgaituak eta gizarteratze zerbitzuak barne, eta etxeko laguntza zerbitzua ere aipatzen du eranskin luzearen amaieran.

Zaharrei ematen zaizkien gizarte zerbitzuen alorreko antolamendu juridikoaren erabateko ahulezia dela-eta, Foru Dekretua aipatzen dituen zerbitzuak antolatzeko eta arautzeko ganorazko ahalegintzat hartu behar dugu, alor hau nolabait txukuntzeko ahalegin handia egin dela antzematen baita hura irakurriz gero; halaber, Nafarroako gizarte laguntza arautu beharko lukeen gainerako antolamendu juridikoaren eskastasunari aurre egiten dio.

Txosten honi dagokionez, zaharrekin lotutako zerbitzuetan baino ez dugu jarriko arreta.

209/1991 Foru Dekretua gizarte zerbitzu eta zerbitzuok zaharrei ematen dizkieten erakunde gehienei aplika dakieke, publikoak ala pribatuak izan, eta bermatu beharreko hainbat kalitate irizpide finkatzen du. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren baimen sistema ezartzen du Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Gizarte Ongizateko Departamentuaren bidez, horien kontrolpean baitaude zentroen eta zerbitzuen jabe diren erakundeen erregistroa, ikuskapena eta ebaluazio sistema. Halaber, zehapen ahalmena ere dute, aipatu 9/1990 Foru Legeko baldintzetan.

Bere eskumenen barruan, Administrazioak gizarte zerbitzuak emateko eraikinak egitea eta berritzea baimentzen du, baina baita zerbitzuen funtzionamendua, titulartasun aldaketak eta jarduera bertan behera uztea ere. Zehatz-mehatz definitzen du zerbitzuek berezko duten alderdi bakoitza, eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeen betebeharrak zerrendatzen ditu oro har, gutxieneko langile ratioa eta euren prestakuntza, eta etxeen eta ekipamenduen estandarrak eta ezaugarriak barne. Zerbitzuak euren ezaugarrien eta erabiltzaile motaren arabera bereizten ditu eranskinean, segurtasun arauak eta suteen aurkako babes araudia bete beharra aipatzen du, eta arau horien arabera egokitzeko epe jakinak eta bestelako betebeharrak (hala nola, prezioen inguruko araubidea eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzea, besteak beste, parte hartzekoa) ezartzen ditu.

2. Erabiltzaileen eskubideak

Erabiltzaileek dituzten eskubideei dagokienez, 13. artikulua zerrenda luzea ezartzen du, Konstituzioko bertako hainbat eskubide barne: berdintasunerako eskubidea, intimitaterako eskubidea, duintasunerako eskubidea, sekreturako eskubidea, informaziorako eskubidea... Halaber, norberaren araberrako arreta izateko eskubidea, erreklamazioak aurkeztekoa, zentroaren kudeaketan parte hartzekoa eta pertsona bizi den egoitza norbere etxetat hartzeko eskubidea aipatzen ditu.

Parte hartzeko eskubidea dela-eta, 14. artikulua Partaidetza Kontseiluaren bitartez erabili behar dela xedatzen du; organo horretan, erabiltzaileak gutxiengo garrantzitsua dira –zortzi batzordekideko hiru–, eta gainerakoak zentroko zuzendaria, teknikari bat, langileen bi ordezkari

eta Tokiko Administrazioiko beste ordezkari bat dira. Erakunde berak zentro bat baino gehiago badu, osaera aldatu egiten da, aginduak dienez, baita erretiratuen klubetan ere; bertan, estatutuek xedatzen dutenari lotu behar zaio.

Kontseilu horien eskumenak arauaren bitartez aipatzen dira, eta informaziozkoak, ekimenezkoak eta laguntzazkoak direla dio. Zehazkiago, honako hauek dira: zentroko jardueren egitaraua aztertzea, instalazioen berri ematea, zerbitzua hobetzeko egoki jotzen dena proposatzea, zentroaren funtzionamenduari buruzko informazioa biltzea, beste zentro batzuekin elkarlanean aritzea eta barne araudia eta erabiltzaileen gan eragina duen gainerako araudia osatzea.

Ezbairik gabe, hainbat eskumen garrantzitsu falta da 14.6. artikuluko zerrendan, hala nola, erreklamazioen eta zehapen espedienteen berri ematea, baita inbertsio eta prezio programan eragina duten kontabilitate eta finantza alderdien berri ematea ere; gure ustez, eskumen horiek berariaz aipatu beharko lirateke.

Lantzen ari garen dekretuak ez du xedatzen zentroko zuzendaritzarekiko independente diren erabiltzaileen organo espezifikoak ezarri behar direnik, erabiltzaileek euren proposamenak eta planteamenduak askatasunez eztabaidatu ahal izan ditzaten Partaidetza Kontseilutik kanpo. Halako organoak instituzionalizatzeak, ordea, erabiltzaileek parte hartzea sustatu eta akuilatuko lukeela uste dugu, baita planteamendu eta ekimen interesgarriak proposatzeko ahalmena ere zentroen funtzionamendu onerako. Halaber, agintarien eta ikuskapenaren aurka talde erreklamazioak aurkezteko aukera handiagoak izango lirateke.

Badago nabarmendu beharreko beste alderdi bat, hain zuzen ere, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak formalizatzeko modua zentro bakoitzaren barruan. Gure ustez, arau baten bitartez islatu behar dira, erabiltzaileek euren helmenaren eta erabiltzeko moduaren berri izan dezaten. Dekretuarekin bat, Sarrera Araudi horren bidez antolatu behar dira aipatu dekretuan zerrendatutako eskubideak eta betebeharrak; hala ere, uste dugu dekretuak testuan barrena zerrendatutako betebeharren ondorio diren eskubide guztiak ere islatu behar dituela, zerbitzuak ematean eska daitekeen alderdi ugari arautzeko. Esate baterako, zentroek bete beharreko gutxieneko baldintzak erabiltzaileen eskubi-

dea dira, eta halaxe azaldu behar dute Sarrera Araudian: egoitzetako gela bakoitzak telefono eta telebista hargunea izan behar badu, araudiarekin bat, erabiltzaileak idatziz izan behar du instalazioak egokiak izateko eta behar bezala jasotzeko duen eskubidearen berri, eta ezagutza hori zentro bakoitzeko araudi espezifikoaren bitartez islatu behar da, 209/1991 Foru Dekretuak xedatutakoa gorabehera.

Edonola ere, uste dugu berebiziko garrantzia duela erabiltzaileek eza-gutu beharreko barne araudia izatea zentro bakoitzean, zentroetako erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren erreferente eta euskarri lana egiteko, tratamendu berezia izatea merezi baitu.

3. Erabiltzaileen barne araudia

Adierazi dugunez, uste dugu zentro bakoitzeko erabiltzaileentzako barne araudia formalki eta materialki ezartzeak aparteko garrantzia duela, berariaz eta idatziz arautzeko zentroaren ezaugarriak, antolamendua, funtzionamendua, erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak, eta eskubideak erabiltzea eta eginbeharrak betetzea bermatzeko erabaki, parte hartze eta erreklamazio prozedurak eta organoak. Izan ere, funtsezko elementua da egoitzetako erabiltzaileek eskubideen eta betebeharren jabe diren herritar izaten jarraitzeko; hartara, aurrez finkatutako prozedura bati jarraiki erabil litzakete eskubideok, eta herritar diren aldetik bete beharko lituzkete eginbeharrak ere.

Parte hartzen duten alderdiek merezi duten errespetua eta horien uste on soila gorabehera, araudia parte hartzen duten alderdi guztiak (erabiltzaileak, langileak eta erakundeak) babesten eta haiei mesede egiten dien tresna juridikotzat nabarmentzen da; azken batean, arbitrariotasuna eta subjektibismoa saihesteko irizpideak finkatzen ditu, eta erabakitzea eta, hortaz, eskubideak egokiro erabiltzea errazten du guztiek ezagutu eta errespetatu beharreko prozedurak ezarriz.

Araudirik ez izateak arau inplizituetan oinarritutako jarrerak izatea eragiten du; arau horiek ezin dira egiaztatu, eta egoitzak ongintza etxetzat zituzten irizpideekin lotutako ikuskera subjektiboetan oinarrituta daude. Zorionez, gainditu egin ditugu ikuskera horiek, baina gaur egun bere horretan jarrai lezakete, eta egoiliarrek euren eskubideak oso

murrizturik interpretatzeko joera izan dezaten eragiten dute sarritan; hain zuzen ere, arau argi eta ezagunik ez izateak, baita adinak ere, zaharrek euren eskubideak babesteko hainbeste ez eskatzea eta alde horretatik konformistak izatea eragiten du.

Gainera, zaila da egoitzetan existitzen diren gatazkak antzematea, oso gutxitan azaleratzen direlako aurrez azaldutako arrazoi berberak direla eta.

Edonola ere, igarri dugu profesionalak zuzen eta zilegitzat duten irizpide bat erabiltzen dutela funtsean lanean: egoiliarren babesa bermatuko duten eta, aldi berean, erakundeari erantzukizunak eragingo dizkionten kalteak eta arriskuak saihestuko dituzten konponbideak aurkitzea. Arrazoizkoa izan arren, jokabide horrek gehiegizko babesa eragiten du, erabiltzaileen estatusaren alde egiten bada, eta abusuak eta zaharren eskubideen murrizketak, berriz, egoitza babestu nahi bada. Nolanahi ere, nabarmena da profesionalen, erabiltzaileen eta erakundearen arteko harremanak konplexuak eta gatazka iturri izan litezkeela, zentro horietan izaten diren harremanak bezain gertukoa den eguneroko harreman oro bezala.

Horrenbestez, beharrezkoa da alor honi buruzko arau esparrua ahal bezain zehazkien definitzea, irizpide baliagarriak izateko, erabiltzaileen eta profesionalen jarrerak finkatu eta beharrezko oreka finkatzeko batzuen eta besteen eskubideen eta betebeharren artean, hau da, egoiliarrek segurtasuna izateko nahitaezko bermearen eta eskubideak askatasunez erabiltzearen artean. Azken batean, funtzionamendu arauak ezarri behar dira erabiltzaileen eskubideak eta interes zilegiak eta erakundearenak eta bertan lan egiten duten profesionalenak zentzuz bateratzeko, segurtasuna eta beharrezko askatasuna bateratuz; segurtasuna erabat bermatu behar da, eta askatasunak, berriz, muga zuzenak eta arrazoizkoak besterik ez ditu izan behar.

Alde horretatik, nabarmendu beharra dago pertsonen eskubideak besteen eskubideen erabileran eragina izanez gero eta zentro barruko elkarbizitza kaltetuz gero bakarrik murriztu daitezkeela. Egoera horiek arautu behar ditu barne araudiak eta, behe mailako araua den heinean, legearekin eta aplikatu daitezkeen garapen arauekin bat onartu behar da.

Bestalde, egoiliarren eskubideak horiek erabiltzea erabiltzailearen osotasun fisikorako nabarmenki arriskutsua denean ere murriz daitezke; halakoetan, ordea, beharrezkoa da ezgaitze prozedura izapidetzea alde aurretik epailearen aurrean. Parekatzeko modukoak dira diagnostikatu-tako nahasketa mental kasuak: jarduera jakinak egitea eta erabaki jakinak hartzea ezgaitzen dute hein batean, baina eragina ez dute erabakitzeke gaixoaren ahalmen osoan.

Beharrezko aholkularitzaz, epaileak erabaki behar du halakoetan ezgaitasunaren helmena eta izaria eta, hortaz, erakundeak tutoretza erabili behar duen esparrua. Pertsonak buruko gaitasunak mugaturik baditu, epaileari dagokio jarduera jakinak egitean bere gain hartzen dituen balizko arriskuak balioestea, eta gaixoaren erabaki askatasuna hainbat aldetatik murrizarazteko egokitasunaren gainean erabakitzea.

Honako oinarrizko eduki hauek lirateke arautu beharko lituzke zentroko araudiak:

a) Oinarrizko printzipioak:

- Lehenik eta behin, egoiliarra aldatu den zentroan eta talde berrian barnera dadin bermatzea, egoitzako bizi araubidea errespetatuz.
- Egoiliar bakoitzaren banakotasuna, autonomia eta intimitatea errespetatzea.
- Oinarrizko beharrak definitzea "egoiliarren arreta ezin hobe osoaren" bitartez.
- Egoiliarrek zerbitzuen kudeaketan eta horien emaitzan parte hartzea.
- Araudiaren edukia zabaltzea eta haren berri ematea, elkarbizitzaren eta zerbitzuen antolamenduaren eta funtzionamenduaren oinarrizko esparrua izan dadin egiaz, parte hartzaile guztiek haren berri izan dezaten eta erreferente lana egin dezan eguneroko bizitzan.

- b) **Zentroko zuzendaritza eta parte hartze organoak:** Egoiliarrek haiengan eragina duten gaietan (besteak beste, araudiaren eta funtzionamendu arauen erreforman, urteko jardueren egitarauan, instalazioen hobekuntzan eta erreformetan, zentroaren kudeaketari buruzko informazioan, barne hauteskunde prozesuetako parte hartzean, eta ekimenetan) parte hartzeko duten eskubidea erabiltzeko modua islatu behar da.
- c) Egoiliarren eskubideak eta betebeharrak.
- d) Kexen eta iradokizunen inguruko sistema eta erreklamazio moduak.
- e) Bisiten eta irteeren inguruko araubidea.
- f) Egoiliarrek euren esku dituzten instalazioak eta zerbitzuen funtzionamendu eta emaitza arauak (norbere gela eta gune komunak, jangelak eta dieta, garbitegia, garbiketara, atezaintza...).
- g) **Arau hausteen eta zehapenen araubidea,** gainerako egoiliarren eskubideak ez ezik, ustezko arau hausteen eskubideak ere bermatzeko, baita behar bezalako defentsa eta egitateen egiazkotasuna bermatzeko zehapen prozedura ere. Hori guztia zentro bakoitzean nahi bezalako elkarbizitza giro harmonikoa bermatzeko egin behar da eta, horretarako, zentroko araudiak legea eta goi mailako arauak izan behar ditu oinarri, arau hauste motak, zehapenak eta zehapen zuzenbidea osatzen duten gainerako elementuak mugarritzeko, zigor legezko tasunari buruzko printzipioarekin bat.

Nabarmena da barne araudirik ez izateak ondorio larriak izan ditzakeela egoiliarrengan, hau da, joko arauak edo arau esparrua ez izateak zentro bakoitzaren antolamendua, funtzionamendua, erabiltzaileen eta profesionalen eskubideen eta betebeharren araubidea, eta eskubideak erabiltzea eta eginbeharrak betetzea bermatzeko erabaki, parte hartze eta erreklamazio prozedurak eta organoak berariaz eta idatziz arautzeko.

Arau esparru argirik ez dagoenean, erabiltzaileen eta profesionalen arteko harreman jarraibideek erakundeen iraganarekin lotutako ikuskeretara jotzen dute ezinbestean; egoiliarrak ez ziren eskubideen jabe

orduan, hartutako onuradun hutsak baizik, erakundeak zerbitzuaren gainean erabakitzen zuena onartu behar zutenak. Hartara, egoiliarren eta profesionalen artean izan beharreko botere orekak azken horien aldera egiten zuten beti.

Hortaz, honako ideia hau hartu behar dugu abiapuntu: egoitza bakar bat ere, ezta itxuraz ireki eta demokratikoena edo gizartean osperik handiena duena ere, ez dago aske egoitzak ongintza etxe zaharrek parekatzen dituen ezkutuko inertziatik. Dena dela, ekarpen publikoak handiak izan arren, egoiliarren beren bitartekoez finantzatzeko dira egoitzak gaur egun, eta egoiliarra edo haren ondorengoak dira egoitzan egonaldia egiteagatik egindako zorren erantzule.

Azken batean, salatu beharrekoa da arbitrariotasuna izan litekeela, onartu ez diren eta egoiliarrek ezagutzen ez dituzten ustezko arauak aplika litezkeela, eta egoiliarrek herritar libre diren aldetik eska ditza-keten eskubideak oso murrizturik interpretatzeko joera izan lezaketela sarritan arau esparrurik ezaren ondorioz.

Gainera, funtsezko beste alderdi bat erantsi beharra dago, alegia, egoiliarrek ez dutela indarririk eta, horregatik, sistemarekin kritikoak ez izan eta eskaintzen zaiena euren eskubideak aldarrikatu ezean onartzeko joera dutela. Jakina, litekeena da salbuespenak izatea konformismo horretan baina, besteak beste, honako hauen ondorio izan liteke oro har:

- Egoiliar asko eta asko 65 urte baino askoz ere gehiago dituzten zaharrak dira eta, ondorioz, babesgabetasun egoera errealean izateko arrisku handiagoa dago.
- Gazteagoak zirenean eta diru sarrera handiagoak izan zitezakenean baino baliabide ekonomiko gutxiago dituzte. Izan ere, ordura arteko ohiko diru sarrerek behera egiten dute nabarmen erretiroaren ostean eta, tamalez, eragin izugarria du horrek, gure gizarteak ahalmen ekonomikoarekin lotzen duelako norberaren balioa, autoestimua.
- Litekeena da egoitzan sartu aurreko bizi baldintzak gogorrek izatea hainbatetan, iraganekoa baina gertatu berria den ingu-

rumarian izan baitziren; herritarrak nolabaiteko boterea zuten mendean jartzeko moduko garaia zen orduan. Hori dela eta, baliteke pertsona horiei zaila gertatzea eskubideen eta betebeharren jabe izateak bere osotasunean dakarkiena gizarte demokratiko bateko herritarrei.

- Gaur egun ere, egoitzan sartzea porrot sozial eta pertsonaltzat hartzen da batzuetan, zaharra familiak erdiutzi egin duelako egoeran kokatu duena. Dela arrazoi bat, dela bestea, ohiko etxebizitza eta ingurunea uztea da irtenbide bakarra, eta egoitza behar du, hain zuzen ere, bera bezalako beste hainbat bizi-tzaren amaieraren zain bazter geratu den egoitza.
- Urte askoan bizi ondoan, zahartzarora heldu izanak berak itxaropena eta ilusioa gal dezagun eragiten du, eta konformismoa eta aldaketekiko mesfidantza sorraraz lezake horrek.
- Halaber, ohikoa da egoiliarrek dohaintzat har dezaten eskatzeko moduko eskubide subjektiboa, eskaria eskaintza baino handiagoa delako, eta egoitzetako prezioak garestiegiak gerta dakizkielako askori eta askori, administrazio publikoek ematen dituzten laguntzengatik ez balitz. Ondorioz, egoiliarrek sistemarekiko kritikotasun eskasa izaten dute, eta gogo onez onartzen dute erakundeak eskaintzen diena, euren eskubideak aldarrikatu ezean.

Egia esan, faktore multzo horrek egoiliar askoren jokaera oso zorrotzak izan ez daitezten eta mugatuegiak egon daitezten eragiten du. Egungo arau esparruaren eskasiak jokaera horiek indartu baino ez ditu egiten, eta egoiliarren eta profesionalen arteko botere desoreka ezartzen du azken horien aldean. Are gehiago, araudirik ez dagoenez gero, egoiliarrak langileen mendean jarri behar dira eta, hartara, langileek goi mailan izatean oinarritutako aginpidea dute, arauetan oinarritutako aginpidea izan beharrean.

Horrenbestez, aldarrikatzen dugu ezinbestekoa dela erabiltzaileentzako barne araudia ezartzea formalki eta materialki, egoitzetan parte hartzen duten pertsona guztien eskubideen eta betebeharren inguruko oinarritzko joko arauak islatzeko.

4. Egoitzak

209/1991 Foru Dekretuak zaharren esparruko zerbitzuen inguruan ematen duen araudi zehatzari helduz, nabarmendu beharra dago eranskinako 2.6., 2.7., 2.8. eta 2.9. atalek euren kasa molda daitezkeenentzako eta laguntza behar dutenentzako egoitzak eta egoitza mistoak eta psikogeriatrikoak arautzen dituztela, bakoitza definitzen eta ematen dituzten zerbitzuak erabiltzaileen ezaugarrien arabera zerrendatzen.

Euren kasa molda daitezkeenentzako egoitzek 65 urtetik gorakoei ematen diete zerbitzua, eta etengabeko arreta, ostatua, garrantzi txikiko errehabilitazioa, terapia okupazionala eta kultur eta aisialdi jarduerak eskaintzen dizkiete.

Laguntza behar dutenentzako egoitzetan sartzeko, berriz, beharrezkoa da 65 urtetik gorakoa izatea eta beste pertsona batzuen laguntza behar izatea. Arreta mediko-geriatrikoa, errehabilitazioa eta euren kasa molda daitezkeenentzako egoitzetako gainerako zerbitzuak ematen dira bertan.

Egoitza mistoek aurreko bien bi baldintzak eta eskakizunak bete behar dituzte, arreta euren kasa molda daitezkeenei eta laguntza behar dutenei batera emateko zentrotzat definitzen baitira.

Azkenik, egoitza geriatrikoek narriadura psikiko handiko zaharrak hartzen dituzte, eta behar duten arreta mediko eta laguntzazko guztia ematen diete. Egoitza mota honen adibide San Frantzisko Xabierko zentro psikogeriatrikoa dugu. Bertako funtzionamendu araubidearen ondorioz, 13/1999 Foru Legea aldarrikatu zen apirilaren 6an, eta Nafarroako gizarte laguntza zuzentzen duen nora ezeko antolamendu juridikoaren adierazgarri garbia da lege hori: batetik, 1. artikulua osasun arreta doakoa dela gogorarazten du, baina horrek ez balio juridikorik, balio oroigarri hutsa baizik; bestetik, 2. artikulua dio egoitza horretan ematen den arreta 9/1990 Foru Legearen eta 209/1991 Foru Dekretuaren mendeko gizarte zerbitzua dela; eta, azkenik, 3. artikulua onartzen du gizarte zerbitzuak eman behar zaizkiela buruko gaixotasunek eragindako elbarrituei, 14/1983 Foru Legearekin bat. Ez da igartzen inola ere apirilaren 6ko 13/1999 Foru Legearen arau helmena, ezta lege mai-

lako araua erabili izana oinarri zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendua arautzeko.

Aitzitik, 209/1991 Foru Dekretua helburu duen gaia arautzen ahalegintzen da, eta zehatz-mehatz azaltzen ditu egoitza mota bakoitzean ematen diren zerbitzuak, langileek izan beharreko prestakuntza profesionala eta bermatu beharreko langile ratioak. Besteak beste, azpiegiturek eta instalazioek, gune komunek eta logelek bete beharreko baldintza espezifikoak ere zehazten ditu. Araudi honi esker, arautzen dituen zerbitzuak homogeneousagoak dira, eta egokiro balioets daitezke egoitza bakoitzeko kalitate mailak.

5. Eguneko zentro psikogeriatrikoak

Urriaren 6ko 633/2003 Foru Dekretuak aldatu egiten du 209/1991 Foru Dekretuak honelako zentroi ematen zien tratamendua, eta euren ekin-tza eremua hedatzen du, honela definitzen baititu eguneko zentroak: "Eguneko zentro bat, ahalmen psikikoetan galera duten eta defizit funtzionalak dituzten adineko pertsonen errehabilitazioa eta zainketa eskaintzen diena, ahal den bitartean gizarte eta famili ingurunetik atera beharrik izan ez dezaten".

Ordura arte, 65 urtetik gorakoak bakarrik izan zitezkeen bertako erabiltzaile, galeraren bat baldin bazuten ahalmen psikikoetan; orduetik aurrera, berriz, adin muga desagerrarazi da, eta "defizit funtzionalak" dituztenak ere aipatzen dira.

Zentro hauei esker, zaharrek bertan eman dezakete egunaren zati bat, eta euren etxeetara itzuli gero. Hautabidea dira ezgaitasun arazoak dituzten zaharren arretaren arloan, eta zaharrok euren ingurunean bizitzen jarrai dezaten laguntzen dute. Osagarri gerontologikoa dira, baliagarriak izan bailitezke egoitzetako toki eskariak behera egiteko edo, behinik behin, arrazoizko hautabide lana egiteko tokia lortu bitartean.

Eguneko zentroetako zerbitzua etxeko laguntza zerbitzuarekin eta telelaguntza zerbitzuarekin konbina daiteke, pertsonak arreta osoa izan dezan.

Honako helburu hauek dituzte eguneko zentroek:

- Mendekotasun egoeran dagoen zaharra ohiko ingurunean gera dadin bideratzea.
- Gizarte eta laguntzazko babesa ematea familiei eta gainerako zaintzaile informalei.
- Mendekotasun egoeran dagoen zahar kopuruak gora egin dezan prebenitzea, esku hartze terapeutikoaren eta errehabilitaziozko esku hartzearen bitartez.
- Nork bere ahalmenak izanik, zaharrek izan dezaketen autonomia pertsonal mailarik handiena berreskuratzea eta mantentzea.

Helburu horiek lortzearren, honako zerbitzu hauek aurreikusi dira: arreta orokorra; funtzioen errehabilitazioa; terapia okupazionala eta mantentze terapia; gizarteratzen laguntzea; gizarte eta kultur jarduerak eta jolasak; jangela; eta familiartekoak aholkatzea eta orientatzea. Zerbitzu horiek egunean zortzi orduz ematen dira, astelehenetik ostiralera, eta behar bezalako prestakuntza duten profesionalek ematen dituzte, Foru Dekretuak finkatutako ratioekin bat.

6. Apartamentuak

Zerbitzu honen helburua euren kasa bizi daitezkeen 65 urtetik gorako pertsonen ostatu arazoak konpontzea da, eta etxebizitzek adin horretarako eraikigarritasun baldintza egokiak izatea da xedea. Litekeena da zerbitzu komunak izatea, eta gutxieneko arauak ezartzen dira erabilerraztasuna eta ekipamendua direla eta.

7. Komunitate etxebizitza

Eraikin arruntetan kokatutako elkarbizitza unitate txikiak dira, eta euren kasa hein handi batean molda daitezkeen 65 urtetik gorakoek erabiltzen dituzte. Pertsona talde txiki bat bizi daiteke bertan elkarre-

kin, eta dekretu bitartez xedatzen dira zerbitzu honek bete beharreko irizpideak.

8. Zahar etxeak eta klubak

Zentro hauen definizioarekin bat, zaharrek gizarte eta kultur jarduerak eta jolasak gauzatzeko topalekuak dira.

9. Jangelak

Azkenik, zerbitzu honek janaria eskaintzen die zaharrei, eta jangela kolektiboetara aplikatu beharreko arauak bete behar ditu.

LABURPENA ETA GOMENDIOAK

Laburbilduz, gure ustez legeek eskas arautzen dituzten auziak aipatuko ditugu jarraian, dagoeneko garrantzitsuenak nabarmendu baditugu ere, martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeaz, Gizarte Zerbitzuen esparruko Baimenen, Arau Hausteen eta Zehapenen Eraentzari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legeaz eta zahar etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzeko abenduaren 29ko 17/2000 foru legeaz aritzean; hain zuzen ere, 14/1983 Foru Legea gai hau lege arautzeko abiapuntua izan zen Nafarroan, eta lege horiek guztiek, berriz, gai honen inguruko Nafarroako gainerako antolamendu juridikoaren oinarria izan beharko lukete. Halaber, behe mailako arauen hainbat eskasia ere nabarmendu dugu:

1. Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legeak aipatzen dituen Gizarte Segurantzako banakako laguntza ekonomikoak legez finkatu behar dira, herritarrek administrazio publikoetara eskatutakoak eskatzen direnean, eskubideen berri izan dezaten, zenbateko osoaren berri eta kasuan-kasuan bete behar diren baldintzen berri. Horien kopurua aipatzean, honako hau dio egungo lege araudiak: "Gutxieneko helburua da baliabiderik gabeko Nafarroako zahar guztiek Gizarte Segurantzako gutxieneko pentsioaren adina-koa izan dezaten, euren familiarterako ingurune naturalean

manten daitezen". Lege araudi horrek ez du edukirik, eta ez du balio eskatzeko moduko eskubide ekonomikoak eta betebeharrak osatzeko. Hortaz, legeak laguntza ekonomikoen zenbatekoa eta horiek jasatzeko bete beharreko baldintzak finkatu behar ditu.

2. Zaharrentzako gainerako zerbitzu gehienak ere ez dira eska daitezkeen eskubideak, legeak termino lausoak eta zehaztugabeak baitarabiltza, hala nola, "sustatzea", "zerbitzuak indartzea" eta "kontuan hartzea". Adiera horiek ez dute inposatzeko ahalmenik eta, hortaz, legeak eskubide horien inguruan egiten dituen aipamenak asmo deklarazio hutsak dira, botere publikoak inola ere lotesten ez dituztenak eta, beraz, herritarrek eska ezin ditzaketenak. Hori dela-eta, beharrezkoa da lege mailako arauen bitartez arautzea gizarte zerbitzu guztietako funtsezko elementuak.
3. Zaharrei ematen zaizkien zerbitzu publiko nagusiak (etxeke laguntza, euren kasa molda daitezkeenentzako eta laguntza behar dutenentzako egoitzetako arreta, eguneko zentroak eta zaharrei eman beharreko gainerako zerbitzuak) legez arautu behar dira, funtsezko elementuei dagokienez bederen. Nolanahi ere, egungo legediak apenas eskaintzen du elementu horiek gutxienez irudikatzen eta identifikatzen lagunduko duen araudi materialik, zerbitzuak aipatu eta araudiaren garapenera lotzen baita; hain zuzen ere, bertan ageri da araudia. Horrenbestez, uste dugu legea dela gizarte zerbitzuak, formalki ez ezik, materialki ere arautzeko tresna egoki eta beharrezkoa.
4. Aurreko planteamenduekin bat, ezinbestekoa da Eskubideen Karta egitea legez, zaharrentzat sortutako zerbitzu publikoen erabiltzaileek eska ditzaketen eskubide guztiak bilduko dituen; hala zaharren etxean bertan, nola egoitzetan eta zentro analogoetan eman litezkeen zerbitzuen erabiltzaileek eska ditzaketen eskubideak azaldu beharko lirateke bertan.
5. Halaber, legediak ez du estatus juridiko berririk ezartzen zaharrentzako zentroetan bizitzera aldatzen diren pertsonak babes-teko. Erabiltzaileentzako barne araudiak finkatu beharko lituz-

ke zentro bakoitzeko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, legearekin eta gainerako xedapen orokorrekin bat.

6. Zehapen araubidea ez da nahikoa, eta arau hausteen tipifikazioa eta arau hausteen mailakatze sistema zehaztugabeak eta osatugabeak dira. Legediak araututako zehapen prozedura ere oinarritzkoegia da, eta nabarmen hobetu daiteke. Alde horretatik, zentroak ikuskatzeko ekintzak arautu eta formalizatu behar dira, eta dituzten eginkizun garrantzitsuak gauzatzeko baliabide nahikoak esleitu, zentroen funtzionamendu zuzena eta erabiltzaileek merezi duten babesba bermatzearren.
7. Zaharrei gizarte arreta emateko sistemak Toki Administrazioa, udalak eta mankomunitateak ditu oinarri hein handi batean, Nafarroako Gobernuak ere zerbitzuak emateko aukerari kalte egin ezean. Hala ere, uste dugu legediak administrazio publikoen eskumenen oinarritzko eskema zehaztu behar duela eta, batez ere, zerbitzuak finantzatzeko modua. Horretarako, adostasuna behar da, baita ezagutza handia ere, zerbitzuak ematean existitzen diren arazoengatik inguruan finantzazio formulen definizio eskasaren ondorioz. Halaber, legez zehaztu behar dira erabiltzaileek zerbitzuak finantzatzeko ordaindu beharrekoa mugatzen duten elementuak, eta bakoitzak besteen aldean duen garrantzia espezifikoak xehatu.
8. Ondorioz, aldarrikatzen dugu ezinbestekoa dela antolamendu juridikoa sakon berrikustea, eta lege osoa ematea, gizarte zerbitzuen esparrua edo eredia zehatz-mehatz definitu eta zaharrek eska ditzaketen zerbitzu publikoak eta horretarako baldintzak zehazteko.
9. Azkenik, atentzioa eman nahi dugu honako honen gainean: gaur egun etxeko laguntza arautzen duen araua aldatu behar da lehenbailehen, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emana, Konstituzioko printzipioen arabera egokitzearen.

10. ondorioak

1. Diotenez, egun jazotzen ari den zahartze demografikoa ez da noiznolakoa, ohiz kanpoko; aitzitik, prozesu kronikoa da, itzulezina, "inongo baby boom edo migrazio ezta berdinduko ez duena seguru asko, orekatzeko gaitasuna izan arren", Espainiako etorkin berriei buruzko datuak gorabehera.
2. Egungo belaunaldiak zahar belaunaldi berriek ordezkatu dituzte, eta zahar berri horiek heziketa handiagoa izango dute, emankorragoak izango dira eta gaitasuna izango dute artean. Dinamika eta gizarte gehiengo berri horrek gizartean duen garrantzia aldarrikatu du, "zahartzaroaren kultur iraultza-aren" baitan, eta zaharrek ostrazismora eta hutsalckeriara kondenatuta egon behar dutelako egungo ustea amaiaraziko du.
3. Azterketa soziologikoez iragartzen dutenez, 80 urtetik gorako lau milioi pertsona izango dira Espainian 2050. urtean. Hortaz, garrantzizkoa da planteatzea nola erantzun gizarteko zati horren beharrei, iraunaldi luzeko mendekotasun egoeran dauden pertsonen proportziorik handiena izanik bizitzako aro horretan.
4. Zaharrek egoitzetan sartzeari uko egitea zaharren beren ohiturak eta beharrak aldatu diren adierazgarri argia da; izan ere, bakardadezko gunetzat hartzen ziren zenbaitetan orain arte baina, ezberri gabe, baita laguntza errazago emateko gunetzat ere, bere onera ekarritako gizarte ingurua berriro ere sortu arte.
5. EInk 2001. urtean egin zuen Ezgaitasunei buruzko Inkestak Espainian 64 urtetik gorako bi milioi ezgaitu daudela adierazi zuen; beste azterketa batzuek, ordea, oso bestelako errealitatea erakutsi dute, mendekotasun egoeran dagoen pertsona kopurua lau edo bost aldiz handiagoa dela kalkulatu baitute.
6. Aldi berean, mendekotasuna zaharrekin gehien lotzen den fenomeno da eta, hortaz, zaharren mendekotasuna da herri-

tarren artean kopuru aldetik hedatuena dagoen mendekotasun forma, eta gizarte sektore bakarrari gehien eragiten diona.

7. Mendekotasunari aurre egiteko laguntza Espainiako gizarte politikaren arazo nagusietako bat bihurtzen ari da.
8. Ezinbestekoa da galdutako denbora berreskuratu eta Espainia Europako beste herrialde batzuen mailaren antzeko mailan jar-tzea; horretarako, sail espezifikoak bideratu beharko lirateke aurrekontuetan zerbitzu unibertsala izateko, eta hiru adminis-trazioek hartu beharko lukete parte hura aplikatzen, estaldu-rari, kudeaketari eta finantzazioari dagokienez.
9. "Zaintzaile informalak krisialdian" izateak zaharren mendeko-tasunari aurre egiteko laguntzaren alorreko protagonismoak eta ardura pribatuak eta publikoak berriro banatu beharra plantearazi du.
10. Nabarmena da Espainiako familiek askoz ere gehiago zaintzen dituztela mendekotasun egoeran dauden pertsonak beste gizarte batzuetakoek baino. Errealitate hori abiapuntu hartu-ta, enplegua sustatzea lehentasuntzat izango duen mendeko-tasunari aurre egiteko politikaren alde egiten da. Hain zuzen ere, gizarte eta osasun arloko zerbitzu unibertsal eta publiko-etan oinarritutako programaren alde egiten da mendekotasu-nari aurre egiteko.
11. Zerbitzu berriak sustatu eta tokiko gobernuek haiek gauza-tzen parte hartzeko joerak ez dirudi inolako oihartzuna due-nik Nafarroan.
12. Hainbat kexa eta galdera aurkeztu da, baina inoiz ere ez du ekarri tokiko erakundeen eginkizuna berrikustea edo gaurko-tzea, sarritan egoitza horien arduradunak diren heinean. Datu hori kontraesana da EBko hainbat estatuk eta lurraldek abian jarritako errealitatearen aldera; izan ere, udal administrazio-ek zaharren eta eman ditzaketen eta eman behar dituzten zerbitzuen inguruan duten eginkizun berria diseinatu da ber-tan interes handiz.

13. Zaharrei gizarte arreta emateko sistemak Toki Administrazioa, udalak eta mankomunitateak ditu oinarri hein handi batean, Nafarroako Gobernuak ere zerbitzuak emateko aukerari kalte egin ezean. Hala ere, uste dugu legediak administrazio publikoen eskumenen oinarritzko eskema zehaztu behar duela eta, batez ere, zerbitzuak finantzatzeko modua. Horretarako, adostasuna behar da, baita ezagutza handia ere, zerbitzuak ematean existitzen diren arazoengatik inguruan finantzazio formulen definizio eskasaren ondorioz.
14. Legez zehaztu behar dira erabiltzaileek zerbitzuak finantzatzeko ordaindu beharrekoa mugatzen duten elementuak, eta bakoitzak besteen aldean duen garrantzia espezifikoak xehatu.
15. Tokiko gobernuek funtsezko eginkizuna izan beharko lukete zerbitzu hauek kudeatzen, hala zerbitzuen hornikuntza zuzena handituz, nola egun dagoen eskaintza pribatua koordinatuz eta sustatuz.
16. Pentsio sistemarekin lotutako alderdien azterketan izandako aurrerapenak ez dute ekarri zaharren bizitza osatzen duten faktoreak zehaztea eta haietan sakontzea, batez ere, beste pertsonen eta hainbat komunitate zerbitzuren mendean dauden bizitza osatzen dutenak.
17. "Gizarte ongizate" kontzeptua alde batera utzita, hala Estatu-ko Administrazioak, nola autonomia erkidegoetakoek gizarte eta osasun esparruan sartu izan dute historikoki zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntza. Definizio modernoa da hori, baina hutsik egon da historikoki, eta hala jarraitzen du.
18. Foru Komunitateko egoitzen sare nagusia "irabazi asmorik gabeko egoitzek" edo merkataritza arlokoak ez diren egoitzek osatzen dute eta, hari erreparatuz gero, administrazioen utzikeriak mendekotasun egoeran dauden zaharrentzako laguntza magma bihurtu duela ikusiko dugu.
19. "Mendekotasuna medikalizatzea" –laguntza osasun esparruan eman nahia– osasun publikoarentzako finantza arazo

larria bihurtzeko arriskua izan liteke, kudeaketa defizit handiagoa duen zenbait autonomia erkidegotan batez ere.

20. Planifikazioa egiteko, errealitatearen berri izan behar da bederen, beharrak antzeman eta hierarkizatu eta helburuak finkatzea. Hala ere, Foru Komunitateko zaharrei buruzko datu gaurkotuak izatea ia ezinezkoa da egun. Izan ere,
 - eremukako hainbat banaketa dago Nafarroan: osasun arloko oinarrizko eremuak, I. Plan Gerontologikoko eremuak, mekanizatutako mugigarritasuneko eremuak, Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Zuzentzauek ezarritako eremu funtzionalak...
 - hainbat sistema erabiltzen da gizarte zerbitzuei buruzko informazio estatistikoa biltzeko: S.I.P.S.S. eta S.I.U.S.S.
 - osasun zerbitzuei (arreta berezituari eta lehen mailako arretari) buruzko informazioa biltzeko hainbat sistema ere dago.
 - ez dugu antzeman batasunik zaharrek denbora luzea ematen duten beste esparru batzuetako (egoitzetako, eguneko zentroetako, klubetako, elkarteetako eta sindikatu etako) informazio estatistikoa izateko sistemetan.
21. Zaharrei buruzko informazio egokirik ez izatea kezagarria da.
22. Familiak zaintzen ditu zaharrak batez ere, baina babes eta heziketa eskasa ematen zaio. Halaber, etxean mendekotasun egoeran dauden zaharrak dituzten familiak laguntzeko esku-hartze programen eskaintza falta da.
23. Zaharrak erakundeetan sartzeak mendekotasun egoeran dauden zaharrei arreta emateko baliabide berezitua izan beharko luke, aldi horren aurrekoa izan beharrean. Bildu dugun informazioaren arabera, ordea, zaharrek erabiltzen duten baliabidea bihurtu da, beste zerbitzu batzuen (besteak beste, etxeko arretaren) eskasia edo haiek eskuratzeko mugak direla-eta.

Ikuspuntu horretatik interpretatu behar da egoitza eta toki gehiago izatea azkenaldian, eta etxeko arretaren hazkunde eskasa nabarmen gainditzea.

24. Hala ere, programen baitan ere ez dago orekarik. Horren adierazgarri dira etxeko arreta mota biak: zuzeneko arreta eta laguntza ekonomikoa. Zahar gehiagok erabiltzen dute lehena, baina ordu kopurua urriagoa da. Izan ere, zaharrak zenbat eta arreta ordu gehiago behar, hau da, zaharra zenbat eta mendekotasun egoera handiagoan izan, orduan eta zuzeneko arreta gutxiago ematen zaio. Halakoetan (eguneko bi arreta ordu baino gehiago eman beharko liratekeenean), laguntza ekonomikoa ematen da. Diru laguntzak, ostera, ez du arreta bermatzen, ezta profesional trebatuek eman dezaten ere, kontrola eskasa edo hutsa delako.
25. Egoitzen programan, aurrekoaren kontrako hainbat alderdi dago. Esate baterako, euren kabuz molda daitezkeenentzako tokiek toki eskaintza osoaren erdia osatzen dute gutxi gorabehera. Ekonomiaren ikuspuntutik, berriz, toki libreak (inola-ko finantzazio publikorik ez dutenak) publikoei eta itunduei gailentzen zaizkie.
26. Alderdi ekonomikoa ere kezagarria da. Egoitzak ez daude gizarte eskubide unibertsaltzat onartuta, eta euren helburua ez dago definituta; hau da, ez dago argi zer nolako beharrak izan behar dituzten zaharrek baliabide mesedegarria izan daitezzen. Hortaz, honako paradoxa hau gertatzen da: euren kabuz molda daitezkeenentzako tokiak ez lirateke existitu behar eta, existituko balira ere, ez lirateke publikoki finantzatu behar. Bestalde, erabiltzaileek ekarpen handiegia egin behar dute laguntza behar dutenentzako tokiak ordaintzeko, baliaezintasuna eragiten duten gaixotasun mental edo fisikoak izanik eta beste batzuen beharra izanik eguneroko jarduerak egiteko. Horrenbestez, toki guztien finantzazioak publikoak izan beharko luke
27. "Zerbitzu hornikuntza honen kostu osoa bitara ordain liteke: batetik, aurrekontuen bidez ordain liteke eta, bestetik, erabil-

tzaileek ordain lezakete baterako ordainketa sistema baten bidez. Baterako ordainketak inola ere ez luke kopuru edo ehuneko berekoa izan behar erabiltzaile guztientzat; aitzitik, mailakatutako ekarpen gisa ezarri beharko litzateke norberaren errentaren arabera

28. Zuzeneko langileek, hau da, zaharrekin ordu gehien ematen duten pertsonak eta arretarik "kontuzkoena" ematen dietenek, gaur egun galdatzen ez den prestakuntza espezifikoak izan behar dute.
29. Foru Komunitateko araudiak nolabaiteko partaidetza sustatzen du, ikuspuntu mugatu eta paternalistatik betiere, baina ez da gauzatzen. Izan ere, egoitzetako inongo estamentuk ez du balioesten: ez zuzendaritzak, ez langileek, ez egoiliarrek berek.
30. Nafarroako Gobernuak zahar etxeetan kalitate planak izan daitezkeen eskatzea zaharrei ematen zaien arreta bermatzeko bidetzat hartu beharko litzateke.
31. Erakundeetan sartzen diren zaharren eskubideen alde egin beharra errazagoa izango litzateke kalitate plana sustatuko balitz; hartara, egoiliarrei arreta egokia ematen dietela egiaztatatu beharko lukete egoitzek.
32. Ezinbestekoa dirudi ikuskaritza zerbitzua berriro definitu eta sendotzea, egoiliarren eskubideen defentsa, zerbitzuen kalitatea eta diru publikoaren kontrola bermatzeko.
33. Hartu beharreko neurrien artean, egoitzei buruzko araudi orokorra gaurkotu beharra dago, besteak beste, bere baitan zehapen araubidea har dezan; halaber, ikuskaritza zerbitzua indartu behar da, langile eta bitarteko egokiak izan ditzan.
34. Irabazi asmorik gabeko egoitza publikoek eta pribatuak hiru-garren adinekoentzako laguntza sistemen bilakaeraren eta "historiaren bide erdian" duten eremuak eragozpen larriak eragin ditu –gaur egun ere eragiten ditu– martxan jarraitze-

ari dagokionez, eta baita hutsuneak ere zerbitzu mota honen kudeaketa kontzeptuari dagokionez; hutsune horiek udal finantza arazo larrien ondorio ere izan daitezke.

35. Egoitza hauen ezaugarriarik nabarmenena kokalekua da. Nafarroako hiribildu esanguratsurik gehienetan barrena sakabainatuta daude eta, hartara, Foru Komunitateko zaharren euskarria osatzen dute.
36. Egoitzen heren batek diotenez, zailtasunak dituzte langileak kontratatzeko, igandetan eta jaiegunetan lan egin behar delako; beste batzuek, berriz, lanpostuetarako zenbait hautaigaik ez duela laguntza zuzeneko zentroetan lan egin nahi, ezta asteburuko ordutegian ere. Hori guztia dela-eta, ostalaritza sektorean dagoen egoeraren antzeko egoera jazotzen da, lan ordutegiek langileak aurkitzea eragozten dutelako zenbaitetan.
37. Garrantzitsua da egungo finantzazio sistema erreformatzea. Eragileen arteko tratu ezberdintasunak desagerrarazi behar dira, eta finantzazio nahikoa bermatu.
38. Irabazi asmorik gabeko zentroetako instalazioak mantentzeko eta hobetzeko laguntzak ezartzea. Hartara, alde horretatik egoitza pribatuen mesedetan dagoen bereizkeria desagertuko litzateke; izan ere, haiekiko itunek bertako azpiegiturak finantzatzea aurreikusten dute, baina irabazi asmorik gabeko egoitzek, berriz, ezin dituzte kargatu erabiltzaileei toki bakoitzeko kobratzen dieten prezioan.
39. Egoitzei dagokienez, berebiziko garrantzia du sektore publikoa eta pribatua programatzeko/antolatzeke oinarritzko irizpideak planteatzeak.
40. Gizarte arloko eta gizarte eta osasun arloko baliabideak optimizatzeko, horiek lurraldeen artean orekaz banatzeko, eta herritar guztientzako oinarritzko kalitatea eta ekimen pribatuko kudeatzaileen eta arduradunen beren segurtasuna bermatzeko –GKE, fundazioak, gizarte ekonomiaren alorreko

enpresak, ordena erlijiosoak eta merkataritza enpresak barne-, beharrezkoak dira administrazio publikoen eta ekimen pribatuaren arteko koordinazio eta lankidetzaren bideratzeko baliabide egonkorak.

41. Administrazioaren eta sektore pribatuaren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren barruan, zentroak eta zerbitzuak homologatzeko irizpideak, oinarrizko kalitate arauak eta kontrolatzeko eta ikuskatzeko moduak sartu beharko lirateke.
42. Administrazio autonomikoek eskakizun maila handiagoa izan beharko lukete zerbitzu eta zentro pribatuak kontrolatzen, hala zerbitzuen homologazioari dagokionez abian jartzen direnean, nola urtero zerbitzuen funtzionamenduaren jarraipena egiteari dagokionez.
43. Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legeak aipatzen dituen Gizarte Segurantzako banakako laguntza ekonomikoak legez finkatu behar dira, herritarrek administrazio publikoei eska dakizkiekeen eskubideen berri izan dezaten, zenbateko osoaren berri eta kasuan-kasuan bete behar diren baldintzen berri. Horien kopurua aipatzean, honako hau dio egungo lege araudiak: "Gutxieneko helburua da baliabiderik gabeko Nafarroako zahar guztiek Gizarte Segurantzako gutxieneko pensioaren adinakoa izan dezaten, euren familiarterako ingurune naturalean mantentzea". Lege araudi horrek ez du edukirik, eta ez du balio eskatzeko moduko eskubide ekonomikoak eta betebeharrak osatzeko. Hortaz, legeak laguntza ekonomikoen zenbatekoa eta horiek jasotzeko bete beharreko baldintzak finkatu behar ditu.
44. Zaharrentzako gainerako zerbitzu gehienak ere ez dira eska daitezkeen eskubideak, legeak termino lausoak eta zehaztugabeak baitarabiltza, hala nola, "sustatzea", "zerbitzuak indartzea" eta "kontuan hartzea". Adiera horiek ez dute inposatzeko ahalmenik eta, hortaz, legeak eskubide horien inguruan egiten dituen aipamenak asmo deklarazio hutsak dira, botere publikoak inola ere lotesten ez dituztenak eta, beraz, herritarrek eska ezin ditzaketenak. Hori dela-eta, beharrezkoa

da lege mailako arauen bitartez arautzea gizarte zerbitzu guztietako funtsezko elementuak

45. Zaharrei ematen zaizkien zerbitzu publiko nagusiak (etxeko laguntza, euren kasa molda daitezkeenentzako eta laguntza behar dutenentzako egoitzetako arreta, eguneko zentroak eta zaharrei eman beharreko gainerako zerbitzuak) legez arautu behar dira, funtsezko elementuei dagokienez bederen. Nolanahi ere, egungo legediak apenas eskaintzen du elementu horiek gutxienez irudikatzen eta identifikatzen lagunduko duen araudi materialik, zerbitzuak aipatu eta araudiaren garapenera lotzen baita; hain zuzen ere, bertan ageri da araudia. Horrenbestez, uste dugu legea dela gizarte zerbitzuak, formalki ez ezik, materialki ere arautzeko tresna egoki eta beharrezkoa.
46. Ezinbestekoa da Eskubideen Karta egitea legez, zaharrentzat sortutako zerbitzu publikoen erabiltzaileek eska ditzaketen eskubide guztiak bilduko dituen; hala zaharren etxean bertan, nola egoitzetan eta zentro analogoetan eman litezkeen zerbitzuen erabiltzaileek eska ditzaketen eskubideak azaldu beharko lirateke bertan.
47. Erabiltzaileentzako barne araudiak finkatu beharko lituzke zentro bakoitzeko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, legearekin eta gainerako xedapen orokorrekin bat.
48. Zehapen araubidea ez da nahikoa, eta arau hausteen tipifikazioa eta arau hausteen mailakatze sistema zehaztugabeak eta osatugabeak dira. Legediak araututako zehapen prozedura ere oinarrizkoegia da, eta nabarmen hobetu daiteke. Alde horretatik, zentroak ikuskatzeko ekintzak arautu eta formalizatu behar dira, eta dituzten eginkizun garrantzitsuak gauzatzeko baliabide nahikoak esleitu, zentroen funtzionamendu zuzena eta erabiltzaileek merezi duten babesa bermatzearren
49. Ezinbestekoa da antolamendu juridikoa sakon berrikustea, eta lege osoa ematea, gizarte zerbitzuen esparrua edo eredia

zehatz-mehatz definitu eta zaharrek eska ditzaketen zerbitzu publikoak eta horretarako baldintzak zehazteko.

50. Gaur egun etxeko laguntza arautzen duen araua aldatu behar da lehenbailehen, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emana, Konstituzioko printzipioen arabera egokitzearren.

11. gomendioak

LEHENBIZIKOA: INFORMAZIOARI BURUZ

Foru Administrazioaren erantzukizuna eta eskumenak kontuan hartuta, adineko pertsonen mendekotasunari aurre egiteko laguntzak abiapuntu izan behar du beharrak eta baliabideak benetan zeintzuk diren jakitea, bi aspektu horiek zinetan nola dauden jakitea galarazten duten sakabanaketa eta zailtasuna gainditzeko. Alde horretatik, behar-beharrezkoa da estatistika-sistema bat egitea, beharren gainean aurreikuspenez jokatu bada eta eskura dauden laguntza-baliabideak nahiz horrek dakarren inbertsioa egokiro administratuko badira. Premia handi-handikoa da zaharrendako baliabideen gaineko estatistika-plannaren aplikazioa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren esparruan.

BIGARRENA: BALIABIDEEN ADMINISTRAZIO OREKATUARI BURUZ

Adineko pertsoneri arreta egiteko ekimenek dituzten baliabideak benetan zeintzuk diren jakiteko, zaharrendako mendekotasunari aurre egiteko laguntzaren baliabide plana egin behar da, aipatu baliabideen eskuragarritasuna unean uneko informazio eguneratua oinarritua kuantifikatzeko. Horrela, baliabideak beharretara moldatuko dira, beste edonolako interferentziarik gabe, Administrazioaren eraginkortasun handiagoaren eta herritarren ongizatearen mesedetan egindakoak izan ezik. Diru baliabideak zentzu batean ala bestean banatzeko lehentasunak kalte egin diezaioke adineko pertsonen laguntzari eta baliabide publikoen kudeaketa ez da eraginkorragoa izanen.

HIRUGARRENA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESKUMENARI BURUZ

Administrazioen eskumen-garapenak eskumen horien banaketa argia izan behar du oinarri eta, era berean, Administrazio bakoitzak zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko azterketa egin behar du. Interes berezia eman beharko litzaioke Toki Administrazioak egin beharreko lanari, eskumenak eta horiei dagokien finantzaketa

taxutuz, delako eskumenak eraginkortasunez gara ditzaten. Izan ere, eskumen horiek komenigarriak izateaz gain, Nafarroan ezinbestekoak eta ardatzak ere izanen dira etorkizunean.

Hirugarren adinarendako Gizarte Arretarako egungo sistema, hein handian, Toki Administrazioan oinarritua dago –Udalak eta Mankomunitateak–, ahaztu gabe Nafarroako Gobernuak ere zerbitzuak ematen dituela. Legeak administrazio publiko horien eskumenen oinarriko eskema zehaztu behar du eta, bereziki, zerbitzuak finantzatzeko modua. Horretarako, ahalik eta lasterren, aurretik hitzarmen bat egin beharko litzateke eta jakin zeintzuk diren zerbitzuak ematean dauden arazoak, ez baitaude behar bezala zehaztuak zerbitzu horiek finantzatzeko formulak.

LAUGARRENA: ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA ZERBITZUEN FINANTZAKETARI BURUZ

Hainbat ekimenek sustaturik, hainbat zerbitzu sortu dira Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiten laguntzeko, eta horrek esan nahi du zerbitzu horiek "errentagarri" direla baliabideak zentzuz kudeatuta, eta diru publikoen ekarpena ere izan da hitzarmenen edo dirulaguntzen bidez. Gero eta garrantzi eta protagonismo handiagoa hartu dute laguntza behar duten pertsonendako egoitzek. Hori ikusita, zentzuz kudeatu behar dira sektore publikoak, gaur egun, zuzenean edo aipatu hitzarmenen bidez, ematen dituen zerbitzuak, bai eta zerbitzuen finantzaketa ere. Zerbitzuak handitu eta berrantolatu behar dira, irabazi asmorik gabeko zentroen ekarpena aipatu sarearen egitura nagusia izan dadin. Betiere, aipatu zerbitzuentzat finantzaketa sistema mistoa antolatu beharko litzateke. Batetik, zerga politikek jomuga duten Nafarroako aurrekontuen kargura; eta, bestetik, erabiltzaileen ekarpenak elkar-ordainketa sisteman, baina ez luke inola ere zenbateko edo portzentaje bakarra ezarri behar. Hau da, erabiltzailearen ekarpena kontribuzio progresibo gisa ezarri beharko litzateke, bakoitzak eskura duen errentaren arabera.

Zaharren mendekotasunari aurre egiteko zerbitzuen finantzaketa sistema eguneratzeak kontuan hartu behar du irabazi asmorik gabeko egoi-

tzen egoera bere osoan eta banan-banan. Egoitza horiek garrantzi handia dute Nafarroan gizarteari eta geografiari begira eta horri modu orekatuan egin behar zaio arreta, bestelako zerbitzu eta ekimenen aldean. Hori ez da kontraesankorra kudeaketa sistema parekatua eta eraginkorra martxan jartzeko dagoen beharrarekin, zenbait kasutan premiarekin, ezta Foru Administrazioak behar diren kontu orotan zentzuz esku hartzearekin ere –juridikoak, ekonomikoak, kudeaketakoak-. Hori guztia, delako zentro horiei balioa emateko, egoitzetan dauden adinekoei eta familia kideei zerbitzuak ahalik eta baldintzarik onenetan ematea ziurtatzeko eta, azkenik, kasu askotan gizarte ekimen hori abi- arazi zutenen borondatea xede onera eramateko.

Bestetik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak aipatzen dituen Gizarte Segurantzaren sistemarenak bezalakoak ez diren banakako laguntza ekonomikoak legez zehatz-mehatz finkatu behar dira, herritarrek Administrazio Publikoei eska dakizkiekeen eskubideen berri izan dezaten, zenbateko osoaren berri eta kasuan-kasuan bete behar diren baldintzen berri. Zenbatekoari dagokion egungo lege erregulazioa edukiz hutsik dago eta ez du balio eskatzeko moduko eskubide ekonomikoak eta betebeharrak eratzeko. Hortaz, legeak laguntza ekonomikoen zenbatekoa eta horiek jasotzeko bete behar diren baldintzak finkatu behar ditu.

BOSGARRENA: MENDEKOTASUNEAN DAUDEN ZAHARREN ESKUBIDEEN BERMEARI BURUZ

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren bidez, Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da egoitzetako zaharren eskubideen kartak diseinatu eta aplikatzea zentro publikoetan nahiz pribatu hitzartuetan. Kartak zerbitzu horietako erabiltzaileek eska ditzaketen eskubide guztiak jaso behar ditu, bai eta egoitzaz kanpoko laguntza etxean bertan jasotzen dutenen eskubideak ere. Era berean, Erabiltzaileendako Barne Erregelamenduak oinarritzko araua izan behar du, egoitza bakoitzeko erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak guztiak finkatzeko, betiere legearekin eta gainerako xedapen orokorrekin bat

Bestetik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak egoitzetan parte hartzeko arauak berrikusi behar ditu, haiek eguneratzeko eta

agerian uzteko, betiere partaidetzaren ikuspegi demokratikoagoan oinarrituta eta, aldi berean, Departamendu horretako ikuskaritza zerbitzuek hein handiagoan ziurtatu behar dute partaidetza, legez dituen beharrak betetzeko eta arautzen diren partaidetza sistemen gaineko sinesgarritasuna berreskuratzeko.

SEIGARRENA: MENDEKOTASUNA ETA LANARI BURUZ

Zaharren mendekotasunaren eta familia kideen arteko lotura estua agerian utzita, Administrazio Publikoek mendekotasunari aurre egiteko laguntza planak honela bideratu beharko lirateke: laguntza horren bateragarritasunak bideragarri eta eraginkor izan beharko luke mendekotasunean dagoen zaharren familia kideen lan eta gizarte bizitza autonomoekin. Horri buruzko baliabide zehatzak behar-beharrezkoak dira mendekotasunari aurre egiteko laguntzetan, bestelako ondorio txarrik gerta ez dadin eta, are gutxiago, familia kideen gaitasun eta garapen pertsonala ez mugatzeko.

Horrela, sektore horretan lana sustatzea gizarteari eta ekonomiari begira komenigarria izateaz gain, egiturari begira ere beharrezkoa bada, jende guztiarendako gizarte eta osasun zerbitzu publikoek aldaketa eragin dezaten egungo familia/laguntza egituran, hau da, egitura hori profesionalagoa eta emakumearentzat askatzaileagoa izan dadin, bereziki landa-eremuan.

ZAZPIGARRENA: MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO FORU POLITIKEN ALDEKO ARAUAK

Lege-lerruna duten arauak erabat erregulatu behar dituzte Gizarte Zerbitzuetako laguntza guztien funtsezko elementuak, zaharrek eskatzeko moduko eskubideak izan daitezen; hartara, araudi berri zehatza behar da hizkuntzan, helburuetan eta zerbitzuetan; arau berriak izaera inositibo behar du eta botere publikoak lotu, herritarrek eskatzeko modukoa.

Zaharrei ematen zaizkien zerbitzu publiko nagusiak (etxeko laguntza, berez baliatzen ahal direnendako eta laguntza behar dutenendako egoitzetako arreta, eguneko zentroak eta zaharrei eman beharreko gai-

nerako zerbitzuak) legez arautu behar dira, funtsezko elementuei dago-kienez bederen. Izan ere, egungo legeek ia ez dute elementu horiek gutxienez irudikatzen eta identifikatzen lagunduko duen erregulazio materialik eskaintzen, lege horiek zerbitzuak aipatzera eta erregelamendua garatzera mugatzen baitira eta, hain zuzen ere, bertan ageri da araudia. Horrenbestez, uste dugu legea dela gizarte zerbitzuak, formal-ki ez ezik, materialki ere arautzeko tresna egoki eta beharrezkoa.

ZORTZIGARRENA: IKUSKARITZA ETA ZEHAPEN ARAUEI BURUZ

Zehapen-araubideari dagokionez, gaur egungoa ez da nahikoa. Arauan arau-hausteen tipifikazio argia eta zehatza sartu behar da, bai eta jokabide arau-hausleen graduazio sistema ere. Era berean, zehapen-prozedura nabarmen hobetu behar da, egungoa oinarrizkoegia baita. Alde horretatik, zentroak ikuskatzeko jarduerak arautu eta formalizatu behar dira, eta behar adina baliabide izan behar dute, beren zeregin garrantzitsuak betetzeko, betiere zentroen funtzionamendu egokia eta erabiltzaileen behar bezalako babesa ziurtatzeari begira.

BEDERATZIGARRENA: NAFARROAN ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO ARAU ESPARRUARI BURUZ

Behar-beharrezkoa da antolamendu juridikoa sakon berrikustea eta lege osoa egitea. Lege horrek gizarte zerbitzuen esparrua edo erdua zehatz-mehatz definitu beharko luke eta, aldi berean, erabaki zeintzuk diren zaharrek eta beren baldintzek eska ditzaketen zerbitzu publikoak.

Premia osoz, ahalik eta lasterren aldatu behar da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak etxez etxeko laguntza arautzeko eman duen araua, konstituzioaren printzipioetara moldatzeko.

12. bibliografia

12. BIBLIOGRAFIA

- Rodríguez Cabrero, Gregorio eta Monserrat Codorniu, Julia. Modelos de atención sociosanitaria. Una aproximación a los costes de la dependencia. Observatorio de Personas mayores. IMSERSO. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa. 2002
- Los derechos de las personas mayores. Zahartzeari buruzko GKEen Munduko Foroko ondorioak. Madril, 2002
- INFOGER azterketa. La opinión de los mayores sobre las residencias y otros servicios sociosanitarios.
- Las personas mayores en España. IMSERSO 2002 txostena. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa. 2002
- Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko Ekintza Plana. 2002
- La atención a domicilio en Navarra. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua. Nafarroako Gobernua.
- El maltrato de las personas de edad: Reconocer y responder al maltrato de las personas de edad en un contexto. Idazkari nagusiaren txostena. Kontseilu Ekonomiko eta Soziala. Nazio Batuak. 2002
- El futuro de la asistencia sanitaria y de la atención a las personas mayores: Garantizar la accesibilidad, la calidad y la sostenibilidad financiera. Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeen Batzordeari egindako adierazpenaren txostena. Europako Parlamentua. Txostengilea: Mario Mantovani. 2002
- Seminario Internacional sobre la Vejez, como una etapa de desarrollo personal. IMSERSO. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa. 2003
- Estudio de necesidades de las residencias de personas mayores agrupadas en LARES. Zaharrei Laguntzeko Egoitzen eta Zerbitzuen Nafarroako Elkarteko sektore solidarioa. 2002

- Hegyi, Gyula. Los retos de la política social para nuestras sociedades en proceso de envejecimiento. 9615 dokumentua (talde sozialista). 2002. Gizarte, Osasun eta Familia Arazoetarako batzordearentzako txostena. Europako Parlamentua.
- Miguel Polo, José Antonio. Descripción básica del actual sistema público de protección social a las personas mayores en España. "Envejecer en España"-n. Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarra. 2002. IMSERSO. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa.
- Pérez Ortiz, Lourdes. Gasto público en vejez. "Envejecer en España"-n. Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarra. 2002. IMSERSO. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa.
- Mirando al futuro. "Envejecer en España"-n. Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarra. 2002. IMSERSO. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa.

13. zaharrak nafarroako parlamentuan

13. ZAHARRAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN

FORU LEGEAK

	ZK.	DATA
Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea		
NAO	44	1983-04-08
EAO	148	1983-06-22

Gizarte zerbitzuen esparruko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea		
NAO	131	1985-10-30
EAO	28	1986-02-01

Azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea, gizarte zerbitzuen esparruko baimenen, arau hausteen eta zehapenen eraentzari buruzkoa

NAO	140	1990-11-19
EAO	71	1991-03-23
	ZK.	DATA

Abenduaren 24ko 20/1991 Foru Legea, ez-ohiko kreditu bat gaitzen duena, kontribuzio gabeko pentsioen eta 65 urtetik gorako laguntzen hartzaileentzat osagarri bat ezartzeko.

NAO	165	1991-12-30
-----	-----	------------

«San Frantzisko Xabierkoa» zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko apirilaren 6ko 13/1999 Foru Legea.

NAO	9	1999-04-09
EAO	133	1999-06-04

Abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legea, zahar etxeetako egonaldia finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena

NAO	5	2001-01-10
EAO	45	2001-02-21

Pertsona zaharrak familian hartzeari buruzko abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legea

NAO	150	2002-12-13
EAO	13	2003-01-15

Otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legea, idazketa berria ematen diona
 Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren
 30eko 22/1998 Foru Legearen 67-bis artikuluari, non arautzen baita
 alargun-pentsioen kenkaria.

NAO	22	2004-02-20
EAO	152	2004-06-24

IDATZIZKO GALDERAK

Tuterako zahar etxeari buruzko galdera

Izquierda Unida de Navarra –

Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB)

parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	51	1996-10-23
Idatzizko erantzuna	NPAO	65	1996-11-28

“Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak
 egiteko transferentziak, toki entitateentzat” kontusailaren
 aurrekontu-betetzeari buruzko galdera.

Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	37	1997-05-26
Idatzizko erantzuna	NPAO	62	1997-09-22

“Hirugarren adineko zentroetako obra eta ekipamenduak
 egiteko transferentziak, irabazi asmorik gabeko entitateentzat”
 kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera.

Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	37	26-05-1997
Idatzizko erantzuna	NPAO	62	1997-09-22

“Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako
 transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren
 betetze-mailari buruzko galdera.

Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	67	1997-10-21
Idatzizko erantzuna	NPAO	71	1998-09-22

		ZK.	DATA
Zaharrentzako egoitza Betelun jartzeko egin den esleipenari buruzko galdera.			
Askotariko parlamentu-taldea			
Tramitera onartzea	NPAO	13	1998-02-16
Idatzizko erantzuna	NPAO	21	1999-03-12
	ZK.	DATA	

Ezintasunen bat izanik, zaharren egoitzetan sar daitezkeen

65 urtetik goitiko pertsonen kopuruari buruzko galdera.

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea (CDN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	39	1998-06-03
Idatzizko erantzuna	NPAO	41	1999-05-21

Iruñean eta Iruñerrian hirugarren adinekoentzako eraiki

diren egoitzei buruzko galdera.

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea (CDN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	39	1998-06-03
Idatzizko erantzuna	NPAO	43	1999-05-26

Zaharrei ematen zaien podologia arretari buruzko galdera

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua

(IUN-NEB) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	72	2000-09-18
--------------------	------	----	------------

Galdera, zahar-etxeen proiektuen finantziarioari buruzkoa.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	68	2001-06-20
Idatzizko erantzuna	NPAO	127	2001-12-19

Galdera, zahar-etxeetako erabiltzaileek sortutako zorrari buruzkoa.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	16	2003-02-24
Idatzizko erantzuna	NPAO	53	2003-05-16

Galdera, laguntza behar duten zaharrak pabiloi urdinetik

El Vergel zahar-etxera eraman izanari buruzkoa.

Aralar parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	31	2004-04-15
Idatzizko erantzuna	NPAO	97	2004-11-10

Etxeko arretarako laguntzak ematean aplikatu beharreko irizpideei eta baremoei buruzko galdera.

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	53	2004-06-15
Idatzizko erantzuna	NPAO	2004-07-15	

Zahar etxeetako elikaduraren osasun kontrolari buruzko galdera.

Aralar parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	85	2004-10-18
--------------------	------	----	------------

Zahar etxeetako elikaduraren kontrol dietetikoari buruzko galdera.

Aralar parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	85	2004-10-18
--------------------	------	----	------------

Zahar etxeekiko itunen kostuari buruzko galdera.

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	92	2004-11-02
--------------------	------	----	------------

Zaharrei gizarte zerbitzuak emateari buruzko galdera.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	95	2004-11-08
--------------------	------	----	------------

Lizarrako Santo Domingo zahar etxean paradore nazional berria kokatzeari buruzko galdera.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	92	2004-11-02
--------------------	------	----	------------

Pertsona zaharrak familian hartzeari buruzko 34/2002

Foru Legearen garapenari buruzko galdera.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	92	2004-11-02
--------------------	------	----	------------

Zaharrei gizarte zerbitzuak emateari buruzko galdera.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	95	2004-11-08
--------------------	------	----	------------

Zentro psikogeriatrikoekiko ituna⁷ izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea

NPAO

95

2004-11-08

GOBERNUAK BATZORDEEN AURREAN EGINDAKO AGERRALDIAK

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariak Gizarte Gaietako Batzordearen aurrean egindako agerraldia, etxeko arretaren berrantolaketa berri emateko

Askotariko parlamentu-taldea

Agerraldiaren data: 2002-11-12

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariak Gizarte Gaietako Batzordearen aurrean egindako agerraldia, El Vergel zahar etxea berritzeko lanetan antzemandako eskasien berri emateko

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Bilkuraren data: 1999-11-17

BATZORDEEN LAN SAIOAK

AXOLAKo ordezkarietako lan saioa, Nafarroako Gobernuaren politikaren berri emateko, gizarte babeserako sistema publikoa hobetzeko eta babesteko

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) parlamentu-taldea

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Bilkuraren data: 2002-02-07

AXOLA Gizarte Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Nafarroako Elkarteko ordezkariarikiko lan saioa, euren proposamenen berri emateko, etxeko arreta berrantolatzeke

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB)
parlamentu-taldea

Bilkuraren data: 2002-10-31

AXOLAKo ordezkariarikiko lan saioa, elkarteak egindako “Pertsona zaharrentzako etxeak Nafarroan: arriskuan dagoen arreta” izeneko dokumentuaren berri emateko Aralar parlamentu-taldea

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB)
parlamentu-taldea

Bilkuraren data: 2004-06-15

MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan.

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) parlamentu-taldea

Eusko Alkartasuna–Eusko Alderdi Jeltzalea-
Partido Nacionalista Vasco parlamentu-taldea

Askoariko parlamentu-taldea

Mahaiaren erabakia: 2002-11-19

Tramitera onartzea	NPAO	112	2002-11-27
Onartua	NPAO	22	2003-03-04

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako etxeko laguntza zerbitzuak bermatzeko zenbait ekintza gauza ditzan.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) parlamentu-taldea

Tramitera onartzea	NPAO	95	2004-11-08
--------------------	------	----	------------

PARLAMENTUKO EKIMEN BAZTERTUAK EDO INDARGABETUAK

FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituztenei, pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

Aralar parlamentu-taldea

Proposamena	NPAO	15	2003-11-03
Aintzat ez hartua	NPAO	21	2003-11-17

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

Aralar parlamentu-taldea

Proposamena	NPAO	85	2004-10-18
Aintzat ez hartua	NPAO	94	2004-11-05

MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxez etxeko laguntzaren arloko politikak gara ditzan.

Askotariko parlamentu-taldea

Mahaiaren erabakia: 2002-11-19

Tramitera onartzea	NPAO	112	2002-11-27
Onartua	NPAO	22	2003-03-04



Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa